EGAN

1-6

1.976

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Pág.

XALBADOR: Juan San Martín 3

ANTONIO ARRUE: Juan San Martín 15

1812 g. URTEKO EUSKAL GUTUN BAT: A. Irigaray 19

ARTURO CAMPION - JAUN DONE ANTXIKO XABIERREKO'REN MAIÑADA: J. Etxaide . 23

SAGARDOA FUEROTAN: J. Uría 49

JOSE M.ª IPARRAGUIRRE: I. Fagoaga 71

LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE'REN: Bittor Egurrola 93

BITOR GARITAONAINDIA'REN EHUNGARREN URTEBURUAN: Juan San Martín 111

JOXE ERRAMUN ZUBILLAGA - EUSKALDUNAK ARGENTINAN: Juan San Martín 115

ISIDORO FAGOAGA: Juan San Martín 119

LOUIS DASSANCE: Juan San Martín 123

GUEREDIAGAKOEKAZ: M. B. Altzola 127

OLERKIAK: P. Zabaleta 133

BIDASOA POZA ETA MIÑA: J. A. Irigaray 165

Bittor Mujika 171

MUGA: Gaztarrotz 173

OTSOA TA BILDOTSA: Xabier Gereño 179

ITXAROPEN TA REALIDADEA: S. Garmendia . 185

LAZQUQOFALION: F. Artola 195

ITXASO: Etxeberria'tar P.S.I. 203

BETI IKASLE: Etxeberria'tar P.S.J. 211

OTSOARENA: Etxeberria'tar P.S.J. 219

EUSKAL IAKINTZA ALEAK: Etxeberria'tar P.S.J. 223

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excma. Diputación de Guipúzcoa.

Director: Luis Michelena.

Consejo de Redacción: Angel Irigaray y Luis Michelena.

Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

Litografía Danona, S. Coop. - Polígono Ugaldetxo - Oyarzun

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca | Vol. XXXVI | Enero-Diciembre 1976

Xalbador

J. SAN MARTIN

Heriotza mingarri batek ikutu gaitu euskaldunen bihotzak. Eta,

heriotzeak eginarazten
dauku zonbait gogoeta;

Bere omenaldi egunean hil zaigu Xalbador bertsolaria, bertsolari arruntaren mailetatik askoz goragoko dohainez Euskal Herri guzia maitasunez bereganatu zuen gizona. Holako poetarik guti izan du gure herriak, eta nekez sortuko zaigu beste bat. Uste gabean, oraindik sasoiko,

behin betikotz isildu zauku
gure errexiñoleta.

Ber berak bertsolari adiskide baten heriotzaz egin zituenetatik hartzen ditugu lerro hauek. Bere izateaz hoberik ezingo genuke asma. Halakoa bai zen Xalbadorren etorria gai sentikor bat mamitzean. Halakoa zen poeta honen bihotza. Eta hark lagun maitagarri bati eskainiak orain guk beretzat hartzea legezkoa deritzagu.

1976ko azaroaren zazpian, igandez, Euskal Herri guztitik heldutako jendez bete zen Urepel, Xalbadorren sorterria. Alde guzietakoak erakutsi nahi zioten beraganako borondatea eta zenbait sari. Bere bigarren liburua ere han aurkezten zen. Ni ere goizean goiz harako abiatu nintzen, baina bidean izan nuzn ezbehar batengatik gelditu nintzen bertaraino heldu gabe.

Bihotzeko eritasunez omenaldian bertan eraman zuen herioak, emo zioz leher eginik, eguneroko berrietatik irakurleak dakien bezala. Honegatik, ez naiz jardungo gauza bera esaten eta bertsolari adiskidearen artegintzaz eta gizontasunez oroitu nahi dut.

"Herria" eta "Gure Herria" aldizkarietatik ezagutu nituen bere lehen bertsoak, hirurogeia baino lehen, haietariko bat, "Esperantzarik gabeko amodioa" izenekoa, maiz irakurri ere bai. Egun batean Azkaineraino joan nintzen bera bertsotan entzutearren. 1960tik mugazemendiko txapelketetan hasi zen. Baxenabarreko euskarak ez zion laguntzen gipuzkoar publikoaren aurrean, baina bere bertsogintzaren ederra inork ukatu ezinezkoa zen. Egia esan, ez zen txapelketetarako hain yayoa, zeren gaia hain gogokoa ez zuenean bertso oso motelak ere egiten zituen. Beste batzuk betegarri eginak ere hark bezain ederrak egiten zekizkiten, baina berak ez. Berak, gai hunkigarri bat hartzen zuenean bestek baino goragoko mailetatik eramango zuen bere bertsoa. Epai-mahaikoentzat ere ez zen hain gauza erraza txapelketa batean bere balioak neurtzea. Baina baliorik handiena biharamunetik zenbait bertso herrian hedaturik aurkitzea zen. Lehen lehenik mugazandik, bere euskalkitik hurbil, baina denborarekin mugak hautsi zituen bere bertsogintza xarmantak.

Bertso horiek bazekarten esaldi eta egitura berririk gure garaiko bertsolaritzara. Hala ere, bere erroa herri kanta zaharretikakoa zuen Xalbadorrek. Bere bertsoak irakurriz laster konturatuko gara Euskal Herriaren kantategiaren jabe zela. "Dohaina eta lana" izeneko bertsoak Otxalde eta Etxahun bertso saioaren oroitza ekarriko digu, adibidez. Baina artegintza berri batekin. Lehengo bertsolarien gisa, zenbait klitxez baliatzeaz badaki, baina sorketa berrieri begira ariko zaigu. Sorketan aurkitzen zuen Xabadorrek bere gogoa. Sorketa ideiak, esaldiak eta bertsoaren egitura guzia eratzeaz. Adibiderik asko aurkituko dugu bere bertsoak irakurtzean, nahiz paperean idatzitakoetarik edo nahiz plazan bat-batean botatakoetatik. Sinbolojiaz ere ederki baliatzen zekien. Hara 1962ko Erregen eguneko saio hartan Donostian agurrez egin zuen hura:

Egun Erregen eguna da ta
nik ere hartu indarra,
nunbait ni ere Erregen gisa
bidean hasi beharra,
goizean etxetik erten eta
abiatu naiz azkarra,
gero Donostiaren par-parean
gelditu zeraut izarra.

Egun berean, Basarri, Uztapide eta Azpillagarekin batean musean jokatzea zuen gaitzat eta berari zegokion partetik grazia bizkor batean aritu zen. Orixek gogoko zuen Elizanbururen "Festa biharamuna", jokoaren partida hain ederki eramanezko bertsoak zirelako, baina egun hartan Xalbadorrek bat-batean jarri zituenak Elizanburuk paperean idatzi zituenak bezain onak ziren. Basarrikin pareja, beste bien kontra egin beharra zuen, eta hara hemen txandako hiru bertsoak soikik:

Zeinek dezake haueri
partida ekendu,
Uztapidek eskuetan
jokua omen du,
nik gaizki eginak otoi,
Basarri, konpondu,
Bainan gezur guziak
utzi ene kondu.

Baduela dionak
berdin bat ere eztu,
jokoan nihor ezpaita
nehoiz aski prestu,
etzazutela ibili
horren bertze jestu,
beldurra iduki gutaz
nola gauden esku.

Museko berri badakit
nik ere lehenago,
zonbait partida tabernan
jokaturik nago,
Uztapide erregez
beterik badago,
haundia tira zazu ta
txikira hordago.

Baina bertso apartekoen artean, bat-batekoetan behintzat, 1965eko Urte Berri eguneko txapelketakoak ditugu. Gaia, emazte hil zenaren soiñekoari bi bertso botatzea jarri ziotenean:

Pentsa zazute alargundu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oi!, ez dezala
ainitz gehiago luza,
orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihau ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak besterik;
ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan besterik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.

Baina guzi horiek nonbait ez ziren aski izan Xalbadorren bertsogintza behar bezala ulertzeko. Honelako bertsoak sailean betearren, gipuzkoarrak ez ziren konturatu hoien edertasunez. 1967ko txapelketan, epai mahaiak azken saioa Uztapidekin jokatzeko aurrera pasatu zuelako txistu joka hartu zuten bertsolari pare gabea. Txistuak ez ezik bazen han protesta ohiu eta bullarik ere. Baina Xalbador, isilune bat hartu bezain azkar hasi zen agurrezko bertso honekin:

Anai-arrebak, ez otoi, pentsa
neure gustura nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik;
zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik...

(Une honetan jendea txaloka hasi zen eta ezin jarraituz gelditu zen bertsolaria; gero, honela bukatu zuen bere bertso hau):

zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet oraindik!

Egun hartatik gipuzkoarren eta begirapenik hoberenak irabazi zituen Xalbadorrek. Orain, Xalbador bezala ezagutzen genuen Fernando Aire gizon maitagarri hura hitzeaz gipuzkoar jator askok izan dute egun hura beren oroipenean. Geroztik alde hontako herririk gehienetan entzun bait da Baxenabarkoaren abotsa.

Goian bego, fede sendo baten jabe zen Xalbador handia.

Odolaren mintzoa, hala du Xalbadorren liburuak izentzat. Bere gogoetazko, bertso hautatuak biltzen bai ditu liburu hontan. Orotarik bada. Baina batez ere, liburuaren bukaeraz jartzen duez azken agurrezko bertsoan ziguna:

zortaka ixurtzerat hor baitut utzia
herri huni diotan maitasun guzia.

Behar bada, bigarren titulutzat ongi zetorkion "Xalbadorren testamentua", Txirritak bera bizi zen artean argitaratu zuen liburu bakarri jarri zionaren araura. Egilearen sentipen eta pentsamenen bidez, bada hor zernahitarik; ezta bertso liburu soil bat.

Emil Larreren aintzin solas eder bat du ataritzat. Hitzaurregile honek, "egun oso batez irentsi baidut liburu hau, batean irakurriz eta bestean kantatuz", dio. Nik ere ezin izan dut eskutik utz liburuaren azkena jo arte.

Larrek aztertzen du liburuaren funtsa. Bi zatitan adiarazten digu egilearen bihotz kezkatia eta hari arantzapetik sortzen zaizkion loreak. Etxea eta familia, lana eta nekea, adiskideak, euskara eta herria, Jainkoa eta fedea nola diren Xalbadorren baitan; eta bere artegintzan, gogoetalari indartsua, poeta edo olerkari seriosa eta irripar eragilea. Hoiek ziren Xalbador bertsolariaren neurri oparotsuak. Ber berak Mikel Monako zenari jarritako bertsoak oroitarazten digu bere buru-bihotzen neurria eta beragatik esan genezake:

Penetan da etxea, penetan auzoa,
horiekin batean herri bat osoa;
gizon baten galtzea ez baita goxoa,
guziz, gizona bazen zu bezalakoa.

Odolaren mintzoa deritzan honek bertsolaritzako liburu guzien markak bete ditu. Bertsolari liburuak, gehienetan, era jakineko irakurlegoa izanen dute, bertsozaleen artekoa; baina Xalbadorren liburuarekin ezta holakorik gertatuko. Hain da aberatsa, bai gaiez eta bai eraz. Herri poesiaren arte aldetik bada zer irakur eta zer ikas. Edozein irakurlentzako aspertu ezinezko liburua da. Gainera, liburuaren haseran, lehen 32 orrialdeak hizlauz ditu eta Xalbadorrek honetan ere bere dohainak erakusten dizkigu. Orrialde hauetan bere gaztaroko zaletasunak eta bertsolaritza adiarazten dizkigu, launez ere oroituz.

Bertsolaritzaz, lehenago Manuel Lekuonak eskani zigun estudio sakon bat, arte eta teknikaren alderdiak ongi aztertzen dituena, eta historiak ere baditugu A. Zabalak eta S. Onaindiak eginak, baina bertsolariak bere ekintza bere barnetik ikusirik falta zitzaigun eta hau Xalbadorren liburuak betetzen digu; behinik behin bere ikusmoldetik erakusten diguna.

Xalbadorrek gaztetatik zuen kanturako zaletasuna eta gaztetxo zelarik ohartu zen larradietan zituen artzain lagunegandik euskaldunen kantuz. Beraz, euskal kantategia ezagutuaz jo zuen bertsolaritzara. Bertsolari izateko: "Nehork ez lezake sinets eni segurik zenbat gosta zautan", esango digu. Luzaz entseatuz, bere baitan ari eta ari burutzen joan zen:

Miatu behar laike ahal bezain barna,
lur hoberenak ere baitu bere lana.

Bertsolari zaharragoengandik jaso zituen erakutsietan, batek esan omen zion, "hobe zela poto egitea, ezen ez arrazoin txar bat emaitea bertsuaren bururatzeagatik".

Bertsolari ofizioa hartzearen nekeaz ere mintzatuko zaigu. Era berean ofizioa hartzetik irudimenaren bizkortzeaz. Bazekin bertsolaritza ez zela bere etxaldearen onurakor, baita ere osasunaren kalterako, baina hogei urtez laburtuko bazuen ere bere bizia, bere bizitik puxka bat gure herri maitearentzat emateaz konformatzen zen. Honegatik, holako gizon bategandik ez en harritzekoa honako ateraldi hau:

Nihori nehoiz ezin dut gorde
ene aurpegi iluna,
gorputza latza badaukat ere
bihotza daukat biguna.

Neurri eta pundueri garrantzi gehiegi ez ote zion ematen, batek galde egin zionean, hara zer erantzun zion: "arrazoinamendu txar bat ongi rima-

turik, pertsuago da, arrazoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Irinik hoberenarekin egin orea ere ez da ogi, labean axala egin artean". Baina, hori bai, pundu pobreak salatuko ditu, atzizki soilez edo azken silaba hutsez gaizki osatuak. Bertsu idazteaz ere gauza jakingarririk adiaraziko digu. Eta liburu hontako gehienak idatziak dira. Poema handi bat osatzen dutenak, gurasoengandik hasi, sortetxeari, herriari, artzaintzako ogibideari, amodioari, laguneri eta abar, hola jarraituko du liburu mardularen orrialdeak zehar.

Bertso biribilak, mami eta azalez ondo hornituak.

Gipuzkoaz ere asko oroitzen da. Euskaldun deserrituak, ez Espainiak eta ez Frantsiak beren estadupeko lurretan hartzerik nahi ez zituztenak bere etxean hartuko zituela esan zuenetik zenbait eragozpen izan zuen mugazemendik, eta Galarretako frontoian bertsoetan jardutzea debekatu ziotelako, bere sentipenak agertzen ditu 267. orrialdetik, baina probintzia honi zion maitasuna argi ta garbi erakusten digu 313. orrialdetik.

Hizkuntzagatik esaten dituenegatik zer esąn? Xalbadorri ere ongi sufriarazi zion gure egoerak, baita ere salatu mintzaira uzten duten anaiak:

Badakit askoz ere nukela hobea
nehoiz ez agertu ene dolorea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.

Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzunen du deihadar bipila:
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!

Fede sendo baten jabe zenez, moralaren alderdiak eliz dotrinan edo Bibliako adibidez epaituz baliatzen da. Hontan, bere iritziak, inguru beretik agertzen ditu, eta beti bertsoaren ederra ondo eramanez. Bertsogintzaren tresna nagusia hizkuntza zuenez ez da batere harritzekoa bere hizkuntzaganako maitasun hori:

Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.

J. S. M.

Antonio Arrue

J. SAN MARTIN

Uste gabeko berri beltz bat izan genuen 1976ko azaroaren 16an Antonio Arrue euskaltzaina eta EGAN aldizkari honen zuzendarietako bat eta kokaborarearen heriotzaz.

Igazko urtetik makalik zebilen, baina bere makaltasunez ere Euskaltzaindiko batzar guzietara agertzen zen eta, elkargoaren Gipuzkoako batzordeko buru bezala, azken ordura arte bete izan zituen bere eginkizun guziak eta inork ez genuen espero holako nahigabe beltzik.

Jaun honen lehen ekintzak aldetikakoak izan ziren, duela berrogeitamar urte ingurutik. Errepublika garaian Gipuzkoako Comunión Tradicionalista zeritzan karlisten alderdiko idazkari izan zen. Alderdi honen langile kartsua ez ezik hautezkundeetan hizlari bezala aritu zen, eta denbora haietan karlisten gogoak berbizteaz asko zor zaio.

Gerrate garaian bertan errege karlistaren alde jokatu zuen, guduaren agintaritzak bere eskuetara eraman nahirik eta alderdien batasunaren dekretoa eman zutenean desterrua izan zuen. Pasarte hau beti kontatzeko izaten zuen gure euskaltzainkideak, bere idealetan zintzo jokatzearen adibidez. 1967an, Gipuzkoako familien aldetik Gorteetako diputadutza hartu arte apenaz izan zuen politikazko kargu garrantzitsurik.

Bere ogibidez lege-gizona zen. Lekarotzen egin zituen lehen ikasaldiak eta ikasketa nagusiak Oviedo-ko Unibertsitatean. 1932an hasi zen "La Constancia" egunkarian euskaraz idazten. Garai haietan bere hitzaldirik gehienak ere euskaraz izaten ziren. 1954an euskalteain izendatua izan zen eta geroztik lan asko egina du Euskaltzaindiaren inguruan. Gainera, baita ere, Julio Urkijo Mintegiko zuzendaritzakoa zen bere sorrera sorreratik.

Gerraondoko bertsolaritza txapelketak antolatzen ere asko lagundu zuen. Batez ere, baimen asko berari esker lortu izan ziren eta gure artean euskararen aurreragintza lanetatik sortzen ziren oztopo eta larrialdietan ere makina bat aldiz lagundu zigun. Encomienda al Mérito Civil delakoaren jabe zen. Hoiegatik eta batez ere bere politikaren egoeragatik itzal handia zuen eta itzal horren babesera jotzen genuen, jakin jakinean laguntzarik ez zigula ukatuko. Bestalde, bere presentziak, euskara abertzale alderdi batzuen gauza soila ez zela erakusten zuen herriaren aurrean. Hizkuntza, arbasoegandik jabetu garen hizkuntza, herriarena bait da eta ez politikariena. Euskara ez da politikan negoziatzeko gauza bat, ez. Baina, bereiztu behar ditugu euskararen etsai daudenek, zeren hauek herriaren etsai bait daude.

Asteasun sortua, 1903an, baina aspaldiko urteetan Donostian bizi zen.

Idazle bezala, bere idatzi guziak bilduko baginuzke, uste baino naroagoa agertuko litzaiguke. EGAN, Euskera, El Fuerista, Zeruko Argia, eta abar, ehundakak artikuluak eta saioak idatzi ditu. Baita ere, euskal idazle eta euskaldungoan aritu ziren pertsonaje askori buruzko bio-bibliografia erazko hitzaldiak eman izan ditu. Hitzaldi hoiek idatzirik eramaten zituenez aipatu ditugun aldizkarietan argitaratuak daude. Hoietarik, une honetan gogoratzen garenak: Asteasuko Agirre, Gerriko, L. L. Bonaparte printzea, Mogel (***Peru Abarka*** liburuaren hitzaurrea), Azkue, Urruzuno, Loramendi eta abar.

Gerraondoko poesia berriaren hasierak ezagutzeko oso lan ederra da erdaraz idatzi zuen saiera bat, "Cuatro poetas vascos actuales", hitzaldiz emana eta gero Euskaltzaindiaren Euskera aldizkarian argitaratua.

Erderaz emandakoetarik beste hauek ere argitaratuak dira: "San Sebastián y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" eta "El bertsolari Bordel en el castillo donostiarra".

Baina euskararen arloan egin duen lanik bereziena gastronomiazkoa izan da noski. Euskal literaturan, nik dakidanik, hiru liburu soilik idatzi dira janaritzaz. Antonio Arruek, 1954tik hil arte EGAN aldizkariko zenbaki guzietan sail oso bat izan du "Jan-edanak" izenez. Grazia handiko idazkera zuen eta umore onik ezta falta janedaneko kontu hoietan. Bere lanok bilduko balira gastronomiazko liburu eder bat osatuko genuke, eta merezi du, zeren euskaraz ez baita gehiegi landu holako gaia. Sociedad Gastronómica Vasca delako elkartean ere bazkide zen eta bertako boletinean ere baditu zenbait lan. Baina denen gainez, gai hontaz eman duen lanik aberatsena EGAN aldizkarikoa izan da. Bertatik hartutako atal bat argitaratu genuen ***Hegatsez*** deritzan hiz-lauzko bilduman, Alejandrorekin elkarrizketan izenekoa, eta geuk dakigu zer harrera ona izan zuen irakurleen artean.

Euskaltzaindiaren nortasuna lortzeko lanetan ere gogoz jardun zen. Lehen lehendik izan zuen gogoko. Lehen jardun haiekin lortu ez bazen ere, geroko egoera hobeago batetik etorri bazen ere, hastapenetako haziari esker lortu zen. Ordura arte gure ekintzeta aurkitzen genituen loturak bertan behera utzi ziren, lanerako aukera hobeak lortzeko.

G. B. Gure adiskide eta lankide bikaina.

J. S. M.

1812g. urteko Euskal gutun bat

A. Irigaray

1812 g. urtean **Espoz y Mina** generalaren kolumna bat, Bera-tik Sara-ra sartu zen desmasiak egiten, eta futxo! jendea izitua zegoen; soldado horien buru, LEGUIA beratar gudulari famatsua zegoen.—Erretze, ebasgo eta bortizkeri horiek geldiarazteko, **Borz-iriko** borondate oneko agintari batzu sartu ziran bitarteko; hauek, Sara-ko Dithurbide alkatearen adiskideak ziran, eta batzuen eta besten artean gurutzatu ziran gutunen artean, publikatzen dugu bat, mugaz bi alderdiko euskaldunen artean zegoen adiskidantza eta anaitasunaren lekuko dena.

Auzi hortan agertzen dira Sara-ko alkate hori; Martin Saldias; Berako kapitana, Goizueta lesakarra eta beste.

Roque de GAZTELU aitoren-seme bat giltzapetua izan zen, jende armatuekin sartu zelako Sara erriraiño. Etxalar-ko zen aundi-maundi hori eta horren adiskide Goizuetak jakin zuenean zoritxar hori, Espoz y Mina-ri eskatu zion, preso zeuzkan saratarrak laxatzeko, Gaztelu jaun horren onetan.—Lesakar horrek, Belarra zaion bere ahaide igantziar gudulari bati eskatu zion, **Espoz** y **Mina** ofizialen ondoan urrats bat egiteko bere aldetik ere.

Echenique eta Irazoqui deitu batzuk ere laguntzera prestatu ziran, baina hala ere naiko lan eta neke izan zituzten auzia xuritzeko, Historioak dionez.—Gero berehala Dithurbide saratarrak gauaren erdian, bi guardiekin mezua igorri zuen Senperera (presondegia zegoen tokia) Gaztelu yauna laxatzeko berehala.

Haristoy historialariak dio eskualde hortako "nafarrek, español gudulariak yada arrotzak bezala tratatzen zituztela, eskualdunen artean zelakotz auzia, nahiz mugaz bi aldetakoak izan." Bai eta Goizuetak Sara-ko alkateari igortzen dizkion ..."sus más afectuosos saludos para su Sra.., sus hijos y tu tía..." itzek aski argi erakusten dutela beren arteko adiskidantza.

Huna Goizuetak bere euskarazko kartan diotsona:

"...Munsiur de Iturbide.
Lesaca y 4 de Nobie. 1812.
Amigo y Sr. Hortic etorri eta beriala pasatu ninzen Yancira, egoitera d. Luisequin eta horduraco juan bere destinora, eta huzi zuben mandatua nerezat faltaric gabe heguinen zinazala daquizun mandatua, haste onetan eznueben (sic) arrapatu ene hiloba echean, hori guana cenbidayean; eta herran cidaten onen echean haguiz mandatu estubac huci citubela, baldin ez ematecotan complimentua, biarco guerueta (guenuela?) eman guc prometitu ganuen bezala eta desafioniac direla aniz andiac honen bistan, nai nuque harzia determinacione bat eta izan da nic erran bezala euri (sic) emen heguingo dugu hinenguere (?) jaquin gabe ecarri onarat estofac (oyalak) eta nic corrituco dut gauza gucia eta bersela gueldizen gara aniz guezqui, eta hotoizan zaitut harcea erran dudan bezalaco determinacionia, gucien gainian nic eguingo dut aleguin gucia nere partetic eta ala uste dut eguingo duela ene hilobac, baynon dugu guere lana lecu gaistuan, eztute hoc adizen harrazoina solo bere contua.

Nere echera hizan omenda hiru aldiz eta ni ninzen campoan eta aniz estuzen dire. Horequin gueldizen naiz cure (zure) serbizaria Lesacan eta aguindu cidazu onequin ematen diozula nere esprecioniac cure (zure) echean. Y. B. S. M. Juan Franco. GOIZUETA."

Balio aundiko gutun honek, bere adinarengatik (1812) eta nafar batek egina delatotz, kopiatzea merezi duela zinez iduri zaigu.—Orai mende erdia *Gure Herrian* agertu zen.

* * *

LARUN-go mendian zegoen kapera ere, bi aldetako eskualdunen anaitasunaren lekukoa da. Inguruko lau erriek (**Azkain, Bera, Sara** eta **Urruña)** zaintzen zuten, eta horietako alkatek eta ziñegotziek autatu zuten 1681 g. urtean horko kapellaba: orduan gelditu zen izendatua Joan Gregorio de MIURA, Urdazubiko apeza; lauen artean pagatzen zioten, 100 piastra eta amasei libera.

Berako ahaldunak izan ziren, **Lorenzo de Irazabal, Urrutia,** J. Bautista **de Lizardia, Harregain** eta Bonifacio **de Endara,** aipatu urte hartan.

A.I.

JAUN DONE ANTXIKO XABIERREKOREN MAIÑADA

ARTURO CAMPION

GAYARRE ANTZOKIAN IRAKURRITAKO MINTZALDIA 1922'GARREN APIRILLAREN 30'EAN

Autorearen zenbait adiskidek mandatu egin zidaten inprima nezala mintzaldi hau. Lanari bukaera eman nion eta folletuak errendatu nituen 1922'ko Ekaiñaren ondarretan.

Jesus Garzia

Arturo Campión'ek egindakotik Yon Etxaide'k euskaratua

I

Jaun Agurgarria, jaun-andreak:

Ene mintzaldiaren gaia, "Jaun Done Xabierrekoren maiñada", aldiberritze (1) berberakoak diren beste batzuekin alderatuz, Salbatzailleak Marta'ri esandako hitz haiek datozkit gogora: "Mari'k hautatu du parterik onena". Eta hau egia da orain ere. Beste jaun hiztun batzuek hitz egin dizue eta hitz eginen dizue Sainduaz; giristino bertutearen erpin garaietara igo ziren eta igoko dira; ene asnasa urriagoa izanik, ezin ausar naiteke ateratzen nik hobeki txehatutako herri-kondairaren bideetatik, eta ontzat ematen dut Jaungoikoaz betetako gizonek, apezpiku jaunek, bereter (2) jaunek hitz egin diezazutela Jaungoikoaren gauzez, berezko zaien nausitasunaz, jakinduriaz, gantzuduraz (3) eta lehia apostolikuaz. Baiñan bereiz-

(1) Ciclo.
(2) Sacerdote. Bereiz dezagun, *apaiz/apez/abade* (=cura); *bereter* (=sacerdote).
(3) Unción.

kunde zabala egin arren personen eta beren gaien artean eta nere personaren eta nere gaiaren artean, uste dut mintzaldi honen gaia, osagarri gixa bederen, ez dela batere itxusgarri haientzat eta ongi itsasten zaiela: alegia, haurra maiñadaren (4) altzoan jaiotzen dela, eta harengandik, onerako ala txarrerako, nekez ezabatzen (5) diren eragin txit sendoak jasotzen dituela. Erregela komun honek, moral-libertatearen eskubidez, salbuespenak (6) ditu; baiñan hau ez da gure Sainduaren kasua, zeren haren maiñadak, giristino erakuspideen eskola zabala izanik, hauek harrigarriro ugaltzen ikusi baitzituen beren Antxiko'ren bihotzean, Ebanjelioko lur gizenaren bateko ehun (7) baiño gehiago. Maiñadaz hitz egiteko mutibu nagusi hontaz gaiñera, min egiten zidan jendearen jakingura etzela zuzen-zuzen hartaratuko, zeren hain disdiratsuak izanik Jaun Done Antxiko Xabierrekoren baitatik sortzen diren argi-sortak, honek eramanen lituzke denen begiratu harridurazkoak eta familia itzal artean geldituko litzateke iñoren begiraturik erakarri gabe. Halatsu, ehun urtetsuko zugaitz bat ikusten dugunean, aidean zabaltzen duelarik bere adaburu (8) itzaltsua, zarbatsua (9) eta txoriño lilluragarriz betea, etzaigu gogoratzen begia beheratzen eta sustengatzen duen lur beltza begiratzen, hala nola janaritzen duten zain bihurriak eta inguru-giroa usain-ontzen duten loretxo apalak. Baztertze horrekin nolabaiteko injustiziarik egin ba'ledi, nik zuzentzeko ahalegiñak egiten ditut, eta arren eskatzen dizuet zuen onginahirik oparoena eskein diezadazuela.

Jaun Done Antxiko Xabierreko (10) edo, hobekiago esanda, Etxaberriko, bere leiñuz (11) euskalduna da, eta bere legerritasunez (12) naparra. Hau horren gauza argia, agiria eta nabaria denez gero, elitzateke aipatu ere egin behar, baldin-eta lerak (13), eragingai laudagarriek bultzata noski, kondairaren urak —garden-gardenak oraingo hontan— arretzen ahalegiñak egin ezpa'litu. Antxiko'ri beste gizaseme disdiratsu askorena agitu zaio, alegia, erresumak haren sorleku izatearren mokokatzen direla. Frantzia'k

(4) Familia.
(5) Borrar.
(6) Excepciones.
(7) Testuan: a más del uno a ciento (batetik ehun).
(8) Copa de árbol (adarburu).
(9) Frondoso.
(10) Campion'ek "Xabier" dakar, baiñan guk "Xabierre" darabilgu, Saraitzu'ko euskaldunek azken "e" hori oguzten dutelako.
(11) Linaje, raza.
(12) De nacionalidad.

dio: "Jasso"tarren leiñua, "Jaxu" gazteleratu beharrez, "Jaxu"tik (14) dator, Garazi'ko herrixka (13) da, Nafarroa-Beherean, beti lur frantsesa izan dena; beraz, Jaun Done Antxiko'ren liñua frantsesa da. Españia'k, bestalde, dio: Saindua "Javier"en jaio zen (16) eta hau Españia'ko lurretan dago; beraz, Saindua espaiñarra da. Horrela, eztabaida azken-gabe bihurtzen da eta tinta gelditzeke (17) ixurtzen. Eta gertatzen dena hauxe da: bi alderdiak arrazoi gabeak direlarik, biek dute arrazoi beren leihotilla sofistikotik begiratzen baldin ba'dugu.

Oraindik urte askorik ez duela Madrilleko eta Pariseko aldizkariak eta boletiñak alkar mokokatzeko zerabilten gaiak, beatogintza garaian agertu zuen burua eta alkarren kontrako nahikundeek abokatuak izan zituzten Ritoen Batzarre Sakratuaren barnean. Orduan eztabaidan ari ziren ea "Breviario"ko irakurgaiak, Antxiko izenaren ondoren *hispanus* (espaiñarra) ala *navarrus* (nafarra) aipamena eramango ote zuen. Azkenean *navarrus* izkiriatu zuten. Baiñan erabaki horrekin, hispanistak, baretu ez-ezik, beren nahikundeen sutea bizi-arazten saiatu ziren. 1663'garren urtean Aragotar izengorde (18) batek oroitagiri (19) bat igorri zion Oliva Aita Nagusiari, irakurgai ikasgaietan (20) *de natione hispanus* jar zezaten saiatzeko gogoberotuz. Jaun Done Antxiko'ren sasi-herritarrak oso arrazoi ariña (ahula) atera zuen bere alde: "Errege Txit Giristinoak —esaten zuen— Nafarroa'ko Errege daramalako titulutzat, batzuek orain frantses egin gura dute Saindua". Alonimuak zenbait izendapen semetzakotzen (21) zituen: *de natione hispanus, hispaniae nationis, nobili stirpe in Hispaniae*, etc.

Erroma'k, kupidagabeko alkar-lehian ari zirèn bi erresuma ahaltsuengandik eskabide kontrakoak baitzituen, hastandu (22) zituen formula

(13) Pasiones.

(14) Testuak "Yatsu" —euskal-erara— dakar birritan, baiñan gogoan eduki behar da frantsesek, beren arrazoigarri, ez luketela izkiriatuko "Yatsu", "Jaxu" baizik. Honetxegatik aldatu dugu eta komilla artean ezarri.

(15) Testuan: "Aldehuela del pais de Mixa" (Amikuze'koa), dio Campión'ek hutsegitez, "pais de Cize" jarri beharrean, hots, Garazi'ko lurraldea, Jatsu Garazi'n baitago eta ez Amikuze'n (ikus, L. Dassance'n "Herrien eta herritarren izenak eskuaraz", Editions "Gure Herria").

(16) Egilleak: "Jabier". Lehenagoko arrazoiagatik aldatu dugu.

(17) Gelditu gabe.

(18) Alonimu (=anónimo).

(19) Memoria.

(20) Testuan: lecciones de la leyenda.

(21) Prohijar.

(22) Rechazar, desechar.

horiek guziak eta italiar iaiotasun zuhurren bilduma-kutxara (23) jo zuen, bi paletakada boteaz hauzigaiari, bat hondar baiño kare gehiagoz eta bestea kare baiño ondar gehiagoz. Brebiarioak jarri zuen: *Franciscus in Xaverio, diocesis Pampilonensis, nobilibus parentibus natus.* "Antxiko, guraso kapareen semea, Xabierre'n sortua, Iruñea'ko eliz-barrutian". Saindu-egite Bulan: *Natus erat insignis hic Dei servus, Navarrae in oppido Xaverio, Pampilonensis dioecesis"*, "Jaungoikoaren zerbitzari disdiratsu hau, Nafarroa'ko Xabierre'ko gazteluan sortua, Iruñea'ko eliz-barrutian". Horrela frantsesak eta españolak bereari loturik jarrai zezaketen, zeren posible baita Naparroa'ko Xabierre'n jaiotzea, Iruñea'ko eliz-barrutia, eta erresumaz alemana izatea, esate baterako. Eliz-barruti mugak ez du ez erresumatzen, ez deserresumatzen (24). Zenbait mendetan, Gipuzkoa'ko zati handi bat Baiona'ko Apezpikutzara (25) erantxia egon zen; halabaiña, Gipuzkoa'k Gaztela'ko errẹgetzaren pendoiari eta jaungoari jarraitzen zion. Gaurko Nafarroa sei eliz-barrutitan zatiturik dago; halabaiña, Nafarroa izaten jarraitzen du.

Espaiñarren eta Frantsesen arrazoibidea egitezko hutsegite (26) batez eta sofisma kronolojiku batez dago orbandurik (27). Hutsegitea: Frantzia eta Españia etnia batasunaren jabe direla. Egia besterik da: arraza eta herri liferenteen nahaste bat besterik ez dira gizarte arrazoi baten mendean (28). Aipatutako arrazatako bat euskalduna da. Hau, gehiago edo gutxiago bide luze eta lakarretan ibilli ondoren, batasun españolean eta frantsesean sartu zen azkenean. Sofisma kronolojikua: atzo egun (gaur) dela uste izatea. Antxiko Xabierre'koa 1506'ko Apirillaren 9'an sortu zen; aldi hartan Jatsu'ko (29) herrixka etzen Frantzia'rena, ezta Xabierre'ko gaztelua Españia'rena. Biak Nafarroa'renak ziren, erreiñu eta naziño guziz librea orduan, errege-erregiñarekin, tribunalekin, gorteekin, legeekin, foruekin, armadarekin, diplomaziarekin, administraziñoarekin, txanponekin, pixu eta neurriekin, hizkuntza, usadio eta ohiturak denak bereak. Lehenago esana berritzen dut orain: Antxiko Xabierrekoa euskalduna da leiñuz eta hizkuntzaz eta nafarra erresumaz (30). Eta Nafarroa'rentzat edukiko dugu Tirotarrek eta Troyatarrek nahi baldin ba'dute eta ez ba'dute, eta ez diogu

(23) Testuan: repertorio.
(24) Testuan: no nacionaliza ni desnacionaliza.
(25) Obispado.
(26) Error de hecho.
(27) Mantxaturik. Testuan: viciado.
(28) Debajo de cierta razón social.
(29) Yatsu, Iatsu, ogutzi.
(30) Testuan: de nación.

utziko gure defentsa posturari; baiñan zera esaten digutenean: "Antxiko Xabierrekoa lur-sorterriak baiño goragoko lagunartekoa da, Antxiko Xabierreko katoliku-alkartasunekoa da", orduan bai, utziko diogu eta benerapen guziz utzi gaiñera. *Y si non, non.*

Jaun Done Antxiko, Joane Jatsuko jaun doktorearen semea zen. Etzuen eraman aitaren deitura, "Xabier"ekoa baizik, Jaurgoaren (31) izena, familiari bere adierazpenik disdiratsuena eman ziona. Jatsutarrak erro zaharreko jendeak ziren, ez handikitako, iñundik ere, gure begiraldiak arrapatzen dituen denborarik zaharrenetan; infanzon eta kapare (32) maillakoak ziren Garazi'ko lurretan (33), Arnalt Peritz Jatsuko'k zionez, Foix'eko Kondearekin izan zuèn hauziketan (34); baiñan Kondeak gizamailla eraxten zion, "laborari (35) libro eta infanzoi" sailleko kalifikatuz. XV'garren mendean persona goituak ziren iadanik. XIV'garren mendean hamabost etxekiko beren herrixka apaletik atera ziren, han iñor baitzen handikitu eta Doniane Garazi'ra joan ziren bizitzera; hemen egin zuten goraldia eta Iruñea'ra joan ziren geroago. Deiturari nahitasuna zioten eta etzuten gutxiesten: ongi darakus Gillerma Atondoko'ren hilburukoak, alegia, Jaun Done Antxiko'ren amonak egindako testamentuak; honek aditzera ematen baitzuen primantza edo oiñordekotza ondasunak gal zitzala hau hartzen etzuen alaba ondorengoak. Saindua "Jasso" deituraz baliatu zen Paris'en egin ziotèn galdekizun baten erantzueran, 1531'ko Otsaillaren 13'an: "Antxiko Jassoko deritzat" (36). Paris'ko Unibersidadeko errejis-

(31) De Señorio.

(32) Testuak: *hijodalgos*. Oihenarte'k dio: *"Kapare* da *bilaun* eztena, ez eta xoil *aitoren seme*, bana bien arteko, Españan *hidalgoa* den bezala.

(33) Orain ongi dakar Campión'ek: "de la tierra de Zisa (Garazi)". Beraz, argi ta garbi ikusten da aintzin lerrotan *lapsus* bat izan zuela "Yatsu, aldehuela del pais de Mixa" (Amikuze) jartzean, "del pais de Zisa" jarri beharrean.

(34) Hauzi-guduan. Testuan: contienda judicial.

(35) Nekazari, lugin.

(36) Testuan: "Me llamo Francisco de Jasso". Horrialde hauetan zehar gure Saindu handi eta begikoari Antxiko euskal-izenez deitzen diogu. Nik ahalegin gaitzak egin ditut gure baratzako izen zoragarri hau zabaltzeko, baiñan egia esan, gaurdaiño lur elkorrean jausi da nere hazia. Bestalde, ez dut behin ere aditzera eman nundik aterea dudan eta agian horretxegatik, mesfidantzaz edo, jendeak ez dio abegi onik egin. Orain, ordea, hitz honen jatorria jakin-eraztea premiazkoa dela derizkiot. Horra bada: Antxiko izen ederra Azkue erraldoiak jaso zuen Erronkari'ko Bidangoze'n eta bere Hiztegi Handian eta "Particularidades del dialecto roncalés" liburu zoragarrian jakin erazi zuen. Lehenengoan LIRO ahoskian, 548 horrialdean (R-bid), eta bigarrenean (Bilbao, 1932) 200'gn. horrialdean, beronen hiztegiko TRISTE ahoskian. Mendigatxa'ri jaso bide zion (ezpaitu iturririk adierazten) eta honela dio: "Begiak liro zazkan atzo Peiok, argi Antxikok: Pedro tenia ayer tristes los ojos, Francisco alegres". Ene jatorria, Itharte deituraren aldetik Bidankoze'koa delako (nahiz-ta dirudienez Zuberoa'tik etorria, Itharte basetxea Zuberoa-Biarno mugetako Xarra'n dagoelako), eta gure Saindua familian horrelako deitua izan zitekealako (Bidankoze eta Xabierre alkarren hurbil baitaude), saiatu naiz gaurdaiño, eta saiatuko naiz gaurgero, izen hau zabaltzen.

truak etzuten bere herritasuna seiñalatu ez frantses, ez espaiñol eta ez napar deikundez ere, *cantaber* delakoaz baizik. Horrek aditzera ematen du, aldi hartako zientzia-terminolojiaren arabera, berak euskalduna zela esan zuela.

Jatsutarren maiñada emeki-emeki gaillurreratu zen, ohoreak merituen arabera atzemanez, pausoz-pauso ibilki eta ez mesedebide eskandalugarriaren hegobidez. Haren menditar enborra familia dirdaitsutan adartu zen, hala nola Atondoarrak, Azpilikuetarrak, Beire'ko Galdiano-Ezpeletarrak, Cruzat, Etxauz Baigorri'ko bizkondeak, Aiantz Gendulain'go jaunak, Idiakaiztarrak, Ega-Granada'ko dukeak eta beste. Egun Legerri karrera (37) esango geniokenean saiatu zen, administraziño eta judizio eginkizunetan (38). Sainduaren aita Dekretutan Doktore izan zen, togagizona alegia. Azkeneraiño, aitaren aldeko etorkian etzen militarrik izan. Errege agintaritzaren itzalpean hazi zen; horrela egin zitzaizkion erregezale sentimentu sutsuak, bihurraldi (39) guzien kontrakoa, kolore juridikoz jazten baldin ba'zen ere, Biana'ko Printzearena bezala. Maiñada txit zabaldua izan zen eta denboraren buruan hutsalkeriak (40) ikaragarrizko neurrian ugaldu zuen. Napar guziek, sainduaren aita-ahaide edo ama-ahaide izan gura zuten beatugintza ondoren. Herriaren burubide eztenkorrak (41) esaldi bat asmatu zuen itxuragabeko kaparekeria zirtzillez maxiatzeko (42): "Horiek –zioten handipuzkeria batzuek komentatuz– Jaun Done Antxiko Xabierrekoaren ahaideen ahaideak dira". Ez pentsa maiñada hurbil osoaz ere mintzatuko natzaizunik. Gaiak ere nekatuko zintuzkete bere hedaduraz (43) eta maiz bere elkortasunaz (44). Irudirik ernagarrienak piztaraziko ditut, aurretik jakin-eraziaz beren artean gaillenduenak ia beti emakumeak direla. Gure lurrean txit komuna baita emaztekiak, beren dohai moral eta sentiberagatik (45), eta herri apalekoak, zalantzarik gabe intelektualagatik, gizonen artean gaillendu daitezela. Jaun Done Antxiko Xabierrekoaren leiñuko zenbait emakume ziñez miresgarri dira.

Galerian erakusgarri jarriko ditudan lehendabiziko erretratuak edo, hobeki esan, erretratu-antxak (46), Jaun-done Antxiko'ren aitonamonarenak dira, hots, Arnalt Peritz Jatsuko eta haren emazte Andre

(37) Testuan: carreras del Estado.

(38) Empleos admin. y judiciales.
(39) Rebelión.
(40) Vanidad.
(41) El genio cáustico, jatorrizkoan.
(42) Testuan: para burlarse de las presunciones nobiliarias sin fuste.
(43) Zabaltasunez.
(44) Testuan: aridez (legortasunez, idortasunez).
(45) Sensitivas.
(46) Testuan: bocetos de retrato.

Gillerma Atondoko. Honen aita, Joane, Idozin'go jauna, Kompto Ganbarako Aditzaillea (47), pertsonaia historikua da. Errege Joane'ren salbuespen (48) batek, ezkutaren laurden nagusienean, Nafarroa'ko errege armen laurdena —hots, katea ospatsuak— ezartzeko ohorea opaetsi (49) zion. Mesede honen aipakizun egiten du Iruñea'ko kondairako gertaera arras dramatiku batek. Beronen bi kontaera ezagutzen ditugu, bat beaumuntarra eta bestea agramuntarra. Laburkiko azalduko dut gertakizuna.

1471'gn. urtean Iruñea asaldatu (50) zen. Beronen harresi barruan, Loirin'go Kondea eta beaumontar buruzagirik nagusienak bildurik, hiriko ateak itxirik zeduzkaten, aldi hartan Nafarroa'ko erregiña legezkoa zèn Foix'ko Andre Leonor Printzemeari harrera ukatuz. Halabaiña, honek, Joane II'garrena Arago'ko bere aita ikaragarriaren errespetuz edo bildurrez, etzuen erabiltzen artean titulu hori, Erreiñuko Lurdun Nagusiarena (51) baizik. Joane Atondo'k, Mikele Ollakarizketa'k eta beste agramuntar batzuek, Zapateria'ko atea gauez idekitzea pentsatu zuten eta pasoa libro uztea Printzemeari eta bere alderdikideei. Mikele Ugarra'k, Hiri-Errejidore Buruak —berak baitzuen giltza— idekiko zuela agindu zuen. "Nafarroa'ko Jaun Peru, gure Mariskal goietsi, leiñargi eta maite-maitea"k.

(Errege salbuespenak halako laudorio (52) egiten dio) onartu zuen eginkizun periltsu (53) honen buru jartzea. Esandako gauean aurkeztu zen Mariskala ate aintzinean: Ugarra'k luzatzen zuelako agertzen, urduritu (54) ziren zaldunak eta sarrailla ateratzen eta austen hasi ziren. Mutiko labezain bat suertatu zen handikan barrena, entzun zuen zarata-hotsa eta alarma oihua jo zuen. Ugarra'k orduko atea idekirik baitzuen, sartu ziren agramuntarrak, baiñan beharrekoak zirèn lekuak eta neurriak hartu baiño lehen, etsai pilla handi bat erori zen beren gain, Felipe Beuamonteko —hots, Leirin'go Kondearen anaia— buru zutelarik. Mariskala eta haien aldekoak hil zituzten; Felipe haren semea katibu erori zen, Leirin'go Konde berberaren atzaparpean hil behar zuelarik urteak geroago. Joane Atondoko'k ihes egitea ardietsi zuen. Atea *Salkeriarena* (55) deitua izan zen; beste batzuek *Leialtasunarena* deitu zioten. Horrela dira anaiarteko gerrateak, hitzen esangurak ere zentzuz aldatzen baitute. Joane Atondoko'k

(47) Oidor de la Cámara de Comptos.
(48) Testuan: privilegio.
(49) Otorgar, conceder.
(50) Amotinarse, rebelarse, sublevarse.
(51) Lugarteniente general del reino.
(52) Loa, alabanza.
(53) Peligroso, arriesgado.
(54) Impacientarse.
(55) De la Traición.

aipatutako salbuespena jaso zuen (56) eta urteko ehun eta hogei florin urrezko, urretan.

Andre Gillerma haren alaba ezta kondairako; maiñadakoa da, etxekoa, beronen izpiritu tradiziñozalea baitarama haragian. Gure mendietako etxekoandrea da. Bere egoitzako (57) erregiña, noski, bere seme-alabak eta morroi-neskameak gidatzeko eta bere senarra atenditzeko modua eduki zezan. Lehendabizikoa jazten eta azkena oheratzen. Otoizpera (58), bena (59), behar urrikoa bere buruarentzat, oparoa (60) kanpotarrentzat. Neurritsua (61) bihotz-nahitasunak aditzera emateko, bere erraiaren barrumuiñean gordetzen baititu, arrazoi gabe salatzen du, bere sorgortasun (62) itxurazkoak, ideal-moztasunaz eta sentimentasun urriaz. Bere irudimena hildakoen oroitzaz mukuru (63) dago eta bere oroimena bizien arduratu beharraz. Bere garaigaillua (64) erakuspide ona da, inguruan dituenengan lan egiñaz, etengabe ixurtzen diren tantoak harria zuzlatzen duten bezala. Haren begira gaudelarik, jauntasunezko, aginduzko eta nausitasunezko hitzak datozkigu nahi gabe gure ezpaiñetara, agintedun personekin ari garenean bezala. Haren odol-giroko emaztekiak legerri (65) txipi-txipi bateko agintariak dira ziñez, hots, beren aintzinekoetatik heredatu zutèn eta beren ondorengoei utziko dien —eta sendoturik eta ederturik utzi— arbaso etxekoak; ez, ordea, maizter ipurtariñen (66) bizitegi izan dadien, egoitza kulturaren aldare (67) baizik eta gizontasunaren eta prestutasunaren indarleku —herentziaz jasoak hauek ere— eta maiñada iraungarriaren erro, bere egoitzak Petiri'ren harrobiko harriz eta Kalbarioko zuhaitzez egiten dituelarik.

Andre Gillerma'ren obra bere hilburukoak (68) —1490'eko Hazillaren 10'ekoa— eta bere ondorenaren izpiritu batasunak aditzera ematen digu bereiziki. Klausula batzuek emanen ditut beren muiñean: "ene gorputza ehortzia izan bedi Iruñea'ko fraide predikatzailleen Jaun Done Jakube'ren (69) elizan, Jaun Done Domiku'ren hil-jantziz" (70). "Orobat, ordenatzen

(56) Bere ezkutan (escudo) Naparroa'ko armak jartzea, alegia.
(57) Morada, hogar.
(58) Otoitz-bera (=piadoso).
(59) Formal, serio, grave. Hemendik, *benaz, benetan.*
(60) Emaille handi. Testuan: ubérrima.
(61) Hitz urrikoa. Testuan: Parca.
(62) Impasibilidad.
(63) Repleto, colmado.
(64) Testuan: instrumento de dominación.
(65) Estado.
(66) Ipurloka, ipurkoloka, zazpiki, aldakor, egalari. Testuan: volandero.
(67) Altar del culto doméstico.
(68) Testamento.
(69) Testuan: Señor Santiago.
(70) Testuan: "con el ábito de Santo Domingo".

dut, nahi dut eta agintzen dut, ene ehorzketa (71), bederatziurrena eta urteburua, beren ogi, tortxa, zirio eta argizari kandelen eskeintzaz, oneski (72) egiñak izan daitezela, handikeria gehiegi gabe, Iruñea'ko Hirian egin ohi bezala nere gixakoekin...". "Halaber, ordenatzen dut eta agintzen, ene ehorzketa-egunean hamabi behartsu jantziak izan daitezela, eta hauek hamabi tortxakin lagun dezatela nere gorputza hillobira, Jaungoikoari ene arimaren alde erreza diezaioten". Beste eskeintza jaieratsu (73) batzuez gaiñera zera ordenatzen du: Iruñea'ko Jaun Done Mikolas'en, "han baitaude ehortzirik (74) nere aitonak, anaiak, arrebak, osabak (75) eta beste ahaide batzuek", urteurren bat kanta dezatela eta gero eliz-gizonek (76) hillobiak benedika ditzatela. Halaber, agintzen du Jaun Done Sebastian'en elizan "hogeitamar urren bat kantatua izan dadiela ene arbasoen (77) arimen alde eta nere senarraren, semeen eta nerearen alde eta ni otoitzetan zordun natzaien guzien onez" (78). Emariak uzten dizkie bere morroiei, mirabeei, soldatapeko neska-mutillei eta ahaide batzuei; seme-alabak norbere izenez aipatzen ditu: Joane Jatsuko, doktorea; Petri, Mari, Kattalin, Joana eta Margarita; seniparte-foru-legean (79) izendatzen ditu bere ondasunen jabegaiak (80) (bakoitzari mahasti "arienço" bat lur-ogasunez (81) eta ehun sueldo karlinezko esku-ogasunez (82).

Bi etxaguntza (83) fundatzen ditu: lehendabizikoa Joane seme zaharrenaren fagore, Idozin'go jauregia eta beste aunitz ogasun bilduz; bestea Petri'ren fagore, Sagues'eko eta Gazolatz'eko jauregiak bilduz, hala nola beste ogasun eta errentak; jabegaitasun zatiak (84) seiñalatzen dizkie alabei eta bere egintza aristokratiku, kaparetsu (85) eta kontserbatzailleari zigilua (86) jartzen dio, bere adimendu argiaren ispillu bezala zaigun honoko klausularekin: "Halaber, ordenatzen dut, nahi dut eta manatzen dut,

(71) Testuan: enterrorio (=entierro).
(72) Honestamente.
(73) Testuan: mandas piadosas.
(74) Testuan: sepellidos (=sepultados, enterrados).
(75) Eztakigu soilki diren "aitonak" eta "osabak", ala "aiton-amonak" eta "osaba-izebak", zeren gaztelaniazko testuak "agüelos" eta "tios" jartzen baitu doi-doi.
(76) Testuan: clérigos.
(77) Asaba (=antepasado).
(78) Testuan: "y por aquellos por quien soy tuvida de rogar".
(79) Testuan: legitima foral.
(80) Herederos.
(81) Por los bienes raices.
(82) Por los bienes muebles.
(83) Mayorazgo (etxe-jauntza).
(84) Porciones hereditarias.
(85) Nobiliario/a.
(86) Sello.

delako Petri Jatsu, nere semea, bizi den bitartean, eta haren ondorengo haurrak, hots, etorkizuneko denboretan jabegaitasunez (87) hartuko dutenak aipatutako etxea eta oiñordekotza (88), men egin eta ohorea gorde diezaiotela etxe nagusiari eta handikan sortuko diren jaunei... ahaide nagusi zaizkien aldetik eta etxe hartako ondorengo bezala..., eta orobat, aipatutako doktoreak (Joane'k, alegia), bizi den bitartean, eta haren heredatzailleek, bakoitzak beren bizian, etxeko seme bezala begira eta trata ditzatela, aipatutako Petri Jatsu'ren etxeko jabegai (89) izanen diren jaunak, denak alkarrenganako zorrean eta amodioan konforme direlarik, estimatuagoak eta ohoratuagoak izan daitezen eta etxeek gehiago iraun dezaten batak bestearen alde egiñaz, aita batengandik eta etxe batetik sortutako anaiak bezala".

Hauxen da napar maiñadaren izpiritu iraukorra eta gure egunetaraiño heldu dena, desegin gabe burutuz arrotz-erasoen eta anai-arteko guduen astiñaldiak, luzeak eta odoltsuak gutxi bezala; halabaiña, dardaraldi (90) historikoei etzaizkie jarraitu gizarte dardaraldi dongeak (91), Paristar *communes*'en edo Moskoviar *soviets*'en gixakoak. Agurtu dezagun errespetuz, begirapenez, orain garaille dagoen materialismu doillorraren aurka jokatu behar baitu, gerla haiek eta erasoaldi haiek baiño deseratzailleago (92) milla bider.

Arnalt Peritz Jatsuko Iruñean bizi zen. Hemen ezkondu zen Andre Gillerma'rekin. Biana'ko Printzearen zerbitzari bikain izan zen; baiñan etzion jarraitu Joane II'garrenaren kontrako guduan, nahiz-eta printzea eta menpekoa alkarren onginahiezko lokarriz baturik egon. 1447'garren urtean, Printzeak Comptos Ganbarako Maestre izendatu zuen eta *Cambradineros*, edo bere etxeko Diru-Kontatzaille Nagusi. 1454'garren urtean Errege-Comptoetako Auditore eta Finanza Maestre karguak zeduzkan. Ogibide hontan Joane Atondoko bere aitagiarrebari jarraitu zion, Biana'ko Printzearekiko lokarriak osotoro urratu ondoren. Erregek Taralla'ko bere jauregian 1462'garren urtean ospatu zituen Gorte Nagusietara Ahaldun (93) bezala aurkeztu zen. Iruñeak, Jaun Karlos printzearen alde pendoiak altxa zituenean, Arnalt —hau eta bere emaztea hiri hontan bizi baitziren "zaldun gixara"— atera zen hiritik Errege aita egoskorraren atzetik. Hirian zituèn etxeak, lur-ogasunak eta esku-ogasunak (94) konfiskatu egin zi-

(87) Por herencia.
(88) Primantza, oiñordetza, etxaguntza. Testuan: Mayorio.
(89) Heredar.
(90) Testuan: Convulsiones.
(91) Testuan: Nefarias convulsiones sociales.
(92) Testuan: más desorganizador.
(93) Diputado.
(94) Testuan: bienes raíces y muebles.

tzaizkion eta Printzeari laket zitzaionari eskuratu, diploma batean jakinerazi zuèn bezala Errege Joane'k, Jaun Arnalt'en leialtasuna eta menpekotasuna laudatzean eta saritzean.

Halako gaillenak izanik Jaun Arnalt eta Andre Gillerma, ezta harritzekoa beren seme zaharrenari hazkuntza (95) arduratsu bat eman gura eta ahal izatea, ganbara dirdaitsuenen (96) ate-zabalgarri. Jaun Joane, Nafarroa'ko Errege-Kontseilluko Lehenburu (97) izatera heldu zen; bere errege-erregiñak adikor egoten zitzaizkion eta inportantzia eta zailtasun handiko arazotan beren mandatari edo enbajadore zen. Adimenduz argi zen eta borondatez irmo, bihotzez txit leiala, beaumontar salkeriaz kutsaeziña, elizkoi sutsu, historia-jakintzaren estudio soillari emana, bere eskubideen, salbuespenen (98) eta persona-goitasunaren (99) begirale kementsua.

Lege karrera egin zuen. Bolonia'ko Unibersidadeak Dekretu-Doktore maillako izendatu zuen, 1470'ko Hazillaren 16'an. Katedraleko omenkizuna (100) zenbait pertsonaia inportantek handietsi eta ohoratu zuten (101): Rieux'ko apezpikuak, San Pedro Arbozeko'k (Inkisidore hots-handikoa) eta Jaun Petiri Foix'ko Infanteak (Naparroa'ko Kardenal eta Bir-errege goitasunak atzemango zituena).

Jaun Joane, Andere Mari Azpilikuetako'rekin ezkondu zen, Baztandar jatorri (102) garbi-garbikoa, Azpilikueta'ko eta Xabierre'ko Andere, eta amaren aldetik Aznar-Sarekoen (103) ondorengo. Hauen jatorria, apika, Naparroa'ko bakaldunen (104) ahaide zirèn Aragoi'ko kondetan billatu behar da. 1472'ko Martxoaren 10'ean, Jaun Gaston Foixeko'k eta Andre Leonor'ek, Erreiñuko Teniente Nagusiek, gure Doktorea Finanza Maestre izendatu zuten; 1476'ko Otsaillaren lehendabizikoan, Erregek, honoko hitzez kalifikatu zuen gure Doktorea: "zerbitzari gaillen, leial eta onetsia (105). Gorte Nagusiko Alkate eta Finanza Maixu". 1478'ko Ekaiñaren 18'an, Errege berberak deklaratzen du. Doktoreak leialtasun txit handi

(95) Haziera (=educación).
(96) Ilustres cámaras.
(97) Lehendakari (=presidente).
(98) Prerrogativas.
(99) Dignidad personal.
(100) Testuan: solemnidad.
(101) Testuan: *autorizaron*, zentzu honetan aplikaturik: engrandecer, dar importancia y lustre a una persona o cosa. Nik bi hitzen bitartez indartu dut: handietsi eta ohoratu.
(102) Leiñu, etorki (=prosapia).
(103) Testuan: Aznar de Sada. Saraitzu'ko euskaldunek Sada'ri "Sare" esaten diote.
(104) Testuan: monarcas pirenaicos.
(105) Testuan: bien amado.

batez zerbitzatu ziola eta sarigarri, jurisdiziño zibilla (erdikoa eta benekoa) opaesten (106) diola eta Koroiaren eskubide guzien mesedea Idozin'en. Udalak eta hauzotarrek kontra egin zioten jaun-eskubideok erabiltzeari eta Jaun Joanen heriotzeraiño iraun zituztèn alkar ezin etorri luze eta latzak sortu ziren. Gero, berriz, gordiñagotu egin ziren, Nafarroa'ko konkistaren ondorenez, Xabierre'ko Jaunak oso gutxietsiak gelditu zirelarik.

1503'garren urtean Idozin'go Juraduek eta Udalak (107) hauzia jarri zuten, benetan kuriosa: jaungo (108) hauzi modernua dirudi, legegintza iraultzaillearen emari (109). Idozintarrei beaumontesek axatzen zien, Doktorearen etsai baitziren. Horrela da konprendigarri beren eskubide-azalpenean (110) neurriz gaiñera egin zezatela zera esanaz: "arras nekatu gintuen hauzitan, justizia bere eskupean zuèn gizona baitzen". Doktorea oso mindurik gelditu zen leporatu ziotenaz, eta 1503'ko Martxoaren 15'ean bere irain-demanda egin zuen, Udalaren eta Juraduen salaketa "izpiritu gaizkiña"ren eragiñari bizkarreratuz, "ene fama eta izen ona zikintzeko eta ni laidotzeko (111) gogoz eta asmoz". Burgoiki (112) tratatu zituen, zin-ziñez baieztuz (113) beti bizi izan zirela jaunen menpean, "nere kollazuak (billau petxeroak) eta laborariak baitira, beren gaiñean agintea, zerbitzaritza (114), zigorrak eta multak (115), eskubideak eta eginbideak ditudalarik, jaunek ohi dutenez kollazuen eta laborarien gain". Hauzia irabazi zuen 1508'ko Abenduaren 20'an. Eskualde hartan bere oroipena gelditu zen: Doktorea, epai-eskubidez, Idozin'en aurkeztu zenean jauntzat aitor zezaten (1512'ko Urtarrillaren 25'ean) eta lur-neurtzea ta herrimugen bixita egin zezan, bere mandoan zamalkatua (116) omen zihoan, armadun gizonez jarraitua eta hauzokoez inguratua eta oiña ipintzen omen zuen mugarri bakoitzaren gaiñean esanaz: "hau da Idozin'go ene funtsaren (117) mugarri bat".

1494'garren urteko Urtarrillean, Nafarroa'ko azkeneko errege legezkoak koroatuak eta ziñegiñak (118) izan zirelarik, Joane Jatsuko dokto-

(106) Otorgar, conceder.
(107) Testuan: concejo.
(108) Señorio.
(109) Testuan: fruto de la legislación revolucionaria.
(110) Demanda.
(111) Testuan: me infamar.
(112) Altaneramente.
(113) Testuan: afirmando sin rebozo.
(114) Testuan: servitud (=servidumbre).
(115) Testuan: penas e calonias (multas).
(116) Bere mando-gaiñean. Testuan: montado.
(117) Hacienda, finca rústica.
(118) Coronados y jurados.

reak, deserritutako (119) Kanzillerraren egikizunak beteaz, leialtasun ziña hartu zien hiru Legerriei (120). 1511'garren urtean Muskaria'ko Gortetan (121) parte hartu zuen. Diotenez, herri-administraziñoarentzako eraberritze ongarriak aurkeztu omen zituen, eta Gorte hoieri aipatutako bakarahaldunek (122) proposatutako hobekuntzan bere esku-lana erakutsi zuen. Maltzurkeriaz ankaperatua izan zelarik Naparroa 1512'garren urtean, bere Errege-Erregiña zorikabeak Bearno'raiño lagundu zituen, Jaun Peru Nabarrako mariskalaren, Alonso Peraltako (123) kondestablearen eta zaldun leial askoren laguntasunean. 1515'eko Urriaren 16'an hil zen. Hiru seme utzi zituen: Mikele (Xabierre'ko jauna), Ioane Azpilikuetako (kapitana), Antxiko (Saindua), eta hiru alaba: Madalena, Biolante eta Ana.

Huts-handiduna izanen litzateke Doktore dirdaitsuaren estudioa, baldin, jardunaldi honen denbora urriak permetitzen dizkidan lau hitzak osatuko ezpa'nitu historigilleari eta diplomatokoari buruz. "Relación de la descendencia de los Reyes de Nabarra", etab. delako zerbait izkiriatu zuen. Ezta osorik gureganatu: epitome horren zatirik ernegarriena falta da, egillearen garaikoa, alegia. Ene asmoa, Doktoreak Biana'ko Printzeari eskeiñi lerrokada adatzea da soil-soilki, zeren bere agramuntes sentimendu erasokorra erakusten baitigu, neurritsu baiñan zorrotz aditzera emanik. "Eta D. Carlos Printze horrek –izkiriatzen du– sesio handia jarri zuen Erreiñuan, zeren aita bizi zuelarik nahi izan baitzuen haren herentziaren jabe egin, eta horrela egin zuen Erreiñua zati bi, Beaumontesen leiñuak eta haren adiskideek eta ahaideek D. Carlos Printzeari lagunduz eta Erreiñuaren beste erdia aitarekin geldituz; eta hontaz gaiñera (zenbateraiñoko laido-asmoa (124) "gaiñera" hortan!) Gaztela'ko Erregeri jendea eskatzera joan zen, eta gero Aro'ko Kondearen etxera joan zen, jendez lagun ziezaion Erresuma hartzen; haren alabarekin ezkondu zen eta horrela etorri zen ahal zuen jendearekin Nafarroa'ra, eta ahal zuenekin Oibarre'ra (125) joan zen; han gudua egin zion eta menperatua izan zen; bere aitak katigu

(119) Herbesteratutako. Testuan: ausente.

(120) Estados.

(121) Cortes de Tudela. Muskaria, izen zaharra baiñan hilla da. Naparroa iparraldean Tutera eta Tutra esaten diote euskaldunek. Zorigaitzez, izen hau ere ia hilla dago.

(122) Monarcas.

(123) Peralta hiriaren euskal-izena Azkoien da, baiñan hemen aipatu zalduna Alonso de Peralta izan zen eta ez Alonso de Azkoien. Honetxegatik eztugu euskaratu beronen deitura. Orobat diogu Jaun Peru Nabarrako'z edo D. Pedro de Nabarra'z. Eztakit "Nabarra" deitura "b"kin ala "v"kin izkiriatzen zen. Campión'ek "b"kin ematen du, Erreiñuaren izena bezala, eta berehortan errespetatzen dugu.

(124) Testuan: intención vituperatoria.

(125) Naparroa'ko euskaldunek Aibar ahoskatu ohi duten era.

hartu zuen eta berarekin beste asko, baita bere emaztea ere; eta haurrik gabe hil zen (legezko haurrik gabe, osatu zuen A. Fita'k, pasartea komentatuz). Doktoreari, Nafarroa'ren konkista-kausa izan zèn Kaintiar guduaren lekuko eta martiriari, ezin eska dakioke arrazoibidez, eskubide izkiriatuak Printze txit dohakabearen postura sustengatzen zuela aitortzeko juzgu-zuzentasuna (126).

Zenbait aldiz, Jatsu Doktoreak langintza diplomatikuak egin zituen. Lehendabizikoa, noski, 1494'gn. urtean. Aldi hartan, gure bakarahaldunen erresumarteko (127) politika, Gaztela'rekin adiskidantza egite aldera ixuri zen eta Iruñea'ko eta Medina del Campo'ko trataduak egin ziren. Haien oiñarria zen Ana printzesaren ezkontza, hots, Nafarroa'ko errege-erregiñen alaba zaharrena, Gaztela'ko Koroiaren jabegai (128) egiten zèn D. Juan printzearekin, eta haiengandik gizasemerik jaio ba'ledi, hau, Errege-Erregiña Katolikuen alaba edo ahaideren batekin ezkondu. Jatsu doktoreak, bere negoziatzaille dohaiek eta herrizaletasun zuhurrak merezi zutèn oroipen atsegingarria utzi zuten Gaztela'ko Gortean. Ongi darakus (129) Errege Katolikuen kasuak, 1504'ko Maiatzean Jaun Joane'n seme bat pajetzat hartzeko garazia opaetsi (130) zutelarik, 9.200 marabedi seiñalatuz mantengarri. Jaun Joane'ren semeek, ordea, etzituzten zerbitzatu aipatutako Errege-Erregiñak. Bestalde, Madalena Jatsuko'k zerbitzatu zuen Erregiña Katolikua.

Jatsu doktorearen bigarren mandatu diplomatikua, 1507'garren urtean, horra zer izan zen: Luis XII'garrena setatua zegoen Biarno'ko Legerriak (131) konfiskatu beharrez eta nafar tronurako eskubide kimerikuak babesten Nemours'ko duke Gaston de Foix bere illobarentzat, hots, Katalina erregiñaren ahaide hurbilla (lehengusu jatorra) egiten zenarentzat eta gure doktoreak behar zuen delako erregea bide bihurri hortatik apartatu. Hirugarren aldiz, 1510'garren urtean, alkargo-moldakizun (132) bat egin zuen Biarno'ko Jaurerriaren (133) eta Naparroa'ko Erreiñuaren artean, alkarrekin defenda zitezen Frantzia'ko Erregeren atzaparretatik, zeren orain pretenitzen baitzuen Pirineo'ko Koroia erdibitzea, portu ido-

(126) Joeskera errezagoan: ezin eska dakioke arrazoibidez zera aitortzeko juzgu-zuzentasuna: eskubide izkiriatuak Printze txit dohakabearen postura sustengatzen zuela. Gaztelaniaz: no se le puede pedir razonablemente la imparcialidad de confesar que el derecho escrito sostenia la postura del infelicisimo principe.

(127) Internacional, hots, "la politica internacional de nuestros monarcas".

(128) Heredero.

(129) Erakusten du.

(130) Conceder.

(131) Los Estados de Bearne.

(132) Testuan: tratado de alianza.

(133) Señorio.

rren urixuri lerroaren arabera (134) eta zozketaz eskuratu bi zatitako bat Gaston handinahiari, hots, espaiñarrak Ravena'n menderatuko zituen geroko gizagaillenari (135). Azkeneko negoziabidea, 1512'gn. urtean, axanpagarriena (136) izan zen. Fernando erregeak esijitzen zuen Nafarroa'k bere neutraltasuna urra zezala bere onerako, Frantzia eraso behar zuten armadei igarobidea emanaz. Beljika'ren kasua da mundu gerratekoan. Konponbideak aragoitar doillorraren hitz mehatxugarriokin hautsi ziren: "Indarrez hartuko dut gogo onez ukatzen didatena". Horrela egin zuen, egun gutxi barru. Lehenago azpijorran ari zen azeria; orain otsoak orrua egiten zuen. Jatsu doktoreak jadanik idekia zuen bularrean bere azken egunak samindu zituen zauria.

Madalena Jatsuko on puska bat zen, zerutik herbesteturik lurrean bizi den arima horietako bat. Antxiko bere anaiaren saindutasunaren egunurratze gorrixka misteritsua bezalakoa da. Gorputzez eder, Erregiña Katolikuaren dama zelarik, Gaztela'ko Gorteak bere lorerik usain gozozkoenak eskeintzen dizkio. Madalena, atsekabeen lehia txit donean suturik, mundutik aienatzen (137) da eta Gandia'ko Klaratar Oiñutsetan sartzen. Han, bere zentzu zuzenak, bere izaeraren atsegintasunak, bere bertuteen berotasunak, Abadesa goitasuna (138) bereganatzen diote. Beronen bitartez baliatu zen Jainkoa Antxiko Paris'en gelditu-azteko, bere geroko bokaziñoaren tokia. Mikele'k, oiñordekoak alegia, *ondasun faltaz*, bere anaia txipiak estudioak utz ditzala eta Xabierre'ra itzul dadiela erabakitzen du. "Etzak horrelakorik egin –izkiriatzen du igarle-lumaz Madalena'k– segur bainaiz ene anaia Antxiko Jainkoaren zerbitzari handi izanen dela eta haren Elizaren zutoi" (139). Madalena'k bere komentuan bertuterik goreskarrienak praktikatzen ditu, hots, berak hautatutako egoerari eta emakume ororí dagozkionak: xalotasuna (140), ontasuna, apaltasuna eta garitatea.

Nahiz-ta austeritatez argaldurik egon eta gorputzez txipi xamar izan, beste eginbidek utzi zioten bitartean, erien arropa zuria garbitu zuen, eta egunoro, neke handiz, artillezko sei edo zazpi habito. Astiro (141) eta gutxi hitz egiten zuen, etengabe esan ohi zuen *Gloria Patri*, egunoro gogoetara-

(134) Testuan: según la línea divisoria de los puertos secos.
(135) Héroe.
(136) Testuan: acongojadora.
(137) Aldentzen, apartatzen.
(138) Testuan: dignidad.
(139) Zutabe, pillare (=columna).
(140) Afabilidad.
(141) Geldiro, emeki, mantxo.

tzen zituen Nekaldiko ezkutapenak (142) eta arratseko hamabitatik goizeko seietaraiño otoitz egiten zuen. Jainkoak sendotzen zuen bere akiduratan (143), tristuratan eta eskrupulu geheigizkotan. Amets bat izan zuen: jardin zoragarri baten urrutiko partean, Salbatzaillea ikusten zen, disdiratsu, aldapa txit malkortsua zuèn muiño baten gaiñean. Ahalegiñak egiten zituen Madalena'k Onetsiarengana (144) alderatzeko, alferrikako indarrak gastatuz. Gazte galant bat urreratu zitzaion (Aingerua gizaki itxuraz) eta eskua hartu zion. Hala ere berak erorka jarraitzen zuen eta bereartean esaten zuen: "erortze hauekin enaiz sekula iritxiko". Aingeruak begiratu zion eta erantzun: "eroriz eta altxaz irixten da zerura". Beste agerpen hau ere izan zuen: bera trankil hilko zela, eta beste aizpa bat, bere ondoan, oiñaze izugarriak jasanez. Jaunari eskatu zion trukatuak izan zitezela hiltzeak eta garazia hori iritxi zion. Ordua heldu zenean (1533'ko urtarrillaren 20'a), beste seroraren heriotza loak hartze goxoa izan zen; Sor Madalena'rena, potroaren edo sutearen tormentuak sentitzea gorputzaren zati bakoitzean. Egiñahal heroikoz bere arpegiaren baretasunari eutsi zion; baiñan hilda gero ikusi zuten mihiari hozka ekin ziola ez karraxi egiteko. Madalenaren mihi txikitua (145) Jaunaren goraipamenak kantatzen ari da egun zeruan, urrezkoa baiño ahots ederragoz.

Hitz egin nahi dizuedan beste emakumea Margarita da, Olloki'ko andrea, Jaun Done Antxiko'ren izeba jatorra (146). Hau munduko emakumea da: eztut esan mundukoia. Marta'ren izaera berberakoa, alegia, Lazaro'ren etxeaz arduratzen zena. Bere ama Andre Gillerma'ren alaba ziñezkoa (147). Saiatua, kementsua, zorrotza eta ala guziz ere zaulia (148) Buruan sarturik zedukan oiñordekotza bere billobari uztea. Inguragarri zitzaizkion gora-beherak (149) kontrako zituen. Horra: Naparroa espaiñarrek konkistatu zutelarik, Margarita maiñada txirotu (150) bateko enborkide (151) zen. Bere baliamenduaz gabetua gelditu zen, monarkia arrotzarentzat susmotsu zen, gorrotagarri beaumontes asaldari (152) garailleentzat bere leialtasun eredugarriagatik. Dohai gutxiagoko edozein emakumek ematen eginen luke (153). Bere seme Remon eta Joane konkista seku-

(142) Misterios de la Pasión.
(143) Abatimientos.
(144) Testuan: Amado.
(145) Puskatua, zatitua, ez "txipitua". Testuan: despedazada lengua.
(146) Tia carnal.
(147) Benetakoa.
(148) Dúctil, flexible.
(149) Aintzingibelak, kakoak (=circunstancias).
(150) Familia empobrecida.
(151) Taldekide (=miembro).
(152) Rebelde.
(153) Txillak eginen. Testuan: sucumbir.

la onartu nahi izan etzutèn talde txipi hortako adiskidetu eziñetakoak dira. Heriotzera eta ogasunez gabetuak izatera gaitzetsiak (154) daude. Joane'k frantses izatea onartzen du eta Antxiko I'goaren armadan zerbitzatzen du, eta beronen lerrotan Zelai-Maixu (155) mailla atzematen. Beronen onasunak (156), Grazian Erripaldako Baztandar kapitanari eman zizkion Españia'ko erregeak. Zaldun hau, Bieta'ko etxearen jabea eta beuamontarra zen. Joane, Mari Batista Mirandako'rekin ezkondu zen eta beronengandik lau seme-alaba izan zituen: Joane, Mikele, Mari eta Joana. Eztakigu nola Margarita Jatsuko'k geldiazi zuen onasun kentzea edo lortu zuen bireskuratzea. Aunitz urtez geroago, 1569'ko txosten (157) batean, bi lekukok beren ez-jakiña aditzera eman zuten: "Olloki'ko jauregia eta funtsak (158) konfiskatuak izan baldin ba'ziren ere –deklaratu zuten– Margarita'k han jarraitu zuen bizitzen bere seme-alabekin. Eztakigu zer antolamendu eginen zuten errege jaunarekin". Alba'ko Dukeak, Olloki'ko jauregiaren eta funtsaren opari Andere Barrionuevo delako bati egin zion. Honek, onasun hauen jabe egin gura du 1523'ko Abenduaren 23'an, alguazillaren bidez. Andre Margarita'k, kementsuki, bidegabe egin diotela aditzera ematen du, *adiamento* delakoa eskatzen du (hauzian agertzeko epea) eta deklaratzen du ogasunok eztirela heriotzera epaitutako Remon bere semearenak, bere-bereak baizik. Alguazillak, harri ta zur egiñik, etorri zèn bidetik itzuli behar izan zuen, Barrionuevo'ren esperantzak eta Nafarroa'ko menderatzaille zèn Jaun Duke Txit Baketsuaren (159) ezkuzabaltasuna berarekin eramanaz.

Olloki'ko jauregian jarraitu zuen –bost etxekiko hauzoa–, funtsaren ardura edukiz, Juaniko eta Migeliko bere billoben laguntasunean. Etxekoandretzaren eredu (160) honek, bietan zaharrena izendatu zuen oiñordeko, nahiz-ta Antxiko bere semeak setatsu kontra egin. Honek jauregitik bota nahi zituen ama eta bi arrebak, Ana eta Elena, hots, beren amaren hain laguntzaille bihozkoiak eta apalak. Margarita'k aintzina eraman zituen bere asmoak: 1538'ko Martxoaren 18'an, Mikele eta Balentin Jatsuko'k, berak aitalekuko (161) izendaturik, Olloki'ko jauregiaren jabetasuna hartu zuten, oiñordeko–jabegaiaren (162) izenean, baiñan konponketa

(154) Kondenatuak.
(155) Maestre de Campo.
(156) Ondasunak, ogasunak (=bienes).
(157) Informe, información.
(158) Hacienda, finca rústica.
(159) Testuan: serenisimo.
(160) Ejemplo, modelo. Testuan: Vestal del culto doméstico.
(161) Aitorde, gurasorde, aita-ordeko (=tutor).
(162) Heredero-mayorazgo.

egiñaz, amonak, bizi zen artean, ogasunen jabe eta nagusi (163) izaten jarraituko zuela.

Egun batez urratu (164) zen ustekabean jauregian nagusitutako bakea. 1544'garren Agorrillaren (165) erdialdera, bi neskatxa dotore jatxi ziren beren mandotatik etxe-atarian: berekin zekarten kutxa bat lumez, sedez, arma urreztatuez, bitxiz (166) eta lujozko milla zirzilleriaz (167) beterik. Mari eta Joana billobak ziren, Frantzia'n haziak, beren aita militar menturazalearen (168) ondoan, eta nunbait, Nafarroa'ko Endrike II'garrenaren edo Frantzia'ko Antxiko I'goaren Gorteko dama goitiar baten zerbitzari zegoena. Pentsa dezakezue batzuen eta besteen baitan zer sentimenduk sortuko ziren, gustoen, ohituren, hazibidearen eta joeren bereiztasunak gogoan edukirik: Chenonceaux'ko parkeak eta Esteribar'ko oihanek bi mundu arras liferente aditzera ematen dute. Aitak bolara bat egiteko igorri zituen Olloki'ra, berak Ingalaterra'ko Erregeren kontra borrokatzen zuen bitartean Boulogne'ko gudaldian. Margarita, zailla (169) eta txorakeria gutxikoa baitzen, Gorteko eginkizunen ordez nekazari etxe batekoak —aunitzez arruntagoak— jarri zizkien. Guk lege-bilgo kaparezkoaren (170) bidez ikusten dugu gizarte zaharra eta irudi gezurrezko bat egiten dugu hartaz: praktikan bizitza demokratikua zen. Gizamailla liferentzia etzen, diruan oiñarritzen den oraingoa bezain mingarri. Jaunak beren jauregi apaletan bizi ziren lautasun edo xalotasun osoan, beren laborarien artean, hauek pertsonalki ezagutzen eta tratatzen zituztelarik; ez gaur bezala, arduradunen (171) kontuen bitartez bakarrik. Jauna tirano bat izan zitekean, baiñan baita aita eta adiskide bat ere. Xaloki (172) bizi zirela esan dut: hanitz oroimen zoragarri gelditzen zaizkigu hontaz. Adibidez, Zolina'ko Bizkondesari, Erramun Aznarez bere arduradunak (173) arrats oro ematen zion eguneko lanen berri: jorraketa, itaitea, mahasbiltzea, laiaketa, etab. Berberak, Joane Berueteko notariak lagundurik, moldatzen (174) zituen eta erabakitzen hirixkako epaibideak (175) eta hauziak. Leonor eta Isabel Aspilikuetako'k, Tafalla'n, mirabeak mahastitara joaten zirenean

(163) Testuan: *mayora*.
(164) Nahasi, arretu. Testuan: turbose.
(165) Agosto.
(166) Joyas.
(167) Testuan: fruslerias.
(168) Aventurero.
(169) Rígido, inflexible, tenaz.
(170) De la legislación nobiliaria.
(171) Testuan: administrador.
(172) Llanamente, sencillamente.
(173) Hacedor, administrador.
(174) Testuan: instruia.
(175) Procesos.

lanera, sukaldea eta gelak eskobatzen zituzten eta oratzen (176) laguntzen zuten. Andereño horien osabak, Doctor Navarro hilleziñak, Barasoain'go etxaguntza (177) fundatu zuenean, fagoretua izan zèn Mikele Azpilikuetako bere illobari aholku egin zion (178), gomita-bazkaritan behikia, aharikia eta txerrikia bakarrik zerbi zitzala; gomitatua handiki itxura gaitzekoa baldin ba'zen, egazti bat osa zezala, aintzinetik fruta, jangura zabalgarri, eta gazta, postrean, amaitzeko. "Etzaitez ahantz (179) atsotitz zaharraz: gobernu oneko etxean, ogia ugari, aragia aski, ardoa urri. Horra, zuen etxekoei aditzera eman beharra behin eta berriz erakuspidez eta hitzez. Ez zuk eta ez zure alabak ez dezazuela sedarik eraman zuen soiñekotan, ezta bordatuetan eta forruetan ere; erabil ezazu, ongi ba'deritzazu, armadura bat edo zaldi baten tresena (180) apaintzeko". Antziña, aristokrazia legetan zegoen, kristau-demokrazia ohituretan; egun, demokrazia, legetan eta bazter orotako bekaitzean (181); aristokrazia, aberatsetan eta agintari dauden politika oligarkietan.

Xalotasun eta apaltasun bizikera horretara makurtu-arazi zituen Margarita Ollokiko'k bere billoba kaxkariñak; hauek, garrazkeria zeriotela burutu zuten. Amona 1545'eko Martxoaren 21'ean hil zen; Jainkoari eskerrak bere familiaren sesio gogorrak ikusi gabe, baiñan antzemanaz. Beronen semea, kapitana, urte bereko Abenduaren 25'ean hil zen Abbeville'n. Mari'k eta Joana'k beren aitaren hilburukoa (182) erakutsi zuten, funtsa (183) bere lau haurren artean zabalduz, parte berdiñetan. Hilburukoa baliogabea zen bi arrazoirengatik: lehenengo, errege kaltezko makurrez salatua eta heriotzera epaitua zegoelako, Joane Ollokiko'k ezpaitzezakean testa (184). Bigarrena, etxaguntza (185) desegiten zuelako. Baiñan honen fundaziño-eskritura galdu egin zen, Aragoitarrek okupatu eta ankaz gora jarri zutenean Xabierre'ko gaztelua. Nahiz eta baliogabea izan, hezigaitzak (186) animazteko balio zuen. Familiako ezin konpondu asko eta gogorrak gertatu ziren. Mari Ollokiko'k hauzian egin zuèn deklaraziñoan, aditzera eman zuen jauregian tratu txarra eman ziotela Joane bere anaiak

(176) Orratzen (=amasar).
(177) Oiñordekotza, primantza (=mayorazgo).
(178) Gomendatu zion (=le recomendó).
(179) Testuan: no os olvidéis. Badirudi "vos" (=tu, usted) dela eta ez "vosotros", "ustedes". Hontara, "etzaitezte" izanen litzateke.
(180) Arnés.
(181) Testuan: en la universal envidia.
(182) Testamento.
(183) Hacienda, finca rústica.
(184) Testatu, testamentua egin.
(185) Primantza, oiñordetza, oiñordekotza (=mayorazgo).
(186) Asaldari (=díscolo).

eta Ana ta Elena bere izebak, hauek maiñadako ogasun guziez jabetu nahi baitzuten; pobreki bizi zirela, gaizki jantziak, oiñutsik eta lan egin beharrean. Bazter dezagun hitz hauetan arki daiteken ahoberokeria (187); hauzi jartzaillearen adimentu moralak (188) eztirudi zipriztiñez garbi. Urteak joanda, Mari'k, Lanzarote Huarteko'rekin ezkondurik zegoela, ogasun zati handiago bat eskatu zuen. Zolina'ko bizkondeak, Xabierre'ko Jatsutarren jabegaiak (189) eta Olloki'ko jabegaiaren aitordeak (190), honela erantzun zuen: "Merezi baiño gehiago jaso du". Margarita'k ezin hobekiago lotu zituelako hauzi-muturrak eta Ana ta Elena alaba hilduratuen (191) ahalegiña izugarria izan zelako, Olloki'ko etxaguntza zatitua izatetik salbatu zen, kontrako aize eta ugalde guziei oldartuz (192). Hillek agintzen dute! Gillerma amatxiren izpirituak olatu gaiñean irauten zuen!

Jatsu'ko maiñadak eman dituen sainduen, gobernu-gizonen eta etxekoandreen artean, gudariak ere izan behar. Hala eskatzen baitzuten batera Naparroa'rentzat hain trajikuak izan zirèn garai haien izaerak eta Xabiertarrak mami-mamiko zirèn kapare-jendearen pentsamoldeak (193). Eta izan ziren: leialtasunaren, hiltzen ezten ezkubidearen, itzaltzen ezten justiziaren gudariak; dinastia legezkoaren eta sorterri buru-jabetasunaren gudariak; zalduntasunaren eta ohorearen gudariak, euren buruak bentzututako hegoismoaren uzta-dirdaitsuak (194) inguratzen dituelarik. Xabierre'n izenak disdira dario, Carlos I'goaren barkapen urguillutsulotsagutxikoak ipiñi zituen salbuespenetan (195) (1523'ko Abenduaren 15'ekoa): "ondorengo personok ezik: Mikele Xaberriko, bere buruaz Xabier dela diona, eta Johane Azpilikuetako, Mikele Xabierreko'ren anaia, bere buruaz Xabier zela diona, eta Matxin Jatsuko eta Joane Jatsuko eta Estebe Jatsuko bere anaia, Joane Azpilikuetako eta Joane, bere buruaz diona Olloki zela eta Balentin Jatsuko..." (196) Zortzi, heriotzera

(187) Exageración.
(188) Testuan: sentido moral.
(189) Heredero.
(190) Aitaordeko, aitalekuko (=tutor).
(191) Testuan: abnegadas.
(192) Hacer frente, afrontar.
(193) Testuan: así lo pedian de consuno la índole de aquellos tiempos, trágicos para Nabarra, y la mentalidad de la clase nobiliaria de que los Xabier eran parte escogida.
(194) Testuan: nimbo.
(195) Excepciones.
(196) Testuak honela dio: "eçeptando las personas siguientes: Miguel de Xaverri cuya diç, que es Xavier, é Johan de Azpilikueta (sic), hermano de Miguel de Xavier, cuya diç que era Xavier, é Martin de Jaso é Juan de Jaso é Esteban de Jaso su hermano, Juan despilcueta é Juan, cuya diç que fue Ulloqui é Valentin de Jaso...". Harritu gaitu testo zahar hontan "Azpilikueta" "k" letraz izkiriatua ikustea; seguru aski, Campión'ek, berak zuèn ohituraren idarrak eraginda, igarri gabe aldatu zuen. Bestetik, aditzera eman gura dut "cuya diç", "cuya persona dice" bezala interpretatu dudala, goraxeago "eçeptando las personas" baitio. Asmatu ez baldin ba'dut nere itzulpenean, irakurleak barka biezat.

eta ogasunak galtzera gaitzetsirik (197) Jaun Done Antxiko Xabierreko'-ren maiñadan, Nafarroa'ri leialtasuna gordetzeko ogenagatik!

Mikele eta Joane ziren Sainduaren anaia zaharrenak; Joane, bere begikoa. Moralki alkarren antz handia zuten: Mikele'z hitz egitea Joane'z hitz egitea zen, eta alderantziz. Joane'z, tratu atsegintasuna eta bere funtsaren kontu-egite zintzoa goraipatzen dute. Haren esaldi batek bere gudari odola agertzen digu: higuingarri zitzaizkion zezenketak, "zeren haietan ikasten baita eta ohitzen, etsaiari eraso beharrean, harengandik ihes egiten". Beren zerbitzu horria laburra da. Alba'ko Dukearen lur-arrapaketan (198) eztakigu non egon ziren; seguru aski Iruñea'n, eta Errege-Erregiñak lagundu bide zituzten, hauek, hiri beaumontarraz mesfidaturik (199), Biarno'ra erretiratu zirenean. 1521'garren urtean frantses armada errestauratzaillearen lerrotan ikusten ditugu, eta Iruñea'ko gaztelua erasotzen dute, Lugruñu'ko hesiketan eta erretiradan daude; halaber, Noain'go gudaldi galgarrian parte hartzen dute. Bentzutuak izan ziren, baiñan ez heziak, eta horra nun ikusten ditugun, beste zaldun leial batzuekin baturik, Amaiur'ko gaztelua inguratzen eta erasotzen: haren omenaldi-torrean katedun bandera gorria aizetan dabil berriro. Hantxen jokatu behar dute gudaldi garaiena, handiena. Errege-ordeko egiten zuèn Miranda'ko Dukea, espaiñarren ohizko baretasun horrekin, harresia urratzeko behar duen artilleria izugarria —aldi hartako posibletasunen neurrian— bilduz dihoa.

Uztaillaren 11'an, bederatzi kañoi txipi eta hiru handi igarotzen dira Arraitz'eko bentetatik; hauetako bat bost idi-parek tiraturik, beste bat zazpik eta hirugarrena hamabik. Urriaren 18'an Berrueta'ra iristen dira orduraiño ezagutzen zirèn kalibrerik lodieneko sei kañoi, eta hamahiru txipi. Mikele'k atseden gabe lan egiten du gaztelu barruan eta kanpoan, laguntza-gudaritaldeak (200) eratuz, Saint-André mariskalarekin —hots, Guiena'ko gobernadorearekin— kartazko har-emanean, eta halaber Biarno'n aterpetutako erreiñuzaleekin (201). Jaun Antso Igesako'k, bere mandatariak alegia, Escipión'ekin alderatzen du bere adore (202) osotasunagatik. Hala ta guziz ere, katigu errendatze edo truke (203) arlo kaxkar batek gaizki esanei ateak idekitzen dizkie. Mikele, arrazoi txit mingarriz arrenkuratzen (204) zaio Saint-André'ri: "ene zerbitzuen ordaingarri ondatu berri

(198) Invasión.
(199) Desconfiados.
(200) Tropas de socorro.
(201) Testuan: patriotas refugiados.
(202) Animo. Jaun Antso Igesako = D. Sancho de Yesa.
(203) Entrega o canje de prisioneros.
(204) Quejar.

nautelako, nere bizkarrez zerbitzatuz, jende gaixo honekin, eta Berorren Mesedeak dakien peril (205) eta nekeen artean arkitzen naizen bitartean, eurak, txosten (206) faltsuei, doilloren salaketei belarriak idekiz, ordaingarri oro bezala nere ohorea desegiten dute" (207).

1522'ko uztaillean, Miranda'ko Konde errege-ordekoak, gudaritalde ugarien eta ikusgarrien buru jarriz, beaumontes traidore nabarienez inguraturik, gaztelua erasotzen du. Harresiak txikiturik (208), jakiak akiturik, tiragaiak akabaturik, txillak egiten du (209) gaztelu-gudari-taldeak. Gertaera honi buruz adi diezaiogun Garubai izkiriatzaille espaiñarzaleari, (*Crónica de Navarra*, lib. IV, cap. V): "Gure errege-ordeko Miranda'ko Kondeak Amaiur'ko gaztelua hesitu zuen, eta lehenago aipatutako zaldun haiek, hots, Jaime Belatz Medranoko'rekin bertan gelditu zirenak, erresistentzia arras gogorra egin baldin ba'zuten ere, errege-ordekoa harritzeraiño alegia, ematen egin behar izan zuten eta —biziak salbatu orde— gerlakatigutzat beren buruak errendatu (210)... Katigu kapareok (211) Iruñea'ko gaztelura ekarriak izan ziren eta beren artean etorri zen Antxiko Xabierreko handiaren aita (huts egiten du hemen Garibai'ek; ezpaitzen aita, anaia baizik); hau, azken alabeharrera (heriotzera, alegia) galduko zuten bildurrez, itxuraldaturik (212) eskapatu zen eta heriotzaz libratu; eta ziñez, etzen tajugabea izan bere susmoa, zeren-eta hamalau eguneko presoaldiaren ondoren hil baitziren bertan Jaime Belatz Medranoko eta Luis beronen semea, pozoitu ote zituzten aieruz (213)". Honeraiño Garibai.

Errenditu eta lau hillabetez geroztik Xabierre'ko jaunak preso jarraitzen zuen Iruñea'n, girgilluz zamaturik. Eta itzul egitea lortu zuenean etzen izan bere burua salbatzeko, gal-bide berritan murgiltzeko baizik, Joane bere anaiarekin eta Balentin Jatsuko bere lehengusuarekin, askatasunaren azken gordelekua izan zèn Ondarribia'ko hirian. Ez ahal da egia, jaunak, zaldun leial, oldartsu (214), iraukor, zintzo eta bentzutu horiek, bidegabeki *traidoretzat* salatuak, merezi dutela Amaiur egiten ari zaien mulumentua?

(205) Gal-zori, arrisku (=peligro).

(206) Informe.

(207) Gaztelaniaz (arre xamar baitago): "en recompensa de mis servicios por haberme acabado de destruir, sirviéndoles a mi costa, con esta pobre gente, y mientras me veo en los peligros y trabajos que sabe vuestra merced, ellos, prestando el oido a informes falsos, a denuncias de bellacos, por toda recompensa destruyen mi honor".

(208) Muraillak desegiñik.

(209) Ematen egiten du (=capitular, rendir).

(210) Testuan: entregarse por prisioneros de guerra.

(211) Los nobles prisioneros.

(212) Disfrazado.

(213) Sospecha.

(214) Testuan: heroicos.

Traidoreak leiñu horiek, Fernando erregeak berberak laudatu zituelarik —Doctor Navarro'ren testigutzak aditzera ematen digunez—, Joane Albretekoagatik egin zutelako euren aitonek Joane Aragoiko bere aitagatik egin zutena? Ordua da, Naparroa ahazkor eta bidegabetu honek, Amaiur'ko defentsari eskerrak, horrialde leiñargi bat erakusten duelarik bere erresuma kondairako ondar-kapitulu lotsagarrian, haiekiko duen esker-on eta mirespen zorra paga dezan.

Gertakari politikoek tristeki hots egiten zuten Mari Azpilikuetako'ren bihotzean. Andere hau familiako emazteki nahigabetsua da. Dena falta zaio batera: senarra, semeak, laguntzailleak, aberastasunak... Badirudi ortzea (215) erortzen dela alarguntsa eta ama horron buru urdindu eta delikatuaren gaiñean. Errege-bizi-sariak (216), erregetxeari egindako prestamuen mozkiñak (217) eta kapitalak, funtsen errentak eta jaungo-petxak (218) eztitu gehiago errezibitzen. Fernando erregearen seme sasiko egiten zèn Zaragoza'ko artxapezpikuaren (219) gudaritaldeek Xabierre'ko gaztelua okupatzen dute eta barruan kalte handiak egiten dituzte, hala nola Artxiboko dokumentuen txikitzea (220). Usurpatzailleak, anartean Joane Jatsuko doktorea bizi zelarik, konfiskatzen dizkio Sause'n eta Zangoza'n (221) Xabierre'ko etxeak zituèn lurrak, eta Apirillaren 5'eko erregezedulan zinikoki aditzera ematen du herri-bakeak lur horien emankizuna eskatzen duela.

1517'garren urtean, España'ko Agintari (222) Cisneros kardenalaren basa-aginduak kunplituz, Xabierre'ko gaztelua porrokatzen dute eta haren lurrak soil-gorritzen dituzte. Bizitegi-etxea bakarrik salbatu zen. Nájera'ko Duke errege-ordekoak, gizakoitasun (223) gehiagoz, agindua legunago aplikatu zuelako. Bateratsu, gudaritalde espaiñarrek, Azpilikueta'ko jauregia, etxea eta dorrea porrokatzen dituzte eta hauzo-borda (224) erretzen dute eta eskualdeko funtsak soiltzen dituzte. Iruñea'ko etxeko ageak eta zurak erauzten (225) dituzte eta fortifikaziño berrian erabiltzen. Danerako kaltea: hiru milla dukat urrezko.

(215) Firmamento.
(216) Pensiones reales.
(217) Etekiñak, korrituak (=réditos).
(218) Pechas señoriales.
(219) Arzobispo.
(220) Apurtzea, birrintzea, xehatzea, desegitea, porrokatzea.
(221) Sos del Rey Católico y Sangüesa.
(222) Testuan: regente.
(223) Humanidad.
(224) Borda = baserri.
(225) Arrancar.

1520'garren urtean, Zangoza'ko hauzokide batzuek, Xabierre'ko gazteluaren zenbait lurrez jabetu ziren; goldatzen dituzte, eta debekatzen diete erronkariarrei bertan gelditzea beren eleak (226) bazka ditezen petxa txipi baten ordainbidez. Urte berean Idozin'go petxeruek hauziak berritzen dituzte: zalaparta dariela, *jauregia* eztela jauregi diote, etxe arrunta baizik. Asko urtetan Mikele ezta ausartzen herrixkan aurkezten, eta egun batean, Mikele Azpilikuetako haren aministratzailleari erronka jo (227) zioten karrika zabalean, hauzotar batek ziolarik txanoa (228) lurrera bota eta sastakaia (229) aterata gero: "bizarrik baldin ba'duk hator honá". 1521'-garren urtean, gizaseme armatuak sartzen dira Xabierre'ko hariztian eta soiltzen dute; beste batzuek lurrak goldatzen dituzte.

Hondarrabia'n kapitulatutakoen eragiñez, Burgos'ko Errege Kontseilluak agindu zuen 1524'ko Apirillaren 29'an, paga zekizkiola Andere Mari Azpilikuetako'ri ordain-bidez eskatzen zituen kantidadeak; baiñan, zazpi hillabete geroago, administraziño arrotzak, tranposuen fede txarrez, hauzilege sastraka artean sartu zuen, Martie Azpilikuetako'ren alaba *bidezkoa* (230) zela demostratzea behartuz eta, halaber, Jatsu Doktorearen emazte *bidezkoa*. Eta horrela minduta gero, milla dukatetara jatxi zioten pagabeharra; eta iraindu (231) eta pagatzekoa gutxitu ondoren, oraindik handiagoa egin zioten: ez pagatu. Azkenean, 1550'garren urtean, Andre Isabel Goñiko'k, Mikele Jatsuko'ren alarguntsak, kobratu zuen kalte-ordaiña (232): Andere Mari hil eta hogeitabat urtez geroztik.

Xabierre'ko etxekoandrearen nahigabe handia dokumentu batek darakuskigu, hain gauza hotza eta nortasun gabea den errezibu batek, alegia. Domiku Beraizko zeritzan Altxortegiko Zuzendariak (233), zenbait diru errendatzen (234) dio (1517'ko Urtarrillaren 17'an), eta andereak, hartzeagiria firmatzean, mindurak gaiñez eginda, honela izkiriatzen du: "Mari Azpilikuetako *tristea*". Malkorik ixuri gabe ezin irakur daiteken ixilpeko bihotz-ukigarria! Egin dezagun haren irudi Nafarroa'ren konkistatik Hondarrabia'ko errendiketaraiño lerratzen (235) diren urte larri haietan barrena. Bakar-bakarrik Xabierre'ko jauregi erdi desegiñean, beste laguntzarik

(226) Ganados.
(227) Desafiar.
(228) Caperuza.
(229) Puñal.
(230) Legezkoa (=legítimo/legítima).
(231) Agraviar, injuriar.
(232) Indemnización.
(233) Regente de la tesorería.
(234) Entregar.
(235) Labaintzen (pasatzen).

eta beste babesik gabe, Antxiko bere seme gazteenak eskeintzen ziona baizik. Pobretua funtsen konfiskaziño eta lur-soiltzeen bidez; errege-erregiña adiskideak deskoroaturik (236); ahalguztidun beaumontes traidoreak; heriotzera gaitzetsiak seme zaharrenak; bere izpiritua etengabeko gorabeheran, saio libertagarrien esperantzaz eta hauen ondorengo bukaera tristeez; Joane erregearen frakasua 1512'an, Nafarroa'ko Mariskalaren frakasua 1516'an, Asparrot'en frakasua 1521'ean. Igarri itzazue bere zalantzak eta larridurak Erreiñuaren konkista laburraren bitartean, Amaiur'ko eta Hondarribia'ko hesiketa luzeen bitartean! Zein izanen da Mikele eta Joane bere semearen etorkizuna? Garaitia (237) zailla? Heriotza ohorezko zelaian? Desterru tristea? Urkabe laidogarria? (238). Tristea, bai, oso tristea gure Mari Azpilikuetako! Guk, andre bezala desobeditua, emakume bezala iraindua, ama bezala mindua, sorterrizale bezala larritua ezagutu zaitugularik, guk, kupidaz beterik esaten dizugu: "Andre Mari, zure malkoak gure malkoak dira eta zure arantzak bihotza ziztatzen digute!".

* * *

Jaunak: eztut zalantzarik egiten Jatsutarren maiñadaz emandako albisteok eta aurreko gonferentziatan aditu zenituzten beste batzuek, Jatsutarrak katoliku sutsu zirela pentsaeraziko zizutela. Horra ba: pentsaera hori zeharo okerra izanen litzateke, Jaun Joane eta Andere Katalina errege-erregiñak —Jaun Done Antxiko'ren gurasoek, anaiek, lehengusuek eta beste ahaidek leialki zerbitzatu baitzituzten—, *nominatim* eskomuniatuak izan ba'lira egitez eta legez, kondairagille aragoitar eta gaztelau (239) gehienek diotenez. Hipotesis honen arabera, delako ahaideok "eskomuniatuak, anatematuak, madarikatuak, zismagille eta herejiagille, zigorgarri Jaungoiko Jaunari egin iraiñaz eta zigorgarri betiko tormentuz" izanen lirateke, errege-erregiña zorikabeen neurri berberan, literalki aditzera ematen dutenez Bula ospatsuek.

Leporakizun (240) eskandalugarri baiñan lojiku hau hastantzea (241) eta gure azken errege legezkoen ospe ona itzultzea (242) izan du helburu ene gonferentziaren bigarren parteak. Irakurtzeke uzten dut ordea. Eztut abusatu nahi zuen adi-egote abegitsuaz (243) eta beharbada ezta nere indarrez ere. Irakurri ahal izanen duzue inprimaturik argitara dadinean.

(236) Testuan: destronados.
(237) Garaita, garaipen, gurenda (=victoria).
(238) Afrentoso patíbulo.
(239) Gaztelar (=castellano).
(240) Imputación.
(241) Rechazar.
(242) Bihurtzea. Testuan: vindicar.
(243) Cortés atención.

Laburkiago amaitzen dut, Aita Cros jesuita goietsiaren (244) gogoeta eder eta sakona errepetituz, Sainduaren eta haren maiñadaren gauzetan aztarrikatzaille gaillena izan baita, eta ene lanaren iturri oparotsu: "Mari Azpilikuetako'k eta Antxiko haren seme txipienak, asmozko eta gogozko egiteen ondorenak onartu behar izan zituzten Jaungoikoaren aintzinean (245), Mikele Jatsuko'k, Joane kapitanak eta Balentin kapitanak onartu zituzten bezala; beren fedeak eginbehar kunplituaren ordaiñik ederrena ikusi zuen, eta agian, Arduradunaren egingaietan (246), maiñadaren oparotasun urritua premiazko baldintza izan zen Antxiko'ren saindutasunerako" (247).

Donostia'n, 1975'eko Abenduaren 3'an, Jaun Done Antxiko Xabierrekoren egunez.

JAUNARI OSPE

(244) Insigne.

(245) Hubieron de aceptar las consecuencias de actoss deliberados y voluntarios delante de Dios.

(246) En los planes de la providencia.

(247) Hau da Gonferentziaren testua, beronen autoreak irakurri zuenez.

Lehen zatia, Campión jaunaren pentsamoldez, Andre Mari Azpilikuetako'ren azalpenaren ondoren bukatzen zen, azken osagarriaren (*Jaunak:* hitzaz hasten dena) tartea dagoen tokian.

Jaun Done Antxiko'ri eta haren maiñadari buruzko datuak, ondorengo argitalpenetatik atereak daude: P. L. Jos. Marie Cros, jesuita, "Saint François de Xavier.—Son pays, sa famille, sa vie". Documents nouveaux (1re serie), Toulouse, Imp. et Lib. it. Loubens, 1894.—P. Fidel Fita, S. J., "El doctor D. Juan de Jaso". Nuevos apuntes biográficos y documentos inéditos (Boletín de la Real Academia de la Historia), tomo XXIII, año 1893.—P. Juan Antonio Zugasti, S. J., "La familia de Atondo y la genealogía de San Francisco de Javier". Pamplona, imprenta y libreria de J. García, 1920.

Campión jaunak eztitu erabilli berak, personalki edo beste iturritatik, bildu zituen datuak.

Sagardoa Fueroetan

JOSE URIA IRASTORZA

"SAGARDOA" izeneko liburutik hartutako zati laburra.

Fueroa hitz arrotza dugu. Fuero izenari eman zaion interpretazioarekin nahasketa bat baino gehiago sortu izan da gure artean. Eta ez da batere harritzekoa. Gorosabelek berak hiru interpretazio omen daduzkala izen honek esaten digu.

BAT.– Aintzinako ohiturak eta usario zaharrak. (Derecho Consuetudinario).

BI.– Herri atzeratueri emandako zergaeza edo frankiziak. (Cartas-Pueblas).

HIRU.– Erregek emandako erregaloak edo pribilejioak, berari egin dioten serbitzuak ordaintzeko. (Mercedes Reales).

Bizkaian bertan ere, bi motako Fueroak erabili zituzten: Infanzonado izenekoak; nekazarienak eta Herri-Biztanleenak.

Baina *fuero* izena Euskal Herrira sartu baino lehen, euskaldunak legetzat hartuak zituzten beren aspaldiko ohiturak. Beren artean idatzi beharrik izan ez zuten ohitura eta usario zaharrak, beti beti ohinarri juridikotzat hartu izan zituztzen. Honela, aintzin aintzinatik errespetatu ziztutzen ohiturak, lege bihurtu ziren. Eta euskaldunek legetzat hartu izan zituzten betiko ohiturak.

Geroago, legetzat erabiltzen zituzten ohitura zahar horiek, paperetara pasatuak izan ziren. Baina paperetan idatziak jarri baino lehenagotik, askoz lehenagotik, lege bezala errespetatuak izan ziren. Lege ziren.

Geroztik sortu zen *fuero* izena. Eta euskaldunen ohitura eta usario zaharrak, izen honekin ezagutuak izan ziren, beherala paperean idatziak eta bilduak izateko.

Paperetan eta liburuetan egin ziren bildumei, *fueroak* deitu izan zaie gaur arte, nahiz eta askotan zer zirenik ondo jakin ez.

Urte askoko lana izanduzen Fueroen bildumak egitea. Izan ere Herri bakoitzak eta herri talde bakoitzak (Hermandadeak lehendabizi, Junta Jeneralak gero, eta azkenez Diputazioak) askotan beren lege bereziak bait zituzten, eta denbora askoen buru, bilduak eta argitaratuak izan ziren.

Bizkaiko Fueroak adibidez, 1342 garren urtean idatziak izan ziren lehenengo aldiz. Gero, 1422 garren urtean, larogei urte geroago, bigarrren aldiz idatzi eta berritzen dituzte. Hala ere, aintzinako ohitura zahar denak idatzi gabe eta bildu gabe gelditu ziren. Horrengatik, 1.452 garrengo Uztailaren 2-an, Bizkaiko Biltzar Nagusiak, lehenengo aldiz idatzi zen Fuero Zaharra, atzera berritzea eta biltzea erabaki zuen. Bai noski sueltoan zelbitzen Ordenantzak ere gehiagotuaz, eta ahaztuaz gelditu ziren ohiturak bilduaz.

Bost urte eraman zuen lan honek. Bizkaiko Fuero Zaharra 1.457 garren urtean bukatu zen, ustez behintzat betiko. Baina oraindik berritze gehiago sufritu zuten eta hain zuzen Fray Gonzalo de Arreondo izandu zen azkenengo bilduma behar bezala egin zuena. Hau 1.526 garren urtean gertatu zen, eta harrez gero Fuero Berria izenarekin ezagutua izan da.

Laburdi eta Zuberoako Fueroak, hamaseigarren mendearen hasieran eginak dira. Gipuzkoa eta Arabakoak berriz, bi mende lehenagokoak. Eta Naparroa dugu aintzin aintzinako Fueroen bildumak egindakoa. 1.237 garren urtean hain zihur.

Irakurleak pentsa dezake hau dena ondo dagoela. Honerainoko dena polita dela. Baina, zergaitik Fueroak zer diren erakusteko hainbesteko enpeinua?

Zer ikusi behar dute Fueroek, SAGARDOA izeneko liburu honekin?

Egia.

Baina bada arrazoia, bakarra bada ere. Ikusi dugu Fueroa aintzin aintzinako ohitura dela. Gure arbasoen arbasoek erabilitako ohitura. Zientoka urte iraun eta gero paperetan idatzia gelditu den ohitura. Liburuetan idatzia, gaur dokumentuez gordetzen dena.

Dokumentu hoietan maiz aski sagarra, sagastia eta sagardoaren izenak agertzen zaizkigu. Horra ba guk darabilkigun gaia, nola aintzin aintzinatik datorren gaia den. Baina sagardoaren aintzinatasuna nahiko arra-

zoia bazen Fueroak liburu hontara ekartzeko, hala eta guztiz ere Fuero hoietatik ernetzen diren sagar-legislazio bereziak azaltea arrazoi gehiagorekin merezi duela uste dugu. Mendez mende gure aurrekoek ezagutu eta erabili zuten sagar-emaitzaren organizazio garrantzitsua liburu hontara ekartzea.

Hemen, kapitulo hontan, Fueroak ez ezik, Ordenantzak eta honelako beste erabakiak aipatuko ditugu. Baina aurretik Etxegaray jaunak hontaz idatzi zuena agertzea komedi da. Alegia, ez dela nahastu behar Fueroa eta Ordenantza, berdinak ez direlako.

Fueroa esan dugun lez, ohitura eta usario zaharra lege egindakoa da. Fueroak ez zuen inoren baimenik behar. Nahioa zen aspaldiko usarioa izatea Betikoa.

Ordenantza berriz, lege berria, disposizio berria zen. Ordenantzak indarra izateko, erremediorik gabe baimena beharrezkoa zuen. Fueroak ez.

Egia da Fueroa zehazki erabiltzekotan, Ordenantza beharrezkoa zela. Eta Ordenantza zehazki erabilzekotan, kaso bakoitzeko Agindua beharrezkoa zela.

Fueroen legea, Estadu edo Probintzi osoaren legea zen. Ordenantzetako legea, herri bakoitzeko legea zen. Eta Ordenantzetatik sortzen zen Agindua berriz, herri barruko erabakia zen.

Fueroak —adibidez— sagardoa kanpotik ekartzea debekatua zeukan, baina sagarra urria zen urteetan, ekartzeko eskubidea ematen zuen.

Baina Herri denak ez ziren berdinak noski. Baiona eta Kanbo; Zaldibi eta Hernani; edota Gazteiz eta Araia herriak ezin zitezken izan berdinak. Ez zuten beti sagardo behar berdina izaten, edota ez zuten sagar produzio berdina izaten. Orduan, herri bakoitzean beren Ordenantza partikularrak beharrezkoak zituzten.

Ez hori bakarrik. Herri barrutan ere ezin zitezkeen Ordenantza horiek kaso guzietan berdin aplikatu. Ez bait ziren beti kaso berdinak gertatzen.

Horregatik, Herri Etxeko agintariek erabaki desberdinak hartu beharra izaten zuten, beren Ordenantzak zehazki erabiltzekotan.

Erabaki hauek Herri Etxeko biltzarretako ***Acta*** idatzietan agertzen zaizkigu.

Orain datozen orrietan, nahiz ordena gehiegirik gabe idatziak izan, hiru mailako sagardo legeak edo sagar-gaiaren aginduak aipatuko ditugu: Fueroak; Ordenantzak; eta Herri Etxeko erabakiak.

Aurretik esan dezagun, ez direla ohitura denak liburuetan idatziak izan. Eta ez direla idatzitako lege denak, euskaldunentzat legeak izan. Herentziko ohitura ikusi besterik ez dugu.

Gaurko *Codigo*-an testamentuko legeak konplikatuak dira. Baina hala ere euskaldunen artean, aintzinako usario zaharrak gaurko lege arrotzak baino gehiago balio izan digu kaso askotan. Gaur zoritxarrez, aintzinako lejislazio zoragarri hartatik ez zaigu ia apurrik ere gelditzen. Oroipena besterik ez.

Honela oroitzen gara gaur, Etxegaray idazle ospetsuak esan zuenaz. Alegia, Euskal Herriko Fueroa —osoan iraun zuen bitartean noski— Europako sistema hoberena eta askatasun haundikoena izan zela.

Baina rekuerdo politak alde batera utzita, has gaitezen ikusten nolako garrantzia zuen sagardoak Euskal Herriko Fueroetan.

Sagardoak dudarik gabe, sortu zen momentu beretik, izugarrizko garrantzia hartuko zuen euskaldunen bizimoduan. Ez dugu ahaztu behar sagardoa sortu zeneko garai urruti haietan, baserri gehienek ura beste edaririk ez zutela ezagutuko artean. Bestalde, ikusi dugu Erromatarren garaietan, arte-zuhaitzaren ezkurrez nolako jaki gozoa egiten zuten garai hartako euskaldunek. Eta ezkurra honela aprobetxatzen ba zuten, esan beharrik ez dago sagarra estimazio gehiagoko jakia izango zela inundik ere.

Orduan ez da harritzekoa, Euskal Herriko legeetan sagarra ondo babestua azaltzea. Fueroek sagardoa ez ezik, sagarra eta sagastiak babesten zituzten. Hala behar gainera.

Kontuan eduki dezagun sagardoa izateko nahitaezkoak direla sagarra eta sagastiak. Sagastirik gabe ez dago sagarrik. Sagarrik gabe, ez dago sagardorik. Nola sagarra, nola sagastiak, reglamentatuak izandu ziren Fuerotan, sagardoak iraun zezan.

Babestu beharra zegoen sagarra, batez ere sagastiak onda zitzaketen abere eta piztietatik. Eta babestu beharrak zeuden sagastiak, asmo gaiztoz jokatzen zuten gizonengandik.

Jakina de aintzinako sagastietan, arbola tarteetan barazkiak aldatzen zirela. Geroago berriz, gaur ezagutzen dugun moduan, sagasti azpiak larre gozoz estaliak egoten ziren jeneralki. Honelako jaki gozoekin ez da harritzekoa aberek sagastitan sartzeko tentazioa edukitzea, nahiz eta neguko epoka izan. Hosto eta fruitu gabe egon arren sagar zuhaitzak neguan, bertara larrera sartzen ziren abereek nahiko kalte egin zezaketen sagastietan. Horregatik Fuero eta Ordenantzetan maiz aski gordeak eta defendituak agertzen dira sagastiak abere eta kalte egin zezaketen guzietatik.

Mila ehun eta larogeita bederatzigarren urtean, Laburdin agertzen diren ordena idatziak (***Ricardo Corazón de León***-ek emandakoak) sagastietan sartzen diren abereen jabeak zigortzeko dira.

Baina lehenengo lege idatzia abere seinalatuak sagastietan sartzea debekatuaz egin zena, 1.275 garrengo Ekainaren 22-an Laburdin emana izan zen.

Ordenantza hontan sagastian sartzen dien behi edo idi bakoitzagatik, 60 ***sou*** ordaindu beharko duela abereen jabeak esaten da. (***Sou*** bat kobrezko txakur txikia zen, alegia bost xentimoko txanpona). Ordainketa hau, salatzaileak eta Herriko Etxeak erdi bana jasoko dute. Bai noski sagastiaren jabeari kalte guziak kittatu eta gero. Honetzaz gainera; sagastiaren jabeak aberea bahitu ezin balu, hiltzeko eskubidea du.

Inguruko artzainak lege honen gogortasunaren aurka joan ziren denbora askoan, eta azkenez 1.312 garrengo Ilbeltzaren 15-an indarrik gabe uztea lortu zuten, abandonatutako sagastietan behintzat.

Edozeinetara Laburdiko lege honen gora-beherak, 1.359-ko Apirilaren 6-an eta 1.403-ko Irailaren 14-an emandako Ordenantzetan, behar bezala garbituak eta erabakiak gelditzen dira. Handik aurrera ez zegoen aberea bahitu beharrik. Nahikoa zen sagasti jabearen deklarazioa edo zina. Zigorketa berriz, 20 ***sou***-ra jeisten zen eta diru hau sagastiaren jabeak eta Herriko Etxeak erdi bana jasotzen zuten.

Baina 1.403 garren urte hortan bertan, idiei eta behiei bakarrik debekatzen zien legea, zabaldua gelditzen da. Aurrerantzean, bi abere hoiek ez ezik, mandoak eta zaldiak ere debekatua izango dute sagastirako sarrera. Hogei ***sou***-ko ordainketa ezarri zuten abere bakoitzagatik Herri bertakoak ba ziren, eta Herriz kanpoko abere-entzat berriz, berrogei.

Lege honek berak sagastietan sartzen ziren txerriak hiltzeko eskubidea ematen zuen.

Naparroako Fueroetan ere (***Novissima Recopilacion***-eko IV garren Liburuan) 1.512 garren urtez geroz bildutako legeetan, garbi asko irakur daiteke, sagardotarako diren sagastietan sartzen diren animaliei jartzen zaien zigorra. Egunez bada, alegia eguzkia irtetzen denetik ezkutatzen den bitartean, ***florin*** bateko ordainketa eskatzen zaie buru bakoitzeko, eta gauez bada berriz, bi ***florin*** ekoa.

Zuberoako Fueroetan bada zigorketa bat baino gehiago sagastietan sartzen diren abere eta egaztien jabeentzat. Batez ere ***Rubrique XV***-ek, zortzigarren artikuloan dakazkienak, sagarrez betetako sagastiekikoak dira.

Baina gure ustez, honelako zigorketa gogorrenak Gipuzkoako Fueroetan aurkitzen ditugu.

Hermandadeko 1.457 garrengo Ordenantza batean, Abuztuko Ama Birjinaren egunetik, Eguberri eguna bitartean sagastietan ezin litekeela sartu esaten du.

Sagastian egindako dainu denak eta honetzaz gainera, sartu diren abere bakoitzagatik, 25 txanpon zahar (ez du zenbatekoak jartzen) eman beharko ditu abereen jabeak.

Sagasti jabearen zina nahikoa da, egia dela sinisteko. Eta jabe honek abereen bahiketa egiteko eskubidea du, ahalik eta ordainketa guziak kobratu arte. Baita noski abereek bahitzerakoan egiten dituzten gastuak ere, ordaindu beharrak daude.

Ahuntzaren aurkako gorrotoa izugarria da epoka hartako Gipuzkoan. Sobra ere kalte haundiak egiten zituzten sagastietan.

Hernanin egin zituzten Ordenantzetan 1.587 garren urtean, sagastietan sartzen zen ahuntz bakoitzari 24 ***maravedis***-eko zigorketa edo multa jarri zitzaion. Eta ahuntxumea bazen, 12. Hau egunez sartzen ba ziren. Gaueko ordainketa berriz, doblea zen: 48 eta 24 bata edo bestea izan.

Donostiko 1.661 garren urteko Junta Jeneraletan ateratako beste lege batean, ahuntzen zigorketa hoiek doblera igo zituzten, eta ahuntzei ez ezik txerri eta ardiei ere zigor berdinak jarri zitzaizkien.

Oraindik behintzat, ahuntzat oso pertsegituak izan ziren. 1.728 garrengo urtean, bakoitzeko lau erreal jarri zitzaizkien eta 1.790 garrenean, beste zigorketa haundiagoa oraindik. Hoegi errealera iristen zen ordainketa.

Ahuntzak eta behorrak ugari ikusten ziren eta kalte haundiak egiten zituzten sobra ere. 1.797 garren urtean Gipuzkoako Diputazioak beste lege bat atera zuen, animali hauek beren jabeen terrenoetan bakarrik ibili zitezkeela esanaz. Edo soka batez lotuak, edo bestela artzainek zainduak.

Gipuzkoako Juntan 1.826 garren urtean Ondarrabin bildu zirenean, oraindik gogorragoak izan ziren. Partzoneriko edo Herriko Lurraldetan aurkitzen ziren ahuntzak edozeinek hil zitzakeela esaten zuen. Eta 1.840 garren urtean, hamar errealeko zigorketa ezarri zuten buru bakoitzeko, ahuntza edukitzeagatik bakarrik, nahiz eta bere etxe ondoetan ibili.

Geroago, XIX garren mendean ***Codigo Penal***-eko legeak (Art. 487 eta 488) besteen terrenoetan sartzen ziren ahuntzei, diru zigorketa bakarrik ematen zien, baina hiltzeko eskubiderik gabe.

Gaur egun ere diru zigorketak bakarrik jarraitzen dute. 1.963 garren

urte arte, pezeta batetik hirura bitarteko ordainketa zuten sagastietan (edo terreno itxietan) sartzen zirenek. Gero, 1.963-an bi pezetatik hamarrera igo zen. Eta gaur 1.974 garrengo beste lege berritze batekin, 250 pezetatik 2.500 arteko zigorkerta dute ahuntzek.

Orain arte ikusi dugu nola Euskal Herriko Fueroetan, sagarra eta sagastia ondo gordeak izan ziren abere eta beste animalietatik. Baina baziren beste lege batzuk gizonen aurkakoak. Ez bait zien abereek bakarrik sagastiei kalte egiten.

Lege idatzi zaharrenetakoa, 1.189 eta 1.199 urte tarte hortakoa dugu. Laburdikoa da eta bertan sagarra lapurtzen duenari, 66 ***sou***-ko zigor -ordainketa jartzen zaio.

Bada gaurko Benaparroan 1.245 garren urteko dokumentu bat. Bertan, Kanbo eta Ustaritz herrietako nekazariak, Thibaut erregeri kejatzen zaizkio sagarrak ez ezik, sagardo barrikak ere ostutzen dizkietelako. (Thibaut hau Teobaldo I orduko naparren errege zen).

Laburdin bertan bada beste Ordenantza berdin bat, 1.336-koa sagar zuhaitzak ipurditik ebaki edo ateratzen dituena, 100 ***sou***-ko ordainketarekin zigortzen duena. Zigorketa berdina zuen zuhaitzak botatzen zituenak sagastiren jabea bazen ere. Izan ere sagarra eta sagardoa herriarentzat emaitzik aberatsenak bezala zeduzkaten.

Hau honela izango zela ez dago dudarik, 1.304 garrengo Abenduaren 12-an emandako dokumentua ikusten bagudu. Fueroetako sagastien lege guziak hobeto gorde zitezen, eta gizon bereziak (gaurko Guardak bezala) izentatuak izan ziren, eta hitz zina edo juramentuzkoa eman beharra izaten zuten, ondo gordeko zituztela aginduaz.

Naparroako Fueroetan, XXXVIII garren Legean (Tit. VII), ehiztarien aurkako zigorra irakurtzen dugu. Sagar garaian, itxia dagoen edo mugarriez seinalatua den sagastian sartzen den ehiztariari, zortzi errealeko ordainketa jarriko zaio, eta honetzaz gainera eskopeta galduko du.

Gipuzkoako 1.457 garrengo Ordenantza batek esaten zuen (behinere gertatu ez bazen ere) fruituzko bost zuhaitz baino gehiago ipur ondotik ebakitzen zituenari, heriotza emango zitzaiola zigortzat. Txertatutako landarak behar zuten izan noski, ez basatiak edo mendiko txertakak.

Honen antzeko legea aurkitzen dugu Bizkaiko Fueroan, XXXIV garren Tituloan (15 garren Legean). Hogei zuhaitz fruituzkoak baino gehiago botatzen dituenari, heriotza emango zaiola jartzen du. Eta hogei zuhaitz baino gutxiago badira, bi urterako bidalia izango da atzerrira, kostuak lau aldiz ordaindu eta gero.

Zigor hauek intentzio txarrekin egindakoentzat dira. Baldin intentzio onarekin eginak balira –adibidez bereak diren ustetan botatzen badira zuhaitzak– orduan, lau aldiz kostuak eta juezak jarritako ordainketa izango du nahi gabeko dainu horrek.

1.535 garren urtean Oiartzungo Ordenantzetan, berrogeita hamairu garren kapituloan, debekatu eta zigortzen zuten edozein zuhaitza botatzea. Basatiak (sagar txertakak) ateratzeko baimena zegoen bakarrik, eta hauek ere Oiartzungo bailaran aldatzekotan behar zuen izan, ez kanpora saldu edo eramateko.

Sagar zuhaitza desegiteko eskubiderik ez bazegoen Fueroetan ikusi dugun bezala, gaizki aldatzeko eskubiderik ere ez zuen ematen legeak. Luberrietan aldatzeko kondizioak; muga ondoko neurriak; eta sagastia bera zenbateko neurrietan aldatu behar zen, seinalatuak zeuden Legeetan, gehienetan behintzat.

Horrela, Naparroako Fueroetan Hamabigarren Legeak (Tit.V) esaten duena ikus dezakegu. Ez dagoela sagar-zuhaitza aldatzerik muga ondoetan itzala eman dezakelako.

Lege hau, Gipuzkoako Fueroan zehaztasun gehiagorekin azaltzen da oraindik.

1.457 garrengo Ordenantza batek, haritzak, pagoak, gaztainak eta intxaurrak, sagastiei kalte egin ez diezazien zenbateko neurrietara aldatu behar diren esaten du. Hiru ***brazada***-ko neurria (bost bat metro) gutxienez errespetatuko da –legeak dio– eta hau egiten ez duenari, 1000 ***maravedis***-eko ordainketa kenduko zaio. Erdia Herrirako eta beste erdia salatzailearentzako.

Bizkaiko Fueroak oraindik detaile gehiagoz ematen zituen sagasti ondoko aldaketak, XXV garren Tituloan (5 garren Legean).

Sagasti ondoko lurraldeetan, beste motako zuhaitzak aldatzeko neurriak honela ematen dizkigu:

Haritzak eta lizarrak, hamabi brazada-ko neurria, gutxineko izango dute sagastiaren mugatik.

Gaztainak berriz, zortzi brazada-ko neurria.

Intxaurrak, sei. Eta beste sagasti bat aldatu nahi duenak, brazada bat eta erdiko neurria errespetatu beharra du.

Abandonatutako lugorria aprobetxatzeko asmoa zuenarentzat ere atera ziren Gipuzkoan zenbait lege.

Hoietako bat, Debako Juntatan, 1738 garren urtean emandakoa izan zen. Herriko lurraldean landatu nahi zuenak, ***fanega*** izeneko lur zati bakoitzarengatik, sei sagar landare jarri behar zituen.

Azkoz lehenago, 1.657 garren urtean Azkoitin egindako Junta Jeneraletan eman zen Ordenantza batek, lur abandonatuak —herrikoak noski— goldetu eta landatzeko erraztasunak ematen zituen. Erraztasun hauek, oraintxe aipatu dugun debako Ordenantzak ematen zituenak baino gogorragoak ziren. Zelai bihurtu nahi zueneri, ***fanega*** bateko lur-neurri bakoitzagatik, 100 sagar zuhaitz aldatzea eskatzen zion Legeak. Ehun sagarrondo hauek, Herriari berari zegokion tokian aldatu beharra zegoen.

Bizkaiko Foru Zaharrak, 1.452 garren urtean jaso eta berritu zenean, ehun eta berrogeita hamargarren kapituloan, zenbait neurri eta kondizio ipintzen zuen sagastiak behar bezala aldatzeko.

Garbiago ikusten ditugu neurri hauek Gipuzkoako Fueroan, XXXVIII garren Tituloan (5 garren Legean) sagar zuhaitz batetik bestera 5,58 metro behar dituela esaten duenean.

Sagar tarteko neurri hau —5,58 metroko neurria— ***sagar-lur*** izenarekin ezagutzen zen eta sagastiek neurtzeko ez ezik, edozein lurralde neurtzeko ere erabili izandu zen. Hogei oineko neurria (oin bakoitzak 0,278635 metro zuen) oraindik XIX garren mendearen bukaeran Laburdiko Sara eta Ainhoan erabiltzen zuten.

Mende honen hasieran oraindik, Naparroako zenbait tokitan, sagar-lur neurria erabiltzen zen, nahiz desberdina izan. Zazpi metroko laukia zen neurri hau.

Sagar-lur neurri hauek berberak Bizkaiko Fuero Berriak bostgarren Legean hain zehatz ezartzen ditu.

Bizkaiko Fueroetan ere nabari daiteke nolako ohitura zegoen sagasti berriak erdi bana jartzeko. Batek —lurraldearen jabeak— tokia ipintzen zuen, eta besteak sagastia zaindu eta sagasti horren ardura guziak izan behar zuen.

Sagastiaren zaintzaileak izan behar zituen ardurak hauek ziren: Sagastia urtero bi aldiz laiatu eta horretzaz gainera hiru urtetik behin, zimortu ere bai.

Lan hauek, hamabi urte pasa arte egin behar zituen. Gero, hamabigarren urtetik aurrera, sagastiaren lanak asko arintzen ziren: bost urtetik behin bakarrik egin behar zen zimorketa.

Partiketan berriz, sagar guzia erdi bana partitzekoa zen, eta kompromisu honen iraupena, sagastiaren zuhaitzak hirutatik bi parte zutik zeuden bitartean izaten zen. Hau da, 90 zuhaitzeko sagastia bazen, 60 baino gutxiagora jeisten zenean, orduan, konpromisua bukatu eta lurraldea jabearengana pasatzen zen sagastia.

Sagasti zaintzaileak —Fuero horrek berak esaten zuen— ardurak kunplitzen ez bazituen, lehenengo aldian, sagarrik gabe geldituko zen. Eta berriro bigarren aldiz sagastiko lanak egin gabe uzten bazituen, sagastiko deretxo denak galtzen zituen.

Lege honen antzeko ardurak agertzen dira Euskal Herri gehieneko sagasti-kontratoetan. Adibidez, Laburdiko maiztar-nagusien hartu emanetan, sagastiaren emaitzak erdi bana egin beharrean, beste modu batera egiten dute, nahiz sagastiaren zainketak berdinak izan. Terrenoaren jabeak, sagarren hirutatik bi parte jasotzen ditu baina maiztarren lanak —sagarrondoak atxurtu, zimortu, a.— zuhaitz bakoitzeko bi txanponekin ordaintzen ditu.

Nahita utzi ditugu azkenerako Fueroek sagardoaz ematen dituen aginduak. Asko bait dira. Gainera, ez dago sagar eta sagastien egoerarekin konparatzerik sagardoaren egoera.

Ez dugu dudatan jarriko oso antzinean, Herri-Bilduak sortu baino lehen, Herri-Sakabanatuak bakarrik bizi zirenean, euskaldunek ez zutela lege behar askorik izango. Sagardoa kaletara jeitxi baino lehen, norberak bere etxerako bakarrik egingo bait zuen sagardoa. Baina sagardoa komertzializatzen hasi zen bezalaxe, sagardoaren sal-erosketa mugitzen hasi zen bezalaxe, Legeak, Ordenantzak eta Auziak ugaritzen joan ziren noski. Beharko.

Sagardoak urietako industri eta komertzioaren babesa bilatu zuen beti, komertzioaren elementu bat balitz bezala. Honetzaz gainera, gaur ezagutzen ditugun Euskal herriko zazpi zatietan, lege berdintsuak erabili zituzten beren Fuero idatzietan.

SAGARDOA EUSKAL HERRIAN titulatzen dugun kapituloan ez zegoela alde haundirik batetik bestera esaten dugu. Honela ikusten dugu adibidez, Gipuzkoako Fueroak XXI garren Tituloan (2 garren kapituloan) dakarkiena, kanpoko sagardorik ezin litekeela ekarri ahalik eta bertakoa erabat ahitu arte. Eta bestalde, herri bakoitzak bertan egindako sagardoa nahi duen tokian saldu zakela esaten zuen Fueroak.

Orduan, herri bateko sagardoa beste herrian saldu bazitekeen eta beste herri hortako sagardoa sar ez bazitekeen, horra hor bi herrien arteko eskubide berdinen artean auzitarako bide irikia nola agertzen zuen. Horra hor

nola batentzako eskubidea zena bestearentzako debekua zen.

Hemendik ikusten da auzi bat baino gehiago sortu beharra zegoela. Honetzaz gainera, sagarra urri izaten zen urteetan, Ordenantza berriak ateratzera behartzen ziren, sagardoa kanpotik ekartzeko erreztasuna emanez.

Bata bestearen aurkako lege hauekin, ez da harritzekoa ia XX garren menderaino hainbeste auzi-dokumentuak eta lege berriak gure artxibuetan pilatzea. Eman dezaiegun pasara arin bat lege eta dokumentu hoiei.

Mila hirureun eta sei garren urtean, Lanburdin, kanpoko sagardoa bertara ekartzea debekatzen zen. Baina handik hogeitamar urtera, 1.336 urtean, baimena eman beharra zuen kanpoko sagardoari, nahiz eta erabateko baimena ez izan. Ikusi.

Sagardoa Laburdira sartzeko San Juan egunetik (Ekainak 24) Abuztuko lehenengo eguna arte bakarrik uzten zen. Justu justu, sagarbilketa lanak hasi baino hilabete bat lehenago arte bakarrik. Gainera, itsasotik sagardoa ekartzea debekatua zegoen.

Urte hontan bertan, Lege hau, honela idatzia gelditzen da Laburdiko Fueroan XX garren Tituloan (3-garren Art.): Debekatzen da kanpoko sagardoa Laburdira sartzea Abuztuko lehenengo egunetik Ekaineko 24-a bitartean. Kanpoko sagardoa epe hontan sartzen duenari, sagardo guzia kendu eta ordainketa gogorra emango zaio.

Baina Fuero honen legeak arinduak izan behar dute sagarra gabeko urteetan. Honela ikusten dugu Laburdin bertan 1.481 garren urtean eta geroago 1.501-ean kanpoko sagardoari baimena eman beharrean arkitzen direla, nahiz eta kanpoko sagardo hau berriro upeletan sartuta saltzea debekatua egon. Hau da, sagardoa kanpotik sartzen uzten zuen, baina beharrak osatzeko bakarrik zen, ez negozioa egiteko.

Honelatsuko Legea ikusten dugu Zuberoako Fueroan ere (Rubrique XXXIV, Art. II). Sagardoa erosten duenak —kanpotik noski— ezin dezake berriro saltzen jarri ahalik eta hogeitabat egun igaro arte.

Barrungo beharrak osatzeko, legeak bigundu egiten dira kanpoko sagardoarekin. Egia da Herriaren baimena behar zela nahiz etxeko kontsumorako izan sagardoa, baina baita kanpoko sagarra bera ere, ekar zitekeen Legeen baimenarekin.

Hori bera gertatzen zen Euskal Herriko beste tokietan. Debekatua zegoen sagardoa kanpotik ekartzea, baina debeku hori altxatzera behartuak ziren, sagardoa etxean falta zenean. Naparroan, 1.724 garren urtetik

1.726-ra, bertako Korteak XLVII Legean, kanpoko sagardoa ekartzea debekatua eduki zuen, bertako sagardo guziak ahitu arte behintzat. Baina Korte hoiek berak 1.794-tik 1.797-ra, Naparroa bertako sagardogileek nahi zuten moduan eta nahi zuten tokietan saldu zezaketela sagardoa erabaki zuten.

Gipuzkoako Fueroak ere XVI garren mendean, sagarrari buruzko Ordenantzez beteak aurkitzen dira. Sagardorekikoak behintzat garaitsu hortakoak ditugu ugarienak.

1.584 garren urtean Zumaian idatzi ziren Ordenantzetan, sagardoa —txakolina ere bai— kanpotik ekartzea debekatzen zen, bertan nahikoa bazelako. Urrungo urtean ere, 1585-ean Gipuzkoako Junta Jeneralak debeku berdina ezartzen zuen, etxeko sagastiak eta etxeko sagardoak babesteko eta defenditzeko zirela esanez.

Arabako Ordenantzetan ere, nahiz eta ardo lurraldeak izan gehienak epoka hontan behintzat, sagardoaz zenbait Lege agertzen da.

Arzeniega-ko herrian eta 1.641 garrengo Otsailaren 5-an, kanpoko sagarra eta kanpoko sagardoa debekatuaz Ordenantza bat ematen da. Lege hau etxeko ardoari kalte edo konpetentzi ez egitearren jarri zen.

Ikusten dugun bezala, Lege hauek denak bertako edariak saltzeko erreztasuna izan zezaten dira emanak. Honegatik zigor bat baino gehiago izan zuen kanpoko sagardoak. Ikus ditzagun kaso batzuk.

Esan dugunez, kanpoko sagardoak, eta sagarrak berak ere bai, herriaren baimena behar zuen beti, nahiz etxeko kontsumorako izan. Baimenik gabeko inportazioak zigorra zuen. Eta deskuidoan behin edo behin zigor bigun samarra jartzen bazuen agintariak, beherala zigor gogorragoak ezartzera behartuak izaten ziren.

Ikus dezagun adibidez, nola 1.695-eko Apirilaren 19-an egin zen Biltzarrean, Tolosako agintariak zigorketa bat ematera behartuak izan ziren kanpoko sagardoa herrian sartu zelako. Honela zioten beren akuerdoan:

"Y por contra Ordenanza dada en 30 Setiembre de 1694, se ha hallado 2 Cubas de Andrés Arenas llenadas con sidra de fuera; otra Cuba de Juan Sanz de Ulibarri, y otra de Miguel de Ansorena. Se acordó que como pena, saquen dichas sidras fuera del territorio de Tolosa para finales de Julio y traigan la testificación consiguiente de que lo han hecho."

Zigor hau ez zitzaien gehiegizkoa iruditu sobra ere beste sagardogileei, eta urrungo urtean, 1695-ko Irailaren 2-an, Dekreto bat zabaltzen da Herrian. Dekreto hortan kanpoko sagarra edota kanpoko sagardoa herrira sartzen duenari, kendu eta galdu erazi egingo zaiola esaten da. Etxerako

bakar bakarrik denean utziko da, eta hau, etxeko beharra eta kantidadea ikusiaz, Herriko Etxeak baimena ematen duenean. Ez bestetan.

1713 garren urtean ere, Azaroaren 17-an lehendabizi, eta 29-an gero, kanpotik saturtako sagar piloak jaso eta kendu zituzten Tolosako agintariek.

1726 garren urtean Ipar Euskal Herritik zekarkiten sagardo partida haundi bat Ondarrabin hartua izan zen. Eta 1732 garrenean ere, Laburditik Pasaira zetorren sagardoa jasoa izan zen, nahiz eta Terranobara eramateko izan.

Baina sagardo hauek bahitu eta gero, Gipuzkoako agintariek urte hortan bertan —1732-an— sagardoa urri zegoelako, kanpokoa sartzen utzi beharra izan zuten. Geroago ere 1740 garren urtean Getariako Junta Jeneraletan, kanpotik sagardoa sartzeko eskubidea eman zuen.

Handik puska batera berriz, 1774-ean Ondarrabiko herriak galdetzen zuen ia Frantziko sagarrekin egindako sagardoa salgai jartzea galera zezaken. Gipuzkoako erantzuna fueroen erantzuna izan zen. Alegia, herrian nahiko sagardoa edukiz gero Frantziko sagarrekin egindako sagardoa ez uztea, nahiz eta Ondarrabin bertan egina izan.

Honela jarraitzen du kanpoko sagardoaren egoerak ia XIX garren menderaino. Gehienetan galerazita.

Halaz ere sagardoaren inportazioak aski ugariak dira.

Bada 1515 garren urtean Baionatik ehun sagardo barrika Gipuzkoara ekarri zutela esaten duen dokumentua. 1745 garrenean ere beste 297 barrika sartu ziuzten. Eta handik hamar urtera, hau da 1755 garrenean, bale eta bakalloren bila zihoazen itsas-ontziak betetzeko, pasaitarrek 420 sagardo barrika erosi zizkien Baionako sagardogileei.

Edozeinetara lehenago esan dugun lez, bai kanpotik sartzeko debekuak nola kanpora saltzeko baimenak, sekulako iskanbilak eta borrokak sortu zituzten herri askotan. Eta egia esan etzen zaila hori gertatzea.

Gipuzkoako herri batzuek oso gogor jokatu zuten kanpora ateratzen zen sagardoarekin. Gogorrena Donostia izandu zen, batez ere, handik, itsasotik irten behar zuen sagardoarekin.

Pasaiko Kaia orduan Donostiakoa zen. Donostiarrek zuten ba Gipuzkoako itsas-interbide printzipalenaren giltza.

Honela, 1695 garren urtean Errenderiko sagardo partida bat, Pasaiko kanalean bahitua gelditzen da. Errenderi, segituan auzitara joanen da, eta Diputazioak arrazoia berari ematen dio, 1699 garrengo Apirilaren 4-an.

Ez dezagun ahaztu Fueroek eta Ordenantzek kanpora saltzeko baimena beti eman izan zutela. Halaz ere donostiarrek 1710-ean ez zuten uzten Hernaniko sagardoa Laburdira pasatzen. Orain auzitara jotzen duena Hernani da.

Berriro donostiarrak dira 1727-an Hernanitk Zumaiara itsasotik zihoen sagardoa irteten uzten ez dutenak. Baina 1728-ko Junta Jeneralek, Urrilaren 16-an, sagardoa saltzeko askatasun guzia ematen dute, eta bi herri hoiei arrazoia ematen diote.

Hala ere oraindik, 1732 garren urtean, berriro Hernanitik Zumaiara zihoazen bi sagardo upelak Donostian bahituak gelditzen dira. Eta berriro urte hortan bertan, 1732-ko Urrilaren 27-an Gipuzkoako agintariek Hernaniri eman zieten arrazoia.

Behin XIX garren gizaldiez geroz, berehala konturatzen dira euskaldunak, kanpotik sagardoa ekartzeak duen debekuak konpetentzi gabe uzten duela sagardogintza. Eta konpetenzi eza hori kaltetako besterik ez zela, bai sagardo edaleentzat —ona eta txarra edan behar zutelako— bai sagardo egileentzat, kanpora saldu ezin zutelako.

Horregatik gizaldi hontan bertan —eta aurrekoan ere bai— Fueroko lege hau ahaztua gelditzen da, eta herri bakoitzeko sagardoari nahi duen tokian saltzeko eskubidea ematen zaio. Gipuzkoako Junta Jeneralak 1765-eko Urrilaren 3-an emandako Ordenantza batean, sagardoaren salketa librea uzten zuen, nahi zen tokian eta nahi zen preziotan saltzeko.

Hala ere Motriko-ko herriak, 1782 garren urtean, lehengo lege zaharretara jo nahi izan zuen, Donostiako sagardo partida bat herrian saltzen utzi gabe. Baina Diputazioak kontra egin zion sagardoa nahi zen lekuan saldu zitekeela esanez. Ez zen izan Motriko herria goiko agintarien aurka joan zen herri bakarra. Tolosako kontzejalak espetxeratuak izan ziren 1799 garren urtean, lege honegatik.

Tolosarrek, egindu honi uko eginez lehenagoko ohiturekin jarraitzea erabaki zuten. Alegia sagardogileek Herriko Etxean seinalatutako prezioan saldu behar zutela sagardoa, tokatzen zitzaien tasa Herriari ordainduaz.

1771 garrengo Irailaren 23-an erasotzen dio Kastillako Kontseiluak Tolosaren aurka, emandako agindua kunplitzea behartua zegoela esanaz. Baina halaz ere, 1783 garren urtean Tolosako Herri Etxeak berean jarraitzen zuen nahiz eta berriro abisatua izan.

Azkenean 1799 garren urtean, behin eta berriz Gaztelaniako Erregearen aginduei uko egin eta gero, prozesatuak eta kartzelatuak izan ziren

Tolosako kontzejalaz.

Lege hau, kanpoko sagardoaren salketa librea alegia, Gipuzkoako 1825 garren urteko Junta Jeneraletan oinarritua gelditu zen dekreto baten bidez. Geroago ere, berriro 1830 garren urtean Mondragoiko Biltzarrean eta baita ere 1833-an garbi gelditu zen sagardoak nahi zen tokitan saltzeko zuen askatasuna inungo herriak ez zuela inolaz ere kentzerik.

Lege hau betiko honela gelditu uste izanagatik, oraindik bada beste Ordenantza bat, 1855 garren urtekoa, sagardoa kanpotik ekartzea debekatzen duena, nahiz eta Terranobarako izan.

Sagardo soilak edo sagardo puruak horrenbeste gora-beherak izan bazituen ere, pitar sagardoa ez zen atzera gelditzen Lege eta Ordenantzetan. Nahiko lanak eman zituen urez nahastutako sagardoak.

Sagardoa bera gradu gutxiko edaria denez, Fueroak puntu hontan gogor egiten zuen. Oso ezaguna izan da Gipuzkoako Fueroak hogeitabat garren Tituloan aipatzen duen legea. Alegia, saltzeko den sagardoari ezin dakiokela urik nahastu. Sagardori ura nahastekoan, etxerako bakarrik izango da. Saltzeko behin ere ez.

Honelatsuko legeak ditugu Laburdi, Bizkai eta beste probintzietako Fueroetan. Baina sagarra oso urria zen garaietan, debeku hau altxa egiten zen, sagardoari ura botatzeko baimena emanez. Ez noski bakoitzak nahi zuen haina botatzeko eskubidearekin. Ez.

Gipuzkoan, 1614 garrengo urtean Irailaren 9-an, sei ***herrada*** izenezko neurria —15 litroko ontzia zen ***herrada***— urez betea bota zekiokeela sei zakuko karga bati, esaten zuen Ordenantza batek.

1708 garrengo Urriko 5-ean, bost ***azumbre*** izeneko neurria (***azumbre*** bat litro pare bateko neurria zen) urez betea, zaku bakoitzari nahasteko baimena ematen zen.

1.759 garrengo Irailaren 7-an ere bai, zaku bakoitzari bost ***azumbre*** *ur bota zekiokeela esaten zen. (Neurri honekin, 60 litro gaurko sagar gurdiari tokatzen zaio).*

1765-ko Irailaren 15-an, lau ***azumbre*** zaku bakoitzeko. Eta handik hamar urtera, 1775-ko Irailaren 12-an (orain bi mende) zazpi ***azumbre*** ur, zaku bakoitzari botatzeko eskubidea ematen zen.

Urez nahastutako sagardoa Fueroetan debekatua egon ez ezik, Euskal Herriko herri gehienetan oso pertsegitua zen. Jeneralki, debeku honek 60.000 ***maravedis***-eko zigorra izaten zuen, salatutako sagardoa jabeari

kendu ondoren. Eta diru hauek —sagardoarekin batetan— hiru zatitan zabaltzen ziren: bat, salatzaileentzat; bestea, auzia erabakitzen zuen Juezentzat; eta hirugarren partea Herriarentzako izaten zen.

Baina 1695-ko Irailaren 2-an emandako Ordenantza batean, urez nahastutako sagardoa saltzen harrapatzen zaionari, ez omen zaio salketa hori galerazi bakarrik egingo; sagardo dena lurrera bota eraztera behartua izango omen da, esaten da garbiki.

Ordenantza hau eman zenetik hamar urtera, 1705 garren urteko Abuztuaren 15-an, emakumezko sagardogile bati (garai haietan andere askok zuen sagardotegirik) urez nahastutako sagardoa saltzen ari zelako, sagardo dena, upelak berak, eta diru ordainketa kendu zioten, emandako Legea bete ez zuelako.

Zigorketa hoiek erakusten digutenez, sagardo pitarra ondo kontrolatua egon zen. Bai ura botatzeko neurrian, berdin saltzeko prezioetan.

Honela, Larbudin ere ikusten dugu 1321 garren urtean, urez nahastutako sagardoari saltzeko baimena eman ez ezik, zenbaitetan saldu behar zen prezioa jartzen zitzaiola. Sagardo soilak, urez nahastu gabeak alegia, bost ***sou*** (kobrezko txakur txikia) litroko. Eta urez nahastutako sagardoari berriz, bi ***sou***-ko prezioa jarri zioten.

Urte hori pasa eta gero, berriro debekatua gelditzen da pitarra Laburdin. Baina 1328 garren urtean, berriz ere sagar urriko garaia heltzen da sobra ere, eta orduan saltzeko baimena ematen zaio, bere prezioarekin. Sagardo soilak, 4 ***sou*** litroak, eta sagardo pitarrak, 3 ***sou***.

Sagardo-pitarra egiteko baimenik ez zen urteetan, sagardogileak behartuak izaten ziren zina edo juramentua egitera. Alegia, salgai jartzera zihoazen sagardoak bat ere ura nahastu gabeak zirela aitortzera.

Honela arkitzen dira 1610-ko Irailaren 30-an; 1616-ko Otsailaren 8-an; eta 1676-ko Otsailaren 19-an egindako Herri Biltzarren akta edo dikumentuetan.

Batzutan sagardoa egiten zuen langileei ere, urik erabili ez zuten zina eskatzen zitzaien. Herriko agintariei honelako eskubidea 1695 garrengo Irailaren 2-ko Dekretoak.

Zina egiten zen tokia Herriko Etxea zen. Hara bildu arazten zituen herriko sagardogile guziak eta han, Herri Etxean alegia, organizatzen zituen denen aurrean, urteroko, sagardo salmenta denak. Herri Etxeetan erabakitzen zen noiz, nola eta zenbateko preziotan saldu behar ziren urteroko sagardoak.

Fueroetako Legeak oinarritzat harturik, herrietako agintariek urtero

urtero beren herriko beharrak ikusi eta sagar-urtearen gorabeherak pultsatuta, zenbait Ordenantza eta zenbait erabaki eman eta hartzen zuten.

Batzuetan gerrateko egoera larria izango zen halako legea ezartzera behartzen zituena. Besteetan sagar urte txarrak, sagarraren eskasiak eragingo zien bestelako erabakia hartzera. Baita epidemi gaiztoren batek ere, gogoz kontrato aginduak ematera behartuko zituen behin edo behin.

Dudarik gabe batzutan sagardo saltzaileak izango ziren konforme gelditzen ez zirenak. Bestetan berriz, erosleak izango ziren. Baina egia esan, agintari haien borondate ona eta herriaren aldeko enpeinu haundia, garbi nabaritzen da beren Biltzarretako aktetan. Hainbeste izan ziren sagardo arloan hartutako akuerdoak. Irakur dezagun adibidez 1656 garrengo Uztailaren 1-an Tolosan egin zen biltzarraren akta idatzia, eta bertan ikusiko dugu nolako zozketak edo sorteoak egiten zituzten sagardoa salgai jartzeko.

Sagardogileak eta herriko agintariak Herriko Etxean bildu ziren eta denen aurrean, saltzeko zituzten sagardo upel denak txartel batzuez izentatu eta gero, zilarrezko bi txarrotan sartu zituzten txartelak. Txartel bakoitzak upel baten izena zeramakin.

Orduan, txarro bakoitzetik nahas-nahas eginik ateratzen ziren txartelak erabakitzen zuen upelen txanda. Aurrena ateratzen ziren bi txartelak —txarro bakoitzetik bat— haiek jarriko ziren lehenengoz salgai. Gero, binaka binaka txarroetako zozketaz erakusten zuen zeintzuk izango ziren errenkadan salduko ziren sagardo upelak.

Txanda bakoitzeko bi upelak bateratsua hustutzen zirenean, orduan —eta ez lehenago— urrungo txandako bi upelak salgai jarriko ziren. Baina biak bateratsuan ez ba ziren hustutzen, bukatu gabeko upelari beste zortzi eguneko epea —ez gehiago— ematen zioten bere azkenengo sagardoak saldu zitzan.

Zortzi eguneko epe hau igaro eta gero, nahiz upeleko sagardo dena ez saldu, segituan, zozketan ateratako urrungo bi upelak irikitzen ziren. (1690 garren urtetik aurrera, zortzi eguneko epea sei egunera jetxi zen Gipuzkoan).

Aipatu dugun Biltzar hontan, 1656-ko Uztailaren 1-an alegia, hogeita-sei sagardo upel izan ziren suerteatu zirenak. Baina handik bi urtetara, 1658-ko Maiatzaren 29-an, hirurogei ta sei upel presentatu ziren —33 txanda— Herri Etxeko zozketara, Ekainaren lehenengo egunean salgai jartzeko. Zozketa horren zerrendatik 38 sagardotegi ateratzen ditugu Tolosa urian.

Ez zuen izaten tratu berdina kanpoko sagarrarekin edo bertako sagarrarekin egindako sagardoak. Nahiz herriko baimena eduki, kanpokoak, beti beti etxeko sagarrarekin egindakoak ziren lehendabizi salgai jartzen zirenak. Etxe barneko sagarra defenditzen zen beti, txandatan aurrena sartuaz.

Honela 1694 garrengo Otsailaren 23-an, berrogeita hamairu upel —upelaren jabeak noski— heldu ziren Tolosako Herri Etxera bertako sagarrarekin egindakoak, eta beste bederatzi kanpokoak. Bi zozketa egin ziren. Bat, 27 txandatakoa lehendabizi salgai jarri zena. Bestea, bostekoa, etxeko sagardoak saldu eta gero salgai jarriko zena. Zozketa bakoitzeko upelak pareak egokitu ez zirenez, azkeneko txandak upel bakarrekoak izan ziren.

Baita 1758 garrren urtean ere Azaroaren 24-an egin zen Biltzarrean, ***Bando*** izeneko abisoa kaleetan zabaltzea erabakitzen da, sagardoz beteak dituzten upelen nagusiak zozketara inbitatuaz.

Zozketa hau urte hortako Abenduaren 27-an egin zen, eta hiru klasetako txandetan hain zihur. Lehenengoz, bertako sagarrekin egindako sagardoak sartu ziren sorteoan. Bigarren, Tolosa bertako sagarrez parte bat eta kanpoko beste partez egindako sagardoak. Eta azkenez, salgai jarriko ziren txandak, erabat kanpoko sagarrarekin egindako sagardoak izan ziren.

Honela funtzionatu zuten txandak Gipuzkoako herri gehienetan. Txandazko ohitura honek 1800 garren urte arte iraun zuen gutxigorabehera.

Ez dakigu zergatik, baina izan ziren, lege hori kunplitu ez zuten tarte batzuk. Honela, 1620-tik 1655-arteko epean eta gero berriro 1702 garren urtean, sagardogile bakoitzak nahi zuen moduan saldu zuen bere sagardoa, txandako ohiturei kasorik egin gabe. Baina esan ditugun urte hauek kendu eskeroz nahi ta nahiezkoa zen txandazko xistema hori errespetatzea. Ikusi besterik ez dugu nola 1668 garrengo Maiatzaren 24-an, 3.000 ***maravedis***-eko zigorketa eman zieten lege horri kasorik egin gabe sagardoa salgai jarri zutenei.

Izan ziren noski txandatik aparte utzi ziren kaso batzuk. Adibidez 1696 garren urteko Ilbeltzaren 7-an, hirurogei upelekin hogei eta hamar txanda egin ziren. Baina lurrera eroritako upel bati segituan saltzeko baimena eman zitzaion txandari kasorik egin gabe, zedukan jarioarengatik erabat hustu ez zedin.

Esan dezagun oso aintzinako ohitura zela Herri Etxeko Biltzarretan, parrokiko kanpai haundiena jotzea. Biltzarreko erabakiak balio izateko, beharrezkoa omen zen Elizako kanpai haundienaren doinua entzutea.

Ohitura horren arrastoa XVII garren mende bukaerako akta batean arkitu dugu. Honela hasten da biltzarra:

"... se juntó en su Ayuntamiento cerrado a son de Campana en continuación de la costumbre inmemorial y en observancia de sus fueros buenos usos y costumbres. Dijeron sus mercedes que el día 16 de Diciembre anterior (Año 1695) habían reconocido todas las Cubas de Sidra que se envasaron el año último..."

Gorosabelek dionez, bere garaian ere —1860 inguruetan— jarraitzen omen zuen Tolosako Santa Mariko kanpai haundienaren jo behar horrek Herri Etxeko Biltzarretan. Gaur bizi garan hogei garren mende hontan izango zen galdua nolabait ere usario zahar hori.

Elizako kanpaiak ez ezik, Elizak berak izan zuen horregatik zer ikusia Euskal Herriaren sagardo arloan. Tolosako artxiboko lehenengo liburuan agertzen denez 1556 garrengo urtearen Abuztuko 14-ean, herriko agintariek urrengo egunean —Ama Birjinaren egunean— Santa Mari Elizako pulpitotik sagarra jotzen hasi behar duten sagardogileei zenbait neurrri eta zenbait kondizio jartzea baiezten dute.

Bat edo bat harritu liteke Elizako pulpitotik sagardoaren legeak ematen zituztela irakurritakoan. Baina hala zen.

Betidanik eta aintzinean batez ere, euskalduna elizkoia izan da. Oraindik orain oso ezaguna zen Euskal Herrian, iganderoko meza nagusiaren bukaerako argazkia: emakumeak alde batetik, gizonezkoak bestetik, Eliza ataria zen asteroko berriak jakiteko tokia. Horregatik ez da harritzekoa Elizaren bidez herriko oharrak ematea. Ohar hoietako bat sagardoarena zen.

Urtero, Eliz barruko pulpitotik ematen ziren sagardo berriaren hasierako abisoak.

Baira utz dezaiogun, oraingoz, Elizari eta jarrai dezagun gure hariari. Fueroetako hariari alegia.

Sagardoa oso estimatua eta oso maitatua zela ikusteko, Bizkaiko Fueroa irakurri besterik ez dugu. Hogeita hamalau garren Tituloan (20 garren Legean) asmo gaiztoz upeleko sagardo dena —edo dena ez bada, gehiena— husten duenari, zigortzat heriotza emango zaiola esaten du.

Laburdiko dokumentuetan ere, gaixotasun aitzakiarekin sagardogintzako lanetara joaten ez diren langile edo mórroiak zigortuak izango direla irakur daiteke.

Baina sagardoa oso estimatua bazen ere, suak egin zitzaken kalteak

bildurgarriak ziren garai haietan, eta ez zen izaten erreparorik sagardoa uraren ordez erabiltzeko.

Honela ikusten dugu Gipuzkoako Fueroak hogeita hemeretzi garren Tituloan (2 garren Kapituloan) dakarrena. Sua itzalteko ur nahikoa ez balego, sagardoa hartu zitekela zegoen tokitik, behar izanez gero. Bai noski gero Herriak, sua itzalteko erabili den sagardoa ordaintzekotan.

Sua bezain kaltegarriak gertatu ziren Karlisten Gerrek ekarri zituzten ondorenak.

Lehenengo gerratean —1833-an hasitakoan— Gipuzkoako Diputazioa oso larri ibili zen sagardoaren zergak jasotzeko. Honela ikusten dugu 1834 garrengo Uztailaren 20-an emandako Dekretoan. Hamairu kondizioko Dekretoa zen, sagardoaren zergak ordaindu behar zituztenentzat emana eta zerga hoien erremateak edo subastak errazago egin zitezen. Gipuzkoa osoa sei zatitan partitzen zen.

Honela zion 11-garren kondizioak: Irungo sagardoen inpuestoekin batera, Hondarrabi, Lezo eta Oiartzungo herriarenak ere, Irungo Herri Etxean Bilduko dira.

Donostikoan berriz, Alza, Igeldo, Zubieta, Errenderi, bi Pasai, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Usurbil eta Aginagako herriak sartuko dira.

Tolosako Herri Etxean bilduko ziren zergak, herri hauetakoak ziren: Tolosa bera, Andoain, Billabona, Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul, Sorabilla, Alkiza, Hernialde, Anoeta, Irura, Berrobi, Leaburu, Orexa, Gaztelu, Bedaio, Ibarra, Belauntza, Elduaien, Berastegi, Lizartza, bi Altzo, Alegi, Amezketa, Ikaztegieta, Orendain, Abalzisketa, Albiztur, Bidani, Goiaz, Beizama eta Erretzil.

Ordizia edo Billafranka herria, ***Partido militar*** izenarekin ezagutzen zen une hortan. Honela zion Dekretoak: Billafrankako Herri Etxera Legorreta, Arama eta Billafranka bertako partidu edo zati militarra formatzen duten herri guziak bilduko dira.

Getariako Herrian, Askizu, Motriko, Astigarribia, Mendaro, Deba, Iziar, Arrona, Mendaro-Garagarza, Zumaia, Urrera, Orio, Aia, Alzola, Urdaneta, Laurgain, Aizarna, Bedansa (?) eta Zestoa, herrietako sagardo zergak bilduko dira.

Eta azkenez, Bergaran, herri kontakoa eta beren inguruko herrietakoak (Getarian sartu gabe gelditu ziren guziak) ordaindu beharko zuten.

Dekretoaren beste kondizioetan, zenbateko zergak jar zitezkeen esaten zuen. Lau ***maravedis***-ekoak, sagardo ***azumbre*** bakoitzagatik izango zen,

eta bi ***maravedis***-ekoa berriz, zizarra izeneko sagardoarengatik.

Zizar sagardoa Irailaren lehenengo egunerarte egiten zena bakarrik konsiderako zen. Eta sagar karga bakoitzagatik, 56 ***azumbre*** sagardo kontsiderako zen.

Dekreto hau Uztailean emanagatik, halaz ere Abuztuko 3-an beste ***Bando*** batzuk egitera behartu zituen Herrri Buru guziak, egun hortako hamaiketan sabastatzaileei deituaz. Ez zen ezer egin.

Berriro —1834 urtean beti— Abuztuko 30-ean beste dei bat egin zen. Baina alperrik. Ez zegoen zergak kobratzeko modurik.

Orduan Irailaren 13-an Gipuzkoako Diputazioak behin ere hartu ez zuen erabakia hartu beharra izan zuen. Gerra egiten ari zen kalteak kontuan edukiz nahitaezkoa zuen dirua Diputazioak, eta sagardogintza garaia aurrera zihoelarik ikusita, Frantzisko Blantxon izeneko gizonarekin tratu partikularra egin zuen ***Convenio alzado*** izeneko kontratoaz.

Larriago izan zen oraindik 1865 garren urteko Urriaren 17-an gertatutako egoera. ***Cólera Morbo*** izeneko gaixotasun gaiztoa zabaltzen hasia zen Euskal Herrian eta Gipuzkoako agintariek sagardotegiak ixteko ordena eman zuten egun hortan. Batez ere une haietako sagardo berriak debekatuak gelditu ziren. Bada 1865 garrengo Urrilaren 20-an sagardogileek debeku hori altxatzeko eskatzen duteneko dokumentua. Baina ***Junta de Sanidad*** izeneko elkarteak emandako informean gogor ekin zuen. Alegia saldu nahi zuten sagardoak, irakinaldia upelean sofritu eta gerokoak behar zuen izan, eta Herriko Rejidoreak beste dastatzaile batekin, sagardotegian bertan kondizio onetan zegoela ikusi ondoren, upela itxi eta seilatuta geldi-tu behar zuen, batere dudarik gelditu ez zedin.

Enfermedade honengatik iruditzen zaigu nolabait ere izango zela sagardotegi berrien ukamena.

Tolosako sagardogile batek 1865 garren Irailaren 13-an Errementari Kaleko 34 garren zenbakian, tolarea eta upelak antolatzeko baimena eskatu zuen. Sei egun barru —Irailaren 19-an— nahiz eta toki hori kondizio onetan zegoela aitortu, debekatu egin zioten sagardotegia montatzea.

Gerratearen ondorenak ikusten ditugu baita ere 1875 garrengo Irailaren 3-an —orain bigarren Karlistada— Gipuzkoako herri batzuetako sagardogileek (hamalau firma azaltzen dira) Tolosako Herriko Etxeari egindako denuntziarekin. Alegia, esaten zuten, nahiz eta Tolosa barrenean gudari ejerzito haundia mantendu beharra izan, ez zegoela deretxorik sei errealeko zerga beren sagardoei jartzeko, Tolosako sagardoak lau errealekoa bakarrik zuenean.

Nahiko arrazoia bazuten zerga berdina behar zuela izan denentzako eskatzen zutenean. Noski, orduan bakarrik —esaten zuten beren idatzian— ugarituko zen, kanpoko sagardoak eta ugaritzerakoan merkeago ere jarriko zen. Eta sagardoa merkeagoa izaterakoan kontsumoa ere gehiagotu egiten zen, Herriaren zergak haundituaz.

Baina hala eta guztiz ere Tolosako agintariek, gerrako aitzakiarekin ez zuten jetxi sagardoaren inpuestorik. Ezta gerra bukatutakoan ere.

Honela ikusten dugu 1878 garrengo Azaroaren 30-ean hogeita-zazpi sagardogile —orain tolosarrak— egin zuten protestan.

Gerrako aitzakiarekin jarri zuten lau errealeko zerga gogorra arazten die Tolosako agintariei. Eta orduan arrazoizkoa bazen zerga hura, herria blokeatua zegoelako, gaur —1878-an— pakea egina dagoelarik, zerga hori alperrikakoa dela eta mesedez kentzeko eskatzen zuten.

Zerga kontutan ari garenez geroz, pozik ekarriko genuke orain dokumentuetan bildu dugun sagardoaren zenbait prezio. Baina bildur gara kapitulo luze hau aspergarriagoa egingo ote dugun irakurlearentzako.

Horregatik eta Sagardogintzako kapituloan ondo enkajatuko duen ustetan, hobea dugu oraingoz hemengoa bukatu eta urrengo kapitulora pasatzea.

Jose Maria Iparragirre

Isidoro de Fagoaga'ren liburutik LOS POETAS Y EL PAIS VASCO'TIK
Tene Mujika'k euskeratuta

Euskel Olerkaria, edo soil-soil Olerkaria, oroizenez deitu zitzaion bezela Jose Maria Iparragirre'ri bere izakera ekaizdunean —baita ilda gero ere— ba, arako Jainkotxoen antzera, kondairatik igaro gabe aselean sartutako notiña zan. An-da-emen, bizikondaira egin nairik beretzaz idatzi dana, kea aizetan bezela aienatua da, eta on-edo-txar, erdira geien bat, aseleak iraun du. Berriztu ta ugalduta goiargia eman zion erria bizi dan eta biziko dan aselea.

"Igaroa dan mendearen azken aldera, Urretxu'ko Villarreal'en, erriak bere seme egalariari jaso zion arrizko irudia azaltzeko egin zitun jaietan, Antonio Peña ta Goñi'ik "erriaren gogamen" izentatuaz goraldu zuan olerkaria. Iru eratara maxialtzalle aipatua zan Peña y Goñi: eresi, pelota, ta zezenketa; baiña goraltze orren ondoren adierazi nai izan zuan itz oiekin olerkariakiko ulertzen zuana: "Jaungoikoak ondo daki ereslari ta olerkariaren kondaira edestu nai nukela, baiña nai-ta-ez, lan ori utzi bearrean naiz, ta bildur naiz baita, biar, orretara ausartzen danari beste orrenbeste gertatuko zaionez. Iparragirre'ren kondaira nork daki? Zein da ori edesteko lain? Bai alda iñor txori baten bizi kondaira idazteko lain?".

Izan ere orixe zan Iparragirre: txori bat; azkatasun egarri zan txoria, egotzat bere irudimenaz gañera, mundurik-mundu lege gabe, azke, zebillela soñean zeraman kapusaia, ta gitarra, zartxo bat, besterik gabe.

BIZIKERA EGALARI BATEN IKURRA

Bere lenengo urteetatik, ume zala azaltzen zan Jose Mari'gan igesnaikoaren ikurra. Ezin diteke esan ikasi-zale zanik bere lenengo ikastaroetan, beintzat sarriagoetan "eskola igesi" ibilli zan ikastera joaten baño. Amairu urte zitun garaian, karlistaen gudatea lertu zanean –auen ekiñetatik lenengoa– mendira-jo zuan, bere erri inguruan zebiltzan on Karlos Borbon'en sasigudarietara batzalduaz. Sarritan zauritua izan zanez, eta ekiñerako gauza etzala gelditu, turulari arakotu zuen *Erregenaikoaren zaintzalle* ooerea gerora.

Karlista aldekoak azpiratuak zirala, gudatea amaitzean, bere lagunak bezela atzerrira, Frantziara iges-egin zuan.

Ordutxetik asita nolabaiteko bizikerara jo zuan igaro zitun urteak amarnaka zenbatzekoak zirala. Eskuzabal zarpil, arlote, ibilkari aspertuezíña; ara edo onera, ala edo onela, zintzo eldu bearraren aurka, iritzira igaro zitun: Frantzia, Suiza, Italia, Alemania ta Inglaterra. Alpes'etako gallurreetara igo, eta tiroltarren aisa-abestiak ikasi, baita ederragotuak neskatxai abestu ere. Jauregi, ostatu, antzoki, legorpe, guzirakoak sarritxotan iketzen ditu. Espetxetua izandoko nekeak jasan bearrak, barauta moskorrak, ardoarenak beste, jotzen zizkioten txaloenak ere. Eta beti-beti abesten, aspertu ezineta logabe, guzia antolatu –edo nastu– egiten duan txitxarra da. Berriro bere txokora jotzen du, baiña abesten dualako espetxeratua da, Ateratzen berriro atzerrira alde-egiten du oi bezala, abesten. Zearkatzen du Atlantikoa bere tresneritza gitarra ta ametsak besterik gabe. Buenos Aires'en Anjela Kerexetakin ezkondu, bera bezela gipuzkoarra zanakin, eta eztaia abesti berri batekin ospatuaz.

Andik Uruguai'ra alde-egin, eta barrutizain irabazbidea arkitu zuan; Baiña Joxe Mari'k maiteago zitun edanetxeak mendia baiño, zortzikoak abesten orduak oietan igaroaz. Bitartean ordea, nork zaindurik ezta, artaldea urrituaz zijoan sendia ugalduaz; bederetzi seme-alaba zitun, geienak nexkak. Gauberanduan etxeratzeko asmoa artzen zuanean, beti aopean abeslari, bere emazteak, itxoitez gogaituta, atagiaz atea itxi ta oialurdiñetan utzitzen zuan, "ozgirotu dedin" (Eta Angela zuan izena!) Errimiña nabaitzen du eta errikide batzuen laguntzaz, itxasontzi baterako txartela lortzen du, ta Euskalerrira biurtzen da, ta Bidasoa, ertzetik agurtzen du bere ori, arterañoko abestirik ederrenakin. Lau probintzietako Diputazioak guraso bezela artzen zuten seme banatzalle bizartsu au; Utsegite aundia. Une ontan bertan, bizi al izateko diru laguntzaren jabe bere burua ikusi zuanean, bere goiargia itzaltzen asi zitzaion eta bere abotsaz

atzeli zan baita gizonaren su bizigarria. Betekada zuala oztu —edo bestera— sagardotegi baten atxituta; etzan besterik olerkari egalari batetik, egonean gelditutako dirutsu bat izatea besterik otzak biotza izoztu zion, 1881-ren Jorraillak I-goan.

Irurogeta bat urte osatzera zijoan.

MUNDUKO BIDEETATIK

Gizon onen bizi-astarrena ateratzea lan erraza ez ba'da ez da berdin gertatzen bere egiñenakin. Auek, naiz eta neurriz oso laburrak izan, oso gutziak, bere sustrai errikoai eskerrak, gertatze ta kondairaz zuan aidetasunari ere ospe orokarra lortu zuan. Antz eman dezaiogun azalpen labur batekin. 1848'rren urtea. Europa'rentzat erabakiak artu bearrekoa izan zan, eta bere lurralde guzia ikaratu zan matxinadaren bultziaz, berotzen zijoan ekinaiaren lenengo erneak ziran. Napoleon'en nagusitasun gogorraren agindu-pena. "Romantiko" zeritzan alderdiaren aize beltzak artuta, erriak, askatasun egarriz, erritartasun gogaira jotzen zuan ankerkeriak zapañtzeko bidetzat artuta, baiña azkatasun gogaira jotzen zuan ankerkeriak zapañtzeko bidetzat artuta, baiña azkatasun ametsak, erritartasun muskil aiek, etzuten errikoi batasunik, ezta izkerakoirik ere.

Euren eratzeak ametsezkoak ziran, eta sarritan nolanaikoak. Ondo eratutako erritartasuna, lengo bere kondairaren ondorengo baiño, geiago azaltzen ziran moltzokatutako lurralde berdiñezak, gerora europako erri aundi batuak deitu zaienak Lengo lurki zarraren era zapalduaz lortutako batasun indartsua eta, okerrago dana, guda ankerren azia ereiñaz, ondoren jasan bear izan ditugunak.

Polonia ere —gaurko ziñopa— gogo azkeentzat, jaungoiko-zaleentzat ezaupide bat eta Byron bezelako olerkariak euren aberrietan zer aldezturik etzutelako, iltzera urrutira joaten ziran Grezi illezkorrera, bere lurraldearen osotasuna aldeztera. Iparragirre Paris'en arkitzen zan 48-ko matxinada jeiki zanean; azkatasuna maitasuna beste amets, zanean. Batez ere asko, askozaz geiago dirua baiño.

Oi eztako egiantz batek arazita Bigarren Errepublikaren laguntzalleak Lendakari autatu zuten Luis Napoleon Bonaparte, ta, ontzat eman zuten sozialismoa, guzientzat ikasbidea, ta autarkiduna izateko eskubidea lortu eziñekotzat bezela zutenaz jabetu nairik.

Berriro Frantzia lenagoko mende erdian bezela, azkatasun eta aurrerapenaren ots-egill gallendu zan. Baita ordea, lenagoko mende erdian bezela beste Bonaparte batek, loratua zegon asmo baten egingaia kirtenetik moztu ere.

"Txikia" deitzen zioten beste Bonaparte onek bere gain azpijanean bizia igarota agintzera eldu zanez, guziengatik eta guziagatik susmo txarra artzen du, ta bildurraren ondorez errialdarazteak, zainketak eta espetxeratzeak.

Iparragirre'rentzat ordea, edozein girotan azkatasunak usaiki gozo zoragarria euki, ta, matxinadakoakin bat eginda, Toulouse'en atxitu zuten ausartsu Marsellesa abesten.

Bein-berriz bere abots gitarra ta kemena, matxinadaren alde jarri ditu. Polizikoal giza-biurritzat eldu zioten, eta laizter, atzerritarra zanaz, Errepublikearen lurraldeetatik at bidaldu zuten.

Aldaketa bat geiagok gutxi makaltzen duan gizonak, Inglaterra'ra joatea erabakitz Du Albion beti orlegi. Ordurako au, legezko ditun laiño, itxazoen eta bere elkartuen gaiñeko nagusitasunez pozartua arkitzen zan.

Jose Mari Londres'a Victoriana "aldiaren garairik onenean iritxi zan. urte artan uri nagusiak *Guzienkiko Erakusketa* ospatzen zuan. Izugarria bertera eldu zan gizonketa Iparragirre beti bezela kafetxe ta batzarretan abesten. Baita antzoki edo teatro baten ere Florentzi abesbatz batekin ere "opera" abesten.

Baiña abeslari aien artean bere jarduteak eguzki ingelesak egun batean irauten duan beste iraun zuan. Teatro itzontzi jostaria baiño naiago zuan munduarena. Bere gogoaren etsairik gogorrena iñoren agindupean jardun bearra. Atzeztu ta abestearen teknika guzi arek, esan ezin aiñako azpertze ta gogogabetzea arazten zion. Lagunak ain arro janzten zituzten soñeko ta apaingarriak parregarriak iruditzen zitzaizkion; txirriporro kiñutu abeslarien zuzendaria illeluzea atrillaren aurrean guziai gogor agintzen. Batez ere gizatasun gabe norbere nortasuna utzi, ta zozorrokeri bat geienentzat garaipena lortzeko, ez egizko garaipena ertiarentzat.

Ezieziñeko bere griñak ez dio utzitzen gizon mordo luze artan abeslari bat geiago besterik ez izatea, bere, orduko onenbestean artutako langille bat besterik ez izatea Itzaren esanai osoan ertilari. Zabarra, baiño bizidu-na. Adiñ-erdiko bertsolarin olerkarien antzera.

Bera ertilaria da itzaren esanai osoan, naiz eta atzeratua. Probenza'ko olerkaro ta bertso lari aietakoa, ego-ta Germani'ko *minnersingers* aietakoa (1).

Eta bein-berriz bere jantzi zarpalluak eta gitarra artu, eta munduko bideetatik juaten da.

(1) Juduekin beiñere nastu ez gerala esaten duten euskotarrak, etzuten nunbait gogo ibilkariaren arrixkurik nai-izan —Fausto Arozenak idatzia da, bere Garibai'ren bizikondaira arrigarrian—. Eta geiago dio: "Baiña arrixku-zirika ori da Llande'k, Fransisko Jabier, Elkano, Lope de Agirre ta beste askok, Llande'k esaten duan bezela, asaben daramate beste geiagok, oi ez bezela euren nai ona barrutik kanpora dutenak. Zer zuan Garibai'k bere-kauseko gizona ez zanez, lenagokoen gogo zindoari jarraituaz zail izugarri zabaletara eltzeak? Garibai gelditu gabe dabil bere bizitzako aldi luzean..." Arozenak aipatzen ditun egun urruti aietan edo azkero, zenbatu ezin aña jatorriaren igeren igaro dira, ta guziak azaltzen dute gaur aipatzen degun olerkari ibilkari arlotea bezela, len-lenengo gogoak orain ere jarraitzen duala orain ere bizitasun ta indar berdiñez.

ETORKIZUNAREN DIRU-ETXEA

Gau baten, "Cafe Concierto" izenez ezagutzen diran oietakoan abesten ari zala euskereakin nasi tiroleza sartzen zuan (benetan entzungarria izango zan naztea) Jaun aundiki bat urbildu zitzaion eskua luzatuaz. Mazarredo Generala zan. Bilbotarra izatez eta Isabelinoa Entzun zuanak eman zion biotz-ikara azaldu ondoren, bere laguntza eskeñi zion erbestetuen erru-nekea kentzeko.

Jose Mari'k ordea ondo ulurtu gabe entzun zuan "diplomatiko" aren eskeñia. Aldatzen zan tokira aldatzen zala, unu berean bertako egin al izateko doaia zuan ba. Lurralde ta mugak zear gelditu gabe ibiltzeak bulzatzen zion juan-etorrira emana zeukan gogoa. Berezkoa zuan edonun oitu al izateko mena. Aundizkien aretoetan bezela, mixeria nagusi zutenen bizitoki txiroetan baita, bere giroan arkitzen zan. Benetan zitzaion guzia berdiñ, asko abestu al izatekotan. Oso-osoan zan "poetambre genuino" Villon olerkari goratu ta zaurituak bere buruatzaz esaten zuan bezela. Onen antzera, dirua zorretan eskatzenikasi zuan. Ze ajola gero ordaindu ezin bazuan? Zailla dirua zorretan eskatzen jakitea, baiña zaillago nork emana lortzen jakitea. Etorkisunaren gaiñ "letra" bidaltzen zuan, eta... "or konpon". Ez al dute ba ori bera egiten diru etxeetako jaunak?

Eroa esaten zioten, baiña bere erotasuna etzan burukoa biotzekoa baizik, Zorionez erotasun sendatu eziña. Italian edan zuan ziñesketasun zindo alaiak uxatu eziñeko atsegiña utzi zion gogoan, ez franziako oituren leiatasunak, ezta Alemaniko eratze ta izakera latzak. Politika alderdiak, erreli-

jioaren bilgoak, ixilpeko alkartasunak, euren amaitueziñeko ondore ikazkin artekoak, garibalditarrak, bonapartetarrak, mazzinianoak, orleanistak masoiak, anabaptistak, presbiteranioak..., ikuskin-jostslu bezela igaro ziran bere begi aurretik baiña bere izamena aletxo bat aiña aldatu gabe. Esate baterako: berezko zuan iñorekikoa eramaten jakitea, bere burua beeratu gabe, guzira, ta guziakin, eta ez ezer eta iñor epaitzea aurrez aldestu gabe.

Ikasbide ona egunen baten azkatasunaren eta gizarteko anaitasunaren alde-ots-egille jeikitzeko!

IKASTOLATIK ETXERATUA

Beste guziak gosaldu oi duten garaian, goiz baten, apaltzez amaitu zuan Iparragirrek. Alik ondoen bere burua txukundu, alkandora garbia jantzi, ta bere erritar Mazarredo generalagana juan zan, agindua zeukan bezela igaropiderako txartela eskatzera, bere lurraldera joan alizateko.

Errimiñ bigun batek biotza atxitu zion, Mefistofeles apainduak belarri ertzera eskeñi zirikalaria egin zionetik. gaztearoko lilikak utseratu zitzaizkionean, eta gudari ameslari urteak joan, ibillaldi askoak eta erbestetutako urte luzeak baita, jaio zan txokora biurtu naia, utzi ezindako bear-izan egin zitzaion. Eta gogo onekin belero deritzaten itxasontzi baten Santoñan legorreratu zan, eta emendik Bilbora jo suan.

Grandmontaigne'k egoki izendatutako Vulcano ta Luculo'ren urira, Fueroen alderako sukarrak bero-bero eginda arkitzen zan garaian.

Baiña Joxe Mari, bere lurraldea zapaltzen zuan une artan, beste sukar batek erretzen zuan. Bazekian andik urbill, Gipuzkoako errixka bateko etxetxo baten, emakube urtetsu bat berari itxoitzen arkitzen zala: bere ama. Bere biotzak geien maite zuan izakia. Mutil gaztetxo bat zan, goizero oi zuan bezela, ikastolarakoan, amari agur egin zion esanaz: *Gero arte ama!...* Eta ordutik, *Gero arte ama...!* egiñaz alde egin zuanetik ogei urte igaro ziran... Eta emakume arek, ama guziak dakiten bezela, itxoitzen zekian ama arek etzuan zirkiñik egin, ibilkari burugogor antzeko seme aura sukaldean sarzen ikusi zuanean, eta onen pozezko oju *Amatxo maitia...!*'ri garratz-gozo, ordu batzuk lentxuago ikastolarako etxetik irten, eta berandu etxeratu zan semetxuari aserrea azalduko zion bezela: *Au da Joxe Mari eskolatik etortzeko ordua?* (2) Nunbait, amak, erantzuna noiz nola eman semeak bestean bai zekian.

(2) Gertatu onen kontuan, beste erabatera azaltzen duana ere bai da; eta edesten duanak edesten dualako, aintzat artzeko esana, ba Olekariaren garai danez, eta gaiñera maxialtzalle, izen audiduna; Antonio Peña ta Goñi. Edezte au, naiz gurearen berdiña gertatuan, gertatu zan tokia ez da berdin azaldua Ara nola dasan: Iparragirrek, bere aberrira eldu zanean, eta Bilbo'ra joan, ama besarkatzeko gogo bizi batek eldu zion baita Etzuan ikusi amabi urte aietan, Ikastolara juateko agurtu zuan azkero, Villarreal'en. Bilbo'n "kontzierto bat eman zuan, eta irabasitako diruakin Madri'ra jo zuan, an bizi zan-ba ganbara zaar txiro baten, iñoren errukiak alikatzen zuala, bidaltzen zizkioten jateko ondakiñakin. Txiro eta beartsu arkitzen zan andre arek, ala ere bere bizi leku ondatu artan jasotzen zitun nora bazterturik etzeukaten euskaldun beartsu zer janik eta nora bazterturik etzeukatenak. Ama nun bizi zan aztarrena atera zuan, eta arnasa-oska malladia igo, ate ondoan gelditu, ta dei-egin. Atea iriki zanean, ber-berbertan, Olerkariaren ama! Begi maitaleak semearenetan josi zitun. Onek zabaldurik bereak ama besarkatzeko, onen begitze gogor parka-eziñak atzera arazirik, legor jaurti zion besoak tolestuta zitula:

"Au da Joxe Mari eskolatik etortzeko ordua?"

Aldaketa au egia izatekotan, Olerkariaren bizitzako gertaera biotz-ikutzalleena zatituko lituzke ainbat idazlan, edeskizun, eta antzerki-gai; eta azkenez ezereztuko luke Uranga margolariaren lauki ederrenetakoa, Joxe Mari bere jaiotetxeko sukalde zaar keak beztutakoan sartzen azaltzen duanean, tibilkariaren soiñekoz jantzia, ta sorbaldatik zinzillik gitarra, ta beso-zabalik amari esanaz bezela *amatxo maitia...!*

Ez al litzake egoki gertatze au aipatzea, Papini'dion bezela —oker ez ba-gaude beintzat— sarritan ederraren etsai dala egia?

BERE ELBURUAREN BILLA

Iparragirre'k berriro Bilbo'ra jozuan, Eta an kafetxe ta batzokietara sarri, baita noraezean karrika ta enparantzetan ibilli ere, zebiltzan zurrumurruak jaso nairik. Fueroak, Gernika azkatasuna, aorik-aoko eitzak. Eta Madriren aurkako jardunak eritzi batekoak Gobernuak, bere Lendakari Lersundi Jeneralaren alegiñak arren, etzuan lortzen, alde bietako gudari buruzagiak nausikiro besarkada batekin zin egin zuten garaipena ontzat Lurraldeak artzerik. Naieza ba, egunetik-egunera zabaldu ta ugaritzen zijoan, eta Jose Mari'k Olerkari aundiak eurena duten igarle doaiez, zetorren odol-ekaitza sumatu zuan nairik aundiena ukatzen zitzaion erriaren erraietan: Azkatasuna.

Eta itxuraz eltzekada Madri'ren egosten zeuden, ara ega-egin zuan.

Aitu gaitezen: "egetan" joate au batakoz-beste leunkiro gauza azaltze bat besterik ez da, ba lurralde onen zoria garai artan, beste lurralde aurreratuak argia ta bapora zituztela, españarrentzat etzan eldu kinkea ta zalburdia besterik Lurraldea eskeintzen zuan ikusgarria ezin ziteken negarga-

rriagoa izan. Matxinadak, jeiki-aldiak, eta kuarteletako elkaraitu eziñak, ordurako ba, Iberia ergeltzen zuten gaitzak.

Narvaez ezpatari arroa, Sor Patrocinio lekaime zauritua, Aita Claret, auek ziran euren aukeratuekin, ziran Isabel II-ren zaratatsuaren ondokoi txandan ziranak; adiñez bez.

OLERKARIAK IGITUAK IZAN DIRA BETI ERRIAK

Guztientzako toki bat zan, lagun-arte bezela ontzat artua, Montera kaleko SAN LUIS kafetxea, arkitzen zan tokiagatik, eta zitun apainkiagatik Isabelina garaiko zeingi geien zuanekotzat ere; baita Madriden bizi ziran euskeldunen batzar-toki bearrekotzat ere. Aipagarri bi auek, eta bere aldizti ta ibilbideen berriak aienatzeko arrixkoan beinzat aztarketa sakon bat egiteko bidean.

Baiña guzi onek garrantzi gutxi du. Onelako osotasunik ezak, ez dute ezer esan nai. Bai ordea egiaz gertatua dan guziak, eta euren nai-ez-ko ondoreak. Ez da ezbairakoa Madrid'en nai guziarentzat toki bat zala, eta bertan batzen zirala. Ara joan zan ba, Iparragirre, ta Bilbo-n bezela bertan sartu orduko nabaitu zuan garraztutako giroan arkitzen zala, Fueroen aldeko giro bizian. Batez ere ikasleak guziak bat-eginda, euren Erria lengo legera biurtzea eskatuaz, 1839-ko Lege, maltxurkeriz kendutako eskubideetara biurtzea, orduko egoerara biurtzea eskatuaz.

Joxe Mari, ogei urte lenago izkilluak artu ta gudara zanak, abertzaletasunez baiño oiezaren zalekeriz, orain beregana igitzen nabaitzen, bera ibilli zan erbesteko erridiak egin zuten buru eskeñia, te berak bere errian egin zuana bat bera zirala.

Aberriaren izatea igertzeko era berri argi ta jakintsuago bat. Baiña Joxe Mari'k guzia itz-erorketa ta abestiz erabakitzen zuan guzia, ta bere gogoan abesti berri bat sortzen asi zan. Ordurarte antolatu zitun abesti guziak ez bezelakoa, eta eta bere bizian egingo zitunen antzik gabea. Otoi, santzo, azkatasun ta pakearen mezu biurtuko zan abesti bat, bere olerki ta ersiaren mamiak beste ikurrek ez bezela bere Erriaren nai-izate ta dantasuna bete-betean azaltzen zitulako.

Ez al ditu ba —Goethe'k ain egiz esan zuan bezela— beti, erriak, olerkariak igitu?

Dakahivia ondo ta sakon ezagutzen duan ajun batek eman digu ondo jakiñaren gaiñean egindako zuzentze au: "San Luis kafetxera juaten ziranak, diru etxetako ordezkari, ta nagusiak, aduanetako buru, moxkinzale, ta auetarikoak dirua eta diru gaia euren elkar izketa: Esaten zanez, kafetxe ontatik atera ziran diru kontuko ziran España ministro" ain nolabaitekoak ez ziranak. Sorpean zeuden "presopuesto" astunenak arintzeko lain ziran (MADRID Autografas por Federicio Sainz de Robles 1949).

Ganoraz ain urri zebillen Isabelita'ren inguruan.

Ministruok gora ta bere, igo ta jetxi, zebiltzen, putzu giran bueltaka dabillen zaldiak bera ta gora urez betetzen ditun antzera, erregetxoen azpikerien bidez; batean erriaren matxinada zala-ta, bestean militarren jeikialdia, baiña gertatze ulergaitza: XIX-garren gizaldi osoan etzan gobernuan aldaketa bat osoa izan, konstituzio edo parlamentuaren eraketaen nagusikeriz.

Nagusi izate onen almenak oso-osoan nausikeri amorratuuz agintzen zuan gobernuak erri osoan, erriaren bear-izan eta naiak ulertzen, ta gutxiago bearkun auek nola bete jakiten.

AZKATASUNAREN ABESTIA

1853'ko udaran, len esan bezela izenaz oroitu nai ez geran kafetxe bateko bezeruak konturatu ziran, aste batzuk lenagotik, bein mai baten bein bestean jartzen zan olerkari larre-aldatzalle ura, bere errikideen belarrira, asma berri zuan zortziko bataopean abesten zebillela, lenbiziko abestu aldia auei eskeñiaz. Nagusitasun geiagorako, olerkariaren gitarra ordez pianoz lagundua izango zan, eta laguntzalle Juan Jose Altuna, Durangoarra, kafetxe artako soñujole agitz, agitz, jaun au izaten zalako.

Jose Mari eldu zanean eta eskuemate batzuen ondoren, malla zabalera igo zanean arteraiño gizon onbera tolezgabeko lauaren itxuraz ezagutzen zutena bat-batean garaille kementsu antzezko agertu zitzaion, begi bizi dizditsuz begitzen ziela.

Keiñu nagusi baten bidez ixil-arazi zitun.

Sarrerara'ko soiñu joleak, soiñu-taupada sendo batzun ondoren —orain uyzi-egiten diranak—, abesten asi zan "baritono" abots indartsuz, betiko iraupena izatera deitua izan zan GERNIKAKO ARBOLA izena duan abestiaren lenengo bertso-atala duanakin.

Ain gogobera zituzten entzuleak abestiaren neurtitzak, sarrerako zirana ziranak, euren zaindari dan Aritz sainduak maitasun bat-egin zitun, zugatz entzun-beratzat artuta emaitz zaindua eskatuaz: Azkatasuna...!

Baiña guztientzat askatasuna; ez bakarrik Euskalerriarentzat jakin zazute ondo etxeko ta kanpoko geurekoi ta berenkoi guztiak: mundu guziarentzat: EMAN DA ZABAL ZAZU MUNDUAN FRUTUA. Bai azkatasunaren frutua, guztienzat gureentzat eta besterentzat, aurlagun guztientzat; zorion erritik jaurtientzat, bizi guzirako neke-miñera epaituentzat.

Onela igermen berdingabekoakin, eta opa-izate oso-osoaz, abestu zuan Olerkariak bere olderti ezilkorra. Onela, umetandik abestu bazuten bezela, an zeudenak biotz-gori jaupada piztu baten jeikita abestu zuten ango entzuleak ordutik eta betiko, goiargiak sortu zitun Euskotarren Ereserkia izango diran olerki atalak (4).

.....

Aurreragoko zenbakietan azaldu ditugu aupa zuten berotze ta zoramenaren zergatiak, ondorengoetan zeaztuko ditugu Ereserki onen zenbait alderdi, eunurtebetzea osatua duan oni.

Bearreko da adieraztea, sentzun lan ikurkor au aberriari itxatxita minkorra dala zaitasunez zulatua, Bijoa ba aurrez aitormen au: Ereserkia'ri eman bear zaio berez duan garrantzia ta biotz-indarra, ez ordea-sarritan egiten dan bezela-politikako egokimen naibestekotzat.

GERNIKAKO ARBOLA TA ABENDAERRIETAKO ERESERKIAK

Abendaerrietako ereserkikak danak dira orain aldkoak. Ez ziran ADIN ERDIA deritzan garaian. Laterri berriak sortu ziran garaian azaldu ziran. Ereserki auetan geientxuak, ez dira urretan ere, goi-mallakoak erti-arauz. Goi-argiaren emaitz garbi bat baiño geiago dira abertzaletasunaren itsumen ondorea, ez ertiaren eder-naia, bai oedea airkeri (bengantza baten erazo makurra, edo txandako arkitzen dan erregeari egindako zurikeria. Adibidez: ingelesak euren erregeari deitzen dioten GOT SAVE THEKING "garaile aldun eta jaube zoriontsu" naiz eta errege onek —sarritan gertatu oi dan bezela— egundo zapaldu ez guda-zelai bat, edo baita

gaur egunean gertatzen dan bezela andere gazte sagaratu bat, izakera gizatsu batera beartua eginbear aspergarrietara lotua eta egokimenak gertatzen zaionean etxealdeko bearkunetara atsegiñez lotzen dana.

Ingelesaren antzera –beintzat, ereserkiaren esanaia gogoan degula– dira baita austriakoa, holandarra, japondarra, errusitar kaisalderrikoa ta beste askogeiago ere.

Badira ordea beste batzuk garrazika erri goratzen dutenak ere, geiegike DEUTSCHLAND UBER ALLES bezela (lurrean Alemania guztien gañetik) geiegizko esakera arro berekoia, batez ere gañerusko gizadiarentzat beralgarri.

Azkatasunari abesten ez dion ereserkia oieza da. Ta oieza baita pakea aipatzen ez duana, baiña-alabear arrigarria bere askotasunean!) beste olerkariak azkatasun eta pake ori bakoitzak bere lurraldearentzat eskatzen dituzte, egundo ez munduko beste errientzat.

Aipatze opatsu, anaitasunezko esate ori, onginaiaren zabaltasun osoan olerkari baten biotzen sortu bear zuan, besterentzat gorroto, irain eta kalte gabe, bere bizian pakearen eta azkatasunaren irudi zintzoa izan zanaz.

Gure arrotasuna atsegindu nairik –edo orrela uste izanik–, GERNIKAKO ARBOLA euskotarren MARSELLESA dala. Oker guri-guria. Okerra! Rouget da lisle'ren eta Iparragirre'ren abesti anaitar, opatsu, goigoikoaren bitartean leize bat dago. Entzun aurren au:

Aux armes citoyens, formez vos bataillons.

Marchons, marchons, qu'un sang impur abreuve nos sillons.

(A las armas, ciudadanos, formad vuestros batallones!
Marchemos, marchemos, marchemos, y que la sangre impura empape nuestras huellas).
(Izkilluetara erritarrok! Eratu zuen gudarosteak

Guazen, guazen, eta odol garbiezak beratu ditzala

gure oñatzak).

Entzun bigarrena:

Eman da zabal zazu

Munduan frutuba;
... Gerrarik nai ez degu
pakea betiko

gure lege zuzenak

emen maitatzeko.

Ez, ez dago abesti auen artean elkarren antzik txikiena ere Rouget de l'isleren izkia abespidean jartzen badezuta jendetza bat-batean ibilian ekingo du ekiñerako bizitasunez, baiña Iparragirre'ren neurtitzak gizona baretu ta biotz-bera jartzen dute, pake ta maitasunezko elkarartean.

Zer ba: pakearen aintza edo gloria, ez alda, gudarena baiño edorragoa?

GERNIKAKO ARBOLAREN IZKIA

Zenbatu ezin aiña dira Iparragirre'ren ereserkiari ezarri zaizkion akatz eta utsak. Bere izki ta bere eresiari. Ari ziurrago, beste oneri baiño. Bere neurtitzen euskereari. Zergatik? Neurtitzok —diotenez— erderakeriz naztuak diralako ta ez dutela ers-olerkiaren zabalgorik. Eta nortzuk egiten dute maiseatze au? Euren buruak euskelduntzat azalduaz gutxitan edo beñere euskeraz itz egiten dutenak, Olertiarentzat eta guretzat zori onez, ez dakite ze aldetara jotzen duten olerkiak eta olerkariak.

Utzi dezaiegun ba maiseatzalle "jakktun oie euren saldatan zukua egiten, eta alegindu gaitezen gaia bere bidera alderatzen, egikizuna bare ta zuzen artuaz. Elertia, erti, zientzi, ta erri baten jakintza osatzen duan gai leun naiz latz guzia zuzentasun, egiz, eta kondaira azaltzen digunari elduaz. Zuzenak izateko —Taine'k dio— ikaskisun eta egiñenak euren kondaira giroan eratu bear dira". Egi osoa.

Esate baterako, Izkuntza, beste edozein ezaugarri bezela, gizarte baten zentzumen izkortua azaltzen duana da. Augatik, gure egunetako idazle naiz olerkariai lengo eunki edo mendekoan pentzakeraz eskatzea, oraingo aberkide bateri lengo fuerozaleen pentzakeraz azaltzea bere iritzi ta naizateetan, esate baterako: egigadea litzake.

Au aintzat artuta, naiz ta gure izkuntza ain zarra izan, oraindik eunkibat gutxi geiago arte, elertiakiko, umetasunean zanez, ba XVI ta XVII eunkietan arakatzen diran jazoetan —Axular Etcheberri, Dechepare ta beste batzukin izan ezik— ez dira sarritan gertatuak (5).

Beste aldera, ta azkenengo eunkia ondo sartua zala, ta orretatatuaz, 1879 (olerkaria il baiño urte bi lenago) Felipe Arrese Beitia'k bere olerki eder AMA EUSKERAREN AZKEN AGURRA!!! —euskeldunak etziran asko arduratu bere aditza osatzen— bide berri bat ezarri zion euskel olerkiarei Aresti orretan— Kanpione'k adierazten du— gure izkuntzak errikoi izateari utzi zion.

Ala ere Iparragirre ta bere garaian, oerkari, bersolari ta koblakariak —eta gaur egunean ez gutxi— etziran alegintzen izkuntza zeintzeko lan egitera; mendietako ta erriaren berdin mundu guziarena bear bezela erabiltzeko nairik gabe. Nolanai ordea euskeraz itz egiten zuten, neurtu ta abesten zuten-goraldua bedi Jaungoikoa! —ba zoritxarrez ez dute ori egiten gaur eguneko Zoilo'rik geienak.

Beste alde, erderakeri ta prantsezkeriak nork bere garaian etzitun erabiltzen Auñamendiren alderdi bietan? Bilintch, Manterola, Serafin Baroja, Otxalde, Etxaun eta Elizanburu, naiz eta onegan ain garbiro igerri bere izkera garbitzeko zitun alegiñak. Ez al digute ba utzi, auek bezelako izenburu ta itzneurtuak? *Juramentuba, Amac esan du esandit echeco errenta pagatzeco ez zuben ta...* Ay au dolorea! *Amorosa conventuan Primadera hasi orduco arbolac eztaltzen lorez* eta abar. 1900-nean Zumaia, an ospatutako Lore Jaietan, ez al zan saritu izan Elias Gorostidi'ren *Amoriyo eta interesa* izendun antzerki saioa? Eta garai ori baiño askorekin lenago, gure elertiaren aurretikako jatorrak, Detchepare, Oienart, eta Axular itzlaugilleak—, ez al zituzten euren idazlanak erderakadas asebete, euren artean latinkeria ugari arkitzen degula?

Eta latinkeriak aipatzen ditugunez, ez al dakigu ba, eliz-liburu bat irakutzeko, ia-ia euskera jakin bearrik etxala? Ez al zan ba, Baiona'ko Gotzai Olze'tar jean izan, onetan eredu, 1651, an bere liburutxo *Pregarioc Bayonaco diocesacotz* izenduna argitaldu zuanean argitaldu zuanean?

Baiña ekerrena, da, izkuntzaren nazketa au, zerbait galgarria bezela, gure aurreti koai errudun bezela ezarri zaiela, batez ere Iparragirre'ri; eta orain "modan"n jartzen ari dira, eta ez uste leiken bezela jakintsu errikoiak jarrita, bai ordea goi-mallako idazleak eta euren artean euskeltzaiñak. Ara emen oietako bitxi batzuk *Cibilizacionaren fruktuak, legearen kontra, kultur bat kreatzea, Elizaren indefektibilitatea, egiaren objektivilitatea valore positivua,* eta beste asko geiago.

Besteri. Eta erridietako abesti geienak ordea —izkiakiko beitzat— gizartea errukitsu izan da: aiztu egin ditu egilleen izenak.

Ez da onela gertatuko MARSELLESA TA GERNIKAKO ARBOLAKI.

(5) Euskal eterti errikoia, aoskoa bereziki —Bere a HISTORIA DE LA LITERATURA VASCA'n— Luis Mitxelena'k dionez— beste edozei erridietakoak bezin aberta ...aldatua da. Jakintsu olertia ostera, oso atzeratua, urria, eta guztira ez berez balio aundiduna. Ala ere, bere artetik, eskukada txiki bat gaizkatzen da, inguruko irridietan diran beretarikoen lan artean; eurak bestekoak diralako.

Entzun: adierazten du Miguel de Unamuno'k —entzun abesten— "eman da zabal zazu munduan zaitugu arbola santua" eta itxaso zabalean zibi-zabuka bezela zuen biotza nola dabillen bere eresi sendoan sartuta bat egiña taupadetan lotua. Au da eresi ta izkia erabat, elkarrekin lotuak izan ziralako; izate bat berak batean lotu zitalako.

GERNIKAKO ARBOLAREN ERESIA

Esana degu, maxaitzalleen eztenak, betean jo izan dutela, Iparragirre'n Ereserkiko izki baita eresian ere. Eta izkiarentzat bezela, eresiarentzat ere maxiatze auek gerure barrutitik irtenak dirala, geure artean sortuak. Geureak. Esan bearrik ez: itxumenaren erokeri traketz bat; naiz eta gero aitueziñeko sapuzkeriz geu ta geure gauzak, besteak goragokotzat aitorzea eskatu.

GERNIKAKO ARBOLA'ren eresia, askok beeratu nai badute ere, beti izango da nagisitzat jasoa, ereskitzu goitia. Bere barrengo ereserki eder-ederrak —gascue'k aitzen duan bezela— benetakoak dira. Orrengan eta bere itzetan aztiak —mataza egoki batu bat jarri zuan— asmatze eresintsu, abertzaletasun beroa, eta orduko giroan aisatua zebillen beste zerbait geiago boslerrotzean betikotu zuan zan: aldian zaarra itxaropenetan gaztedan erri baten ametsa. Abestiak berez, eta neurtze legeetara jo gabe ematen duan igitze neurtua, nagusi ta aundikia da. Batzuk itxuragabetu egiten dute, geldiegi eramanaz, eta besteak laisterrei.

Norbaitek esana daukan bezela, ez goaz esatera Gernikako Arbola euskaldunen "Anjeluz" danik, bai ordea besterik ez bezela, euren elburuaren ikurkuna dala.

Baiña Olerkariaren dantasuna —bein da berriz esango degu— illezkordan neurtizki: "Eman da zabal zazu munduban frutua" ain biotz-ikara gizakorrez, gogo-indar sutsuan egite duan eskeñian ageri dala.

Bai da ordea beste okeruste —bat geiago— desegiteko, alegia Iparragirre, bertsola gizajo bat besterik ez zala, bere abestiak gitarraz laguntzen zitulako. Uste oker au oso zabaldua da, euren usteetan jakintsu diran notin artean; baiña au uste dutenak ez dakite gitarra ta vihuela izendatzen diran soñu-tresnak zirata españarren Urre-Mendeak Olerkaria sarikets ta antzerki jaietan, euren abestiak laguntzen zituzten soñu-tresnak.

Goratze geiegirik gabe esan leike ba, Olerkari euskaldunarentzat bere gitarra, Orfeo gezur-jainkotxoarentzat, lagungarri zarabillen "lira".

Eresiaren soñu-neurria (ritmo) zortzikoarena dalako, batzuek txiroa arkitzen txi arkitzen dute (?), aueri esango diegu garai artan eresi-lan guzia orrela egiten zala gure Errian, opierakoa zenbatuaz, PUDENTE ARTZAI-MUTILLA; TXANTON PIPERRI eta abar.

Onezaz gañera, eta soñu-neurri orri dagokionez bearrezko da oar bat egitea: ain ospatsu dan zortzikoaren "konpasa" GERNIKAKO ARBOLA'n zearo aienatua nabaitzen da, igerri al izateko entzunen berezia eskatzen du ba "andante" ospatsuak.

Esaten degun onen baietza, eresigille askok entzun da gero. 6/8

Ezpai gabe, erria —sortzalle ainbat naztalle oi danez— zenbait ataletan eusko ereserkia berekatu duala, bere eresi egitura, nastu baita soñu lerroa, eta itxura gabeko asmaketa baldarrez utsuneak osatuaz. Guzi oni antz ematen zaio egille batzuen oarpenetatik eta Iparragirre beraren enetatik. Beintzat —Miguel de Ostalazak dionez— sarrerak lenengo egin zanean zortzi konpaz zitun, eta gero izan zan laura laburtua —gaur gutxitan erabiltzenda—. Baiña alde bat utzitze au errex aditzen dana da, ba aipa degun sarrera au, bere lenengoetan joikin edo "instrumento"tzat eratua zan, eta ereserkia geienetan abesbatzak abestua oi da, edo abosts bakarrak.

Gure iritziz, garranzi geiago du, EUSKAL ERRIA aldiskarian azaldutako oarpen batek Olerkariakiko. Onela dio: Bein baten, Iparragirre'ren aurrean GERNIKAKO ARBOLA abestu zuten. Onek abestiaren bigarren zatia estzutean, minduta, aserre bizian deadar egin omen zuan-esten ari ziranai:

—Nare lana ondatu dezute!

Ori entzutean guziak gelditu...

Bai, jarraitu zuan berak. Bigarren zati au ez da nik sortu nuana! Bearreko da geldi-geldikako ori alde bat utzitzea. Bein da berrizko, lau alditaraño berritze re mi re ori kentzea. Bigarren zatiaren lenengo atala oneta aldatu bear da: sol sol la si do re mi re, onela sol sol la si do re sol.

Eta EUSKAL ERRIA'ko idazleak, besterena bereganatzen zuala ezarriaz Iparragirre iraintzen zutenai bidera irtenaz —irain bat geiagok ze ajola munduari— onela amaitzen du bere erazoa. "Onek esan nai du, Iparragirre ondo zekiala eresiaren berri, berak sortua zala, eta augatik alegintzen zala, bera argiratu bezela, azaldu zedin".

Iñorenaz jabetzearen irain ori, elertia ta eresia diranetik zapaldu eziñak adierazten dute Iparragirre "norbait" zala, ta bere ereserkiak balio duela baite "zerbait".

Idazlan ospatsu billa ibiltzeak, gogoratu izan dit, arako berealako baten Amerikan aberasten diran osabai, non-naitik ateratzen zaizkiola illobak, amabiñaka. Augatik ba, norbaiti iñorenaz jabetzen dana dala ezartzen diotenean, Amerikako osabarena bezela da: Homero gandik guregañaño ezetzko gutxi iñola ere. Eta Jose Mari Iparragirrek ez zuan izan ortik azkatzerik'naiz eta bere ereserkiak gutxi balio zuala esan.

Beste aldetik Olerkaria etzan gaizki lagundua arkitzen: Rouget de l'Isle'i ezarri zioten Pleyel'i artua zuala LA MARSELLESA, baiztu ta txarragotu zuan onen salatzalle Loth "organista" ESTHER eresiaren egilleak.

Amerikako Erridi Batuen lenengo ereserkia YANKEE DOODLE, jabetu nai izan zuten ungaroak, holandarrak, eta alemani edo oiztarrak, eta egi geiagoz ingelesak, ba dirudienez, ereserki ori "pasodoble" Jonh Bull'en garaikoa da.

GERNIKAKO ARBOLA NEURRI JATORREAN SARTZEN DA: ZORTZIKO BAT ETA DOÑU ERDI

Auk dira laburki a zalduta, Eusko ereserkiaren ezagungarriak. Eunki bat eta geiagoan iraun, eta "folklore" dana; eta oarmen ontan erreliki ta ikurkoi, erriaren oarmen jatorranen azalbena. Erri bat guziak bere egin zuan ordu larrietan, bere goiargi zindo, erri-gizon eusko gogoaren maitale aundi sutsu izanik.

Augatik Gernikako Arbola biziko da bere idatzia izan zan izkuntza bizi dan arte.

(7) San Luis kafetxeko pianista zan Juan Jose de Altuna'k egin zuan lana —Francisko Gaskue'k dionez— eresi aura soñus jotzea izan zan, GERNIKAKO ARBOLA lenengo aldiz Iparragirrek abestu zuan gabean. Augatik laguntza lana besterik ez zan izan, ba gitarraz laguntz izan ba'litz, etzuan Olerkariak lagundu bearrik, bere beste abestiak in laguntza bearrik izan etzuan bezela. Ez al zuan ba, Schumann'ek beste orrenbeste egin, LOS DOS GRANADEROS, LA MARSELLESA antzestuas, arentzaki "lieder" eratzeko?

EUSKO ABERTZALETASUNAREN OARMEN OSOA

Geiegikerian erori gerala iñork esango duan bildur gabe, baieztu genezake eusko abertzaletasunaren eta oarmen osoa, GERNIKAKO ARBOLAK jaso zuala igaroa degun mende edo eukiaren bigarren aldian; banakaka naiz abesbatz edo jaialdietako talde errikoietan, baita elizetan abesteko ere, eusko jakintzaren eramalle, erriaren gurdian. Bera izan zan, ingelesentzat GOOD SAVE THE KING bezela, eta egite guzietako "ritual" bearreko bezela, ospatzen ziran jaikun guzietan.

Alabearrak nai izanda edo, erriak sutsu abesten zuan, kondairaren ordu larrietan, 1893-eko Dagonillaren 30an, garai artako edeslari batek dio erriaren gogoa sutu egin zan, Sagasta'ren gobernuak batere begiramen eta itxugabekeriz, gure betiko eskubideen aurka auzi zuan ekiñagatik.

Unean bertan erria jeiki zan, Errioja'ko jaun agintari ari bere aserrea azaltzeko bizitasun osos. Ain zuzen egun artan Donosti'ko erriaren soiñubatza (banda) Boulevar-ean ari zan jotzen, eta erri guziak bat eginda GERNIKAKO ARBOLA jotzeko eskatu zuan, baiña eresbatzak etzuan jo. Jendetza ordea, mindu ta sututa, "Hotel Londres"'a zuzen durik, Sagasta an arkitzen zalako, danak abots batez, zutik, txapelak erantzita, iru aldiz abestu zuan ereserki goitar GERNIKAKO ARBOLA. Orduan errizain zeudenak, euren izkilluaz su-jo zuten batzuk ilda, ta beste asko zaurituak izan arren jendetza ark bertan jarraitu zuan gogotsu, bildur gabe, biotzdun, jaikor, antziñako gure askatasunaren ereserkia abesten.

Francisque Michel'ek bere idazlan LE PAYS BASQUE'n Iparragirre'k erri, errixka, ta baserrietan bere ereserkiaz itxartu zuan zorabioa ikusirik, dasa: ain kementsu abesten zuala, indar berrituta jasotzen zitula ondoren zitunak, batez ere abesten zuanean: *jarri gaitezen danok laizter belauniko* esanaz eta egiñaz, berekin batera beste guziak ere berdiñ egiten zutela, bat egiten zirala eta euren txapelak gora bota nabaitzen zuten abertzaletasunaren agerkai.

Gure aldietako abeslaririk ospetsuena, ta ezpairik gabe, Euskalerriko aundiena, Julian Gayarrek, bere abertzaletasuna agertzeko, etzuan arkitzen, au egin nai zuanean, Iparragirre'ren abestia baiño egokiago ta ederragorik. Madriren eta Barselona'n teatroko abestaldien amaieran jendeari azken-agurra guztientzat ordurako ezagun egiña zegon olerkariaren abesti zatiak gogotsu ta ta itz argi ta garbiz ereserkia abestuaz.

Roma'n bere abestaldi ospatsua amaitu zuan batean ostatuz zegon Hotelera eresi kritiko edo maxiatzalleak ardo onenetakoz edanaldi bat egitera deitu zitun, eta batzar ontan GERNIKAKO ARBOLATA bere kiko

dan abesti xamur NERE AMAK BALEKI ere.

Auek eta beste abesti geiago ere eramaten zitun bere zorrotoetan Gayarre ospetsu eskuz idatziak. Auetako batzuk baditut nik. Leiken bezela, ereserkia lenengoetan (nere ustèz beintzat, ez ziurtasunez) *do mayorko* doñuetan eratua izana, berdingabeko tenore arrigarriak, bere abotsera egokitzeko doñu bat goragora jaso arazten zuak *re mayor* era esate baterako. Artezi au etzuan Gayarre, eltzen bere abotsaren apaingarri, bestealde ereslanak bereak ez du ia-ia ontzat artzen, bai ordea, erslan orren *tessitura* ezagutzen duanak dakian bezela, berez duan abertzaletasunaren suaren beroa azaltzeko.

Aipatutako paper oietan, aldatze txiki bat igertzen da ereserkiakiko, naiz ta len esan degun besela, geienetan ez da igertzen.

Irudiz ain ezberdiñak diran Gayarre ta Iparragirre'k eta ala ere euren barrenean ain elkarren artzeko, Giziztilari edo "antripologo" Aranzadi'tar Telesforo gai auetan jakintsu jaun ezagunak, marrazki arrigarri bat utzi zigun, guztiz ikusgarria. Onek dasa: "1887'an Madrid'ren, Teatro Real deritzan antzokiko, ara eltzen ziran jendeen aurrean, Paris'en izanda eldu zan ESTUDIANTINA ESPAÑOLA zeritzan abeslari taldearen aurrean Gayarre'k ADIYO EUSKALERRIARI abestu zuan; eta entzuleak bein da berriro abeslaria ager zedilla eskatu zuanean, onek, Txaloak beretzat artu bearrean, berekin agure ille luze buru zuri bat berekin azaldu zuan, jaka apal bat soñian beste apaiñil etzuana. Zortzikoaren egillea bere-bera; Iparragirre. Ustegabeko azalben onek gugan egin zuan Eragiña itzez adierazi bestekoa izan zan. Ezta italikeri aspergarri orain eten gabe bere eresia maxiatzen duana, (bete-betean berea dan bezela, berdin GERNIKAKO ARBOLA ere) naiz eta jabetasuna batzuk ezkabaidaz jabetu nai badute ere) bere bertsoak erderakeriz sipristuak egon, ez ziran gure gogo-jeikia eratxi arazteko lain, ba euskelzaletasuna biziro itxartu zitzaigun, an eresi eginda azaldu zitzaigu nean. Jakintsu zindo baten egi osos azalduak —aldi ontan, erronkariko abeslari miragarriaren eztarriaren bidez— bazekian bosturebete aurretik jakin zuan bezela ango ikasle euskotarren gogo erriminduak pozetan sututzen.

IPARRAGIRRE'ren DAMUA

Leikena da irakurleren batek edo bestek geiegikeria arkitzea nere onen atzalkizunari bere esanean. Geiegikerik ez dagola azaldu nai nuke ordea.

Orretarako dokumentu zaar eunki bat aña duana agertuko degu, eta ezpai gabe iñor gutxik ezagutzen duana. JAUNGOIKOA ETA ARBOLA deritza, euskeraz, eta BUENOS AIRES'ko TEATRO COLON zaarrean, 1877'n, Iparragirre'k irakurria Urtarillaren 29'an, europa'ra biurtu zan baiño egun gutxi lenago.

Olerkaria lendik Uruguai'en, bizizanez, Argentina'ra diutua izan zan, "conferencia literaria"ko Batzordeak deituta, Buenos Arires'ko "Hospital Español" zeritzan gaxotegiaren alde ospatu nai zuten jaialdira. Plata'ren alde bietako erritar artean, Iparragirre'k ospe aundia zuan, zuzenbidez zegokion ospea zuan euskeldun olerkari aipatuak, eta deiari baietza eman zion, juango zan eguna izendatuaz, Jaiaren eratzalleen naia zan olerkariak bere-bera olerkia irakurtzea (8). Au, eskatzen ziotena gogo-onez egiten zalea zanez, baietzean gelditu zan. Antzeztoki aundi aren bere agertzeak, antzokia betezegon jendetza esan ezin beste biotz-ikutua gelditu zan. Naiz eta 57 urte besterik izan ez, bere itxura aitona zaar beneragarri batena zan. Eratutako olerkiaren irakurtzea amaitzean izugarrizko txalo aldiz artu zuten entzuleak.

Ainbeste aldiz esan bada ere Iparragirre bere gaztealdian karlista izan zala, —guk esango genduke lenengo gaztearoan— bertso auek adierazten dute, geroago, gizon elzon adin elduduna izatera iritxi zanean, len izanaz damutua arkitzen zala. Olerkiaren irugarren atalak azaltzen du. "Pretendienteare" aurkako erazo gogorra bat da, irakurleak igerriko duan bezela:

Zuaz Don Karlos zazpigarrena
Urrun bai gure lurretik,
Ez duzu utzi guretzat pena
Eta tristura besterik.
Lutoz negarrez Ama gaxoak
¡At! ezin konsolaturik
Ez degu nai ez geyago ikusi
Zori gaiztoko gerrarik.

Ondorengo zortzikoan azaltzen du eldu ezindako errimiñez. Bertsoren batzuk jartzen ditugu emen batzuk

Euskaldun onak bear du eriotza
billa bere sorlekuan
Lurra da ama...

Ze aipamen ederra! Au zan ordutik aste batzuk errimiñez minduta egitera zijoana. Jarraitzen du olerkariak bere beste burutapen bat balitz bezela: azkatasunaganako maitasuna; bein da berriz bere Aritz maitean iruditzen duan maitasuna

Gure izatea ondasunak
Dira arbola maitean
Libertadea maite dutenak
betoz gurekin batean.

Olerkariak somatzen zuan egunen baten aberriaren zeruan argituko zala goizeko izar argia eta abesten zuan biotz-indarrez doñu sutsuan:

Egun baten agertuko da
Gure goizeko izarra
Bere odoyetan inguru dela
Jaun zuria'ren itzala.

Olerkariaren berezkoa geroa adieraztea da. Auxe da Iparragirre'k egiten zuana bere goiargi goiargia ixiotzen zanean bere biotzaren leraren sutan goritu. Bere maiteagotzeak ezpaian jartzen gaitu. Ia-ia eun urte gure aldi au baiño lenago, munduarentzat adierazten du munduarentzat —baldiñ mundua gaizkatuko bada— Erridien elkartea laisterrean sortzea.

Gertatutzen da eguna
Nazionen liga edo elranza
Ikusiko deguna...

Eratze onek ia-ia argitaldu gabeak adierazten digu Jose Mari Iparragirre jaialdietako bertsolari edo arrantzale arteko alaitzallea baiño zerbait geiago izan zala. Izan zan —eta esan daigun bein betiko ta zenbat aldiz esan bearra dagon— geroa argi ikusi zuan iragarlea zala gure olerkari au, naiz eta bere abenderrikoak, askok baintzat berdin ostiango gizonak, ez sinistera emanak egon munduaren lurzati zakabanatuak batera elkartuak ikustera, munduko pakearen euskai bezela.

AZKENA

Oar auek amaitzeko esan bearreko da, GERNIKAKO ARBOLA'ren neurtizki edo "estrofak" danak edo batzuk beintzat, beste izkuntz batzuetara itxuliak izan dirala.

(9) Don Miguel Unamuno, bere errikideak zituzten zenbait goragarri jasotzen zalea izan ez arren, "gran arlote" aipatuaz idatzi zuan: "beste argazki batzuen artean. Lejuona'k arlote aundiarena, olerkari ibilkariarena Iparragirrerena, Gernikako Aritzaren abeslariarenanik antzeztu nuan asgazkia. Eta orduan ezagutu nuan Iparragirre, Amerika'tik ostera eginda, Lekuona'ren lantokira zijoala, onek argazkia egin zezaion. Eta ze biotzkada sakonez ikusten gendun igarotzen aseledun gizon bizardun illetxuridun aura Argazkian gitarra jotzen eta txapelakin arkitzen da" Angel Salcedo Ruiz'e, ostera, onela oroitzen du: "El autor de este libro (*La Literatura Española)* conoció a Iparraguirre ya muy anciano, en Madrid, en casa de unos músicos vascongados de quienes no recuerda el nombre. Eta dio: Ainbeste urte dira! Baiña ez da iñoiz ere ageldu bere irudimenetik olerkari errikoi aren irudia. Iparragirrek zuan bizar luze, txuri ta jantzia, bere buru soil argiaz San Pedro'ren antza ematen ziona, argazki edo margazkietan betikotik azaltzen diguten bezela, arpegi eder oso euskotarra antzduna, begi bizi dizditsuak, teinkgiteingilleak, eta abesten ekiten zuanean ez zirudin zaarra zanik, bai ordea gazte indartsu bikaiña, bere jarkera ta keiñuak izugarrizkoen olerkariarenak ziran, ederraren zale dan jendetzarentzat abesten duan olerkariaren antza, bai ordea olerkiak baiño, abestiak sutzen duan jendetzarentzat abestuaz. Olerkari baiño, bere abendaren burusagi oroiaraztalle, ta antziñatar zaintzalle zindoaren irudi azalduaz. Ezpai gabe onela abestuko zuan Taillefer olerkariak Roncesvalles'ko abestia Hanstig'go guda-erazoan; orrela abestu zuten baita zeltatar olerkariak. Igaroak diran garaietako abeslarietzaz oroitzen danean liburu onen egillea, Iparragirre'ren giza-kemena, gudari ausartiaren jeiki ausartiaren jeiki ta jarkera, ta keñu apaiñak, abots indartsu ederrez abesten iduritzen du.

Asko dira esan degun bezela, Gernikako Arbola'ren itzulbenak ueste degunez bat baiño geiago frantzeses españeraz, eta ezaguna dan Antonio de Trueba'rena, ta beste batzuk ez ain egokiak ere. Emo Ferrari Dalla torre'k, orain urte gutxi arte irarri gabe dan itzulbenean, italerara itzuli zitun lenengo zortzi neurtizkiak. Txeko'ra lenengo lau zortzikoak itzuli ta argitalduak: *Himna bascu národnim Stromu v Gernice* por R. J. Slabi, Un poeta-soldado Hans Wilthagen que durante la última conflagración mundial se hallaba de guarnición en San Juan de Luz, tradujo con intención de editar letra y música en Alemania, las ocho primeras estrofas.

Leikena da nere "fitxeroan" ez dauden beste itzulben batzuk geiago egotea. Oraingo aldi auek ez dira egokienak aztartze zailletan paketsu era ontako lanak egin al izate. Eta geroa —mingarri zait esatea— ez da aurkezten pozgarriago.

Ala ere ez dezagun galdu itxaropena, edo olerkariak esaten zuan bezela, Sinismena, goimaitasunaren Itxaropenean. Oraindik ere, non aztartu tan non arraztotu asko gelditzen da gure aberriaren zailletan.

BIDALTZEA

Azterkatze auek, garrantzi geiago edo gutxiagoko beste batzuekin, baiña gure jakintzaren aurrerapenerako bearreko diranakin, itxartu dezatela gure gaztedian Jakinai gogo bizia, ta orretara leiata dedilla, aspertu gabe, maitasunez. Eta azkenez azterketa, billakatze oiek zuzentaun osoz egiaren billa egiñak, etsaikeri ta ta elkar zapaldu naiak alde utzita. Auek lortu nai ditudan asmoak (10).

(10) Gaztediari zuzentzen diodan aipamen au, antziñar zaletasun jatorra duten euskeldun askoren biotzetan taupakada zan, eta taupada auek dei bat bezela entzunak izan dira. Iparragirre'ren ereserkia GORA JAUNGOIKOA ETA LEGE ZARRA GORA, itzakin sarrerako konpasetan ugaldua izan da, ta amarreko batzuen ondoren baztertua egon da gero, berriro dardaratu da Bidasoa'ren egal bietako gaztediaren biotz eta españetan. Beste onenbeste esan dezake eunki onen aurren garaian, zenbait euskeltzale jakintsuren itz berri zaletasunaren sukarrak jo zitunengatik. Gaur sukar ori osoan bidaldua da, ta euskera izketan ez olan egindakoan, itz egiten da, berriro izketan nola idatzietan erabiltzen da Euskalerri guzian. Oarmen ona zuzentasunaren kide da ta nagusitu egin da. Ospatu dezagun ba pozarren.

Linguae Vasconum Primitiae'ren

HITZAURREAZ HITZ BI

BITTOR EGURROLA

Liburu honen hitzaurrea laburra den ala ez dakit. Dena dela guztiz interesgarria deritzat.

Nik zerbait ikertzea, gai batzuk atera eta azaletik ukitzea, besterik ez dut egin.

Hona emen gaiak:

1.–MEZENAZGOA
2.–ALDIKO EUSKALDUNAK
3.–ETXEPAREREN HARRITZEA ETA SALATZEA
4.–LEHEN POETA INPRIMATUA
5.–LITERATO BEZALA
6.–ORIJINALTASUNA
7.–IDATZ-HELBURUA

1.–MEZENAZGOA

"... irudi bazautzu, inprimierazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun joya ederra..." Euskarazko lehen liburuaren inprimatzea diru-laguntzaile edo adiskide diru-laguntzaile bati esker egiten da. Ez dut uste "mecenas" bati esker inprimatuko zenik, "Bernard Lehete, Jauna, Etxepareren liburua diruz posible egin zuen "mecenas-ek..." (Joxe Ariztimuñoren entsegu interesgarri baten arauera). Diru-laguntzaile eta mezenas izatea ez baita berdina.

Bernard Lehete, Etxepareren diru-laguntzaile ala mezenas den jakiteko, bion arteko famili eta politika harremanak nolakoak ziren astertu behar da, Nafarroako (batez ere Behe-Nafarroako) erreinua eta Baionako eliz-barrutiko kondaira sakonduz.

Nahiz eta gaur diru-laguntza eta mezenazgoaren konzeptuak nahasirik egon, mezenazgoa diru ematea baino zerbait gehiago da. Gogoan har, irakurle, mezenezgoa XVI. mendean pil-pilean dagoela (bai eta mende bi geroago ere) eta Europa osoan zentzu berezi bat duela (Euskalerria Europaren zati bizia baita). Gaur egun, noski, inongo mezenazgoak ez du zentzurik, nahiz eta azpiko eta benetako mezenazgoak han eta hemen ikus.

Begira honetaz Robert Eskarpitek esandokoa; behingoan konturatuko zara, kultur-lotura bat duela ondoriotzat, mezenazgoaren diru-laguntzak: "Idazlearen behar guziak, pertsona edo erakunde baten menpean asetuta daudenean, eta pertsona edo erakunde honek bere kultur-nahia asetzea idazlearengandik esker-erantzun bezala eskatzen duenean, horra hor mezenazgoa".

Dena dela, Bernard Leheterekiko adiskidetasuna (..."eta haren adiskide orain Bordalen denak" —Sautrela—) apartekoa da, haren baitan poesiak aldatzeko eta zuzentzeko eskudun baita"... zeren, jauna, haiek ikusirik eta korrejiturik plazer duzun bezala... —Hitzaurrea—".

Bestaldetik, Etxepare ez da beheko famili baten semea, "Sarasketako Etxepare famili nobliaren semea behar bada, dokumentu batean, 1548-I-21.n, agertzen den Juan Etxepare handikiaren anaia..." (Jaurgain). Etxepeare hitzaren esan-nahiak hau berbera irakasten digu: Etxepare familia noblia zela, "Etxepare hitza Etxekaparetik dator. Etxe noblia esan nahi du eta Jauregi, Domec, Salle, Casamayor, Palacioren antzekoa dugu" (Jaurgain).

Etxepareren diru-laguntzaile den Bernard Lehete dela eta... "Sarako Lehete familiaren semea dugu, 1530-VIII-22.n, Bordaleko Parlamentuaren abokatu jeneral izendatua" (Jaurg.).

Baina Lehete familiaren gora-beherak pixka bat ikertuz (Ikus: "Recherches sur la ville et...") nafartarra dela (hego-nafartarra) Lehete etxe nobliaren sorlekua konturatzen gara, nahiz eta geroko adar biak (Sara eta Baiona) izen handiago izatea.

LEHETE FAMILIA

"Ez da Baionar burgesiako familia bat (nahiz eta famatua izan Baionako Lehete familia). Haren noblezia aspaldikoa da, Espainia aldean dagoen

Euskal Herrikoa, jatorriz, hain zuzen... (Recherches sur...)"

Nafarroan, XII. mendearen hasieran badugu Lehetiarren arrastoa: Fortunez Lehetiarrak III9. urtean sinatzen duen dokumentu bati esker, "Alfonso Batallador" erregek Iruineko apezpikuari hainbeste "sari" (Donations) ematen dizkio. Lehen esandako pertsona biek sinatu zuten Muskariako biztanleei emandako "ohorezko ezkutitza" (Chartre).

Peraltako nagusia eta errege kontseiluko zen Martin Ximenez Lehetiarrak 1135. urtean, zin egiten du Santxo, Iruineko apezpikua, defendituko zuela.

Corbaran Lehetiarrak, Nafarroako Aberats bat, Luis IX. eta Champagneko Thibautekin "gurutzada" batetan harzen du parte.

Guretzat, dokumentuen ezaz, ezezaguna den garai batetan, Lehete familia Sarara doa eta bertan finkatzen da, gure egunetararte. Luraldaketa hau, XIII. mendearen hasierakoa izan zen nonbait, 1233 eta 1235. urteetan Baionako Kapituluan (Chapitre) Aner eta Galindus Martin Lehetiarrak baititugu.

1235. urtean, Nicolas Lehete (Sara Etxekoa) Dax eta Baionako gobernadore zen.

Esandako liburu hortan oinarrituta, Lehete familiaz laburpen grafiko bat eginen dut:

LEHETE FAMILIA



2.–ALDIKO EUSKALDUNAK

"...zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil eta hetan izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik..." Irakurri duzuna ez da garaiko euskaldunen arrazoi gabeko estimatze eta ohoratze bat, historian finkatuta dagoen egina huts baizik. Zientzia guztien bana-banakako aztertze bat luzeegi eta aspergarri izanen lizatekeelakoan nago; honetaz gain, aritik kanpo ateratzen nauenak, noski. Horregatik, honi buruz hitz bi baino ez dut esanen.

Filosofia: XVI.mendea (Etxeparerena) euskaldun filosofoen urrezko mendean dugu, Euskal Herri barruan ez ezik (Iratxe eta Oinati) bai eta Euskal Herritik kanpora ere. Salamanka (orduko filosofi-teologi munduaren bihotza) Paris, Toulouse, Alkala, eta Kahorseko Unibersitateen zuzendaritzak euskal ukitua sentitzen du (Mikel Alzo).

Arkitektura: Italia, Espainia eta Latin-Amerikako Artea euskal izenez zipriztinaturik dago aldi hontan, arkitektura arloan: Juan Olotzaga, Mikel Agirre, Frantzizko Etxebeltz, Andres Salazar, Pedro Alzaga, Arandia, Klaudio Arciniega e. a., aparteko gotiko bitxien egileak dira.

Inolaz ere, ez dut esan nahi euskal arkitektura euskal filosofia lantzen zirenik XVI.n mendean, Euskal Herrian sortutako gizon batzuk, Euskal Herritik kanpora (Gehienetan) estimatuak zirela, esatea baizik.

3.–ETXEPARAREN HARRITZEA ETA SALATZEA

"...miraz nago, jauna, nola batere ezten asayatu bere lengoaje proriaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera..."

Etxepareren bakartadea, euskal idazle bezala, benetan triste eta miragarria da. Bera ez da bakarrik euskaraz idazten duen lehen idazleak, baita lehen euskaldun idazle ere.

Etxeparek euskal idazleei (aldiko et aurreko gure herrian sortutakoei) egindako salakuntza, oraindik tinko eta firme gelditzen da, gaurkotasunez betea. Haren aldian baditugu beste erdal eliz-gizon idazle bi (guttienez eta tamalez), gure herrikoak: Estella eta Etxaide, nafartarrak.

Zoritxarrez, zerrenda honek gure egunotan ere bizirik irauten du: hamaika gizon eta eliz-gizon ez diren sasi-jakitun, nahiz sasi-unibertsalismo eskuindar espiritualistaren izenean, nahiz sasi-naxioartekotasun eskertiar langilearen izenean, nahiz pertsonagabeko pragmatismo inperialista yankizalearen izenean, nahiz gaizki ulertutako esperantismo izenean, gure herria nor izateko bizi-beharrezko tresna (KULTUR HIZKUNTZA,

alegia) egunero praktikaz (teoriaz ere bai batzuetan) ukatzen dute.

PEDRO MALON ETXAIDE, prailea.—Errenazimenduak eraginda, XVI, mendeko literatura "pagano" bihurtuz doala ikusiz, Espainako teologoak hestu eta larri hor dabiltza, nola ezkon litezkeen ideia berriak kristau espainiar pentsakerarekin.

Etxaide hauen tartekoa dugu. Haren hitzak irakurri besterik ez dago: "...liburu horietatik (errenazentista "pagano" kutsukoak) sortutako kalteak konpontzeko, kristauen ondasunaren zaintzaile askok jakintza donea agertu beharrean daude..."

Benetako kristau errenazentista izan nahiaz, "Magdalena" (Kristau Berri Onaren Magdalena pekataria) idatz-gaitzat aukeratzen du Etxaidek, "Magdalenaren bihurketaren" liburuan. Jainkoagana heltzeko pekatariak beharrezko duen bidea, hau da liburuaren mamia.

Etxaideren liburuak espainiar lirika egoerarekin zerikusi handia du. Salamanka Eskolako jarraitzailea da, alegia, Leongo Luis prailea baitzuen maisutzat. Espainiako XVI. mendeko lirikan (nahiz Salamankako eskolan, nahiz Sebillako eskolan) maitasunaz heleniko filosofia, Bibliaren sakontze ardura eta mistika barru-joera nagusitzen dira.

Etxaideren liburua espainiar lirikaren ispillu zintzoa da. Maitasunaz platoniko eritzia maiz agertzen da haren liburuan eta espainiar filosofian; "XVI. mendea bukatzeko dagola, espainiar herri filosofiak platoniko kutsua da. Giroa zeharo platoniko zen "Menendez eta Pelayok dioenez.

Leongo Luis prailearen maisutzapean hartutako bibli jakintza, edonon agertzen da Etxaideren liburuan.

Agustin donearen mistiko-joera espainiar mistikan argi eta garbi ikusten da. Etxaidek hainbeste aldiz Agustin doneagana jotzen du, bere pentsakeraren oinarri bila. Etxaidez orainarte esandako guztia, Joxe Mari Sanjuan-en erdarazko liburu baten laburpena baino ez da.

Agiri dago bezala, idatz-akuilua Etxepare eta Etxaidegan oro ezberdina da. Idatzmamia, beraz, zeharo ezberdina izan behar. Etxaide espainiar mistiko, bibliko, platoniko idazle bat da; Etxepare, ostera, euskaldun bezala agertzen da. Hortik gainera, hau da, Etxepare idazlearen zerak geroago esanen ditut.

URTERIK URTE HAREN BIZITZA

1530: Nafarroako Kaskanten jaiotzen da
1557: Agustinoen Ordenako egiten da

1569-72: Burgosen Irakasle
1572: Aragoira doa
1575-77: Zaragozako Priora
1578: Hueskako Priora
1580-82: Hueskako Unibertsitatearen Irakasle
1582: Teologiako lizenziatura bereganatzen du
1583-85: Zaragozan dugu
1586: Bartzelonako Priora
1588: Barzelonan, "Magadalenaren bihurketa", lehenengoz inprimatzen da
1589: Hilten da
1592: Alkalan 2. inprimatzea
1593: Madrid eta Alkalan 3. eta 4. inprimatzeak
1600: Balentzian 5. inprimatzea
1602: Alkalan 6. inprimatzea
1794: Balentzian 7. inprimatzea
1881: Bartzelonan 8. inprimatzea
1933: Zurich'en 9. inprimatzea

Ayala Kanzillerra

Etxepareren harritasuna dela eta, Ayala Kanzillerraren jokabidea ikertuko dugu, bide batez "euskal unibertsaltasuna" hitza pixka bat ikutuz.

Familiz "noblia", haren aita Fernan Perez, Ayalako Jauna, Alfonso XI.aren kortekoa baitzen. Gaztelaniako erreinu barruan Araba sartzea Fernan Perezi zor zaio neurri handi batean. Arabatarra, beraz, Pedro Ayala, Fernan Perezen semea, 1332.n urtean jaioa.

Idazlari baino politiko-diplomatiko hobea dugu Pedro Ayala, dudarik gabe. Honetan historigile gehienak ados daude. Frantziara hamaika joan-etorri, Portugal, Inglaterra, Aita Santuarengana, Aragoira... hara eta hona ibilia zen Pedro Ayala; gaur eguneko ibil-teknika aurrerapenak eskuan izan balitu, Kissingerrek txapela kendu behar, noski.

Idazlari bezala ("Rimado de Palacio"ren egilea da)" lehen gaurko gizona zen, Menendez eta Pelayoren eritziz, errenazentista idazleei aurreratuaz. Bizitza luzea, benetan, Pedro Ayalarena, Gaztelaniar bost erregeen bestekoa, norberaren probetxu eta handitasunerako nola joka trebeki irakasten diguna; "Rimado de Palacio" baino interesgarriagoa, hain zintzo eta zuzena izan ez arren, haren bizitza da".

Ayalak eta aldiko "euskaldun" "nobliak" erdal asitako bidea (Santillana ere hauen tartekoa dugu) norberaren handitasun (historia irakasten digun bezala) eta ekonomi errazoietan finkatuta, gaurko gure sasi-europeirismo politikoaren (herri nagusien ekonomiak) oinarrietariko bat da, ene eritziz.

Etxepareren salakuntza dela eta ("miraz nago, jauna, nola ***batere...***") Ayala eta Santillanaren erdal-idatz-jokabidea oro kaltegarria izan zela eta, tamalez, badela aitortu beharrean gaude. Haren salakuntza hari-harira dator. Etxepare "miraz" zegoen bere garaian, anormaltasun bat ikusten zuelako: Euskal Kontzientziarik ezez (XVI.mendeko euskal kontzientzia, noski) sortzen den idatz anormaltasuna. Horra hor Estella, Etxaide (Ayala eta Santillanaren jokabidea jarraitzen dutenek, Joxe Ariztimunioren eritziz) eta abar, eta abar, eta abar...

Halan eta guztiz ere, badaude gure artean Ayalaren euskalduntasuna nahi eta nahi ez, defenditu nahi dutenek. Ene eritzi apalean, Ayalaren euskalduntasunaz eta Meata-Albizkeene amona baserritar afrikatasunaz hitz egitea, denpora alferrik galtzea da.

Euskalduna ez ezik, euskaldun unibertsala dela diote. Bizitza oroan "Pensilvaniaren" alde lanari ekin teoriaz eta praktikaz; eta gero menderikmende euskaldun unibertsaleeen ispillutzat jarri nahi..!

Nik ez dakit euskaldun unibertsala zer den, euskalduna ez bada.

Baina badakit nondik datorren "badaezpadako unibertsaltasun hori"; erdaldunek, (gaztelaniarrak eta frantzezak) bere kultur-politikoaren inperialismoa bedeinka eta justifikatzearren alde batetik; sasi-euskaldunez, euskalduntasuna ez defenditzearren, beste aldetik, maizegi aipatzen dute, euskaldunok nahi-ta-ez izan behar dugun "badaezpadako unibertsaltasun hori".

Gauza bat harrigarriago oraindik: badaude euskaldunen unibertsaltasuna defenditzen dutenek eta Europa sartzeko bildur direnak...

1968.n urtean neronek egindako abesti bat, "Unibertsalak" zeritzana, tamalez, gaur-gaurkoa dugu. Tamalez diot, hainbeste euskaldunen mentalitatea lehen bezala baitdago lehen gaixorik, orain gaixorik. Kola-Kao edo Koka-kolaren bitartez benetako unibertsaltasunaren droga bat asmatzen ez badugu...

Badakit unibertsalak
izan behar gareala
baina euskalduntasuna
eta euskara oinarria.

Europa guziz berria,
benetako elkartea,
kerrietan finkatuta
ez jauntxo-ekonomian.

1332: Ayalako Kejanan jaiotzen da
1351: Haren aitak "Encartaciones" deritzana menperatzen du
1354: Aragoiko Fernandoren menpean zerbitzen du
1373: Gasteizko Alkate Nagusia
1375: Toledoko Alkate Nagusia
1378: Frantzira diplomatiko ibilaldia
1379: Bartzelonara diplomatiko ibilaldia
1379: Frantzira diplomatiko ibilaldia
1381: Frantzira diplomatiko ibilaldia
1382: Frantzira diplomatiko ibilaldia
1384: Frantzira diplomatiko ibilaldia
1385: Portugalen giltzapetua
1389: Lancasterreko Dukarekin elkar ikusten du
1390: Guadalajarako korteetan paper nagusia
1393: Portugalera diplomatiko ibilaldia
1393: Enrike III.kin Gernikan
1393: Enrike III.k Arabako Agurain ematen dio
1395: Frantzira diplomatiko ibilaldia
1398: Gaztelaniako Kanziller Nagusia
1407: Morkuerako komentuan hiltzen da

4.–Etxepare lehen poeta inprimatua

"...inprimaturik heuskara oraino izan ez dena..."

Argi eta garbi dago, Etxepareren liburua (besterik ez ba da frogatzen) euskarazko lehen liburu inprimatua dela. Baina lehen liburu inprimatu izateak, ez du esan nahi euskarak (1545.arte) inprenta ezagutu ez zuenik. Guttienez, erdal lau liburutan ditugu euskarazko hitzak, Etxepareren poesiak agertu orduko. Hona hemen xehetasun batzuk:

EGILEA	OBRA	URTEA	TOKIA
Torres Naharro	Tinelaria	1513	Erroma
Marineo Siculo	Cosas memorables de Esp.	1530	Alcalá de Henares
Gaspar Gómez	Tercera Celestina	1536	
Rabelais	Pantagruel	1542	Lyon Juste

Beste aldetik, Etxepeare lehen euskal poeta dela esatea, oso erlatiboa iruditzen zait. Lehen poeta ezaguna? Esan dezagun hobeki euskal lehen poeta inprimatua dela, Nafarroako erreinuan Etxepare orduko "juglar" batzuen izenak baititugu (Irakur ezazu Menendez Pidalen obra), hau da, bertsoz baliatu izan diren pertsona batzuk:

A) 1268: Iruñeko "juglar" bat Hueskan agetzen da
1384: "Bravan Dukadoko juglar itsu bat" Nafarroan agertzen da, Karlos Gaiztoa errege zela.

B) 1387-1425: Hona hemen Nafarroako Karlos III.aren juglareen zerrenda.
1385: Maestre Johan, Perrinet, Nicolas, Maestre Pierr eta Johanin de Bar, bere semea.
1391: Testa de Fer, Begue de Bernucor eta Johanin, bere anaia.
1392: Nicolas, Parchin.
1396: Cousin, Fassion, Cibus, Jaquet, Nicholas.
1402: Jaquet de Meaux
1403: Dokamentu batean agertzen da Oliteko Johan d'Exea, bezala juglar zigortua, baina dirudienez ez zen Karlos III. aren Kortekoa.
1407: Pierres de Carreiere eta Juanon de Ezpeleta
1412: Nicolau, Francon, Arnaut Guillen de Ursua.
1413: Bernart de Ufont, Francisco de Montalvo, Gabriel de Vera. Azken biak ez dira bene-benetan Karlos III.aren juglarak; okerretan ez ibilteko esan daiteke Karlos III.aren. Gortean momentuz egon zirela.
1424: Ancho d'Echalecu.

C) Karlos III.aren erregetzaren ostekoak.
1428: Sancho de Echalecu eta Garcia Churri, Aragoiko erreinuan ditugu.
1430: Sancho de Echalecu eta Ursua, Vianako Printzearen juglarak.
1430: Jaime de Gracia, Nafarroako erregearen juglara.

Juglar hauk direla eta (batez ere Karlos III.arenak) gauza batzuk gogoan izan behar ditugu:

I) Nortzuk ziren benetan euskaldun (euskaradun) juglarak? Nafarroako Gortean eton ziren juglar guztiak ez, noski. Arrazoi oso garrantzitsu bat dugu hori egiztatzeko: orduko erreinuen artean, juglareen trukea oso normala izan zela. Esan nahi dudana, hauxe da: Karlos errege III.aren juglar-zerrenda (eta zerrenda honetatik kanpora daudenak ere bai) sakonki aztertu behar dela, lehen-lehenengoz jatorriz nafartarrak zenbat ziren jakiteko. Cibus deritzana, esate baterako, Aragoiko erreinutik etorria zela badakigu; baina eta beste guztiak?

II) Euskaldun juglarei buruz, Menendez Pidalez badio: Nafarroako Gortean, ugari izan bide ziren euskaldun juglarak, Arnaut Guillen de Ursua, Sancho de Echalecu eta Garcia Churri bezalokoaz..."

III) Eta Nafarroako Gortean bide batezko juglar izan zirenez, Menendez Pidalek hauxe dio: "Ez noa esatera Nafarroako Gortean mementuz egon ziren hainbeste juglareren izenak"

IV) Hona hemen ba, ondorio bezala, ikergai interesgarri bat: Etxepare orduko, bertsoz baliatu izan ziren euskaldun juglareen izenak ezagutzea. Ez da ene saiakeran muina hori aztertzea. Horregatik aurrera joko dut.

Oharra: Ez ditugu ahaztu behar XV mendeko emakume "eresilari" batzuren izenak, esate baterako:

—Lasturreko Emiliaren ahizpa
—Santxa Hortiz, Pedro Garziaren arreba
—Ozaetako Santxa Otxoa, Artazubiagako Martin Bañez-en emaztea
—Butroiko Juana Gonzalez, Gomez Gonzalezen alaba
—"Alos-Usoa", Aloseko Beltran Perezen alaba.

5.– ETXEPARE LITERATO BEZALA

Etxepare literato bezala, goratua izan da eta da, batzuen aldez; beste batzuek, berriz, haren balio literarioa ukatu egiten dute.

Etxeparek "iñorantziaren araura eginak" esan zuenean, zer adierazi nahi zuen? Kultur gabeko apaiz bat zela? Bera ez zela nor poesia-arloan? Ala hitz hauk, apaiz baten humiltasunak eragindakoak dira?

Dena dela, hona hemen Etxepareri buruz zenbait eritzi, talde bitan banatuak: ALDEKOAK eta AURKAKOAK.

A) *ALDEKOAK*

"Berea ez da poesia huts-soila, edertasun biluziaren ispilu izan nahi lukeena... darion herri bertso eta herri hizlera... darabilen mintzaira erraza da beti, bizia, sarkorra bere laburrean, neurriaren molde gogorrak, behin ere trabatzen ez duena" (Luis Mitxelena).

"Etxepareren estiloa oso ona da, gehienetan oso trinkoa, liburuaren izate poetikuarekin bat eginik dagoena" (Bonifacio de Ataun).

"Ikusmolde zabalago eta zuzenago batez, Etxepareren obra analizatzen denean, orduan ohar gaitezke haren kalitate handiaz, haren ihardukiak darion gizatasun sakon sinzeritate biluziaz, hurrengo gizalditako poeten konstrukzio huts eta konbenzionalek, tamalez, falta dutena, haren aberastasunaz, single hitzetan eta iruditan, eta gaurko sensibilitateari hain atsegin zaion arkaismo eta borobiltasun falta hartaz..." (Ibon Sarasola).

"Ez da bihotzaldi handiekiko poeta, baino bai leguna, hitz hutsik eztuna, jasoa, lehenbizikoa ez ezik, gaurkoa ere izateko; idaztankera lasterra eta muinduna du, ebakia eta adierraza" ("Orixe").

"Batzuen eritziz ez da olerkari gaillena; Lafonek, berriz, baietz dino, eta nire ustez egi-bidetik dabil. Idazkera gogor zabartxoa, baina bizia" (Santi Onaindia).

"Bazuen indar Etxeparek, bai eta poeta handien ezpal" (Ibinagabeitia).

"Euskarak nekez berraurkituko dituen indarrez, grinaz eta lirismoz beterik daude olerki hauk. Eta ez dut uste paradoxa denik, gure lehen euskal poeta handiena ere badela aitortzea" (Gil Reicher).

"Bernard Etxeparekoren olerki arinak zoragarriak dira; ez dago zertaz harriturrik, noiz moldatuak diren kontuan hartzen bada. Horatiok latin belarriei Lesbosko lira entzun erazi zienean bezain zoriontsu da hau ere lehenengoz lehenengoz euskaraz idatzi eta inprimatzearekin" (Francisque Michel).

"Dudarik gabe poeta handia dugu Etxepare. Zahar eta moldegaitz iduriko bere neurtitzen bidez, irakurlea barne-zirraraz dardara arazitzen daki" (Luis Villasante).

B) *AURKAKOAK*

"Oso gutti balio duen bertso-bilduma" (Fitzmaurice Kelly).

"Etxepareren olerkiak goi-arnas urrikoak dituzu" (Jon Etxaide).

"Haren balio poetikoa ez da handia" (Allende– Salazar).

"Nahiz'eta Etxepareren bertso batzuk salba, den–denek ukatzen dute aho batez haren goi-mailako balio poetikoa" (Julio Urquijo).

"Euskaldunek juzga dezatela Etxepareren olerkien balio poetikoa, baina onartu behar dena, hauxe da: olerki askok pentsakeraz ez dira goi-mailakoak, ez eta gramatikalki idatziak ere" (Van Eys). Baina René Lafon-ek, berriz dio: "Hizkuntzaren taxuketaren aldetik, Etxepare idazle finkatua bat dugu bene-benetan. Eta ez bakarrik finkatua, oso finkatua

baizik beste hizkuntza askotan lehenengoz idatzitako obrak gogoratzen baditugu; esate baterako prusiar zaharrekoak" (René, Lafon).

"Ez olerkien inspirazioa, eta ez jantzia ez dira kantantzen duen idealaren dinakoak. Inspirazioa exkasa eta jantzaia basatia. Baina meritubako olerki hauetan, enamoratu baten bihotza pil-pilean agertzen da. Honegatik, hain zuzen, Etxepareren bertsoak estimatzen ditugu" (Joxe Ariztimuño).

6.– *ETXEPAREREN ORIJINALTASUNA*

"... igorten darauritzut euskarazko kopla batzu, ene iñorantzia araura eginak..."

Etxepare ez da inongo maisutzarik gabe sortutako idazle meteorito bat, noski; ez eta inon edan gabe, aparteko iturri bat ere.

Etxepareren idatz-ahaidetasuna Erdi-Haroan oinarritu behar, Europa eta Euskal Herriko Erdi-Haroko poesian, hain zuzen; hobe esanda, Europako poesi inprimatu eta Euskal Herriko ahozko poesian.

"Ene" hitzaren benetako balioa eta esan-nahia zalantzan daude, hau da: Etxepareren orijinaltasuna.

Hona hemen honetaz orain arte emandako eritzi batzuk:

1) Ingles poetekin ahaidetasuna du (Salvador Espriu).

2) Hitako Arziprestearekin zerikusia, L. Villasante, L. Mitxelena, Ibon Sarasola, Ion Etxaide, Balendin Berriotxoa ..., aitortzen dute.

3) Eliz-salmu eta otoitz kutsukoak dira Etxepareren erlijiopoesiaren bertso batzuk ("Doctrina Cristiana"koak hain zuzen) Francisque Michelen eritziz.

4) "Batheyarria" deritzan poesiak "La Divina Comedia"ren bertso batzuekin zerikusia du (Juan Karlos Gerra). Urkixok hau ez du onartzen.

5) Etxepareren idatz-ahaidetasuna herri poesiakin (gogo, hizkuntza eta bertsogintzari gagozkiola) agrian dago, L. Mitxelenaren eritziz.

6) Etxepareren bertso batzuk baliteke herri-poesiatik hartutakoak izatea (Francisque Michel).

7) Etxeparek, dudarik gabe, herri-otoitzak ezagutzen zituen. Horregatik, haietarik edango zuen, nahiz eta gero haiei zer berezi eta pertsonala erantsi (René Lafon).

8) Hizkuntza guztien lehen literatur obrek han edo hemen edan izan dute. Etxepareren kasua berdin-berdina da. Haren herritar hizkuntzak eta autobiografia kutsua duten idatz-zatiek argi eta garbi erakusten digute Etxepareren obra inola ere ez dela hitzulpena (E. Lewy).

9) Francisque Michelen eritziz, Etxeparek, euskal poesiari buruzko ideiarik hoberena eman nahirik, berak egindako bertsoei beste batzu gehitu bide zizkien, haren garaian arrakasta zuten batzu, hain zuzen (Francisque Michel).

Orijinaltasuna dela eta, oro interesgarriak dira Abaurrepeako Zelestina Bidondok Azkueri irakatsitako abesti bi; 1928ean, "Aezkera" deitutako liburuan, Azkuek azpimarkatu egin zuen Zelestina Bidondoren abesti bi horien eta Etxepareren beste bien arteko kidetasuna.

Zelestina Bidondo

Kristi on bat iltzen denean
egiten da parte bi,
aren aide-adiskideak
aren onen zatitzen ari;
obeki egin lezakete
Mezatan eman balezate.
Korputz gura bera bakarrik
gero lurrez estali.
Arima gaixoa yoaiten duzu
beltzik eta tristerik,
gure Yinkoa elkitzen zaio
kolera aundi bat arturik.

Etxepare

Person oro hil denean hirur zathi egiten,
gorputz ori usteltzera lur hotzean egoizten
unharzuna ahaideek bertan dute partitzen,
arima gaixoa dabilela norat ahal dagien
hain biaje bortitzean konpainia faltatzen.

Zelestina Bidondo

Kristi on batek bear bailuke
igandeetan pentsatu
aste guztian zenbat aldiz
egiten duien bekatu.

Etxepare

Orhituki igandean behar dugu pentsatu
zenbatetan egin dugun bekatu.
Orhit eta Jeinkoari barkhamendu eskatu,
atorra nola arima ere aste oroz garbitu.

Gai-ahaidetasuna argi eta garbi agertzen zaigu.

Hau irakurriz, galdera bat sortzen da: Zelestina Bindondoren erlijio-poesiak iturria non du? Etxeparerengan ala Etxepare aurreko herri-erlijio poesian?

Bigarren posibilitatea defendituz gero, Etxeparek eta Zelestina Bidondok iturri berdinatik edan dute: herri-erlijio poesia edo herriotoitzak. Beraz, René Lafonek esandakoarekin ados gaude. Ni neu ere horretan nago.

7.–IDATZ-HELBURUA

"... eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia...".

Idatz-akuilua dela eta, ikus ditzagun eritzi batzuk:

"Etxepareren poesiak ba du sortu-motibo bat, poesiaren muinoz kanpo: –Euskara jalgi adi plazara–. Ahapaldi hau, bere ondorio guziekin asko klar mintzo da egilearen asmo eta nahiaz. Agian, Etxepareren garaian euskarak literatura ugari eta aberatsa izan balu, ez zukean harek luma hartuko eta poesiarik egingo... (Ibon Sarasola)".

"Euskaltzaletasunak eragin ziola, bai, argi dago; baina ez bertsotan jardutera, hori barrenak agintzen bide baitzion, euskal neurtitzak izkributan ipintzera baizik, eta inprentaren bidez munduan barrena zabaltzera –Zeren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain skribatzeko hon dela– (Luis Mitxelena)".

"Mossen Bernat'i euskararen maitasun hutsak eragin zion bere liburua argitaratzea eta hortarako erlijioaz eta maite-bertsoaz baliatu zen. (Ion Etxaide)".

Ez dakit errasoia norengan dagoen...; ene eritziz, Etxepare euskara inprimatuaren kantaria da. Etxepare poztutzen bada, ez da euskara gure hizkuntza delako, ez eta bere gurasoena, e.a., e.a., ... euskarak bide berri bati asiera ematen diolako baizik, inprentabideari hain zuzen. (Irakur "Kontrapas" eta "Sautrela").

Etxeparek euskara kantatzen du, inprentaratzen delako, nahiz eta beranduegi izan (Hitzaurrean aitortzen duen bezala). Kontuan har ezazu, Gutenberg'ek ehun urte lehenago inprenta burutu edo asmatu zuela.

Euskara "plazara" "mundura" "mundu guzira" "dantzara", irtetzen bada, inprentaratzen delako da.

Hitzaurreak (euskara inprimatuaren kanta bat dela aparte) enetzat aparteko balioa eta gaurkotasuna du, gure arteko idazleen sasi-unibertsaltasuna maisuki, trebeki, hitz guttitan salatzen duelako. Pozgarria benetan, euskarazko lehen orri inprimatuan, "unibertsal" idazleak salatuak izatea" ...***miraz*** nago, jauna, nola ***batere***...".

Oro harturik, Etxepare euskara inprimatuaren kantaria da, ene eritziz, noski. Euskara "skributan" edo "inprentaratua", hamar aldiz aipatzen du Etxeparek:

1) ...skributan imeitera... (Hitzaurrea).
2) ...hain skribatzeko hon dela... (Hitzaurrea).
3) ...ezin deus ere skriba daiteyela... skribatzen berian... (Hitzaurrea).
4) ...inprimaturik euskara, oraino izan eztena... (Hitzaurrea).
5) ...bere lengoajian skribuz zerbait doktrina ... (Hitzaurrea).
6) ...ezin skriba zateyen... (Kontrapas).
7) ...egon bahiz inprimitu gaberik... (Kontrapas).
8) ...zeren ezein skripturan erideiten ezpaitzen... (Sautrela).
9) ...skribatuz hal balute ikhasteko desira ... (Sautrela).
10) ...lehen inprimatzalia euskararen ... (Sautrela).

BIBLIOGRAFIA

Hona hemen Etxeparez hitz bi hauek esateko, erabili ditudan liburu, artikulu eta osterantzekoak.

Poesía juglaresca y jugares. Aspectos de la historia literaria y cultural de España. Egilea: Menéndez Pidal. Apéndice: Juglares de Carlos III el Noble.

Filósofos Vascos. La Gran Enciclopedia Vasca, Tomo I. Egilea: Mikel Alzo.

Notas bio-bibliográficas sobre Bernat Etxepare. La Gran Enciclopedia Vasca, Tomo I. Egilea: Nicolas Alzola.

Primera versión castellana del primer libro impreso que se conoce en euskara. La Gran Enciclopedia Vasca, Tomo I. Egilea: Lino Aquesolo.

Homenaje al Canciller Ayala. Diputación Foral de Alava - Consejo de Cultura. Egileak: Manuel Aranegi eta Lozoiako Markesa.

El primer renacentista y poeta euskaldun. Yakintza. Tomo I, 1933. urtea. Egilea: Joxe Aristimuño.

Los cuatrocientos años del Linguae Vasconum Primitiae de Etxepare. B A P, Año I - Cuaderno IV. Egilea: Fausto Arozena.

Linguae Vasconum Primitae. Boletín del I A E V, Año VI - Volumen VI, n.º 22, 1955. urtea. Egilea: Bonifazio de Ataun.

Escritores Vascos: Bernat Etxepare (siglo XVI). BRSVAP, 1962. urtea. Egilea: Balendin Berriotxoa.

Sociología de la literatura. Colección: Qué sais-je? Egilea: Robert Escarpit.

Amasei seme Euskalerriko - Itxaropena. Egilea: Ion Etxaide.

Linguae Vasconum Primitiae - Txertoa, 1968. urtea. Bernat Etxepare.

El léxico del primer libro euskérico. Año III - Volumen IV, n.º 10, 1952. urtea. Boletín del I A E V. Egilea: G. Garriga.

Ogen y gogo en la obra de Etxepare. Año V - Volumen V, n.º 18, 1954. urtea. Boletín del I A E V. Egilea: G. Garriga.

Antología de poesía popular vasca - Biblioteca vascongada de los Amigos del Pais. Egilea: Juan Gorostiaga.

Etxepare y su tiempo. Euskalerriaren alde. Año XVI, n.º 271. Egilea: Joxe Maria Huarte.

Zu Etxepare - R IE V, Tomo XXV, Año 1934. Egilea: Ernest Lewy.

Mitxelenaren idazlan hautatuak. Egilea: Luis Mitxelena.

Historia de la Literatura Vasca - Minotauro, Madrid, 1960. urtea. Egilea: Luis Mitxelena.

Arquitectos Vascos de internacional prestigio - La Gran Enciclopedia Vasca, Tomo I. Egilea: F. Quadra Salcedo.

Fray Pedro Malón de Etxaide - Editorial Gómez, Pamplona. Egilea: Joxe María Sanjuán.

Euskal poesía gaur - Iakin, 24, zenbakia, 1967. urtea. Egilea: Ibon Sarasola.

Euskal Literaturaren Historia - L U R. Egilea: Ibon Sarasola.

El Canciller Ayala y su tiempo. Diputación Foral de Alava - Consejo de Cultura. Egilea: Luis Suárez.

El primer texto vasco impreso - R I E V, XVI. Egilea: Julio Urkixo.

Introducción a nuestra edición del "Linguae Vasconum Primitiae" de Bernat Etxepare - R I E V - Tomo XXIV, 1933. urtea. Egilea: Julio Urkixo.

A propósito del Etxepare - R I E V - Tomo XXV, 1934. urtea. Egilea: Julio Urkixo.

Literatura eta kritika - L U R. Egilea Patri Urkizu.

Historia de la literatura vasca - Editorial Sendo. Egilea: Luis Villasante.

Aezkera - Editorial vasca, Bilbo, 1928. urtea. Egilea: R. M. Azkue.

Recherches sur la Ville et sur l'Eglise de Bayonne, 1910.

Oharra: Lantxo hau 1974.eko udaberri aldean egina izan zen.

B.E.

Bitor Garitaonandiaren ehungarren urteburuan

J. SAN MARTIN

1976ko martxoaren 6an, bete dira ehun urte Bitor Garitaonandia zena Zaldibarren sortu zenetik, eta egun hori hautatu zuen Euskaltzaindiak bere laguntzaile edo urgazle zen euskal idazle eta euskaltzale burrukatuari zor zaion omenaldia egiteko.

Bitor Garitaonandia Argia astekariaren sortzaile eta zuzendaria izan zen eta horrez gainera antzerki eta ipuin idazle trebea. Bizkai partean Durangaldeko Zaldibarren jaio zen 1876ko martxoaren 6an, eta Donostian hil zen 1929ko irailaren 3an. Bere bizitzan bete zuen lana handia zelarik ere askoz gehiago espero zitekean hain gazte hil ez balitz.

Bere aita herriko maisu zen. Bitorrek txikitatik erakutsi zuen musikarako zaletasuna, tiple.abots ona omen zuen eta bere aitak zortzi urte zituenerako Ermura bidalia zuen musika ikastera eta handik laster Durangora Kruz Gabiolaren irakaskintzak hartzera.

Orduñako Jesu-Lagunak tiple on baten bila zabiltzatenez, harako hautatu omen zuten, hamahiru urte zituelarik. Orduñan batxilerra estudiatzeko aukera izan zuen eta handik Salamanca-ko Jesu-Lagunen etxera jo zuen apaiz egiteko asmoz. Apaiz egin ondorean Zamora-ko katedraleko kantari izatea irabazi zuen. Lau urte ondorenean Donostiako Jesuitetara kantari etortzeko aukera izan zuen eta hemen hasi zituen bere euskarazko lanak. Intzagarai zenak zionez, aldi hartan ez omen zen elizkizun nagusirik Bitor gabe, musikaz ezer goratu behar bazen bera omen zen aurrenen-

go. Euskal Herri guzikoak Lourdes-era erromes joan zirenean ere musika zuzendari bera izan omen zen.

Jose Maria Irure jaunak aztertu zuen B. Garitaonandia zenaren bizitza, hau hil ondorean eman zuen hitzaldi batean (hitzaldi hau Euskal-Esnalea aldizkarian argitaratu zen, XX, 1930, 318. zenbakian). Bertan aitortzen duenez, Bitor Donostiaratu zen garai hartan, euskaraz ba omen ziren aldizkari politak eta euskararen alde lanean gogor ari zirenak, baina batzuk jakitunentzako zirala-ta, besteak euskara aditu-ezinezkoa zebiltela-ta, edo banaka banakak baizik ez zitzaizkion herriari eskuetaratzen. Bitartean, zerbait irakurtzekotan nahi ta nahi ez erdaraz egin behar. Berak zionez, errua ez zen herriarena bakarrik; jakin nahia beheko mailetara ere sartzea ez zen harritzekoa, eta jakin nahi hori asetzeko euskaraz ez zela ezer aurkitzen eta bide berriren bat hartu beharra zegoela. Euskara gordetzeko herriari euskaraz irakurtzen eta idazten erakustea zela bide bakarra, eta bere adiskideekin asteroko berri bat sortzea pentsatu zuen.

Garitaonandia zenak markatu dituen asmoetako astekariaren helburuak: Euskal Herria euskal-elertiaz zaletuarazteko, jakin nahia asetzeko: Euskal Herriko ohiturak azaldu eta maitarazi. Leopoldo Elio Gasteizko apezpikuaren baimena lortu zuten, 1921ean, eta urte berean sortu zuten Argia izeneko asterokoa, Bitor zuzendaritzarako aukeratuaz. Hil arteraino bere zuzendari izan zen. Zazpi urtean. Eta, zazpi urte hoien buruan zazpimila ale ateratzen ziren. Beraz, euskarazko kazetaritzarentzat abantaila handi izan zen.

Horrez gainera, 1922tik Argiaren Egutegia argitaratzen hasi zen, almanaka gisa. Bai asterokoak eta bai egutegiak arrakasta handia izan zuten 1936ra artean. Gudarekin suntsitu ziren.

Argia hasi zen urte berean, 1921ean, Bitor Garitaonandiak bi elizliburu argitaratu zituen, ***Argi-Donea*** eta ***Argi-Done laburra***.

Baina beste idazlanik ere eskaini zigun. 1919an Euskal-Esnaleak bere babespean eratzen zituen hitzaldietarik bi eman zituen, ***Usandizaga, bere bizitza ta eres-egikuntza*** gaiez, gero 1920an "Itzaldiak" izeneko liburuxkan argitaratuko zirenak. Lan jakingarria benetan, musika alorreko jakintzaz mamiturik.

1922an Euskaltzaindiak argitaratu zion ***Ipuin laburrak umetxoentzat*** deitu liburua, eta 1925ean, Euskaltzaindi berak bere urgazle'edo laguntzaile izendatu zuen.

Baina, literaturaz, Argia astekarian agertu zuen lan kementsu eta burutsuaz aparte, antzerkigintzan eman zituen bere lanik ederrenetakoak. Hiru lan argitaratu zituen, zein baino zein politagoak: ***Iziartxo***, 1917an Donostiako Udaletxeak saritua eta urte berean errepresentatua izan zena, 1918an lehen aldiz argitaratua; ***Aitona ta billoba*** 1920an argitaratua; eta ***Ongillearen saria***, 1922koa. Antzerkiok oraintsura arte errepresentatuak izan dira.

Bere adinik helduenean, jakintza mailak igaro ondorean eta lanean kementsu ari zela hil zitzaigun berrogetahamahiru urtekin.

J. S. M.

Euskaldunak Argentinan

JOXE ERRAMUN ZUBILLAGA

J. SAN MARTIN

"Aránzazu" aldizkariak 1976ko apirileko zenbakian zekarren Aztiriren artikulu bat, "Euskaldun jator bat hil da Argentina-n" izenekoa, eta bertatik jakin dut Joxe Erramun Zubillaga Bedaiorraren hil berria. Emigrante baten ibileraz bi liburu argitaratu zituen euskal idazle hau abenduaren 25ean hil zen Buenos Aires ondoko Ramos Mejia herrian.

Erramun Joxe Zubillaga Bedaion sortua zen 1891 urtean eta hogei urte zituanerako joan zen Argentinara. Bere bizitzaren azken partean orrialde ederrik idatzi zigun, hizlaxoz, bere ibilereri buruz. Idazki horietatik ikusten dugu euskaldunak urrutiko lur haietan izan dituzten langintzak, jokabideak, okintzak eta ikus moldeak. Zubillaga, bere jakinduria urriarekin ere, oharle bikaina zen, bere lanetatik agiri denez.

Ameriketan ibili ziren euskaldun konkistadore eta emigranteei buruz berri asko bildu zituzten Segundo de Ispizua eta Pierre Lhandek. Baina gure artean gutiago ezagutzen dira Francisco Grandmontagne-ren "Los inmigrantes prósperos" liburuaren orrialdeetan datozenak. Grandmontagne izan zen joan zen mendearen azkenaldean Jose R. de Uriartekin batean "La Vasconia" aldizkaria sortu zuena eta bere zuzendari izan zena. Aipatutako liburu horretan Buenos Aires-ko euskarari buruzko berriak ere ematen ditu. Baina Ildefonso Gurrutxaga azpeitiarra herbesteraturik hara joan zenerako, berak esan zidanez, ez zen ezer gelditzen euskalki berri bat sor zitekean ustezko "euskara bonarense" hartatik. Gainera, liburu hortan argitaratzen dira gure Iparragirrek Ameriketan zehar izan zituen gora beherak, Anjela Kerexeta bere emazte zenari jasoak.

Antzerako liburuak izango dira hor-hemen eta hoiek fitxatu beharra dugu gure herritarren berriak, gizontasun eta gizonkeriekin batean, Amerika aldean izan zituen jokabideak jasotzeko. "Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos" delako aldizkariak Buenos Airestik holako lan ederrik bildu izan du bere orrialdeetan, baina oraindik gehiago ahalegindu behar litzake. Urteak dira, nere aldetik, mundu irekiari begira tokian tokiko literaturetatik zerbait ezagutu nahirik irakurketa luzeeri loturik ibili nintzena, eta Domingo Faustiko Sarmiento-ren "Facundo" eskuratu nuenean, Argentinako giroaz zerbait jakin nahiaz, harriturik gelditu nintzen liburu berari erantsirik zetorren "Recuerdos de la provincia" ezagutzeaz. Zenbat eta zenbat berri gure jakingarri! Liburu honetaz zerbait idatzia du aipatu dudan Boletín hortan Justo Garate adiskideak, baina bada oraindik zer jaso eta zer iker. Liburu horretan, "Recuerdos de provincia" delakoan, ematen ditu, esate baterako, Malleatarren berriak, Juan Eujenio Malleagandik hasita. Malleatarrak, mediku eta idazle, Argentinaren kulturagintzarako gizon on asko emanak dira, gure egunotako Eduardo Malleara arte behinik behin. Honek beronek ere lan askotan ematen ditu holako berriak; Sarmiento bera ere ahaidekoa bai zen.

Baina emigrazio hoiekin oroitzeaz, euskaldun idazleak ezin ahaztu. Ifar Euskal Herrikoak bertsoz agertu zizkiguten Montevideo-rakoak, esne saltzaileenak eta abar. Baina J. A. Irazustak indianoen ohiturazko eleberri bat idatzi zigun, "Joañixio" izenekoa, eta bere ibileren kontaerak "Bizia garratza da..." izeneko liburuan. Bigarren hau tristea da, gehienetan tristeak diren bezala munduz mundu irten beharra izan duten gizonen bizitza. Orainago Sabin Irizarrek eskaini zigun "Txingo", gertaldi eta ibilkeriak, euskara bizi eta gihartsu batean. Baina haritik landa joan ez gaitezan, bedaiotarragana itzuliko gara.

Hamabi urte datoz Auskoa liburtegiak Joxe Erramun Zubillagaren "Lardasketa" argitaratu zuenetik. Berrogetahamar urte kasik euskaraz mintzatu gabe igaro ondorean hasi zen Zubillaga bere "ibilli-aldiak lardazkatzen" euskara idatzian jartzeko. Lehenbizi, Nafarroa eta Gipuzkoa tarteko Bedaioko mendietan artzai izana, gero Bahia Blanca-n esne-salketan aritu zen zazpi urtez. Handik, aspertu zanean, Buenos Aires-era jo zuen eta beste irabazpiderik ezin aurkituz, hasi zan han ere esneketari. Ondorean, kafe-etxe, bat hartu zuen bere kontura eta morroi bat ipini zuen esnepartitzen. Eta hogetahamazazpi urte zituela ezkondu zen Mariana Saldubehere lapurtarrakin. Baina bere irabazpide nagusiena geroago eraiki zuen: Beti Jai izeneko frontoia, edari eta janari tokiekin. Urteen joan-etorrian tratulari zuhurra bihurtu zen, eta Argentinako dirua beheraka ikusi zuenean, balio handiz saldu zuen etxe hori. Hastapen latz haiek egoki garaituaz dirutu zen.

1969. urtean "Euskaldunak Argentina'n" izeneko liburua idatzi zuen, 1972an Buenos Aires-ko Ekin euskal argitaldariak inprimatua. Liburu honetako euskara ez da berdina, neolojismoz beterik dator, euskara bizi eta jatorretik lehen liburua baino urrutiago noski. Honegatik, bere irakurketa nekezagoa eta aspergarriagoa da. Baina agiri jakingarri asko dakarzki.

Beste bi libura utzi omen ditu argitara gabeak: "Ene sorterria" eta "Aralarko lapurra" izenekoak. Lehenengoan bere sorterriaren adiarazpen zehatz bat ematen omen du eta bigarrenean Aralar mendian gertatu zen lapurketa baten kondaira. Behar bada argitaratu zituen biak bezain onak ez dira izango eta gutiago bigarrenaren euskara motaz badatoz.

Dena dela, hor daude "Lardasketa" eta "Euskaldunak Argentinan" bi liburuak euskaldunok munduz mundu zer izan diranen historiagintzarako kronika bezala, eta euskal literaturaren baliagarri.

J. S. M.

Isidoro de Fagoaga Kantaria eta idazlea

J. SAN MARTIN

Isidoro de Fagoaga nafar kantari eta idazle handia 1976ko martxoaren 15an zen Donostian. Berakin intelektual eta euskaltzale bikain bat galdu dugu.

Isidoro, Bidasoako Beran sortua zen 1895eko apirilaren 4an; operako tenor bezala ta saiolari bezala agertu zuen bere nortasuna; bere lanetan ez ezik, Martin Ugalderen ***Hablando con los vascos*** liburuan ere argi lagatzen du bere nortasun handi hori. Liburu hontatik ikusten dugu haurtzarotik ze kezkatia zen eta ze gazterik irten zen munduz mundu barne kezkak eraginik eta kantari bezala helburu batzuk lortu nahirik. Hogei urtekin joan zen Italiara eta Parma-n irabazi zuen Conservatorio-an estudiatzeko beka, Toscanini, Campanini eta Pizzeti-k estudiatu zuten toki berean.

Bere gogoa bete zuenez, bederatzi alditan parte hartu zuen Milán-eko Scala famatuan Toscanini, Elmendorff eta Sigfrido, Wagner-en obra guziak kantatuaz eta Robbiani-ren ***Ana Karenina*** eta Pizzeti-ren ***Arrotza*** lehen aldiz emanez. Era berean ibili zen Erroma-ko Operan, Napoles-ko San Karlosen, Turin-eko Regio-n, eta hitz batean, Italiako saloirik handienetan, Alemanian, Espainian eta Hego-Ameriketan. Hemen, Guridiren ***Amaya*** berak eman zuen lehen aldiz. Scala-ko orkestarekin Columbia-k grabatu zizkion Wagner-en obrarik berezienak, ***Parsifal, Tannhauser***, eta abar, eta ***Hirukoitzaren*** parterik berezienak. Nonbait, Ugalderen liburutik ikus genezakeanez, ***Parsifal*** eta ***Nalkiria*** zituen operarik gogozkoenak.

Italiako egonaldian, gaztaroan, ordu libreetan literaturaz eta arteaz aldizkarietan eta egunkarietan idazten hasi zen. Milán-en eta Bolonia-n hitzaldiak eman zituen Bayreuth-era egin zuen joanetorriari buruz.

Baina 1937an eten zuen operako tenor bezala jarraitzea, bere borondatez utzi zuen nazi-fazistek garai hartan egiten zituztenen protestaz, eta hala agertu zituen bere arrazoiak ***Pedro Garat, "El Orfeo de Francia"*** liburuaren sarreran. Geroztik intelektual, soikik eraman zituen.

Intelektuak ekintzan "Gernika" izeneko aldizkariaren sortzaile eta zuzendari izan zen, izen bereko elkargo baten inguruan argitaratuaz. Lehen partean Donibane-Lohizunen eta gero Buenos Aires-en. Aldizkari honetan hiru edo lau hizkuntzazko lanak argitaratzen ziren eta bertatik ezagutu nituen nik Iratzeder, Jon Mirande eta beste batzuk. Oso irekia zen, era askotakoak idazten zuten eta eztabaidarik ere sortzen zen, baina hala ere zuzendariak aski ongi zekien gauzak bideratzen. Gainera, bere idazkiak jakingarriak izaten ziren. Unamuno eta Iparragirreri buruz orduan idatzi zituenak ahaztu ezinezkoak dira. Hoiek, gero, bere liburuetan datoz.

Gutienez bost liburu idatzi zituen, zein baino zein hobeak, eta beste lan asko hor gelditu dira aldizkarietan sakabanaturik. Azken urteotan Amigos del País-ko Boletinean lan sakonik idatzi digu, euskal operari buruz, Donibane-Garaziko Huartez eta abar. Euskal Opera Yon Etxaidek euskaraturik "Egan" aldizkarian argitaratu zen 1974an. Fagoagak erdaraz idazten zuen, euskalduna izanik ere gaztetxotatik hainbeste urtez herbesteetan ibilia zenez euskara zerbait moteldua zuen eta idazteko ohiturarik ez zuen hartu. Hala ere, nerekin beti euskaraz mintzatzen zen.

Aspaldiko urteetan Buenos Aires-ko "La Prensa" idatzi du eta azken aldi hontan Donostiako "El Diario Vasco"n.

Baina bere liburuetan uzten digu bere lumatik irten diren lanik onenak ***Pedro Garat, El Orfeo de Francia*** (Buenos Aires, 1948), E. Gandia, G. Marañón eta J. Garatek goraipatutako liburua, Pedro Garat buruz egin denik biografiarik hoberena noski. Frantziako krisis handietako pertsonaje hau, erregeen gorteko kantaria. Izan ere nork eraman zezakean bizitza adieraztea beste kantari handi batek baino hobeto? Honegatik, kantaria eta bere ingurua barnetik erakusten ditu Fagoaga idazleak.

Garatarrendako grina sartu zitzaion eta ***Domingo Garat, El Defensor del Biltzar*** (Buenos Aires, 1951) idatzi zuen matxinadaren ondoren Uzta-

ritzeko Biltzarrak defenditu zituenari buruz. Liburu honetan, Domingoren bizitzaz gainera, garaiko politika giroa eta euskaldunen Biltzarren alderako jokabidea sakonki estudiatzen ditu. Mugazandiko euskaldunak beren eskubideak noiz eta zelan galdu zituzten ezagutzeko libururik onenetakoa noski. Hoien ondotik ahaideko zen Jose Garatena ere egin nahi zuen. Haunbai zen Justizia ministro Frantziako erregea sententziatu zuena. Familiko hiru Garat hoien bizitza eta egintzat adiarazteko nahi zituen, baina Jose-renik ez zuen bukatu.

Retablo vasco (Zarautz, 1959) euskal kantari eta musikarien berri ematen du, Huarte, Ravel, Paoli, Gayarre eta Eslava. Baina liburu erdia baino gehiago Gayarreri buruzkoa da. Julio Enciso-ren memoriez gainera beste osagarri asko ematen dituena. Eta, Gayarre eztertzeko era berriak, beste kantari bikain batena izateaz aparte, Isidoro ber-berak 1950ean Gayarretarren artxiboan aurkitu zuen Julianen euskarazko gutun bat ere argitaratzen du, lehenago, 1951an, "Gernika" aldizkarian argitaratu zuena.

Unamuno a orillas del Bidasoa y otros ensayos (Donostia, 1964), saiaera laburrez hornitutako liburu eder bat da. Unamuno, Grandmontagne, Wordsworth, Herrera y Reissig, Larramendi, Azkue, Baroja, pertsonajeeri buruzkoez gainera beste ikuskera batzuk dakartzi.

Eta ***Los poetas y el país vasco*** (Donostia, 1969) liburuan Victor Hugo, Unamuno eta Francis Jammes, E. Rostand, Loti, euskaldunak Cervantesen bizitzan eta lanetan, eta J. M. Iparragirre. Azken hau kapitulurik luzeenetakoa eta interesgarrienetakoa ere bai. Hemen ere, gure kantari bohemio hura ikusteko era bereziak zituen, bereziak bezain bereak, zeran berari ere bizitza aski bohemioa gertatu zitzaionez, guk baino ere egokiagoz begiratzen daki artista hoiei buruzkoa. Eta aburu jakintsuez aparte, Iparragirrek azken partean Buenos Aires-en 1877an agertu zuen damuzko kantaren zatiak adiarazten ditu, Karlos zazpigarrena uxatuaz, eta berak "Gernika" aldizkarian eman arte ezagutzen ez zirenak.

Musika eta antzerkiaren aldera grinaturik zegoen honek, azkenik ***El teatro por dentro*** eskaini zigun. Hoietara bezain Euskal Herriaren alde grinatua zegoen gizona, 1976ko martxoaren 15ean hil zaigu.

Euskaldungoa bizi den arte iraunendu bere oroitzak gure herrian.

J. S. M.

Louis Dassance (1888-1976)

J. SAN MARTIN

Ipar Euskal Herrian instituzio bat zen Louis Dassance jauna, gure mende honen lehen partetik honerat mugazandiko Euskal Herrian euskara eta euskal kulturaren inguru izan diren mugimenduen eragilerik zintzoenetakoa, ekintza guzietan aurrenengo agertuaz.

Pilotazale bikaina. Frantziako pilota federazioaren sortzaileetako bat zen eta errebote jokoaren legeak jarri zituena. L. Bombin eta R. Bozas-Urrutiaren "El gran libro de la Pelota"-ren lehen tomoan ikus geneza bere lan bat errebotean erabiltzen diren legeeri buruzkoa, J. Elissaldekin batean egina. Eta pilotaz ari delarik ere ezin ahaztu bere barnean zeraman euskaltzaletasuna; lanaren bukaeran hara zer zion: "Euskara ongi da liburuetan... mila aldiz hobeago euskaldun plazetan!!!".

Ogibidez laborari injinerua zen, Paris-ko Institut National Agronomique delakoan estudiatua, eta laborarien eta herritarren interseri haina atxikia zen euskal kulturari.

Euskaltzale andana batekin "Gure Herria"ren sortzaileetakoa izan zen 1921ean. Urte berean sortu zuten "Eskualzaleen Biltzarra" eta 1925ean Jean Etchepare medikuaren ordez ezarri zuten buru eta 32 urtez iraun zuen elkargo horren buruzagitzan. Behar bada denbora horretan izan ziren elkargo horren egunik ederrenak, bazkiderik anitz lortuaz, gazte arteko euskal sariketak sortuaz, teatrolariak, bertsolariak eta abar. 1944an "Herria" sortu zenetik bere laguntzailerik kartsuenetako bat izan zen eta bere

azken egunak arte kolaboratzen jarraitu zuena. "Gure Almanaka"n ere orrialde ederrik eskaini zigun.

1949an euskaltzain oso izendatua izan zen. Bere sarrera hitzaldia Donostiako Diputazio jauregian egin nahi zen, baina azken orduan debekatua izan zenez, geroago Baionan egin beharra izan zuen. Oraindik ez dakigu zer zen onartzen ez zena, euskaltzaina ala bere "Legion d'Honneur" izatea, zeren orotan bere zerbitzuak zintzo eskaini zituen Dassance jauna Frantsiak ohorez ematen duen titulurik handienan jabe bai zen.

Louis Dassance Lapurdiko Uztaritzen sortu zen 1888ko abuztuaren 20an, eta bere jaioterrian hil da 1976ko apirilaren 14an.

Euskaltzaindiaren batzarrean Pierre Lafitte junak eman zizkigun adiskidearen bizitza eta lanen xehetasunak, eta bere hildoari jarraituz eman nezazke bere berri zehatz jakingarriak.

Gaztaroan, bere lanetatik landa, laket izan zuen bidez eta xendraz oihanetan gaindi ihizan ibiltzea, bazter guzien ezagutza eginez, ohartuz bai hegaztieri, bai landare berezieneri, geroxeago euskaraz eman behar bai zaizkigun hoietaz xehetasun andana bat.

14eko gerran, 28 urte zituen eta bere adinekoekin joan beharra izan zuen gudu bortitzetarat, eta bere egintzegatik bi medailarekin itzuli zen berriz ere laborantzari oratzeko.

Uztaritz bere sorterria biziki maite zuen eta bertako historia ondo ezagutzen zuen. Liburuxka bat ere atera zuen Uztaritze zaharrak: "Ustaritz: ses assemblées, sou tribunal". 1939an herriko auzapez, alkate, izendatu zuten eta hogei urtez iraun zuen kargu horretan, 1959an berak gazteago bati utzi arte.

Euskarazko lanik sakonenak "Gure Herria" aldizkarian eman zituen, hor dira bere hitzaldi andana bat, hor Pierre Topet-Etxahun, Beñat Mardo, Elizanburu eta Goroztarzu poeteri buruzko lanak, Lapurdi zaharreko berriak, bertso zaharrak, pilotari buruzko azterketak eta hor, baita ere, Darrigol gramatikalariaren berriak. Hortik aparte, esan dugunez, "Herria" asterokoan eta "Gure Almanaka"n eman zituen anitz idazlan.

Anartean Dassance jauna ari izan zen toki-izen biltzen, dantza-jauzi zaharrak jasoaz ikertzen, eta kanta biltzen. Izan ere, "Kantu, kanta, khantore" (Baiona, 1967), P. Lafitte eta biak gertatua bai da. Eta Azkueren

"Cancionero Vasco"ren bigarren argitalpenari oharpen baliosak egin zizkion eraskiñean.

Bere euskararen aldeko ekintza, bizian zehar eten gabekoa izan zen. 1975an "Ikas" batasuna bultzatu zuen euskara eskoletan sarrarazi nahiz. Eta 1960an "Conseil de Defense du langues et cultures régionales" deritzan Parisko elkargoko buru-orde ezarri zuten. Gainera, hasera haseratik Baionako "Musée Basque" delakoa onartu eta lagundurik, haren adiskideen buru ere egon zen.

Hitz hoiekin bukatu zuen P. Lafitte jaunak bere adiarazpena: "Bainan bera nor zer zen Louis Dassance jauna? "Gizona" zela erraitea aski dela uste dugu, gizonki eraman baitu bere bizi guzia, zuhurtzia handiarekin, beti denen zerbitzuko, denekilakoa eginez, zuzenki bainan arraiki, pazientzia legetzat harturik, Jainkoa lagun: ezen fededuna zen: ez zuen bere fedeaz espanturik egiten, bainan ez zuen iskutatzen: laket zuen elizan ibiltzea eta aitortzen zuen euskal liturgia berriak barna hunkitzen ziola bihotza."

J. S. M.

Gerediagakoekaz

M. B. ALTZOLA

GEREDIAGA-ko Adiskide denoi:

Agur eta Egun On!

Ia ba, hainbatik laburren betetzen dudan eginbeharra hemen. Atal laburretan zatituko ditut nere hitz laburrok.

I
Lehenengo Atala

Bi zatitan gau: a) "Gerediaga", eta b) "Gerediaga Sariak".

a) ***"Gerediaga"***

Gizaldiz gizaldi, jatorrizko sustrai zaharrak legortu ez diralako gure artean (Durangoko Lau Uri eta Hamabi Eliz-Aurre Herrietan), horregatik sortu zen "Gerediaga Elkartea". Gure Durango-Aldea ***sustrai zaharretarik bide berrietara*** eramateko asmorik haundienakaz. Kate-maila berriak sortu bai, baina katea bera eten eta apurtu bagarik.

Izatez gara durangotarrak, geure aurretikoen jatorriz eta herentziz; eta ez ditugu ukati egin behar geure jatortasuna eta nortasuna. Aurrera egin behar dugu, gaurko egunek eskatzen duten erritmoa edo bizitzak dakarzki-

guzan errazoezko neurriak galdu bagarik, munduaren parean atzean geldi ez gaitezen, baina geure benetako baloreak inori saldu eta betiko geure burua galdu bagarik. Labur, berriro esanda: Orain datorkigun mundu berriak ez diezagula ito eta hil geure nortasuna. ***Aurrera bai, baina katea apurtu bagarik.***

Denon onerako izango dira ***Gerediaga*** lakoxe Elkarteak. Aurrera dijoazkiguz urteak, eta laster egin beharko diogu hemengo bizitzari. Gu bagoaz gu, baina zuek, gazteok, ***Era berri bat*** ikusi eta ezagutuko duzue Europan eta Mundu Zabalean; edo behintzat bide berriek orruntza dihoazela bai, ikusiko duzue, hondamendi ikaragarrien batek atzeratzen ez badu Mundua. Eta honelako hondamendi ikaragarrizkorik inork ere ez dugu nahi; benetako legean, lege artezean, justizia zuzenean bakea eta poztasunezko bizitza bat baino, orain bizi garenontzako, eta geure hurrengokoentzako gero.

Horregatik, poztasuna sartutzea nahi nuke Gerediagakoen arten, aurrera-antzean ere adoretsu jarrai dezazuten Elkarteak hartu dituen arduruk betetzen ahalegintzeko; hau da, hemengo Herrien asmo on eta zuzenak aurrera eramateko laguntasun zintzoa prestatzen, ***sustrai zaharretarik, bide berrietara, kate-maila berriak sortzen***, milaka urteetarik datorkigun kate zaharra apurtu eta geure izatetik aldendu bagarik.

b) ***"Gerediaga Sariak"***

Nik ***Gerediaga***-rekin izan ditudan har-eman guztiak, jakintza edo kultura arloan zer-ikusi daukatenak izan dira. Arlo honetan, ***Euskal Liburu eta Diskuen Azoka Nagusia*** izan da ***Gerediaga***-rekin eginkizunetan haundienetariko bat. Entzutetsuena bai bahintzat. Euskal-Herri denean da ospetsua Azoka hau, lehenengoa, garrantzitsuena; eta Zazpi Lurraldeetarik, eta kanpoetarik ere bai, etortzen dira Durangora Domusantuetan, Azoka hau dela-eta.

Azoka honetan ematen diren Sariak (diruz ez bada ere, ohorezko aipamenengatik bai) estimatze haundia hartu dute gure Euskal-Herriko jakintza arloan langile direnen artean.

Joan den urtean aipamendu ziretenak, orain hemen Durangoko Batzar honetan hartuko duzue oroigarri agiria. Ohore edo ondra handia da guretzako hemen gure artean edukitzea ospetsu eta txapeldun zareten euskal idazleok:

Lehenengoko, ***Aita Luis Villasante Kortabitarte***, Frantzizkotarra, Gernikako semea, Arantzazun irakasle eta Euskaltzaindiko Lehendakaria, Euskal-Akademiaren Buruari, ematen zaio Euskal Liburuen artean Sari Nagusia, Gero-ren Hiztegiagatik. Lexikographia handia da egin duena, ***Gero*** (Euskal Literaturak daukan libururik ospetsuenetatik atera-eta); gorenetako goren-baliozko hiztegilana da liburu handi eta mardul hau.

Aipamen-Sariak (euskarazko liburuen artean), hauexek aipatzea erabaki zen:

—Manuel Olaizola "Uztapide" jaunari, ***Lengo Egunak Gogoan*** izeneko liburuagatik. Harritzekoa da bai, benetan, herritar gizon bat, nahiz eta txapeldun-bertsolaria izan, honelako prosazko liburu bategaz agertzea. Harritzekoa eta poztekoa benetan.

—Intza-ko Damaso, Nafarroako Kaputxinu agurgarriari, ***Naparroako Esaera Zaharrak*** izenekoagatik. Laurogei eta hainbat urtegaz, gaur Euskaltzaindiko zaharrena edo zaharrenetarikoa dugu bera, eta Nafarroaren Herri-Jakintzako lan baliotsua eta ederra egin digu, liburu honetan agertzen denez.

—Edorta Kortadi gazteari, abadea eta pintatzailea bera, donostiarra eta eskualdunberria, orain Alemanian dagoena artegintzako ikasteak osatzen. ***Artegintza*** izeneko saio-liburuagaitik ematen zaio aipamena.

—Lourdes Iriondo Lete-tarrari, ***Hegoaizearen Ipuinak*** liburuagatik. Gure "Kirikiño" eta Elgoibarreko Urruzuno abadea saiatu ziren moduan, Lourdes ere saiatu zaigu ipui-gaiekaz, gure Literatura neurri batetan aberastuaz.

—IKER Taldekoei, ***Saioka*** izendun Pedagogi edo eskoletan euskaraz erakusteko liburuagaitik. Kreatika berezi batean agertzen zaigu IKER Taldea Euskal-Pedagogi liburuetan, eta bide honetatik ere jo beharko dugu gure elburuak lortzeko.

Erderazkoen artean, Lizarra-Estella aldekoa semez eta euskaldunberria, legegizona, Deustuko Unibertsitatean irakasle izana eta Valladolid-n katedratiku orain, Gregorio Monreal Zia jaunari lehenengo saria, ***Instituciones Jurídicas del Señorío de Vizcaya*** liburuagatik. Ikertzaile eta kritikari leiala, zintzoa, sakona eta atsena daukan liburua da; Doktor miaba irabasteko egin du lan handi hau. Bizkaiko Diputazioak argitaratu du liburu baliotsu hau.

Hiru aipamen eman ziren:

Julian Olabarria Sautu jaunari ***El Valle de Zuya*** liburuagatik. (Murgia aldeko herriek egiten dute Zuya ballera).

—Martin Ugalde-ri, ***Hablando con los Vascos*** gatik.

—Gasteizeko Aurrezki-Kutxari, ***Síntesis Geológica de la Provincia de Alava*** gatik.

Euskal Jakintzan eta euskaraz liburu gutxi dagoela esaten dutenei, hauxe esango nieke: Sariak aipatzeko mahaikoen artean ikustia nahi nituzkeela nik. Egoten, bai, non aukeratu, eta herstu ere ikusi gara inoiz, balio handikoen artean liburu bat baino gehiago agertzen zaigunean mahaigainean.

Sari berri bat sortzen da aurten Gerediaga-Sarien artean: ***"Tontorra-Altzola Saria"***, Urtero urtero emango da, o.e. Eskual Bizitza, Eskual Kultura, Eskual Humanismua eskuara hizkuntzan batez ere aurreratze bideetara eramaten ahalegintzen direnei "Zorion" eta "Eske-Onak" esateko da Sari hau. Poztasun eta anaitasunik zintzoenean arlo hauetan ahalegintzen diren guztiei eskua eman eta ***Aurrera!*** esateko. Eskualdunei langintza honetara ***dei*** egiteko.

Zaharrei eta gazteei, denei. Gaurko bide herstuetan ito eta hil ez gaitezen. Euskal-Herriaren nortasunari bizitza ematen jarraitu, kultura bidez, hil ez dedin. Aurrera jarrai dezagun. Mundu guztiak dakarskigun bideetarik aldendu eta atzean gelditu bagarik, baina geure nortasuna galdu gabe. Mundu guztiagaz anaia, baina geure burua ukatu ba garik, hartu-eman zintzoan denekin, baina ditugun geure baloreak dohan galdu bagarik.

Beste ***Gerediaga Sarien*** antzera, "Tontorra-Altzola Saria" ere apala da. Oso apala. Baina bihotz-zabalezko asmo zintzo bat daduka sortzaileak: Bera baino aberatsago diran euskaldun asko ohinarrituko direla Gerediagatarren Bazkuntzara, Eskual-Kulturako lanak diruz edo eskeintzakaz saritzeko. Diruz bateta dago gaur Euskal-Herria. Nora dijoa hainbeste diru? Zeinbat Eskual-Kulturari laguntzeko? Dirudunek eman bezate erantzuna.

Sari berri hau, oraingoz behintzat, pinturazko lanak izango dira. Sariaren sortzaileak berak egindako laukoak. Dirua irabazteko ez ditu egiten

erti-lanak. Euskal-Kulturan eta ***Euskararen*** alde ahalegintzen direnentzako egiten ditu batez ere.

Diru asko eta sari handiak irabazi, eta mundu guztiko Museorik ospetsuenetan ezagutuak izatea heuren lanak: Hori izaten da ertilari geihenen nahia. Gerediagatar pintatzaile honen nahia beste bat da ba: Euskal-Herriaren Kulturari lagundu, berak ahal duen neurri apalean. Hor ikusten dio berak, bere artegintza zintzo eta sotilari ***zertarako*** edo helburu, jomuga eta betekizun bat, gaur gure Lurraldeko Jakintzaren herstutasun eta arriskuak ikusita.

Erantzun beza bakoitzak ahal duen neurrian.

Villasante Kortabitarte —Luis Aitari eskaintzea erabaki dugu Aurtengo Saria; Gerediagatarrok. Denok dakigu Aita Villasantek egin dituen euskal lanen berri, Axular-en ***Gero*** liburuaren Hiztegitik gainera, bai liburugintzan, baita euskarari aurrerantza bidean bultzatzen ere. Begi onez hartu beza Aita Villasantek, bihotzez eta zuzentasunez eskaintzen diogun ***"Zorion eta Esker On"*** hau.

Bigarren Atala

Egia esateko, hemendik urtebetera-edo nedukan asmoa, esateko hau. Baina Gerediagako aurtengo Batzarra Ixurtzan egiteko zinetela jakin dudanean, nire jaioterrian, herri hau izango litzatekela leku eta erarik egokiena, pentsatu dut, gogakizun bat agertzeko.

Batzar honetarik gauza praktiku edo egin liteken gauzaren bat eskatzekotan (Euskal Kulturaren arloan esan nahi dut beti), hauxe eskatuko nuke gaurko egunean: Gure Merindadeko Herrietako eskoletan, eskuaraz dakiten maixu eta maistrak eskatzea, Diputazioari edo Hezibide eta Jakintzako Ministruari, hau da "Educación y Ciencia" delakoari, zuzenean edo tokatzen den delegazinoaren bitartez: Bi-hizkuntzetan ikas dezaten umeak, batez ere txiki-txikitandik asita. Eta urte batetik bestera konpondu ezin litekena bada, behintzat ardurak har ditzatela ume txikiei euskaraz eta erdaraz erakusteko moduren batean, atzean eta desbentajan geldi ez daitezen erdaraz baino euskaraz gehiago dakitenak, eta zer esanik ere ez eskualdun hutsak badira ume horik.

Herriko-Etxekoek eman diezaietela baietza, eta Gerediagakoek emango lieke laguntza, gure Amasei Herriekaz eta Diputazioegaz bat eginda, ministroaren aurrean. Asko poztuko nintzateke hemen egon balitz gaur gure artean Martzelino Oreja adiskidea, eskaera honi esportsua eta jabetza eskatzeko. Baina hemen daukagu gugaz gurearteko Gerediagatar, Durango-Merindadeko Herrien Mankomunidadeko Lehendakari eta Bizkaiko Aldundegian Diputadu den Amorrortu —Frantzisko jauna. Baita Aita Villasante, Euskaltzaindiko Lehendakaria, eta "Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País" Bazkuntzako Lehendakari Nagusia den Urkijo Juan Ramón jauna ere. Eta heurei eskeintzen diet eskaera honen gala. Baita beuren laguntza eta esportsua eskatu ere bai, asmo haundi eta eder hau aurrera eramateko.

Eta besterik ez, gaurkoz.

M. B. A.

Durango-n, 1975. Domusantuz.

Olerkiak

Pedro Martín Zabaleta

ORDEKA

Laua laua
elurra
zuria kristala
txinparta bustia
ordeka berdina
zuria
geratua
nekeza.
Aizea
begiak
Urrutiraino
Laua zuria.

Udazkenean udazkena
gorria
erromako zubia
mendietara jausia.
    Urdina
    morea
    orlegia
    oria
    gorria
    guzia.
Gizon bat doa
grix
ta emakume bat doa
poxpolin
parkeko bidetxigorretan
amets guztietan
erromako zubia
bihotzetara eroria
    urdina
    morea
    orlegia
    oria
    gorria
    guzia.

Melodia ezaguna atzerrikoa
—nongoa zera uxoa?—
hitz ulergaitzak
bainan karraxi bat.

* * *

Hitzak falta direnean ixildu
hitzik ez denean
hatzaparrak erabili
hatzaparrik ez denean
bota burua
bururik ez denean
Amen.

* * *

Ekaitza, tximistak, trumoiak,
ura, euria, elurra, kazkabarra,
hodeiak, izarrak, eguzkia,
oinak, belaunak, ipurdia.
Exeri ta kitto.
Begiak saldu.

* * *

Harritzen naute hostoen misterioak
harri koskorrak, katuak
etxeak eta bonbilak
umeen jolas biziak
aitonen begi hilak.

AGORTU

Ezerrez
hutsa
batasunaren kutxan
edo ametsak
giltzapean.
    Zerua ta biharra
    agindu dizkigute
    Biharko zerua
    gaurko infernuan.
    Urrea
    gaurko katean.
Ametsak eta asmakizunak
errezak
ezerezak
sartu dituzte
batasunaren ametsezko
kutxan.
    Pandoraren kutxan
    munduko gaitzak oro
    Batasunaren kutxak
    mila zoro,
    edo hizlari baten loro.
    Progresista profesionalak
    kapaz diren bakarrak.

EGOERA

Ta bonbila argia kristal esmeriladutik pasatzean
mila bonbila egiten da,
astiro iruntsiaz ilunetan ezinezko batasuna.
Indeterminadua dator nonbaitetik
sosegurik gabeko mugida
nerbioak ezetz erran dutenean.
Ta begi esmeriladuetatik doa atsekabez
astiro barneko iluntasuna,
ilunago bihurtzen ezinezko puskak.
Non da? Zer da?
Nonbaitetik sortu da, astiro
gehitzen doan ezinegon espeziala.
Egiaren ordua da,
barrenetik olatuak, misterioaren atakea iriki da,
ugoldez ugolde nonbaitetik jasotako anabasa,
goraka, ahoan gusto pixua daukat.
Agian, nire bizitza ere
kondaira izanen da.
Zorna ateratzeko tipula da ona,
sikologua al da animaren tipula?
Edo nor bestela?
Mirari bat espero dut,
astearte eta hamairuan,
edo otsailaren 30ean
edozein santuk egin dezakeena.
Baina egin dezala
Hauxe da tantana, itokinetik

egunero, orduero, unero eroria.
Zilarrezko besoetan erori nahi nuke,
Sibaren amorruarentzat hesirik gabe.
Edo oraino nire besoak katez lotuak dauzkat,
Ta erraiak kolpeka kolpeka jaten dizkidate,
bizirik iraunik, gainera,
nabari dudala hozkada bakoitza.
Ta halaz ere, erori gabe hila,
betiko ezerezean.
Ez bai du irtenbiderik
gizonaren izateak.
Esmeriladutik zehar milatan zatitzen da.
Ta bonbila bakoitza iduri,
ez da bonbila exkax bat baino.
Ta indarra falta denean kitto.
Tantan bat jotzean argi puskatua.
Tantoa erori orduko,
ezerez.
Baina argia pasatu bitartean
sentitzen dut
mila hortzen hozkada batera.

EZIN

Honenbeste dotrin,
honenbeste ezin.
Buru gainean bonbila piztua
argia
Harkaitzetan elur izoztua hargin
Doa eguna ontzaren kantuan
kolpeka
Non den ez dakien grixean
horrenbeste ezin
neurri apal baten atzean.
Oskarbi izango da
behar bada
hodeien gainetik doan gaba.
Zoriona ikasiko dute agian
igande arratsez dantzan
sala de fiestas-etan
argi epeletan sala ezkutuetan.
Paperetan galtzen doan
mementoan
dotrin guztien ezin horrenbestezkoa
lastozkoa.
"Maite bat nuen nik"
abesten dut nik
horrenbeste dotrin
herrenbeste ezin
eramanik.
Irrikitzen dut zerbait

norbait grinatzen dut.
Irratikik dator zintzilik
ametsa
urrutiko bazter ezina,
iluna eta argia dantzan
Irrikia ernetzen da
norbait non den gordea.
Amets gordina.
Dakust
—zer?—
ametsa galduta,
lotua.
Komentutik inposiblea
nonbaitean dago.
—Irratiak dakarzkit—
hoiek bai ahots eztiak!
hoiek bai ametsak
habitu barnean gordetzen lanak.
Irrikitzen dut ametsa
hertsi ezina
nonbaitetik datorren ahots hori
norena ote da?
Aurpegi bat. Animalia.
Grinatzen dut zerbait
norbait
nonbaitekoa.
Nazka ta neke sortzen zaizkit
udazkenean bizitzako hostoak galtzen
habitu barruan ezin gordeak.
Amets egitea nahiko
ametsa beti ezina
—geroa—
—urrengo batean—
Joango da berriro kontzientzia azpira
gordeko da
amets bai da.

Amets hutsa.
Atsegina grinatzen dut
zerbait
norbait
nonbaitekoa.

Txakur haundi baten truke
ura ni ere saltzen.
Txakur haundi baten truke
trukatzen noa ni ere.
Saminetan ozpin hartu
Ni ere,
nire herria legez noa
joaten
kastatzen
kostratzen
kastratzen.
Ni ere.
Ezin da horrela aintzina segi

Ezin da ezinean bizi
iraun lurraldean,
eguzkia bailitzan
irratia bailitzan
habitua bailitzan
gurasoak bailiran
pertsonak bailiran
Jainkoa bailitzan
Gauza guztien neurri
Eta ez da ezer.
Ezina ezean.
Ezin-ezin-ezin
korapiloa aska ezina,
Herria legez.
Nahi ta ezin batera doaz.
Bat dira.
Nahi-nahi-nahi-
eta-eta-eta-
ezin-ezin-ezin-
batera doaz.
Ni bezala.
Ibaietan ura eta
zikinkeria bezala.
Gizonen artean noa
olatuetan pote zaharra bezala.
Txatarrataraako saltzen noa
ni ere –ni ere - ni ere–
Txakur haundi baten truke.
Hortzak estutzen ditut
hortzak, aginak, betortzak
bihotza,
Ni estutzen naiz,
ni zimurtzen naiz,
ni saltzen naiz.

Txakur haundi baten truke.
Bizitza bailitzan
zerbait
heriotza denean
zerbait
hortatik
askatua.
Korapiloa bailitzan
lotura
soka denean
lotura
hori
lotzen duena.
Nahi dut
nahi nuke izan ozen
euria ondoko zelaia lez.
Ta ezin, ezin dut
—min dut oraindik bihotzean—
zauria
gorputzean usteltzean
zorna.

Ez dut ezer idatziko
ez dut gehiago idatziko
ez naiz gehiago jaurtiko
ez ez ez.
Luma amutsak ez daki esaten
bihotzean zorna noiz dagoen
noiz bizi den ozen
potzuaren hondoko amildegia.

IKARA

Ikaratzen da hostoa zuhaitzean
aidearen indarrez.
Ikaratzen da zaharra
zahartasunaren indarrez.
Ikara daiteke herri bat
indarraren indarrez.
Ikaratzen da bihotza
zirrara maitez.
Larritu daiteke norbait
lotsaren eraginez.
Ikaratzen naiz sarri
hostoarekin
zaharrarekin
herriarekin
bihotzarekin
lotsarekin
ikaratzen naiz nirekin.

Hotza denean, hotza halakoa
neguan bezalakoa
sentitzen dut bizkarrean
zirrara
hotzaren ezten luzea
ta jazten naiz.
Droga bat hartzen dudanean
edozein
zigarrilo ta kafe ta kopa
ikaratzen naiz

kontzientziaren indarrez
mamuak altxatzean
oihalpean gordeta dauden
haien jaikitzean.
Ta lan egiten dut
berriz saminki
hotzikara sentitzean.
Kehe bat sortzen da
kehea
ezea
—bihotzak gizentzen ari zerate
erahilketa egunerako—
gorpu errearen usaia
Gernika dut aurrean
begietan.

* * *

Agur.
Oraindikan beroa daramat ezpainetan
zuk emandako azkenengo musua.
Ezpainetan dago oraindikan zintzilik.
Ta joan zera agur esanaz
betiko.
Agur.
Ondo izan,
baina oraindikan nire ezpainak
egongo dire luzatuak
zure musu berriaren zai.

ZERUA ETA INFERNUA

Zerukoek ez omen dute sentitzen
batere
infernuan dagoen jendearen
penarik.
Infernukoek sumatzen omen dute
sakon
zeruan dagoenaren
zoriona.
Aberatsak ez omen du sentitzen
batere
beharrean dagoen jendearen
mixeririk.
Behartsuak sumatzen omen du
sakon
aberatsaren mahaieko
bazkaria.
Ez dut nahi nik
batere
infernu baten ondoan dagoen
zerurik.

X - X

Ez dakit nor zeran,
ez dakit nongoa zeran.
Ez dakit ezer.
Zure irripar kilikagilea dakit
automobilean zenijoazenean.
Zure eskua bolantean
zigarrilo piztua behatzetan.
– Maite, ez ahal zatoz nirekin,
–galdetu zenidan–
maitasuna egitera.
Hamar mila lira nahi zenituen
maitasunaren prezio.
Ta zure automobil deportibua zebilen
etxe haiei bueltaka.
Ta buelta bakoitzean
irripar bera zenuen ezpainetan,
kilikagile,
Erromako gabean.
– Gustatzen ahal zaizu
maitasuna egitea, galdetu nizun.
– Bai, erantzun zenidan.
– Ez dizut sinesten.
– Ez didazu sinesten,
galdetu zenidan, harriturik.
– Ez.

Ta berriro joan zinen
kaleari bueltak ematera.

Ta triste geratu zinen,
plazer bila ez nebilelako.

Ez dakit nor zeran,
ez dakit nongoa zeran.
Behar bada ez dut inoiz jakingo.
Baina,
ez dut ahaztuko
zure automobila
ta zure irripar zabala.
Ta zure zigarriloa bolante ondoan.
Ez ditut ahaztuko
zure begi triste margotuak.

Ez dakit nor zeran,
baina ez zaitut ahaztuko.

* * *

Kainabera ekarri du gizonak
lanbroeuri potzutik arrainak ateratzeko.

Ez, oraindik ez dago ezer
potzuan
Urik ez dago oraindik
tantanik potzuan.
Hogei urte igaro dira
Ta
ez, oraindik ez dago ezer
aspaldiko amu erdoitua baizik.
Ta kainabera
Ta gizona dago egon egon egon...
Lanbro potzua agortu zen
Ta
ez, oraindik ez dago ezer
potzuan.

Sortuko ote da —auskalo— ezer
potzutik.
Amua erori zen aspaldi
Ta kainabera dago bakarrik
Ta gizona dago egon egon egon
lanbro potzuan sortu ote den arrainik.
Ta
ez, oraindik ez dago ezer
potzuan.
Ta eguzkiak jo du lehorte
kixkaliz kainabera ere
Ta hausi da kainabera ustela
zatiak zatitu dira
zati zatituak galdu dira.
Ta gizona dago egon egon egon
besoak hutsik tente
Ta
ez, oraindik ez dago ezer
potzuan.
Ez dago potzurik
gizona dago bakarrik
lanbro berrien zai
noiz sortuko den potzurik
nork ekarriko ote dion kainabera
nork emango amua
nork erantsiko amua
Ta
ez, oraindik ez dago ezer.
Ia ez dago gizonik.

* * *

Lo egingo nuke. Lo luze bat.
Profesorea hitzegiten ari den bitartean.
Lo egingo nuke.
Profesorearen hitz aspergarriak entzutean.
Ta akaso,
hurrengo eskolan nire burua erna
egongo da.
Lo egingo nuke. Lo luze bat.
Eskolan bertan,
oherik balego.
Ta oraindik bost minutu,
lau eta bat
aspertze hamaigabe hau
akatu aintzinean.
Lo egingo nuke, ta. Lo luze bat.
Sermoiak eleizarako
arguimenduak eskolarako.
Aspertu da hitza, ta izana
eskolan, sermoi entzuten nagoen artean.
Total aspertu,
asperra bera naiz
poesia hau egiten dudan unean.
Betor azken ordua,
klase hamaitzeko ordua, azkena.
Jausi bekio ideia bat burutik,
bat bakarra, berria dadina.
Gogapen pertsonala,
bere buruak asmatua.
Oraintxe etorri zaio:
klasea hamaitu du.

* * *

Hostoaz jazten doaz apal
arbolak, euri tanta banatan.

laino dabil arratsea oraino.
Musika eztian ozpina doa
aho sapaiarentzat gordina
oraino non denik jakiteke ametsa
ilusio hutsetan asmoa.
Udaberri udazken iduri, hotz bilosi
Odol tanta banatan doa bizitza
akabatzen —oraino ez dago odolik.
Ahalge lurruna.
Nondik sortua ez dakit
ozpina da, bihotza lotua amildegi gainean.
Oraino hostoaz doaz apal
arbolak, euri tanta banatan
Ez dago hutsunean besterik.
Lainoa hesitzea gurari.
Jostailu hautsia
da gizona, pauso bakoitzean bakarrago
dago.
Hostoak oraino orlegi iduri bakarrik
udaberri udazken giroan.
Kainabera ekarri du gizonak
lanbro uretatik arrainak ateratzeko.
Urdin ta eguzki non dira?
Ta Jainkoa non da?
Non da?
Joan da?
Ez dago?

* * *

Joan zaite, joan
oraino laino da
oraino kanta ari da
Arratsea doa
hitz hutsetan, kantuetan.

Joan, arratse, joan,
oraino laino da
oraino kanta ari da.
Zorabioz asmatzen duzu
zer den
oraino Jauna non den
oraino laino den
triste.
Eguzkiaren printzak jausi dira
tantanka
oraino laino da.
Musika ari da oraino.
Tantanka
eguzki printza jausiak.
Joan zaite, joan.

* * *

Ez itzali irratia,
utzi kantatzen
utzi esaten maitasun ezina.
Diskuak bueltaka utzi
ritmua entzun,
eta oinak eragin.
Utzi dena gela ilunean
xamurki bihotz ezean sartzen.
Inongo hizkuntza guztiak
melodia erromantikuetan
eztiki igotzen.

Ta bakarrik egotean,
sentitu irratian
urruti adiskide ezezagunak
lokal itxietako musikekin
inguruan eduki.

Ez itzali irratia
ta utzi kantatzen.
Noizbait aileatuko da,
noski,
zure melodia,
lelo maitea
maitasun hitzetan gazia
Liburu serioak baztertu
mahai aldrebesaren kantoian.
Ta gero,
entzun, non zaudenik jakin gabe.
Utzi joaten,
ta egon,
barnean ozpina ezin edanez.
Ozpina xurgatu, tantoka.

ITXI LIBURUA

Entzun, entzun,
ahotsak dira
mila ahots zoli,
kantari.
Entzun, entzun
ixilik, umil,
koru bat egiten dute
amets iturri.

Ahotsak dira
urtantoa lez garbi
kutsatu ez ditezen
entzun ta utzi.

Entzun, entzun,
ahotsak dira
gizonen ahotsak
kantari.

BONBILA XURIA

Nire gelako bonbila xuria
kale gainean jartzen da
gabean
karrika erdian
leihoaren beste aldean.

Nire begi niniak hara doaz
irripar baten antzo
maitasunaren bidean.

Bonbila xuria
kale gainean zintzilik
leihoaren beste aldean.

Bonbila xuria bakarra
gaberdian izarra
bihotz bien arteko
maitasunaren itzala.

Esan nere maiteari hemen
gela barnean ni nagoela
noiz agertuko den esperantzan,
nire beste bonbilaren lekuan.

Idekiko dut leihoa
galduko da beste bonbila
Ta haren ordez izango da
ilargi bete
maitasun eztia
kalean zintzilik jarria.

Ikusiko dut bonbila bakarra
xuri-xuria
ezkongai baten jantzia
Ta zai geratuko natzaio
eguzkiari
beste bonbila begira.

EREIN BEHAR DUGU

Erein behar dugu
ama
erein behar dugu
erein egin behar dugu
izarretan
edo itxasoan
zure oin hutsetan
eta karriketan
erein egin behar dugu
itxaropen debekatuetan
eta gure esku irikietan
egungo gabean
eta sortzeko geroan
alde guztietan
ama
erein behar dugu
gorputz apurtuen
eta hiltzeko dagoen ahotsaren
lur odolduaren
eta altxatzen diren besoen koruaren
arrazoia
alde guztietan
alde guztietan
alde guztietan ama
alde guztietan
erein behar dugu
bihar zoriontsuaren

zihurtasuna
zure bihotzaren losintxetan
haur ororen begiak
esperantza berritzen duten leku hortan
bai ama
behar dugu
behar dugu erein
askatasun bideetan
Gernikako arbolaren
hazi berria.

* * *

Izarrekin etor ohi da
eguna.
Izarrekin joan ohi da
eguna.
Ta egunen ardatz ilargia.

Eta izar eta ilargi
denen jaun eguzkia.

MISTIKA

Poesia bat egin nahi nuen
mistikoa,
Santa Teresak bezalakoa
bihotza kixkaltzen ari denean
egiten denetakoa.

Zeruan ibili nahi nuen
eta ikusi
Aita Jaungoikoa
eta Semea
eta Espiritu Santu betikoa.
Ama Birjina.
beste birjinak
aingeruak eta santuak.

Ta lurretik begira
ikusi ditut
lainoak edo agian izarrak
edo eguzkia,
batzutan eguzkia.

Ta gorago ezerrez.

Orain gizonaren sateliteak.
halabeharrez,
ez tabakoak
ez pattarrak
ez dute bihotza kixkaltzen.

TXIPILOTA

Argi ondoan txipilota,
dantzari ta inguruan amelauna.
Ta amelaunean armiarma
Ta amelaunean euli mila.
Ta argi inguruan amelauna
Ta amelaunaren inguruan txipilota.
    Txipilota, armiarma,
    amelauna, txipilota
    argiaren ondoan.
Txipilota dantzari
amelaunak mila euli.
Armiarma beltza doa
amelaunaren gainean.
Txipilota dantzaria
ta ondoan argia.
Nork hausi ote lezake
amelauna ta euliak
libratu.
Ta argia argitu.
Nork lezake armiarma
amelaun saretan akatu.
    Txipilota, armiarma,
    amelauna, txipilota
    amelaunak mila euli
    argiaren ondoan.

AMETS ETA NEKE

Euskalerri, Euskalerri nerea,
baldin zu libre bazina.

Nere herri bihotzeko
zu kanta eta zure babes
ni bizi.

Euskalerria libro da,
bere arima libro da,
Euskaldunak euskeraz,
solas ta askatasun
bizitza da kantu
gure etxean egun.

Ametsa, esna atsekabe
gure herriaren jabe
beste bat da.
Amorra zaite orain,
euskal arima,
gero zure azken hatsa ematean
hil kanpaiaren ondore
gurutze bat hilobian, beharbada.
Eta piztuera eguna ez da biharko:
Euskal arima,
egizu gudu,
hil kanpaia jotzen hasia da-ta.

AURPEGI LUZE

Mokoti esan ohi zioten,
mokoti zelako, hitz jario;
ez rimo, ez rima,
ta mila txima
zen mokoti.
Txapel oker zikinez koroatua
ile mototx gogor baten gainean,
mokoti zebilen kaletik kalera,
hau da, kale egite batetik bestera,
ez bai zuen asmatzen ezer.
Egoaldi ona egingo dik gaur,
esan ohi zuen,
eta jendea euritakoarekin abiatzen zen karrikara.
Bai, ze gaur goizean gorri ikusi diat zerua,
eta, bart ere, euri nahikoa bota zian.
Orduan, gabardinarekin.
Hau zen mokoti,
hitz jario.
Ta poliki-poliki
mokoti zahartu egin zen,
egunen batez,
ego gabaz,
gabak ere oinen gainean
igaro ohi zituen-da.

SALATARIA

Inoiz sentitu ahal duzu
inoiz,
adiskide duzuten batek
salatuko zaituela?

Zuen artean dabilen batek
norbaitek
zure izena poliziaren eskuetan
idatziko duela?

Gure artean eguneroko egia da
egia da
mila gizon salatu dituzte
gure artean dabiltzanek.

Baina azkenean erortzen dela
azkenean
salatzaile ingurumarian dabilena
bere ahotik salatzen dela.

Zapoa bere klin-klon gaberdikoak lez
zapoa lez
bere hitzek salatuko dutela
zapo salatari ustela.

Zango azpian zapaldua
azpian
zapaldua izango da, bai,
salatari dabilen madarikatua.

DESKRIZIOAK

Hesola oker zen
bere sudurra
luze ta
adarbegiz betea.

Belarri pare bat eman
zion Jaunak
eta zintzilik jarri
lepoaren hasieran.

Eta, horixe,
ixilik gelditu zen.

Txinparta bezin gorri
sudurra zuen jarri.
Sudur punta pikorra
begi pare pinporten erdian.

Serio, bai, serio,
hitz eskatu zuen arguimendu
berezi baten bidez
—Hiru B Brigitte Bardot-ek
baino bat gehiago—

Bekokia betuletan hasten zen
baina bizkar parean amaitu.

Zorria basamortura
joan zen.

P.M.Z.

BIDASOA, POZA ETA MIÑA

Jose Angel Irigaray Imaz

Bidasoa,
gure herriaren
bihotz osoa.
Bidasoa,
ameka ipuin
eta ur garbi,
mendetan zehar
Nafarroan sortu eta
Ondarribi-Endaian
itsasora doa.

Bidasoa,
amets bat
ipuina,
egunsentiak
autsitako gaua,
akelarreen dei lanbrotsua,
joan etorri aspertu ezina,
hor zoazi
ozen eta ixil,
bizi-nahiak sortu ildotik barrena.

Ur goiena
ur barrena,
mendez mendeko
asperena,
ezker-eskuin
laztan eta auhena,
Bidasoa doa
gure bihotzan barrena.

Baztango ohantze ederrean
kulunkatu eta gero,
lurralde gozo, lehun,

eder eta ezeak
laiño guztien azpitik
iraganez,
edertasunari ihes egin ezinez,
jaunzten eta arrotzen
heldu zara kantari
eriotzari buruz jauzika,
itsasoa amets
itsasoarekin besarkatzera,
amodiozko mattoan urtzera
deuseztera,
urdin-ñabar, laiñotsu eta orlegi
Txingudi paregabean.

Ondarribi,
Bidasoak hil zorian emanikako
azken ats, ondar ibi.
Ondarrabi,
Bidasoak bildu ametsezko koloreen
mugale eta kabi.

Bidariak bide ohi du egiten
eta urak ere
atz sakona uzten
Bidasoako jendeak oro:
Amaiur eta Erratzu,
Lesaka, Biriatu eta Urantzu,
Baztanen asi eta
Ondarribi-Endaian bukatu.

Ameka istorio-misterio
gordetako ibaia,
zure aterbe xamur eta lanbrotsuan
negarrak, neke, latzak,
akelarreak eta mezak,
kantak, dantzak,
loturak eta bereixketak,
besteren gerla eta bakeak.

Euskararen doiñu berezia
Bidasoaren kantua,
bizitzaren zentzu eta sena,
euri-ondoko illunabar

usain gozoak,
Mattin herabea eta Joxepa ederra.

Goazen, goazen
iturrira,
ateka gaitza
gaua
menderatzera,
ondoren
artazuriketa paregabean
illunabarrez
doiñu zaharrak lagun
ortzaren gauan
dantzatuko gara.

Euritarteko ihauteri
eta Zubieta-Itturengo joareak,
Baztango mutil-dantzak
eta Ondarribiko estropadak;

laborariak eta arrantzaleak,
bidasotarrak bihotz-bera,
bidasotarrek taxu bera:
arbasotzat
agota bat
eta
orrazi eta izpilluko
lamin bilo-ori ederra.

Ondarribiko laborari
itsas-hegian bizi arren
lotua
Bidasoak ferekatu lurrari.
Ondarribiko arrantzale
Bidasoa-ertzean sortu arren
emana itsasoari.

Bi bizi-bide
bi pentsa-molde,
ar eta eme
arrantzale
eta laborari,
nehoiz ez pausa
eta beti ari.

Biak osagarri,
biak
neke, zorion, atsekabe
amets lilluragarri;
Bidasoako
arrantzale eta
laborari,
elkarri lotuak
Ondarribin.

Bidasoako lurraldeak
olerkarien olerkia,
margolarien zeru urdin-ñabarra,
ameslarien iturri
eta
maitaleen kabi.

Zuri begira
Bidasoa
dut egun
egiten olerki
kantatzen xamurki
negartzen saminki;
egunsentiaren fereka
noiz ote eztigarri?

Ai Bidasoa,
ez bedi zure argia itzal!
Gure bideak
lotzen dituzun ibaia,
denok bat
ez gaitezen gal.

Ura bere bidean
eta Bidasoa
denenean
gurean
bihotzan barrena
lotzen, elkartzen,
mendetan zehar
herria osatzen.

Urak bide du egiten
eta Bidasoarenak ere

egin du;
bainan,
bidean makurra
aidean beldurra
ohantzeko garbitasuna
gizonok dugu ondatu
eta
urak dira arritu
arrainak ito,
bazterrak dira itsustu
lantegi desegokiak ugaritu
ondarrak azi
herriak desnortu,
jende onak aspertu
nekatu
maltzurkeria nagusitu
eta herria erdibitu.

...eta orduan
mendiak negartu
kantak ixildu
dantzak gelditu,
ipuinak bukatu
lamiak uxatu
malkoak ixuri
oihu ozena moteldu
auhena sakondu
eta
hala ere
beti ere
ura bere bidean
ur ixillak jarraitu.

Ur goiena
ur barrena,
mendez mendeko
asperena,
ezker-eskuin
laztan eta auhena,
Bidasoa doa
gure bihotzan barrena.

...eta berriz ere
ur berriak sortuko dira,
Baztango iturburuak
ez daude agortuak;
noizbait arrotuko zinez
eta bazterrak
garbituko uholez,
ber-sortutako ur zaharrez.

Bittor Mujika

Auñamendian nago
bakarrik, bakardadean.
Ondoan ura, goian xoria.
Ai, ze ederki!

Zu, Bakardadea, zu zara
nere laguna.
Zergatik ez ote zaitut
beti nerekin.

Orain pozik nago;
eta bihar?
Zu, Bakardadea,
zu lagundu eiazu.

Zu prest egon,
zuretzat egok eta indarrak.
Neregana etorri,
Zu behar zaitut!

Gizon bat ikusi dut
zaharra eta tximela.
Berak entzun du haizen zarata
eta sentitu gauan hotza.
Ez du negar egiten eta ez
txarkeriarik ulertzen.
Eraman nauzu zurekin!

Auñamendiak, zuek zoriontsuak!
Bakarrik arrano on bat zuen gainetik
eta ez duzue ezagutzen malkorik.
Zuen ispilu, nahi dut nere herria ikusi.

Muga

GAZTARROTZ

hilazkizorok dio: hobe hukek popatik...

borobiltasunezko ezintasunaz lehertzen zegoen Miren, bederatzikoak prestaturik patrikan eta besopean bago azi odol bero eta bigunez masailak epeltzen zitzaizkion negu gorri, egun labur eta gau neketsu luzeen zehar, bat eta huts, mendian gora, bat eta bi eta hiru eta lau eta huts, kale, estrata lohiz gainditzen ari da, kiskurturik magale ondoan dardarka minbera gogor batek ziztatzen ziolarik, motorrak isildu ditugu bide ertzean, noizpait hume zoragarri eta beltxaran hark, zubia pasatzerakoan hirunaka eta ehun metrotik ehun metrora xamarra ferdez jantzirikako abade adardunek, non eta nola sortu ote zuen gixaraxoak haragi lodi eta freskuz gainezka zegoen aingeru xarmant hura, misalen ordez buruzko gandelabru suemaileak besopetik zeramazkiten, hotz dagi, hotz eta ikarak dihardu, mahain gainean zeinbat paper sakabanaturik daude eta andanan jartzen ari naun zeren zeren fanderiako pentsuak ez merkenak bai onenak, ortzak karraskaka eten gabekoan dabilzkit, azken lau gau hauetan loaren atsedenik ez dut hartu, libertatia zein eder den, begi eder eta trapuzko mihigain motel eta fargarririk ukanen zuen, ez, ez, etzen lan erraza, zer sakea duen aluita horrek, maitale arrotz samar hura bustiaz eta begirada hotz galdekoiaz sartu zenean barnera, bideska hersti batetik abiatzea hobe litzaigukelakoan eta ibaia gaindi arnasa epel eta pausatuaz zango nekatuei atzen bultzada eta indar ahituei bortizki eraginik, kaskagorrik pilota gibelera botiaz eta haunitz arrimatuaz esan zion amari mandalertzera laisterkatu-

rik, egia, bai pattala del atzelarien ezkerra eskuina legez bezalakatuko balu ez zion inork janen, erabaki honen hartzera ere nork edo zeinek bultzatu ote hau, ez zegoen bakerik, ez ere egoera garrantz hartan iarraikitzerik, arropak bustirik daudenak kentze arren eta batera hala lastantzen zuen ezpain bietan eta aurraren kopet hiluna ama gaztearen ipurdi behean gordetzen ister eta gonaerdiko zeharketan indarrez lotzen, eta gezurra badirudi ere geihenetan bata bestearekila lotu gabe gelditzen ziren, esker eskuin eta humeamaren zilbor esteen gorapilo bigun latzari ihesi dohaz heren bizitz osoan, gerla hasi zenerako ez genuen espero zoko honetarat helduko zenik ez zalapart ez gerlarik eta askoz ere gutiago lau senide eramanen zeuzkigunik, populuaren bihotzean maitatuak ginela zioen elizatxo jaunak baina nongo herriko semetartean ote, nonnahi zakur, kato, zerriz inguraturik begia inoiz itzal ezinik, batetik bestera, gordeleku batetik bestera, hiri, berebil, ikazkin, ikastola, baserrietara ihesitzera beharturikbagaude, salatari aita eta ama eta anaiak, sorgin zaharrak zurezko tronuan eserita jarraitzen zuen nonbait eta ezur besterik ez zuten morroi ergelak heltze handi batzutan egurrezko ezpalez konpota lodi baten biraka zeuden xokolate antzekoa, krakada izugarriez eta moko gaiztoz eta zorrotzez engoitik, bele multzo itsusi batek erromes harien lepoetan bikeen haragietan antzo kozkatzen zuten zainak lehertuz odol kolpuz haize oro bustiaz edonorren indarrak ahiturik eta lanean alto bat bazegiten... khrkeljdgfiiijjjjahhhhh...-ka irri eta farraz, borroka latza eta iraunkorra baita, gero nonbait daferna zuloetariko kafesne xar hura edan ondoren, ezpata biluzien gakorik ezenean norbait zoto hilunean edo hitz borobil zorrotzen bidez pareten giltzak ardietsiaz, honelako, errestoak ez dituk hain errazak jasotzeko, ongi diozu aztarna segi behar zaie, zail da ordea zakur, usai eta kutsu eta kiratsik senti eta nabari arren noizpait agortzen denean ur ertzean, noiz ahal ote genuen patxaraz amuarrainik arrantzatzen egon polaina luzeekin erreka erdiraino sartuaz osoan, nardagarri hark ez zuen gustatzen besteek bezala, zamari, mando eta asto zaharren birika eta zakil potroak samindurik, ez utz bridarik laxuegi, bertan daduzkagu, bagenekien xinhaurri harien baino okerragoak zirela estraino harik, andere eta neskato ameslarien bihotz leloetan jakitate multzurrez bazuten zereginik eta nolako bide estrainoz amodiorik har, herrikoek ordea beste herritarat itzuli beharrean aurkitu az, apez jaunaren konseilu on errosario saindu eta urte guziko meza bezperetako salmoak ikasirikako xepelkeriak ahaztuta zeuden, oroitzapenetako karrika xokoetan eta zoto hilunetan zehar, orain lana izerdia mailua ferrola patroia delegadoa oporraik eza burniaren erdoitzea eta altzairuz hausirikako izorzirinak hatz ebaki eta moztuak, makinaren oihartzunak eginikako atzapar borobilak indarra eta makinak eraikirikako eskuak, to, horrek bai duala marikaren esku finik, salatari edo apezkume, dena dela berdin, bai baomen daki haunitz gauza lanari buruz lege eta titxo zenbait bai atze-

man bahindut ene atzapar artean itoren nian asta zakil aluita ituringo arotza, ene hamabi edo hamairu urtetako neska jolastia, hauts eta janen zituen bada, ez ipurdi zikin eta marizikin nahaskagarri hark zioen bezala, ez zeutak azparik joko, koño, puta hark putanero galantena puteatuko zuen bada, gura zuela eta titi jorren galde eta parte marmosaren blablabla buztan dardoez eta kaka zaharra zeren kanaila salduak besterik ez ziren, madarikatu deabru haik, zazpi kiloko amuarrain hura ez zuen beriro sekulan arrapatuko, egia, kontuz, sarats eta zumardi tartetik goruntz gindoazin eta ura beti bere bidetik mila harri gainetik eta berrehun eztarri zintzurretik behera, kontuz, irristalatu eta erori gabe, zihoen eta horrelako batean, baserripeko portugal inguruan borda aintzinean beste bi begitarat topo zitzaikidan, kaka zaharra, beste batean AY ATZERRI eguna bide zela eta alkate jaunaren danborreroak zeukun herri gizitik gaindi zabal zabal prunkatapluntuntunplo albiste eta notiziak gudaloste izugarrikaragarri baten manuz eta lista luze baten sinatzeko gazte oro pilatzeko herriko plazan, atsoak leihotik eta agure zaharrak deferna atariko aulkietarik keinu latz eta xapel agurrez, adio mingarri eta malkodunak zerizkotela, alualuitanahaskagarrizikinmadarikatualuputasemejodituhorik, natura hain ona izan eta zergatik permiti zezakean zeruko jainko on hark ez oraindaino ez dituk konturatu ez dela ez zeru ez infernurikbee beleen karkradei entzuten zeuden, semeak bere amen magaletik urruntzea eta geure mendietako odeien legortzea eta xekor xahalen ezpainentzat titi agorrak edukitzea, erro hutsaren nahigabea, beraz bordatariaren aldamenean bizakur zaunkaka dihardutek, agian, iso, geldik, etzan hadi, toitzak neurriak, lainoak itxasotik, ondarrabiatik eta Ayako harrietarik jeitsiko balira, baina laruneko sorginei hots egiten ez badiegu, iha harien gona hilunek estaltzen dizkiteken zelai eta harkaitz aratz hauk, badakika ziaboga tipi baterik biratuaz iritsiko gaitukela ordu baino lehen, hogeitazazpihogeitabost pausu ematen dizkiagu minutu laurdenez, mugarria karreateratik, urbilegi zegoek, mitohauslen esku zikinetan, hi bai hi hintzen sasi zaza zintzo eta desegilerik iaioena, askatasunaren hurratsetarik bide zailetarik nolanahiko pausoen ikarati eta helburu gabekoen bidez, hori ahal uste duna, aharrausi diganet baten ordainez tiroka josi eta lurreratue, deabru eta demonio guzien partaide eta aingeru, erresponsable handiena, ihesleku garbienetarik gartzela hilun eta axolakabean ikus nahi hinduket, zer habailez hartuko duen zezen zerri aluaren avemariapurisima maisu jaunaren erakutsiak zangoz gora jaurtiko balitz, katearen urrena haus baledi edo aldameneko langilekeria aurki ez baluteke noraino ez ote litzake jalkiren ideien aingura eta pentsamenduen habe nagusi jator eta iraulea zenaren sena begi paregabekoa ZIGORpean inondikan hori ez delako lortuko sekulan patrikan ispilu bat dadukala eta gerrian metraileta toailapena ondar bidean haren galdezka eta begia burua gorputz osoa libro ta tata laboratorio 1/2 log.wxyz 257/378×9rreta eta

bestelakorik hain xoxolo deritzukun zenbait neska mutilen irudi polit eta marrazki eder, prozeziuan gisa egonen balirake bezala daude zutik. gona eroriko balitz ahalik agudoen, herrian betiko taldeak txikiteoan arituko dire, txominek makinaz, azkueren ipuia eta nobela amaitzen zientziaren bitarteko liburua debekatzen madrilen eta beste gelan arantxak bihar botako duen hitzaldia antolatuaz gogorkeria gora eta behera, hilargiak ere ospa eginen balu eta izarrei amodioz eskeintzera goseak hilik, eta egarriz lehertzen ahitu ahitua potroetaraino erdoia erre usaia odola erdi patzetan estulka ostiaka marruka kakaka birauka, ez bat ez bi ez eta ere hiru, lau... hogeitabat hogeitabi hogeitahiru. zigarrorik erreko ezbahu hobe, hoa popatik hartzera xo, pipa pasatu ahal duka, azkenean egiteko bahintzen elgar, ez ez diat denborarik ukan, airen zegoek dena orduan, buelta gaiten, ezina duk, ez, zalantzetan heup egia zioen loiolako zirabak, zenbat kostatu ziaiok erloju xatar hori, ez dun batere harritzeko gero kalez kale ideien gisa badabil, kakaputz handiusteko potro hori, zerutik polikipoliki ilusio ezinezkoak lehertzen diren bezalatsu sua busti eta biztu kea gero gandelen itzalez ostie deun en edertasunen partale ezari ezarian zimaurtzen zihoazkion masailetan masail sudur pean sar aho kirten kiratsdun hartan amen begipeak oilanda gaztearen odeia odol kolpea mihintxingorriaren ixiarren semea hori dun mutila gaurko mundu zoro maltzur adrebes komunist honetan non unibertsitatea bilakatzen ari zaukun su arragoa mailu eta zirikaile gaistoenetarik bat, ehun eta ehun berrehun bota arraioak eta ximistak xispak eta xinprtak baietz ezetz bortzehun hogeiri hori dun mutila hori egurra emaitea to larru astintzeko klasea, ifernuko mila deabruak daramatela ohoin zikin razist ijito español euskaldun pitoa odolez jo eta jo lanez eta izerdiz amildurik leize zulo beltzen tristura grisaren pean fede usteldunen kaskagorra pean abenduko hilaren hamazazpian olentzero joan zaigun mendira lanera, kaia eta muele zaharreko borroka hilen oihartzun epel eta garratza, dardoztatzearekin soilik bulartarte bigunaren morron-tzan gizaklase ezberdineko bikote haren oihu tristia gaztelupeko zigorlekuko garrasien tristura, baina iheup goza dezagun bozkarioz mendiaren bakardadea, ez, ez dittiat topatu isats isatsetik zetozek oinak usaiturik eztugu irtenbiderik muga pasayako portuz agian fraide xinhaurrien hortz diganteen sutaz kozkaturik beherat gora, ay aurrera, ez hadi nigandi, apart, ez nigatik kezka, nor ote gaitu salatu, segi segi zak ahalik eta bobobo mihingain oilar gixaraxo horik, zakurrek usaitu gaituzte erreka pasatzerakoan, ez nauk isilik egonen, garaia iristen bazait ez egia den bezala adieraziko dut, inongo parabaolekin jantz edo arrotz itxuraz estrainatu gabe, ustelen bidez akatu hautela, bizitzak eta galtxagorrik beste era batera mutur garbia erakutsi beharko dutela hemendik aurrera hitza usatzean, larrunpeko gaztelu hartan itzearen harri tartean armiarmen sareetan erori baino lehen tiroz akatu hautela hozenki adierazi nahi dudalako, zeren ez da gutti jaki-

tea zergaitik nork bere burua eskaintzen duen, fier hagoela hire kontzientziarekin, lohiez eta odolez eztrata ertzean bi metroko zuloan lurreratu bahaute ere...

G.

Otsoa ta bildotsa

XABIER GEREÑO

Behin baten, lagun bi ziran: Aitor eta Ander.

Negua zen Euskalerrian. Iparraldeko mendiak eta Araba ta Nafarroako zelai zabalak, edurrez zurituta egozan.

Goiz hotz baten, beti legez, lanera irten ziran euren etxeetatik. Alkar agurtu eben kalean.

—Kaixo, Ander.

—Egun on, Aitor.

—Zer moduz?

—Hotz, gizona, hotz.

—Gaberarte, ez da?

—Bai, gaberarte.

Eta bakoitzak bere bideari jarraitu eutsan.

* * *

Heldu zan Ander lan egiten eban fabrikara. Inguruetan, aurreko egunetan legez, langile taldeak. Atean, polizia.

Burua guardasolaren barruan lotsaz estaldurik, barrura sartu zan.

Fabrikan, makinak geldirik egozan. Langilerik ez, bakarrik enkargaduak, Ander bera legez.

Komunera sartu zan. Han, orma baten, norbaitek boligrafoz hau idatzi eban: "Langileen arrautzakin eta enkargaduen oiloekin granja bat ipiniko dogu".

Urten zanean, telefonotik deitu eben.

—Ander, zuzendariak zurekin hitz egin nahi dau.

Bere despatxora joan zan.

—Egun on —agurtu eban.

Zuzendariak aurpegia ilun eukan.

—Egia da esan dozula langileen alde zagozala?

Ander dardarka jarri zan. Bera kristaua zan, eta sozialista. Baina andrea ta semealabak eukazan eta bere etorrera etorri jakon gogora.

—Bueno, nik auzi hontan neutrala izan nahi neuke.

Zuzendariak zorrotz begiratu eutsan.

—Ez dozu nire galdera erantzun. Esan dauste langileen alde zegozala agirian esan dozula, ta hori egia dan jakin nahi dot.

Bere gorputza ahulduta sentidu eban Ander-ek. Urteera bat bilatzen ahaleginduten zan. Alde batetik, gizon doilor baten antzera ez eban gelditu nahi. Bestetik, bere ta bere familiaren etorrera hantxe egoan.

—Hogei urte darodaz hemen eta nire ustez, ez daukazue nire kontrato kejarik. Langileak, maite dodaz, baina enpresa be. Auzi hau guztiontzat onenean konpontzea da nire nahia.

Baina zuzendarien galdera erantzunik barik geratu zan.

—Ander, gure fabrikea une larri baten dago. Langileen alde hitz egin dozula zihur dakit, eta hori, zuk daukazun responsabilidadeko kargu baten, falta haundi bat da. Holan ba, fabrikatik kanpora jaurtia zagoz.

* * *

Iluntzean barikuetan ohi eban legez, tabernara joan zan. Han egoan Aitor, bere kitarrarekin.

—Gabon, Ander. Aurpegi iluna dakarzu.

—Zelan ez, fabrikatik jaurtia izan ba naz.

—Kontxo!

Eta pentsati geratu zan Aitor. Bere besoa luzatu eban, Ander-en sorbalda gainean jarririk.

—Ez zaitez hestutu. Inork ez daki non dagon bere etorrera ta bere zoriona. Zure ustez, orain trajedi bat jausi jatzu gainera. Baina nork daki ez ete dan zure onerako izango? Nork daki orain kalean, beste lan hobeagorik bilatuko ez ete dozun?

—Eskarrik asko, Aitor, zure hitzakaitik, baina egia hau da: kalean nago, ta lau ahori jaten emon behar.

Aitor, aurrez aurre jarri jakon, bere esku biakin Ander gerritik obaturik.

—Hara, Ander. Zuk, etxean, emazte alai ta leial bat daukazu, ta hiru aingeru diran hiru seme. Lanetik etxera zoazanean, ifernutik zerura zoaz. Ez da egia?

—Bai.

—Ba, orain, begiratu nagizu. Nire emaztearekin apurtu neban, eta orain hau, kitarra hau, da nire penetan lagun bakarra.

Aitor-ek hartu eban kitarrea. Leihotik, kalea ilun ikusten zan, eta kotoi zurien antzera, edurra jausten egoan.

—Kanta zahar bat abestuko deutsut.

Eta kitarrarekin lagundurik, abestuten hasi zan:

Edurra mara mara ari da,
zuritu du mendiak,
arditxoak sartu dira
hotz hotzez txabol batean.

Hau izan zar sarrera. Gero, sentimendu haundi bat bere hitzai emonaz, jarraitu eban:

Nik ba daukat bildots txiki bat
hementxe sehaskatxoan,
baina hau jango duan otsorik
ez da sortu munduan.

Eta kitarrea ixildu barik, Aitor-ek hitz egin eban:

—Honaño da kanta zaharra. Orain zuretzat beste estrofa bat jarriko dot:

Otso maltzurrak heldu dira
euren asmo txarrekin
baina bildotsa zutik dago
gertu burrukarako.

Kitarrea ixildu zan, baita Aitor-en abotsa.

—Zutik, gizona, gertu burrukarako!

Ander-ek gogo haundi bako irripar batekin erantzun eutsan.

—Hara. Bihar goizean, hasi zaitez gehiago barik beste lanen baten bila. Ondino ez zara zaharra, ta urtengo jatzu zeozer.

Ixilune baten ondoren, Ander hitz egiten hasi zan.

—Alde batetik, arrazoia daukazula uste dot. Gure fabrika, ta seguru asko beste guztiak be, oihan baten antzekoak dira, piztiak (tigreak, lehoiak eta abar) gu garala. Bizirik irauteko burrukan gabiltza. Gora igoteko, derrigorrez besteak baztartu behar. Itxuraz dana paketsu badago be, azpi-

tik dabil burruka maltzurra. Inork ahal dauanean, agintarien aurrean ondo geratuteko edozer gauza egiten dogu, besteai egiten deutsagun mina kontuan hartu barik. Kristauak eta sozialistak garala esaten dogu, baina izen honeek merezi dabezanak, gitxi dira. Eta agintarien artean, ehunetik bat, eta ez dakit bakar hori egongo dan be.

Aitor-ek aurpegi alaikin begiratu eutsan.

—Orduan, burrukan egingo dozu?

—Ez dago beste erremediorik. Nire familiari jaten emon behar deutsat. Bihar goizean bertan hasiko naz zeozeren bila, ta horren falta, nire kontura hasiko naz zeozerekin.

—Ederto, Ander. Hori da gizonki jokatzea.

* * *

Eta Ander-ek bilatu eban lana.

Eta inork inoiz bere bidean ostoporik badauka (eta nork ez), eta burrukan egiteko kemen nahikoa sortzen badau, aurrera joango da.

Heriotza bera be, ez da beti gauza hutsa izango, ideal haundi baten oparia bada. Eta hemen, Aresti-rekin dinot:

"Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik".

Itxaropen eta realidadea

S. GARMENDIA

Aspaldi haundian ez zan hain goiz esnatu Murua jauna. Hain goiz eta hain arin. Goizeko seiak ziran. Lauak ezkero ametsetan zebilkion burua. Izarrez beterik zekusan zerua, batetik bestera jauzika bezela: gora egiten zuten batzuek, behera besteek. Besoak luzaturik haietarik bi atxeman nahiko zitukean Muria-k, bainan, besoak bularraren kontra estutzen zituen momentu berean, bi izarrek gora egiten zuten. Ortzak estutu zituen... beatz txikarra aohan sartu... hortzekin zerbait atxeman nahiez indar egin zuen, eta momentu hartantxe ideia berriak etor bailitzaizkio, begiak zabaldu zituen.

Ez zan, halaz ere, bapatean jeiki. Zangoak luzatu zituen, begiak bildu eta eskuak bekokira eraman, zerbaitez oroitu nahiez bezela. Izarrak gora eta behera zebilzkion. Tristura zerbait sentitu zuen. Buruaz ezker egin zuen, ezpainak igurtzi, eta, realidadera etortzen ahaleginak egiten hasi zen.

Kanpoan euria ari zen kristalaren kontra. Erlojuak seiak eta hamar markatzen zuen. "Ordu bete barru autobusa har eta hiruetarako etxean nagoke". Laino txurien azpian bere sortetxea zekusan... sortetxean ilobak. Hotz zegoen. Momentu hartan sentitu zuen poza ondoraino gustatu nahi balu bezela, bi eskuez maindireei lotu zitzaion eta burua tapa tapa eginik gelditu zen.

Bihotza kolpeka hasi zitzaion. Gauza bera zuen beti iraultzen: "Zazpietan karrikaburuan autobusa har eta hiruetarako etxean nagoke. Maria Teresa eta Luis Anjel... Luis Anjel eta Maria Teresa!". Besoak bularrera eramanik, ustekabean bezela, gero eta estutzenago zuen bihotza. Iloba txi-

kiak bertan, parrez parrez zeduzkala iruditu zitzaion. Gero eta hestutzenago zuen bihotza... eta halako batean, ezpainak sentimenduz beterik zeduzkanean, kolejioko erlojuak seiak eta laurdenak jo zituen.

Goi beherean euria arzen. Zerua hodeibeltzez oreaturik zegoen Murua jauna leihora zanean... Leiho-oiala baztertu eta kanpora begira gelditu zen. Begiak, urrutian galduta bezela zeduzkan. Oraindik ere amets batean zegoela zidurien: begiak nun-nahi eta ezer ikusten ez. Egun guztiez leihotik patiora begira egoten zen, beherean korrika ibiltzen ziren mutil kozkorrei so... orain besterik zebilkion gogoan. Kristalaren kontra zapaldu zuen sudurra eta neska txiki baten eta mutiko baten eheiteak oroimenera erakartzen saiatu zen. Etorri orduko, ustekabean bezela, besoak bularrera eramaten zituen. Begiak busti egin zitzaizkion. Punto batean tinkatu zituen begiak. Tinkatu orduko, mutikoaren eta neskatoaren formak aldegin zioten. Ortzak hestutu, eta, leihoa iriki zuen.

Patioaren beste aldetik etxe haundi beltz bat zegoen. Euriaren marka beltzak, —iturri beltzak iduri— goitik behera zijoazkion etxeari. Etxearen eskuinetik horizontea bete betean ikus zitekean. Luzatu ahal bezainbat luzatu zituen begiak. Bihotza zerratu zitzaion. Dena beltz eta ilun zegoen. Halaz ere, argiune bat ikusten ote zuen iduritu zitzaion. Anka puntetan jarri eta berriz ere urrutira zuzendu zituen begiak. "Beharbada garbituko da zerua eta eguzkia aterako" esan, eta barrura sartu zen.

Bost urte zeramazkien kolejioan. Hara baino lehen, mediku egotu zen herri txiki batean. Gau batez, baserri batetik etxera zijoalarik, eztarritik gora gauza mehe bat zetorkiola sentitu zuen. Panueloa atera zuen eta mantxa gorriz beterik gelditu zitzaion. Bihotzean, tristura beste aberastasunik gabe, kolejiora jo zuen ofizio baten bila. Zientziak irakasten zituen.

Gorputzez luzea zen. Begiak haundi eta borobil, begi zuloetan sartuxe; berde antxak, transparenteak edo. Betazalak, arratsaldeko hiruak ezkero erabat belzten zitzaizkion. Begikaldua, bertara ez bainan zenbait metrora zukean puntu batean zuen tinkatzen. Begi niniaren inguruan bizpairu mantxa gorri txiki, begitartean berebat. Ilea ugari eta luze, belarriondoan zurdina. Bibotea hori eta haundi. Parre antxa tristea ezpainean, eta noizean behin bakarrik hortzak erakusten zituen. Sofrikarioek nobleagotu zuten haren aurpegia.

Zer zukean egun hartan, bestetan baino pozikago egoteko? Berrogei minutu falta ziren autobusa hartzeko. Eskuak dilindan, irriparrea ezpainean, mahaiaren eta ohearen tartean paseatzen hasi zen.

Koartoa txiki zen. Erdiraino paper horiez panpinatua; erditik gora urdinez pintaturik zegoen. Lau paretek sapailoharekin egiten zuten angu-

loetan, zirrikitu zenbait ikus zitekean, hautsa dalako ez dalako mantxa zikinak zeritela.

"Zazpietan autobusa har... Tolosa-n bazkal... eta hiruetako etxean nagoke". Ixildu zen. Barneko poza, bihotzaren eta eztarriaren bide erdian dagoen tartean pausa balitzaio bezela gelditu zen. Begien gogoa ilundu bide zitzaion pixka bat. Ikarak hartu zuen. Ezpainak igurtzi zituen, indar egin zuen begiak kanpora atera nahiez bezala, arnasa hartu zuen bortizki eta berriz ere paseatzen hasi zen. "Nere zai daudeke. Lurrean pikotzean jarriko nahiz eta lepora saltatuko zaizkit... saltatuko zaizkit... eta nik bularraren kontra estutuko ditut". Euria ari zen gero eta biziago kristalaren kontra. Zirriztu batetik atera eta elbi bat hasi zen bonbilaren itzuli. Kolejioan ez zen txintik entzuten. Koartoan ere ez. Murua-ren pauso sonua, eta noizik behin, emozio zerbait sentitzen zuenean arnasaz egiten zuen hotsa ezik. Argiak erakarri eta bonbilaren ipurdian inguruka hasten zen elbia fii eta fii itzuli-mitzuli, eta gero, itsutzen zenean pausatzen zen bonbilaren bizkarrean. Begiak busti zitzaizkion. Gelditu zen... bainan, deseoak eta irriak kolpeka ematen zion emozioari lagundu nahirik, berriz ere pauso luzez alde batetik bestera paseatzen hasi zen. "Etxera orduko, herriko pestak baitira, eskuinetik Maria Teresa eta ezkerretik Luis Anjel, herriko plazara joango gera... eta han, urtero bezala, kolunpioak, saltinbankiak, gizon begi gorria artzarekin, eta tximuak eta loritoak eta kattagorriak ikusiko ditugu. Afal, eta su artifizialak ikustera joango gera gero".

Honelaxe zebilen koartoan batetik bestera paseatzen. Momentu hartan zer zuen pentsatzen... joan da bila! Bizpairu pauso egin zituen eta tenk! bapatean gelditu zen. Bainan egonak erraberritu balu bezala, bereala hasi zen paseatzen, gero eta sendoago pausoa. Berriz ere gelditu zen, begiak nunbait... denera begiratu eta inora ez. Eskuak poltxikoan sartu zituen. Parrez hasi zen. Ixila zen, zoroarena iduri: bi begiak sudurraren puntan tinkaturik eta ezpainak erdi iriki, aizea zeritela. Eskuak atera, eta bata bestearen kontra bildu zituen.

Euriaren otsa besterik ez zen entzuten. Kristalaren kontra ari zen kiski kaska; bapanuak formatu zituen tanto txuriak goitik, behera zijoazten ildo txikietan. Ispiluan, ikusi zen, erlojura begiak zorroztu eta leihoaren kontra zapaldu zuen sudurra. Lehenago hegoak ifarraldera bezala, orain ifarrak hegoaldera zeramazkien laino mordoak. Eskuak iztarren kontra estutu, "eguerdirako garbituko da" bere baitan esan eta mahaiean eseri zen.

Bizpairu segundoz, eskual kajoiari loturik iduki zituen. Kajoia poliki poliki, bildurrez bezala irikirik, sobre urdin bat atera zuen. Norbaitek galdegin dezake, sobrea irikitzeko bildur ote zen. Bainan nork daki, zeinek zer daki, sobre baten aitzinean bat bederari zer gerta dakiokean? Sobre baten

barruan, paperan letra gorriz idatzita, bizi guztian ukan diren bi sentimendu arras diferenteak aurkitzen balira, nork luke kemenik aski sobre hura irikitzeko? Murua-k, beatz puntekin hartu zuen sobrea, bainan bihotzak dar-dar egin baitzion, bertan behera utzi zuen iriki gabe. Begiak malkoz bete zekiokeanik bai ote zegoen idatzirik? Goiz hartan, Murua-k ez zezakean ameti bihotza trista lekiokeanik ezer. Honelaxe egotu zen bizpairu minutuz. Silaren otsera, inguruka hasi zen elbia, eta Muruaren pausoak, urratsak, gero eta luzeago eta sendoago ukitzen zuten solairua. Zazpiak hamar gutxi markatzen zuen erlojuak. Zazpiak hamar gutxi. "Bost minutu barru aterako naiz... Zazpietan autobusa har... eta hiruetarako etxean nagoke". Aurpegi-txuri ba zen ere, —noizik behin bakarrik beltxeran— odola berritu zitzaion eta gorri gorri gelditu zitzaion begitartea. Koartoko zoko guztietara begiratu zuen eta gelditu egin zen.

Eskuak bata bestearen kontra igurtzi, bibotea arreglatu eta kanpora ateratzeko prestatu zenean, duda batek hartu zuen. "Behin bakarrik... azkeneko aldiz..." Atearen ondoan zegoen barda giltzaz itxi zuen maletatxoa. Berriz iriki gabe ezin zitekean egon... iztantpatean zerbait ausnartzen egonik, poltxikotik giltzak atera zituen. Oso urduri eta nerbioso zegoen. Maleta poliki poliki hartu eta mahaiaren gainean ezarri zuen. Aohan zerbait berorik sentitu zuen... eztarria legortu balitzaio bezela. Bost minutu falta ziren... bazuen aski denbora beraz, berriz, denak ikusteko. Trist trast maleta iriki zuen.

Han barruan zer agertu zen asma beza irakurleak berak: konpitak, bi baloi txiki, bi pelota, mantalina txuria, goante txuriak, bostpatsei kanika kolore diferenteko, bi muneka motots-gona-oinetako eta guzti, eta txilibitu bi. Parrez begira gelditu zitzaien. Ukitu zituen, tokiz pixka bat aldatu... begiak malkoz bustitzen hasi zitzaizkion... itxi baino lehen, denei musu bana eman zien. Bainan, poza betea sentitzen denean, nor ez da era berean, poz haren errainua galtzeko bildur izaten? Bildur hori da gizonaren egineen eragile onenetakoa. Lehen bezala uzten alegindu zen Murua jauna aipatu ditugun esku erakutsi hauek... Ustekabean bezala, galdera hauxe egin zion bere buruari: "Gustatuko ote zaizkie?". Bainan, erantzunaren bildur baitlitzan, hartu baino lehen maleta giltzaz itxi zuen.

Ispiluaren aurrean gelditu zen. Buruko adatsa bota zuen atzera, korbata zuzendu zuen eta umeen aurrean balego bezala, parre txikiak egin zituen.

Kontuetan eta historietan oso garrantzi haundia ematen baitzaio pertsonen jazkerari, nik ere, irakurle argiok, Murua jaunak soinean zer zeraman esan gabe ez nuke gelditu nahi. Traje grisa: adabakirik gabe, ez hautsik ez brilurik, bainan, ikusten zenez, erosi zaharra zuen. Alkandoraren

lepoa almidoiez gogor egin-da. Alkandora more antxa eta pajarita txuria puntu gorri-belx batzukin. Txaketaren bular gaineko poltrikoan, panueloa. Bat edo bat harrituko zen noski, alkandora morea zeramala esan dugulako. Halaxe da, egia da. Gauza horietan asko konprenitzen zuen batek esan zion ordea, ezpainak more more zituen ezkero, alkandora ere kolore bereko izan behar zuela. Sonbrailu berdea.

Erlojuak zazpiak bost gutxi markatzen zuen. Arnasa estutu zitzaion. Leihotik kanpora begiratu, maleta txikia hartu eta zuzen zuzenik, inora bihurtu gabe, karrika burura abiatu zen.

Zerura zerbait garbitu zen. Urrutian laino txuri zenbait ikusten zen. Eguzkiaren argi printzak kristaletik barrura sartzen ziren. Jendea ixilik barnean; denera hogei ta bosten bat. Euriondoa, bero zetorren. Autobusaren erruedak sartzen ziren noizik behin bide zabaleko zuloetan; beharrik lotzen zitzaion Murua anka artean zeraman maletari! Denak dijoazten buru makur. Txoferra eta Murua ezik. Murua-ren bihotzaren pozak ez zezakean konprendi fenomeno hori. Izan ere, kontent denak, ez bide du uste momentu berean bistan duenik ezer, triste egon ditekeanik. Triste dagoenari, gauza bera gertatzen bide zaio.

Ahaleginak eginda ere, ez zuen bizkarra alkiaren kontra arrimatzen ahal. Zangoak zuzen zuzen zeramazkien, orpoak zerbait altxaturik eta eskuak belaunen gainean maletari loturik. Noizik behin bakarrik argitzen zitzaizkion argi misteriosoz begiak eta orduan, bereala, txoferraren eskuineko zangora zorrozten zituen begiak. Zuloan sar eta mantsotzen zen autobusaren abiada. Txoferra lotzen zitzaion azeladoreari... lepoa luzatzen zuen Murua-k, ankak pausatzen zituen lurrean eta txoferraren ankekin batera indar egiten zuen lurraren kontra.

Urteak zeramazkien Murua-k etxetik kanpo. Mediku zenean etortzen ahal zen maiz aski etxekoen ikustera. Gaitzak hartuz gero eta kolejioan sartuz gero, hiru hilabetez behin zen etxera etortzen. Beste alde, tristura beste lagunik ez zuen kolejioan eta kolejiotik kanpo. Etxean arreba ezkondu zitzaion, eta bi iloba ukan zituen. Hauek ziren guztia Murua jaunarentzat. Ez zuen maite kolejiotik kanpora ateratzea eta bere gelan ematen zuen denbora biaramoneko bakazioetan pentsatzen ematen zuen.

Mundu triste honetan, ilobak beste ilusiorik ez zuen, eta hain zuzen, beste anitzei bezela, ilusioak zion, ez realidadeak, bizitza apur bat gozatzen.

Autobusa gelditu zen. Bizpairu buru altxatu ziran. Besteak, bere hartan gelditu ziren. Nerbioso jarri zen. Hiru ordu laurden falta ziren Tolosarako eta ez zezakean konprendi zer gerta zekiokean txoferrari. Murua-ren

deseoak konprenditu ez balitu bezala, lasai eta trankil jetxi zen eta motorrari begira gelditu zitzaion. Murua-ren beatzak gogor lotu zitzaizkion maletari. Lehen anka puntekin bezela, orain orpoekin sendo zapaltzen zuen autobusaren zola. Autobusaren partez taxi bat har zezakeala bururatu zitzaion momentu hartan. Orduantxe igo zen txoferra, eta "ez da ezer" esanez, kolpe haundi bat eman azeladoreari eta bideari lotu zitzaion autobusa. Esperantza berri bat piztu zen Murua-ren bihotzean. Eguerdian puntuan Tolosa-n ziren.

Ostatura joan zuzen zuzenik... Irriparre zoroa zuen ezpainean. Gizonak pozez daudelarik poz hura galtzeko bildur diranean oi duten bezelakoa. Ezpainak erdi irikita, doi doi erakusten zituen hortzak. Harritzeko ere bada: goizean jeiki zanean, pozak bihotzean dardara bizia sortu bazion ere orain, etxetik urbiltzenago eta oinazea haunditzenago egiten zitzaiola iduritu zitzaion. Usaiarik ez bazuen ere, txuri bat eskatu zuen... gero beste bat, eta beste bat. Anitzek barruko penak aienatzeko edaten badute ere, bestela egin zuen Murua-k: barruko poza galtzeko bildurrik gabe gelditu zenean, hots, nahi izan-da ere penarik senti ez zezakean trantzean jarri zanean, bazkaria eskatu zuen.

Ostatu hura arras ezaguna zuen Murua-k. Ba zuen arrazorik frango han sartzeko. Ardoak ardo bezala, barneko sentimenduak ere sentimendu gehiago eskatzen baitu, piztenago zen Murua-ren sentimetua hara ezkero. Etxeko hagusiak bazuen alaba bat. Bost urtekoa. Murua nabaitu orduko, atzetik zuen neskatoa, eta biak txutxuputxuka hasten ziran. Aski zen hori neskatoaren aita urbil zedintzat eta Murua jaunarekin izketan has zedintzat. Neskatxaz has eta ilobez bukatzen zen eleketa. Hori zuen maite Murua-k. Nagusiak baitzekien inguruko pertsonen berri, bai eta azienden ere, kontatzen ziokean zer nola ziren ilobak eta kunadoak. Itzulian ere sartzen zen, ilobak utziz gero sentitzen zuen pena zerbait gozatu beharrez.

—Ez dakit zuzen, erantzun zuen ostalariak, bainan ba dute pestetan konbidaturik.

—Kunadoaren adiskideak ditezke.

—Iloboak ikusi al dituzu aspaldi honetan?

—Zer? zer?!

—Ilobak? Maria Teresa eta Luis Anjel?

—A! Maria Teresa eta Luis Anjel!!!

—Hemen zen lehengoan zure arreba.

—Seme alabaz mintzatu al zen?

—Zuk dakizuna: sukaldeko leihoko kristalaren kontra egoten omen dira osaba dakarkean autobusaren begira.

Zangoak bata bestearen kontra bildu zituen, begiak pixka bat itxi zituen eta barneko emozioari eutsi nahiez bezala eskuak zangoen artean sartu zituen. Ez zuen deusik gehiago esan. Zertarako! Poza, egiazko emozio bihurtzen denean eta hau oso segurua ez denean, hobe baita bakarrik gozatzea. Pixka batean egotu zen eta gero, sonanbulo bat baitlitzan, sonbrailua jarri eta kanpora jo zuen.

Eguzkiak gaina hartu zuen eta biziki asko berotzen zuen autobusaren barrua. Goizean ez bezela ari zan izketan jendea. Hogei kilometro eta Zaldibi-n ziren. Goizean zangoekin indar egiten bazuen, orain zangoekin eta anka puntekin eta orpoekin eta eskuekin ari zen autobusari eragin nahiez. Urrutian, gandu tartean, kehe urdina iduri, mendi kasko zenbait ikusten zen. Zorrotz tinkatu zituen begiak mendi haietan eta etxera bitartean ez zituen haietatik kendu.

Egun hartako oroipenak burura ekarri nahiko zitukean, bainan, eginahalak eginda-ere, joana izkutatzen zitzaion... momentuan sentitzen zuen pozak eta irrikiak gerora eragiten baitzioten. Hilabete osoa pasatu zuen kolejioan, inora gabe, eta gauza inportanterik ez zala gertatu iduritzen zitzaion. Poza bete betean sentitzen denean, lehenaz ahaztu eta momentuko haura haundiagotu nahi izaten baita. Momentu hartan dena zegoen argi, gandurik gabe: iloben begitartea, lepo txuria, besoak, oinak... hortzak eta begin niniak batipat. Kolejioaz erabat ahaztu zen. Esperantza berri batek hartu zizkion zainak eta zoramen edo bat etorri zitzaion bihotzera. Poz hartan eta poz harekin munduko zer gauza guztiak besarkatu nahi zituen eta malkoz busti: haurrak gizonak, emekumeak, izadi osoa... Jainkoa bera ere bertanago sentitzen zuen.

Errekaren eta errege bidearen erdian zegoen Murua-ren etxea. Bi sarrera-ate zeduzkan: errege bidetik bat, eta arbolez inguraturik zegoen bolalekutik bestea. Hemendik sartu zen. Sartu eta ezker, komedorea zegoen. Eskuin, sukaldea.

Sukaldeko kristalean tinkatu zituen begiak, bainan ez zuen inor ikusi. "Agian, siestan daudeke oraino" esan eta komedorera pasatu zen.

Usaia zaharrei jarraiki, hiruzpalau pertsona inbitatzen zituzten herriko pestetara. Gehienetan berak ziran: kunadoaren anaia Mugartegi jauna, Mugartegi-n adiskide Olazabal injenieroa eta kunadoaren lagun izandu zen Irun-go trenbideko estazioko Lizaso jefea.

Ondo bazkaldurik ziren eta bizi bizi ari ziren izketan. Gorputza luze zuen Mugartegi-k, burua txiki, belarriak haundi eta expresiorik gabeko begiak. Aurpegia gorri eta borobil. Ile zirrinda bat, yeye horiek bezala kopetatik behera zintzilika. Musiko, artista zen karreraz, bainan tonto guz-

tiei gertatzen zaieten bezala, dibujorako eta pinturarako zuela abilidadea haundia uste zuen; beste ofizioetan ere, literaturan esate baterako, inor beste bazen anaiaren iritzian.

Kunadoarentzat, Mugartegi bere anaia, seme alabak beste ba zan. Berenez ez baitzuen, harrokeriara bultza zekiokeanik ezer, anaiaz harrotzen zen. Jakina dago, bainan gauzak behin ta berriz oroitzea on baita, jakina dago musiko asko eta euskaltzale zenbait baino jende harroagorik eta negadorik ez dagoela munduan.

Siloiean bizkarra zuzendu, zangoak bata bestearen gainen jarri, puruari txupada bat eman eta eskua, zabalik, ezti-ezti eta estilo haundiz sudurraren papera eramanez, honela ebaki zuen konbersazioa Mugartegi-k:

—nahi duzuen guztia... baina horretan aski ikasia naizela uste dut... (beatz haundia muinen parean ezarri zuen)... arrazoietan ari gera orain, eta arrazoietan nora nahi segituko zaituztet.

Momentu honetantxe sartu zen Murua. Kunadoa bidera atera zitzaion, eta parrez parrez denei presentatu zuen.

—Emaztearen anaia, inoiz mediku izana eta gaur egunean zientziak irakasten dituen profesore estimatua.

—... estazioko jefea... ingenieroa... eta hau nere artista..., ots, nere anaia artista, Paris-eko konserbatorioan, Viena-ko konserbatorioan, eta beste estranjeriako obserbatorioetan musika, fuga eta konpasa jotzen ikasia... zer esanik ez dago, (eztarria garbitu zuen eta korbata zuzendu)... notarik onenak atera zituela.

Murua ez beste guztiak exeri egin ziren.

—Et-et-et... hasi zen artista, honetxek xurituko digu auzia.

—Hain zuzen, problema "inportante" hau nola den jakiteko, mediku batek inork bestek baino...

—Gizona haundixeago hala txikixeago izan gorputzez, mundu honetako gauzaz gustatzeko inportantziarik ez duela diogu guk, bota zuen estazioko jefeak.

—Badu inportantziarik, egin zuen Mugartegi-k. Desde el punto de vista artístico... aa! —zuek ez dakizue ezertxo ere... ez zerate sortu zeraten zokotik atera... (eskua jasoaz)... Viena, Paris... pinturak bezala musikak, gizona hobeagotzen du. Bainan egiazko linea, egiazko perspektiba naturak berak ematen digu. Eta zenbat eta goragotik begiratu, etai kusten dira hobekigo reliebeak eta perspektibak. Ergo!... Ergo, desde el punto de bista artístico, munduaren ikuspegia hobea zitekean gizona metro t-erdiko izan beharrean

hiru metrokoa izan balitz. Hau, arrazoiaren bidez proba diteke. Zer deritzazu jaun profesore?

Denak ixildu ziren eta Murua-ri begira gelditu. Honek, etxea ikusiz gero, ez zuen espainetik irria galdu.

—Ez dakit esan duzuna arrazioaren bidez proba ditekean, bainan, onena, metro t-erdiko bi kaja zure oinen azpian jartzea izango zenuke eta bizpairu urtez honelaxi ibiltzea. Honela, haundiak haundiagotzen baitira, reliebeaz ase bat eginik zinake. Proba ezazu beraz.

Denak mututu ziran. Kunadoak espainak okertu zituen eta Mugartegik butakaren ipurdian gordetzen ahaleginak egiten hasi zen. Trenbideko estazioko jefeak bazuen aski borondate txar irriparrez hasteko. Murua, segundo batzuez ixildu eta deusetan ez zitzakeala serbi konturatu zenean, erreberentzia txiki egin eta sukaldera sartu zen.

Sukaldean sartu eta bere ilobak besoetan hartu zituenean zer sentitu zuen Murua-k, ez dezakegu ezertxo ere esan. Asma beza bakoitzak! Beso bakoitzean iloba bat zuela zegoen eta arreba haiei parrez begira, kunadoa sartu zenean. Kunadoak zorrotz begiratu zion Murua-ri. Begiratu eta bereala lurrera jetxi zituen begiak. Bitartean, "osaba, osaba etorri da" oiuka ari zitzaizkion aitari ilobak.

—Umeak edukatzeko manerak ez dira horiek... mima mima eginda... zer onik dukegu... utz itzazu lurrean.

Muruak-k ez adituarena egin zuen, haren bihotzak ez zezakean momentu hartan horrelakorik konprendi eta gero eta estutzenago zituen bere kontra iloba txikiak. Arrebak begiak itxi zituen eta atzera egin zuen. Urrats bat egin zuen kunadoak, eta "horiek ez dira umeak edukatzeko manerak" esan da, umeak besoetatik kendu zizkion. Berriz ere lurrera begira gelditu zan kunadoa.

Murua-k ez zekien zer egin, zer erantzun. Odola burura zetorkiola sentitu zuen. Globoak bezelakoak ikusten zituen begi ninietan. Lurrean zegoen maleta, —ai! oraindik iriki gabe!— hartu zuen eta ezpainak erdi irikirik, esan zuen:

—Herriko plazara noa, laister etorriko naiz.

Askotan ikusi dut India-ko portuetan ateratako fotografia zenbait. Itsas-ontzi haundia gari zakuz betea puertoan geldi. Gruak, zakuak hartu eta kamioetan deskargatzen ikusten dira. Indioak begira. Haien begiratuan ba dirudi, diru dutenek bakarrik eros dezaketela zakuetako irina. Halaz guztiz ere esan diteke, ez dutela penarik sentitzen. Dirdira berezi bat dute

begietan: gorrotoak eragiten diena. Gorrotoak eta gorrotoaren bidez bengantza pentsatzeak anima zerbait lasatzen die. Murua-k ez zuen momentu hartan hori ere sentitu. Ustu egin zitzaion bihotza. Utsaren errainua zabaldu zitzaion zain guztietara.

"Osaba, osaba" karraxika gelditu ziran aurrak, tasisa hartu eta kolejioara abiatu zenean.

Tolosa-n ez zen ostatuan sartu. Zertarako! Eguzkia mendieen gainetik izkutatzera zijoan. Otz egiten zuen. Tolosa-n artobusa hartu zuen. Bi zangoak erorita bezela, besoak dilindan, burua bakarrik zeraman pixka bat altxatuta. Maletak ez zion deusetarako serbitzen eta gaineko sarean ezarri zuen. Aizeak lurreko area harrotzen zuen eta zirrizkuetatik barrura sartzen zen. Bizpairu atso xahar bizardun zijoazten bere aurrean, barra barra izketan. Itzen hotsa entzuten zuen Murua-k bainan, hitzen esan nahia eta signifikazioa ez zuen atxemaiten. Berriro ere globo gorri batzuek ikusi zituen begi ninietan.

Ixil ixilik joan zen autobusen estaziotik kolejiora. Barrura sartu baino lehen, burniazko abe baten kontra gelditu zen. Zerbait pentsatu nahi zuen, zerbait entzun, bainan zentzuak ez zioten ezer ematen. Zerbait berorik sentitu zuen eztarritik gora. Panueloa atera zuen. Ahoan jarri eta mantxa gorriz bustita erretiratu zuen.

Urrengo goizean hilik aurkitu zuten, ohean luze luze etzanik; bi eskuak gurutzatuta eta eskubiko eskuan paper bat. Iragan egunean irakurtzera ausartu ez zen peper bera zen. Sobre urdina, mantaren gainean ikus zitekean.

Paperean, letra gorriz idatzirik, hauxe zegoen: "Munduan den guztia maite dut, bainan nere ilobak maite ditudalako, haiek maite ditudan maitasunean maite dut oro. Iltzen naizenean, dudan guztia haientzat uzten dut, bere bizitza guztian bere osabaz oroit ditezen. Murua."

Beheraxeago zirriborro batzuk: "Jainkoak barka bizaio, nik barkatzen diodan bezela".

Lazquqofalion

F. ARTOLA

AITZONDAR du izena Arriurdin gaztearen jaiot-erriak; "Arrokagain" deritza bera bizi dan etxe poxpola. Aitzondar, Arriurdin, Arrokagain. Oarkabe –(deituraren ixuri-jokoa, noski)– uri ta etxe izenen arabera jantzi ta ezitu zuten gogoz gure aitzondartarra. Peillo oizenarekin bataiatu gaiñera; ta guztiok dakigu Kepa'k arria esan nai duena.

Peillo Arriurdin Arkaitz. Arri kastakoa ama ere, ikusten dezutenez. Ainbeste arri-sustraiekin, kontent zegoen Peru. "Lito" ere deitzen zioten izengoitiz eskola-lagunak; izan ere, ainbeste arrirekin ez da arritzekoa.

Bestalde, "ARRI-AROA" 'rekin dabil murgildua bere ikaskizunetan, dotere mailla ardietsi naiean; eta, bidean goazen ezkero, esan dezagun eskol-agiriak omentsu zeramazkila. "Lito" izengoitiak par-murritza egin arazten zion. Lito'tik Litri'ra alde ederra zegok!, esan oi zuen berekiko. Ondo bait zekien, ongi jakiñ ere, neskattoak Litri'rik ez dutela maite. Dena den, Schulten famatuaren urratsak aintzakozat zeuzkan gure aitzondartar jatorrak. Plinio erramatarrak emen lekuratzen du nunbait Venus Pyrenaica'ri eraikitako kaiolar aipatua. Nun ordea?, galdetzen zuen kezkati ta azterle.

Peillo'k argiña zuen aita, eta Schulten deusxtarra aieka auetatik ibilli zanean, aroxek lagundu zion indar lanetako ariketan. Oroitzen zan orratio, aitari lagunduz nola eraman zituen pala ta pikotxa Higuer'eko "Aitzgallur" munora; ustez an bait zeuden delako Venus'en oroit-gaztelutxoaren oiñarriak. Gizon ospetsu ta jakintsu aren ariera sutsu ta eraginkorrak zale-

tu zuen, arri-zar eta arkeologintza bidetan. Noiz nai zebillen gure Peillo, ikertzaille, Aitzgallur inguru-minguruan.

Paregabeko ikusmira dago bertatik. Bai! Bazterrak ondo miatu zituzten erromatarrak ederren aldetik. Izan ere, Venus jainkosak oro merezi zituen. "Aitzgallurre'k", ur-kolko apaiña ta ibai gesaltsua dauzka bere oiñetan. Aurrez-aurre itxaso zabala. Eskubi aldetik, sorkaldetik, mendi lerdenak; urrutian, Auñamendiak. Kaiosail urduriak arat unat'ka, txairo ta jostakiñ "Aitzaundi" ta "Aitzamardul"'en magalpean (Bi Tunbak). Plinio jakintsuak aipatutako ugartetxo biak, ain zuzen. Lur muga, (itxasoaren maitea) ondartza erosoa, urrez jantzia; leiarria bezain leuna.

Bazter miatzaille, noiz nai zebillela Kepa, esan degu. Berekiko ere esaten zuen: gure arbasoek, arri-aroko aiek emen biziko ittukan ba; baiña nun?. Leku ariñ, patxadotsu ta aberatsagorik etzeok, eta Santimamiñe, Altamira, Altxerri'rekin batean, txokoño au ere kontuan eukiko ziteken ba! Arteziren batetik ez al zait ustegabean katamotz, basakatu, untxarta edo axari'ren bat irtengo?

Asmamen giroan, berebiziko idi-konkortiak, artz, zaldi, orein ta mamutzarrak ikusten zituen aitz-negar artean margoztuak. Baita itxaslapurren gorde-leku ezkutuak ere, altxor eta guzi; txirlarri, ikatz-arri, arribitxi ta urrez betetako hutxatillak... Zerri goseak ezkurra amats!

Il-gora zalako edo..., sortalde'ra begira pentsamenetan murgildu zan egun artan. Or, Miarritze ta Mugerreko kaxkoa eakubitara utzita, ezker aldetik an urrutian zegok Dordoiña; alderdi orretan Magdaleine ta Lascaux. Isturitz ere ortxe, Baigura'ren babesean. Onatx aurrez-aurre Aiako arria, Larrun, Urdaburu, Landerbaso; ene Jainko maitia! Nun ote dago Lascaux'tik Lazkanora bitarteko onetan, Isturitz'ko leizea ez-ezik, inguru auetan gure aurrekoen bizi tokia? Aitzbitarte? Agian. Auxe dek ba leku erosoa. Nun emengo muskillu, txirla, karramarro, ixkira, txipa, xabalo ta arrai tokia bezin ugaririk? Nun zeudek baiña, erratillu puzketak? Nun arrizko aizto ta aizkorak, nun lerratutako maxkur orien azalak, nun lanperna ta lapa-kozkolak? Galdera alperrak! A! idoroko banu!

Beingoan, aatik, adua alderako zedukan. Udazken artan berebiziko euritiak egin bait zituen. Jasa ederrik bai! Bazterrak ase-beteondoren, Almitxu ibaiak ur-zuria zeraman Kantaurrira. Ibar eta erribera oro gañezkatu zituan ibaiak. Eta au gutxi bait-litz itxasoa ere bizi ta aserre; aizea zirimolan, auiñak amar-aldiz aundituak. Itxaso, ibai ta aizeak, denak azpilanean, itxas ertzeko gainberari sasi, larre ta sastraka kenduaz, lur-urratze aundia egin zuten; itxas bazterra larru-gorri utzirik zearo.

Kalte aundiak egin zituen eten gabeko euritiak. Ugolde tzarrak etxola bat edo beste lurperatu zuen; A! ondamena! Dana etzan ordea, kaltegarri

izan. Lur-mugirak aspaldi aipaturiko orma zaar baten ertzeak agerarazi bait zituen, itxas egian. Gure Peillok artu zuan poza! Noizbait ere arri zarrak Aitzondarren! Gora!

Alegia deusez ari, egunero urbiltzen zan Peillo orma zaarren ingurura. Ekiñaren ekiñaz izerdi patsean, barruko bustiñ metak kanpora ateratzen zituala jendeak ikustean, txorotzat artu zuten.

Orma-ertzak kontuan artzekoak ziran; ez pairik gabe erromatarren denborakoak zitezken edo apika lenagokoak. Lilluragarria ez bazan gero bere meartasunean; nolako giltzarri galantak! Eta oien gaiñean arriak egoki erantsiak, ez latsun ta ez kisu ezarriak; saparri aztarnik iñun ere! Oso-osorik dana arri-anditzarren gaiñean eraikia! Ederra benetan. A! suil, erratillu edo orrelako zerbait arkituko banu. Zergatik ez? Edo ta urre, zillar edo urraidezko txindi edo txanpon batzuek! Bai zera! Amesak, beti ames jarraitzen zuten. Arkitu? Burme-orri zatitxo batzuek; ordoituak, noski; burdiñ puzketa aleak; krisellu antzeko zerbait, zartagi kider bat, zurezko kondarrak..., ezer ez ta festa!

Probintzi'ko Arkeologi-bazkunari aurkitzearen berri emateko asmoak zituan; axola aundikoa bait zen ez pairik gabe arkimena; aberatsagoa ez izana tamala. A! giza-soin errautsez beteriko berinezko suil batzuek arkituko banitu bederen!

Pentsamen oietan, barneari neurriak artzera urbilduaz, ate-buruari (luze-zabalean tamaña onekoa) begiratu bat ematen ari zala, eguzkiak legortutako bustiñ-txingol puzketa bat erori zitzaion buru gaiñera. To! zer ikusiko aurrez-aurre arrian marrazkatua, ta, izki bat. Zer izki?, ta zorioneko H'a. Ez dek oraingoa beraz, Euskal-Herrian gure asarre bideko letra! Arnasa estutu zitzaion ainbestez. Bereala atxitu zuen astalarra, ta bai marruskatu ere H alboa. Onela zerion: HELCESAR. Oe!; zer JELCESAR? Julio Cesar ote?

Zalaparta bizian egin zituen ango lanak. Bustiña legorturik zegoan eta errex kent zitekean. Luze xamarra zan idazpurua; iru zerrenda ziran eta bat banaka aldatu zituen paper mutur batera irakurri zitezken izki guziak. Gutxi gora bera onela irakur zitekean.

ANTYSUNAYS URON
LASQU OFALYON
QYR EBERYHELCESAR

Etzuan ezer ulertzen. Agian etzituen bear bezela izkiak aldatu; izan ere ESE dalako aiek etziran lendik ezagunak bezelakoak; ez eta beste izki batzuek ere; ostera, iru izki zearo aienatuak zeudan betiko. Nork osatu oroi-

titzak!

Oeratu zanean, ezin loa arturik egon zan naasmendu bizian. Izkiak ortik, izkiak emendik; izan ere, Iztegi larri bati begirada ederra eman zion oeratu aintzin. Aztertu zituan egitoar idurizkoak, apaiz ikuratz tankerakoak begiztatu; feniziar abezea; eberkera izkidia, eladera ere berdiñ. Idazpuru orren esan naia ni baiño ikasiago den batekargitu bearko dik...

Erriko-etxerra agertu zan goiztiar urrengo goizean. Baita ere alkate jaunari ikas arazi idazpuruaren berri. Orma-zaarren adierazpena eman egunean besa-buruak jaso ba zitun; ia berdintxu oraingo onetan ere. Zer dan ez jakiña izatea! Alaere baizpena eman zion; berak etzuala gauza orietaz ulertzen, baiña bere ez-jakiñean etzuala parragarri gelditu nai, ez eta ostoporik ipiñi. Diru laguntza ere emango zuala bear izan ezkero, gauza erriaren izen onerako baldin bazan beintzat.

Espantu andiarekin artu zuten Probintziako Arkeologi bazkunean, Peillok zekarren berria. Futxo! auxe bai benetako jeroglifikoa! ANTYSUN...; au latiña duk dudarik gabe: SUN... SUNT. EBER eta CESAR; auxe komeriya! Judeoa ta erromar andi-mandiak berriz emen. OFALYON!!! Prantziako Lyon ez pairik gabe garbi. LASQU'... auskalo!

Arriaren bernuzatuari jaramonik egin gabe, argazkia ondo aztertuz onela zerion gorospen mintzetan izkuntzalari argi dan Mihibizi Jaunak. - E, Arriurdin. Berau ez ote Venus Pyrenaica'ren etxola?

Bere gain artu zuen arazoa Probintziako Arkeologi-Bazkunak. Etzan gutxiagotako. Aitzondarren arkitutakoak begiramen guziak merezi zituen. Illean-biko aldizkarian bereala eman zuten berria. Bai laister barreiatu ere berria munduan. Edesti-aurreko oroititzak (?) arkitu alajaña!

Yakindiak argazki ta xeetasun galdezka asi ziran bereala. New-York, Londres, Paris, Moscou'ko Ikastegi Nagusiak, beste askoren artean. Mundu guziko bazkunak zuten alkar artu, eta Batzorde bat izendatzeko Paris'eko Monsieur Recherche sonatuaren gain utzi, berau nortzuk osatu. Eralgi bearrak guztien artean ordainduko ziran. Lenbaitlen nai zen zrgitasuna. Paregabeak ziran orma-zaarrak, baiña, urin zikiñaz idatzitako iragarki arek zer esan gura ote zuen?

Gizon jakintsunak bildu ziran illabete batera Aitzondarren. Auek osatu zuten LAZQUQOFALYON BATZORDEA: Monsieur Recherche prantzesak, Herr Suchen alemanak, Doctor Buscador españolak, Mister Investigation inglesak eta Iker Jaun euskaldunak. Paleontologo bezela Arpe Jauna; itzkuntzalarien aldetik Mihibizi Jauna ta onen taldekoak. Kyrios Graphos greziatar ikurriztilari famatua ere, euren atekoa zuten. Baita Signore Piccolo erromanoen idazkeraren adirazle yayoa. Eta Aqui-

taniatik Ibertar arazoatean maixu zan Monsieur Toichaud. Batzarkide-soil gure Peillo Arriurdin Arkaitz. Txunditurik gelditu ziran jakintsunak onen izen-deiturak arriarekin zer ikusi bitxia zutelako.

Zer esanik ez; gogor egin zuen lan Batzordeak. An ziran komeriak! Batek au, besteak ua, iritzietan desberdiñ. Alaere gauza batean zetozen ados; zera, lenengo gizaldi asierakoa zala iñolaz ere delako etxolatxoa. Arri-anditzarrak agian lenagokoak. Eztabaida zerakin zuten; ate-buruko arria (luze zabalean tamaña onekoa, esan degunez) apika, lenagotik beste lekuren batean egona izan zitekeala. Izkak ziran gauza naastatzen zutenak. Piccolo ta Toichaud Jaunak esaten zuten batez ere au.

Idazpuruak erromano izki-etzanarekin egite aundia omen zuen. J. C sortu aurretiko 156 urte-aroko pretore-etxeko zaldizko talde baten lotura bilketarekin ia berdintsua. Bestalde, Ponpeia'ko adierazpen batean, ta oraindik irakurri ditekenarekin, antz-irudi aundia omen izki batzuek. Graphos Jaunak, gerogokoa zela zion, eta Ulfilas'en gotikoaren ezkerozkoa, IV gizaldikoa alegia, zela era bat. Chinatarren irarkiak ere ba omen dira berdintsuak. Dena den, astiro erabaki bearrekoa zela arazoa esan zuten. Denak ziran ele-jakitun, ta buru-buztanka zebiltzen iritzitan. Batetik iru izki falta ziralako, bestetik dena trebeska; izki desberdiñkeri izugarria! Izan ere onela gure Oroititza. Etzan beraz, egun bateko lana, ta nor bere errira alde egitera beartuak zeuden. Benetan eta serioski egiteko lana zala, ta sei illabete barru alkartuko zirala berriro, bakoitzak bere txostena irakurri zezan. Peillo kontentzan, besteak ere, naiz eta jakintsunak izan, dana etzekitelako.

Despeditu aurretik, Aitzondar'eko Erruki-etxeko agureatsoei bazkari bat ematea erabaki zuen LAZQUQOFALYON Batzordeak. Eurak ere bazkari batekin egin nai zuten agurra, Jatetxe sonatu batean. Bidezkoa zala zerioten, beartsuak ere apairua ukan zezaten.

Erruki-etxeko lekaimeak, eguraldi ederra egiten bait zuen, Arriurdin lagun zutela, idazpurua ikustera eraman zituzten erruki-etxeko agureatsoak. Bazen umore ta zarata zaarren artean.

Erruki-etxean bizi zan Gaxpar. Aitzondar'eko xaarrena bera. Eun urte betetzera zijoan, ta, bera ere zuzpertu egin zan gauza ederra ua ikusteko. Autoan eraman zuten.

—To, to, to! Au zen dena! To, to, to! Falion'en txabola.

—Nola, nola?

—Bai, Peillo, bai; ni aur nintzela emen bizitzen zen Falion.

—Zein zein?

—Esateizut, ba; Falion. Lazkauko Falion. Mutil zaar bat; gaztetan mundu-zear itxas-gizon ibillia. Bazeukan arek kontatzekorik!

—Segi, segi.

Ameriketan, Japon'en, Indyan; nork daki nundik ura ibillia! Toki guzitako berri bazekien arek. Amaika ixtori kontatzen zituen ark. Ni ilko naizen toki berean il tzan oso xarturik. Goierrikoa zan; andik ekarri oi zituen aizkorak, emen saltzeko. Gero antixun, potto, aizkorei kirten berriak ipiñi, eltze zaarrak konpondu, ta abar. Orrela ateratzen zuan bizia.

—Geiago, geiago, esan geiago, galdetzen zion Peillo'k.

—Ba, aurten bezela euditi izugarriak egin zituen, eta mendiak amor eman, ta Falion'en txabola estali zuan. Ni, aurra nintzan. Falion ordurako, Jainkoari eskerrak, Hospitalean bizi zan. Nork esan bear zidan neri, berriz ikusi bear nuanik.

Peillo Arriurdin'i min-txuria etorri zitzaion. Erruki-etxera eraman zuten. Zorionean, ordu erdi barru bere onera etorri zan. Baita Jatetxera urbildu ere. Egia esan, etzuan askorik jan. Agur bere amesak!

Postre garaian, bat besteen ondoan altxatu ziran gizon jakintsunak. Agur, agur, beste bat arte; badegu nun arakatu. Ia datorrenean gauza argitua gelditzen dan. Onela mintzatu ziran danak, gutxi gora bera.

Peillo'ren txanda etorri zan. "Jaun agurgarriak: Barkatu, baiña, urparrastada batekin nator". Gertatukoaren berri eman zien. Gaxpar zaarrak esandakoak ordurarteko amesak aienatu zituen; goizeko izarra irudipena baizik etzan; errex atera zituan erabakiak.

Idazpuruak auxe esan nai du. Lazkao'ko Falion'ek (Goierriko erri bat da Lazkao) antixun, aizkora, potto ta olakoak saltzen zituan, orain eun bat urte; eltze zaarrak konpondu, aizkorai kirten berriak ipiñi... Zorioneko idazkia onela irakurri diteke, gaurko euskera garbian.

ANTIXUN AIZKORA ON
LAZKAOKO FALION
KIRTEN BERRI
ELTZE ZAAR.

—A, A!! Agur gure CESAR!!!

Mihibizi Jauna jeiki zan.-Aizu, Peillo... ta Falion?

—Jauna, Aitzondar'en joan edo yoan esan bearrean Fan esaten degu; beraz, Falion'ek: JUAN LEON esan nai du.

—A, A, A !!!

Itxaso

Etxebeŕia'taŕ P. sj.

Orain Ormaiztegi'tik Itxaso'ra eroso ioan diteke. Arâ lenbizi agertu nintzanean, 1926'gaŕeneko Uztaila'ren amazazpigaŕenean, larunbatez, edeŕki izerditu ni. Artean gaztego ere bai, eta bulaŕak ez zitzaizkidan estutu.

Lengo udazkenean, 1976'gaŕen urte oŕtan, goialde aietan bi aldiz izan naiz. Ekiñaldi aundiena agoŕaren emeretzigaŕenean: Zumaŕaga'tik eta Antio'tik gora Kizkitza'ra. Izazpi ezkeŕetara; eta Gabiri aldera baŕendi guztia laño. Bein Izazpi'ren egala eta mugak atzera utzi genitularik Ezkio agertu zitzaigun, eta antxe maldan Ąrantzadi etxea. Laisteŕ Laurentzi deunaren ermitatxoa. Ain bakaŕik!! Ibili atsegingaŕia.

Kizkitza ere agertu zitzaigun. Zidoŕ aietan eiztaria zebilen. Beiñolako egun alaiak neri gogora etoŕi. Tontoŕera igo gabe ezin etsi, eta gu baño len antxe ormaiztegiaŕ gazte ikasleak, maŕazki-ikasketa-lanetan: guztien zaindari-auŕelari-irakale Garmendia'taŕ ALOÑA.

Kizkitza'ko gain artan otoitza xamuŕ biotzetik irteten. Gogoan zer nerabizkiken? Argentina'ko anaia eta ango euskaldunak. Bertagokoak, beŕiz, askatasunaren gose eta zuzenaren egaŕi ditugun ainbeste eta ainbeste abeŕkide...

Ibilirako artu genituan puxka legoŕak atu zitzaizkigun, eta bero zerbait nai, eta Maindubi'ra urbildu giñan. Garai bateko pagadi edeŕak norantz ioan ote-zaizkigu? Bitartean, leŕ beltza basoetan nagusi. Otea eta laŕa eta zaboŕa iñork ez garbitzen. Izan ere, oian-lanek astero-astero txanpon beŕi-

rik iñori ez eskuratzen. Guztiok, beŕiz... orixe!! Asteroko irabazi-maite gertatu gera. Gizadiak, gai ontan, gaŕantzizko asmaketa eta auŕerapenik egiten ez ba'digu, ludi osoko iritzaŕ kankaluak apuŕ bateko oŕ ditugu! Oiek nolaz ustu? Pilan bizi, bañan pozik! Beŕiketarako eta erausirako gai piperdunak iri oietan egunero soŕtzen... Eta, pozik gabeko bizitza ain da goibel eta iasangaitz!

Bazkaldu nai gendunok bost giñan. Bostok ona: aŕeba eta ni eta lengusu-iloba eta bi oien senaŕak. Artean meza emateko nengon... Zumaŕaga'n egokierarik ez. Antio'ko otoiztegia itxia, eta Astiga'ŕet a'ra ioatea gogoratu zitzaidan. Ango bazteŕen beŕi lendik ikasia ni, eta bazkaria ontzen ziguteneko tartea poliki zetoŕkidan. Eguzki edeŕez Maindubi'tik Astigaŕeta'rakoa oñez eta arin. An elizako giltzak eskuratu nituan... bañan, besterik ezer ezin begiz ikusi. Etsi nuan!! Txadonaren aldamenean beiñolako ikastetxea (gaztetxoentzakoa, alegia...) bañan! Gu zer gera? Baŕu artan ezertxo ez len bezela... puxka guztiak laŕdaskatuta luŕean: idaztiak, ingi-zatiak, aulki autsiak eta zaŕpalak zabalik ankamotz. Noski, aterpe ua eŕiarena. Bañan zein eta nongo eŕiarena? Ardientzat artzaiak txabola txukunago zaintzen du.

An zebiltzen batzuri nik galdetu:

—Orain nexka-mutilak ikastekoetara nora daramazkite?

—Oŕ beeko eŕietara.

—Bai! Bai! Beeak goia irentsi... bañan txukundu eta garbitu, ez!!!

Asigaŕeta'ra ingandeetan meza ematera pantzeskaŕ lekaideak omen doaz. Bai ta, bein kistaŕak beren etxeetara abituz, lekaideak ere beren gurtariñetan goi aiek utzi eta itzuli. Garai beŕietan bizi gera. Noiz arte?

Gero ere meza emateko aukera izango nuela eta bazkaltzera igo giñan. Ordurako be-lañoa eguzkiak erabat ian zigun. Bazkalkide geiago ere izan an, eta ni bezelako aguretxo buruzuria aientzat aŕigaŕi. Galdetu ere, zer nenbilen galdetu zidaten. Aiei nik:

—Beiñolako toki xaaŕak ikustea aizu nuela eta beste zer-egiñik ez orduan beintzat.

Otordu ondoren Itxaso'ra... Nere lagunak bidetxiuŕa asmatuko nuenik ez zuten uste. Ala ere, ez aiek nai bezin aguro, bañan iritxi giñan eta enparantzan iñor ez, edo oso gutxi. Elizako giltzak eman zizkiguten eta eragozpenik gabe ibili giñan. Aspaldiko adiskide bat edo beste agertu zitzaigun eta berandutu auŕetik nik Zozabaŕo'ra iritxi nai. Ezik lengo Zozabaŕo Iberduero'k irentsi digula eta len an bizi ziranak ez nituan auŕkitu. Beste baterako utzi beaŕ. Argentina'tik GAMIO etxeko Xabina'ri, bere

aizparen eskumuñak nekazkion: eta beŕiketarako beta geiegirik ez. Bitartean len Zozabaŕo zan lekutsuan, an il zala-ta, uŕetxuar Ipaŕagiŕe'ri oroitaŕia eraiki.

Andik laisteŕ Itxaso'ko apaiz iauna, zegamaŕ ZABALETA Joxe nere aŕebaren etxera etoŕi. Lenbiziko artan ia iñor ez nuela ikusi eta igande batez beŕiz ioan beaŕ nukela, guztiekin bazkaritxoa izan genezan.

Oŕela, uŕileko amazazpigaŕenean antxe ni beŕiro. Elkaŕ-meza izan genduan, eta Zufiria'taŕ Joxemiel'en ardurapean nexkek edeŕki abestu zuten. Maiean ari giñala oraingo eta lenagoko zertxoak astindu genituan, eta azkenean ango apaiz launak, ber-berak puxka zaŕetatik bildutako Itxaso'ko txadonaren edestixorta eman zidan. Xorta ortatik ona emen berein iakingaŕi:

Inguŕazti berexian, 1711-gaŕen urtean, beŕiak idazten Goitia eta Goitia zeritzan Juan iauna asi. Garai artako txadona txirotxo genduan, noski, eta oraingo aldare nagusia ordutikoa. Ondoren, 1712-gaŕenean Aste Guren'erako iasotoki beŕia Oteunarentzat. Lana bukatzeko 72 egun beaŕ izan zituzten: margolaria bat eta aren laguntzale batzuk. Uŕengo urtean eŕotetxea beŕitu beaŕa izan zuten.

Geroago aspaldiko zoŕak garbitu beaŕa, ta 1697-gaŕenean elizako kanpandoŕea egin zutenek, 1716'gaŕenean oraindik artzeko zutenaren bila zebiltzan. Bañan, doŕea, ala-ola len ere ba-zan an iaŕtzeko ioale aundia 1678-gaŕenean urtua zan-da: orduko apaiza Itxaso'n Aŕegi'taŕ Ion.

Urteak nastuan ipiñiko ditudala ere, onako beŕi au garaitsu aŕtakoa degu: alegia, langile gaŕtsu-bizkoŕ Aita Santu Klemente XI-gaŕenaren gutuna, 1705gaŕen urteko irailaren amabigaŕenekoa. Itxaso'ko kistaŕsinistunek eskea egin Eŕoma'ra, eta erantzuna onela degu: "Gabiria, Ezkio, Ormaiztegi, Segura. Mutiloa, Zumaŕaga, Uŕetxu, Legazpi eta aldamenetako zenbait eŕietako eliz-gizonek ASABENGANDIKO *eskubide zeritzanak zituztela eta saŕitan luŕaldeko izkera ez zekitela* (alegia, euskera ez zekitela), ERABAKIA: bertako seme elizgizonak LENEN bitez, beroien gurasoak luŕaldean luzaro bizi diranak...".

Garai artan, Itxaso'n, ildakoak elizan beŕtan-baŕuan eorzten zituzten, eta ez toki askotan bezela elizari erantsitako aterpean: zimeterioan.

Eta, txadona, zegonez ez guztien gogo-betegaŕi izan: sapaia agirian zuan, alde batetik besterko zura ere apaingaŕirik gabe. Lan aundietan asi nai izan zuten. Aŕi landua zekaŕten itzaiei ardoa ematen: utsean. Ardoarena askotxo igo zitzaien: 299 eŕial. Abeslarien sapalo-korua edeŕtzeko Gabiri'ko Azkue'taŕ Domingo'k enboŕetatik olak atera, pila aundian gañe-

ra: Ari eta ari 1730-gaŕenean, sapaloan ederŕgaŕi txito apañak: eta azkeneko lana Aranburu'taŕ Simon'ek bukatu. Langilientzat eta guztia ontzeko an ari izan ziranentzat lan-sariz ematekoak itxasoaŕ kistaŕ batek eskeiñi zituan. Kizkitza'n bizi zan bakaŕtiak ere laguntza polita eskeiñi zuan. Itxaso'n bertan ainbeste aŕi eta etxagintzarako gai ez izan, eta auzo eŕietatik osatu ziran. Urte artan bertan elizgizonek eta Gipuzkoa'ko agintari lenak auzia izan zuten.

Orain pelota-leku dan aterpea ere orduantxe zuzendu zuten eta goratu: geroago ikastetxe izan zanaren legoŕpea orobat ordutikoa zan.

Beti txukunketan ari aŕen, eliztaŕen iritziz eliza ez gertatzen nai zuten bezin apain. Oŕela, beŕiro 1747-gaŕenean sapai-zurak estali nai eta Mikel SALERAN lan beŕietan asi, uŕilaren amaŕgaŕenean eta uŕengo urteko gargaŕilaren 14'gaŕenean eliz-batzordeko eskudunen gogobetegaŕi arek bukatu. Lanean 75 lagun ari izan zitzazkizun eta beaŕ ziranak ekaŕtzeak asko eramaten: Itsasondo'raño ere ioan beaŕ izan zuten, lokatzak zapalduz eta autsak aŕotuz. Eta aŕtzeko guztiak eskuratzeke SALERAN Ferrol'era ioan eta an il. Aren ondorengoak aŕtu eta iaso al izan zituzten arek aŕtzeko zitunak.

Urteen ioanak eskakizun beŕiak soŕtzen, eta 1754'gaŕenean ertzetako aldareen gain-aldera dauden leio borobilak atera zituzten: langileak 47 izan ziran. Quintana zeritzan margolariak aldare nagusian ederŕgaŕi geiago ondu zituan.

Urte ortan bertan beste ordainkun: bati erantzun beaŕa izan zuten: Zaragoza'ko osatetxean zuten zoŕa ordaindu. Ume nintzala amari auxe saŕi entzuten nion: Ez daude ero guztiak Zaragoza'n. Izan ere Itxaso eta aldameneko eŕietako gaixoak eta elbaŕiak... (ala burutik arinduak bakaŕik?), Zaragoza'ko etxe oŕtara eramaten, eta ango apaizak euskeraz iakin beaŕa zizun, emengo gaxoen alde ematen zitzaion laguntza-ordain.

Andik laisteŕ, 1757-gaŕenean txadon-baŕuko il-obiak estalai nai izan zituzten: olez. Garai artan, iabe iakiñenak, Itxaso'ko elian 47 il-obi: estaltzeordaña guztiek banaka-banaka txintxo eman zuten: 12'na eŕial. Lanean aritu zanak izena Salazaŕ: oni ere Saleran'i gertatutakoa etoŕi: zoŕ zitzazkionak erabat bildu gabe il.

Uŕetxu'tik, 1763-gaŕenean orduari-jaŕtzale Atendizabal'daŕ ION etoŕi zan: orduari-ipintze utsagatik arek 1500 eŕial eskatu. Berexian orduarietxe, unama eta beste berein puxka ordaindu beaŕ izan zituzten. Eta orduaria ume zazpikien antzekoa izan. Beintzat, guraso ez-iakin eta makalen auŕa. Alegia, ertilari kaxkaŕen lana. Ain zuzen ere, ia urtero orduariari ikutuak egitera norbaitek etoŕi beaŕ izaten zuan. Tolosa'tik eta Eibaŕ'tik ere

bai. Ainbeste emankizun estaltzeko txanponak biltzea ain lan eŕexa ez izan.

Gotzai-ikeŕketa 1763-gaŕenoan: Gotzai iauna Iruña'tik zetoŕen: sinistunekin itz-egin eta iauretxekoak oro ongi eta garbi ote-zirauten iakin. Eta zaindari aundi Bartolome deunaren oñetan, txeŕen-iduria zegola, lotu-ta eta burua goraka... agian! Gotzai iaunak agindu irudi ankeŕa zuŕun eta buru-makuŕ ipiñi zezatela: Oteundegian degun IESU-Kisto'ren begirapenez, noski. Batez ere gure Iauna agirian ipintzen zanerako eta txeŕen-irudiaren begiak gure Iauna ikusi ez zezaten.

Azpeiti'tik 1779-gaŕenean Etxebeŕia'taŕ Joxe ekaŕi zuten, aingeru eta goiaingeruen irudiak egokitu zitzan. Irudiei buruz itxasoaŕek ikusindaŕ zoŕokoak izan eta Joakin eta Ana deunen auŕpegiak egin zituna ere ostera deitu zuten, bi aien aurpegiak edeŕagotzera.

Apaizak ere mezarako iantziak aŕtzen dituztelarik, beren buruak txukun otedauden ikusi nai izaten, eta eguneroko zuten ispilua txaŕtu egin. Beti itxian dagonari lizuna soŕten zaiolako'edo. Oŕela, 1789-gaŕenean ispilu beŕia London'dik ekaŕi zuten.

Prantsestea'aren beŕi, ni ume nintzala, orduko adiñekoak ba-zekiten, edo entzun izana gogoan zuten. Orduan Gipuzkoa'ko Batzaŕa Aŕasate'n izaten. Erantzunkizun asko eta aundiak izan, eta zer non arkitzen zan begiak argi ibiliaz Itxaso'ko elizatik, ango zilaŕezko gurutzea nai: itxasoaŕek gurutze ua 1766-gaŕenean, 1396 eŕialez erosia zuten. Ortaz gañera oso ona zan zilaŕeko argimutila, mezatan eskeintzarako zituzten ontzitxoak eta uŕezko azpiltxoa ere bai. Oietaz parantzetaŕen auŕka zebiltzan mutilekin egindako zoŕak asko meaŕtuko.

Prantseste'ko zertxoak oraindik ere: eta 1811 - gaŕenean elizmutilarentzat etxea eraiki nai, eta baimen eske Iruña'ra ezin ioan. Ez gotzai eta ez besteren laguntza gabe itxasoaŕek lan guztien zoŕak berentzat aŕtu: 13.747 eŕial.

Tontoŕean degun Kizkitza'ko ermitatxoa estu izan, eta gero itzulzekotan deun Bartolome'koek 130 aŕial auŕeratu: 1818'gaŕen urtean. Bai ta Kizkitza'ko Amári, beekoek longain beŕiaerosi: 40 eŕialekoa.

Ainbeste eman-beaŕez Txintxuŕta'taŕ Joakin eŕetore iauna aspeŕtu egin, noski... eta, Kizkitza'ko txabolatxoa erauzteko eskea egiñez Iruña'ra ioan: orobat Graziandegi etxea saldu nai zuala. Arek ioan-etoŕia 1818'-gaŕenean egin eta ibilian eralgi zituanak Elizak eman zitzan nai, gero salketatik aŕtua ere elizarentzat izango zalako. Gora-bera ien beŕi guregana urte artako ilbeltzaren emeretzitik iritxi.

Itxaso'n mixiyua izan zaneko beŕi 1821-koa degu: emezazpi egunez luzatu omen zuten... Urte artan bertan il-eŕi (kanposatu) beŕia asi. Eta urte artan ilak Laurentzi deunaren estalpetxoan eortzi zituzten. Agian azkeneko: guztira lau. Geroago, 1827-gaŕenean mixiyua emeretzi egunekoa izan zuten.

Artean askok prantsestea gogo-gogoan eta 1823-gaŕenean beŕiro Gipuzkoa'ko Batzaŕa eskean: urtero eman beaŕa emezazpi eŕial eta emezazpi xemaiko: gudularientzat soñekoak egiteko, noski. Batzaŕak 1824-gaŕenean are eskatu: alegia urtero ematen zanaz gañera amairu eŕial eta amasei xemaiko. Oraingo emate au eŕian bertan soŕtu zan guduan zebiltzanentzat.

Geroago, betiko eman beaŕez gora bederatzi eŕial eta ogeitabi xemaiko: 1829-gaŕen urtean. Oraingo au gudu-mutilak Bidasoa'ko mugaraño ioan beaŕa'edo izan: Luráldea zanpatzeko asmo okeŕez agertu ziranak uxatzeko.

Gizonak aldi txaŕak uzkaili nai, eta ezbeaŕak ustekabean etoŕtzen eta 1832-gaŕenean izuŕia zabaldu zan. Delako izuŕia Itxaso'ra iritxi ez zedin eta auzo-eŕietan ere osasunak iraun zezan, gaitzari eusteko esi aundia eraiki zuten, eta Bartolome-deuneko sinistunek ere zezaketena eman zuten. Ezik, uŕengo urtean Iruña-ko Gotzai iauna bere ikeŕketak egitera etoŕi. Arek aŕigaŕi zerbait iongurztietan auŕkitu, eta izuŕitez eta Batzaŕaren aginduz emandakoen zeŕenda gaiztetsi: eta, artarako zeudenak txanpon aiek guztiak itzuli zitzatela agindu. Bañan, iñork ez bide zion iare-eman... gero ere eskakizun aiei erantzunez itxasoaŕek ibili-zebiltzan-ta.

Emanak-eman, Deun Bartolome-eliza aberatsa genduan, noski. Eta 1845-gaŕenean Itxaso'ko eŕi-agintariek estu zebiltzalako, eta okeŕ txaŕagorik etoŕi ez zedin, elizak eŕiari 4.400 eŕial auŕeratu zizkion: agiriak eta beaŕ ziranak bi aldetatik izenpetuz, eta lenbait-len aŕiak zoŕa ordainduko zuan itzez. Dirudienez ordainketa ori luzatuaren-luzez bein ere ez garbitu.

Artu ez eta atarian eman-beaŕ beŕiak. Oraingoan ordea, opariz eta eskuzabal ibili ziran: orduko eŕege iaunari, aren gudu-mutil eŕukaŕientzat-246 eŕial eta amasei xemaiko eskeiñi eta eman: 1836-gaŕenean. Eŕege ori norbaitekin buŕukan zebilena izan: Carlos V-gna, noski.

Are... Cristinataŕ Donosti'ko Batzaŕak giltzapean lau eliz-gizon saŕtu... (ez, noski, itxasoaŕ elizgizonak... gipuzkoaŕ zenbait, noskiago). Ondoren lau oiek ies-egin. Batzaŕekoek, kristinaŕek alegia, delako apazei etordua ematen eralgitakoak eŕiari kendu nai. Itxaso'koek 53 eŕial eta amairu xemaiko eman.

Iruñako Gotzai iauna 1848-gañenean Itxasoŕa etoŕi eta emate orien guzien kopurua zerbait zala ari iruditu. Beŕiro ere, eŕiko agintariei eman zitzaienaren itzulketa Gotzaiak gogoan. Bai itzez agindu ere...

Marruekos'etan guduan zebiltzanentzat, 1859-gaŕenean Itxaso'koek 53 eŕial eta amabi xemaiko eman.

Aizkoŕi'tik adaŕez datoŕ-etoŕi... ekaitza, ageta eta aŕia... 1861-gaŕenean, udan elizaren telatugain osoa aŕiak txikitu eta apuŕtu. Uaxe bai ekaitzaren-ekaitza!!!

Auŕeko gizaldiaren azken-aldera Itxaso'tik eramandako zilaŕaren ordañez Gipuzkoa'ko Batzaŕak 900 eŕial eman: 1872-gaŕenean.

Gizon batentzat ainbeste lan geitxo ere ba-zala'ta, Mendia'taŕ Juan Jose Gazteiz'era ioan zan, Gotzai iaunak Itxaso'rako apaiz-laguna izendatu zezan.

Itxaso'n eŕetore izandakoen izenak, eta beren eginkizunean asi zireneko urtea ona: 1635, Tejeria Juan; 1653, Aŕegi Julian; 1679, Arzelus Inazio; 1683, Oria-Saŕiegi Juan; 1684, Aŕegi Txomin; 1689, Aizpurua Txomin; 1695, Goitia Juan; 1731, Arzelus Patxi; 1766, Insausti Joan Batista; 1767, Osinalde Joakin; 1789, Osinalde Martin Jose; 1819, Mujika Eŕaimun; 1871, Alustitza Eŕaimun; 1885, Gereka Ixake; 1886, Campos Jose; 1891, Agiŕe Inazio; 1928, Agiŕesarobe Xegundo; 1938, Mokoroa Eustakio Maria; 1951, Telleria Juan; 1955, Ulazia Jose; 1958, Aŕizabalaga Jose Antonio; 1962 Zabaleta Jose.

Eta 1928-gaŕeneko uŕiletik bigaŕen apaiza Areri'ko Madalen'an izaten da: Itxaso'ko luŕetan. Bigaŕen apaiz: alegia, ordurańo goien bizi-izaten zan apaiz-laguna.

Beti ikasle

Abalegi'ko P.

—Auzi au ez diat uste lenbizikoz aizatzen degunik.

—Bai! Goguan diat. Bein bakaŕik esanak aztu egiten dizkiagu.

—Ordea, beti besteri akatsak billatzen aritzea lan kaxkaŕa izan.

—Ulertzen diat. Eta, agirian dagonari bere izenez ez deitzea zer dek?

—Negu latza!! Begiak zabalik eta ezer ez ikusi... Zer derizkiok?

—Olako negu latz ori, auxe izaten: eguzki argitan ditugun zer asko EZ IKUSI BEAR. Ez ikustea baño, askoz okeŕago.

—Mingaŕi diralako. Geron aurpegia lotsagoŕittuko ligutelako. Izketarako tarte egokia ere kentzen digutelako. Leenago gure iri ontan Bordele'tik gurera bizi-izaten etoŕitakoa geniken. Euskera eta erdera aiek geienetan beren etxean. Noizik bein aita pantzeraz eta ots-aundiz somatzen geniken. Alako batean sendi artako mutil lagunari guk galdetu: "Aizak! Noizik bein zuen aitak *pantzeraz* itzegiten dizue". Lagunak guri esan: "Bein ere ez ziguk akaŕ-egiten. Bañan *pantzeraz* asten zaigunean, etxean zerbait okeŕ genduala guk berealaxe igaŕi".

—Ba-netxekian eta oso politta dek. Zerbait gogoŕ esan nai zutenean, len aṕaizak ere latiñez asten ittuken.

—Iñork añean ik dakik: gizon zuzenari guztiak zerbait zoŕ izaten. Gizon zuriekiko zoŕik iñork ez dik aitoŕtzen.

—Gizona beti gizon dalako. Eroŕkoŕa txito.

Bañan alaxe geranik nork sinistu? Latzagoak ere ba-dizkiagu. Bat auxe: guztiok kideko sortzen. Gero, ordea, zoritzarez bakoitza gizonago izaten ez gu alegintzen. Geienok malla iakin batean ibiltzen gaituk.

—Sinisten ez ditugunak esaten asiz, geron ikasketak bein ere ez genizkikek bukatu al izango. Ori gizonarentzat lan gogorra ukek.

—Ez al aiz gogoratzen?

—Ik esan bearko.

—Agirre'tar Txomin idazle ondaruarak antxe bere GAROA'n dakarkiana.

—Neri orain ipui oiekin al atorkit? Mutil! Garoa baserritarek ere ez ditek nai. Udazkenetan gure mendiak gori-gori ikusten dizkiagu, eta garoa zutik egoaize zakarren batek erabat aletu eta zoztu arte.

—Ik ondaruar orren GAROA irakurri izan al dek?

—Mendiko garoaren usaia bakarik maite diat. Beste garorik zanik ere nik ez nekiken.

—I ez aiz ibiltari.

—Ibiltari? Bai orixe. Igandero gure mendi ezeak zear ortxe ibiltzen nauk. Geron eri eta bazterak zertxo diran ikusi. Ikasle txarra naizela uste al dek?

—Gu biok alde banatatik abitu gaituk. Ludiko bazterak ikustera ez aizela ioaten esan nai nian.

—Urea eta zilarra puran erein-zale-naizela uste al dek?... Euskalerian aureragoko lanik ba-diagu.

—Ibili eta ioan-etoriak ederki eratzeko Donosti'n GAROA izeneko etxea danik ik iakin ez.

—Orelako GARO bearik ez diat. Zerbaitetan laguntzeko izaten ziran elkarteei len ANAITASUN esaten giñitxioteken.

—Belduŕti aut!

—Ik, alegia, onako au gogoan: Iñor ire esanera belduŕez makurtzen ba'zaik, delakoak iakin ire zakarkeria zenbaterañokoa dan.

—Ik ireak irakatsi nai dizkidak, eta nik nereak esango dizkiat. Auxe: On-bila, on-bila... azkenean bonbila.

—Ik ori, asmatu egin dek.

—Oŕen buru argikoa ba'nitz, orduantxe ni aŕo. Orain, ordea mokolo naizela aito'rtu beaŕ nik. Esakun ori bein entzun nitxieken: urnitaŕei. Berealaxe arkatzez oŕimutuŕean iaso niken. Ondoren aztutzeko belduŕik ez. Zer esan nai duan ere adiraziko nikek, astirik ba'ukek.

—Zuŕutean aritzea aña izango diat, noski, ik irakatsi nai diakena ikastea.

—Beti zerbait obea nai dunarentzat, ori esaten ditek. Orain ez dituk Urnieta'n izaten, bañan nik angoxeai ikasi nitxieken. Obe-bila eta obe-bila... eta azkenean UTSA. Ez al dakik bonbila oso auskoŕa dala? Batez ere, beti obeagoko zerbait eta norbaiten bila dabiltzanentzat dek esan ori. Ezkontzeko neska obea nai. Emaztegai lirañagoa. Neskak mutil zintzoagoa nai. Bein ere beste iñongo neskekin itzik egin gabe. Ibili eta ibili. Itxoin eta itxoin... azkenenean bat ere ez. Bonbila autsi!!! Amaika base'ŕi edeŕ oŕelaxe ustu dituk!!!

—Or, gau-lenean, irudietan irakasle agertzen zaizkigun oriek esan motelagoak eta gai txatxuagoak erabiltzen zizkigutek.

—Bai! Delako irakasle oriek gizartea zuzendu nai litekek. Ala ere gizon gurbila nor dan esango ba'ligute... Sinistu al ba'idak esango diat.

—Nora oan ba-zekiat... Gizona gurbil eta gizon... maxiatzaleen belduŕ ez danean, eta ari txaloka iñor ikusteko gogorik ez dunean.

—Ez al dek uste edeŕki ari geranik? Esaten ditugunak gerok beteko ba'genitu, gure ondoren eta atzetik ikasle argi asko genizkikek.

—Ez adi erotu. Besteren esana egingo dunik iñon bai al dek? Esaleak asko! Askotxo! E'ŕikoek aginduak beteko lizkitekek. Tamalez agintariek aldakoŕegi dizkiagu. Orain eta gaur baiezka. Laisteŕ eta biyar ezezka.

—Gizonen aginduak betiko dirala auste al dek? Eguraldia ere ez al dek aldatzen? Lipaŕean eguzki eta lipaŕean ateri. Nik esan gabe ongi dakik: bein ere aldatzen ez dana Goi-Goiko Bakaŕ UA diagu.

—Bai! Bai! Adiñekoen poza: egin zezazketen okeŕ asko ez egiña. Gezteriaren buruaustea: okeŕari ieska zuzen ibiliko ote-diran kezka.

—Ik olakoak esan. Esan ditukenak sinistuko dizkitekenak aurkitzea lan astuna izango dekela, ezik!

—Gizonok baikoŕ izaten ikasi beaŕ diagu.

—Alaxe nai genikek. Ta gañera: guztiok biotz-zabal, itzeko, geroaren ertza ikusi al dezagun begi argiko, umerik tikienari gezuŕik esango ez diogun alako, aoan ingain bi gabeko.

—Ori dek! On-bila, on-bila... azkenean bonbila. Lenago auxe ere baganiken: Ardo onak pitz gutxi; esale onek itz gutxi.

—Zaŕen iakintza beti sakona.

—Onako beste au ez dek obea: gizartean orain iñork ez alegiñik izen ona izan dezan. Txanpon bi dituan uaxe bikain eta txalogaŕi. Ludi osoa tikigia izaten asi zaigun ontan, norbaitzu gutxi bakaŕen iritzira biltzen asi gaituk.

—Ez al zak iduritzen guztiok paŕa lasai egiteko aukerak bear giñuzkela. Eguraldiak beti goibel diraunean, bazteŕetan lizuna soŕtzen dik.

—Ori dek. Beti ortz-argi!

—Iri aundietan bizi diranek ilargi betea noiz izaten dan ez ditek iakiten. Noskiago aiek an goiko talo borobil-borobilaren edeŕa zer dan ba'lekite, guztiek uxturik bizienean eta samaldan, aspaldiko zorionaren iabe bizi guraz laisteŕ beiñolako beren eŕixkan itukek.

—Ori nunbaiteko bazteŕetan gertatuko ukek. Mendietara itzuliz gero gaztego liraketela iduritzen zaiten aiek. Bañan, olakoentzat ere esana badek: Gazte zerala usteko dezu. Ao xuriek zuri ori esan eta zuk sinistu... bañan, egutegian egunak auŕeraka doazkizu. Ontan bai ustea ustel.

—Batak bestea izketan okeŕ gabiltzanik ez diagu uste, eta ez genikek nai beŕiketan ari geran ontan uts-egin degunik iñork egotzi dezaigun.

—Gero, ezeztiak ongi zekik baikoŕa ametsetan ibiltzen dala.

—Ametsetan dabilen bitartean, ua beti girorik edeŕenean.

—Esnatzen danean igaŕiko ziok edeŕki.

Alakoa, beintzat, beŕien-beŕi lanean ez uke asiko. Bein ere ezer egin ez dunik ez zaiok irudituko-ta. Noizpaitean berebiziko lanak egin izan ditula uste dikenak, ezer beŕi gutxiri elduko ziok.

—Eguzki argitan lastargia piztu nai diagu, eta orain guregana izketalagun norbait agertuko ba'litzaigu, ua asko aŕituko ukek.

—Nik ari auxe esango: Zure etxeko ataria egunero garbitzea lan tikia: noizik bein garbitzeak izerdi puska aundia ateraziko dizu.

—Etxe-ataririk gabe diranak orain asko dirala ongi dakik. Zortzigaŕen bizitza eta goragokoetan lo-egiten dutenak, etxe-ataria non ditek? Aspaldiko euskera zaaŕa oraintxe bazteŕtu beaŕean gatxeudek. Atari itza ere laisteŕ iztegietan ez zigutek erakutsiko. Okeŕagoa: atari itza eta olakoak nonbait eta noizpait eta oso gutxitan esaten dituzten itzak dirala egotziko zigutek.

—Ileta-ots geiegi emen beŕitzeak ezer onik ez ziguk egingo.

—Diotenez Paris'en bertan nippondaŕ asko bizi dituk. Aiek iri gizatsu ortan ere baŕa-baŕa beren izketa zerabiltek. Lan esaten genduna: Dunari dario.

Ez dunari egin ioango zaio. Esakun ori ik bakaŕik dakikela iruditzen iri.

Paris'en bizi diran euskaldun guztiak beste oŕenbeste egingo ba'lute. Beintzat aberatsegi gerala ezpaiñak aŕo ez ibili.

—Zer esan nai dek?

—Euskaldunok aberatsegiak gerala. Ainbeste izkera ba-dakizkigula... eta nik zekiat zer? Txiroak bere biotza bakaŕik eman lezaiokek maiteari. Geron buruak txiro ager ditzagun eta euskera maiteari, geron izkera bakaŕ euskera emango ziogu.

—Oso edeŕki ari aiz. Iaŕaileak izan ditzaken opa diat!!!

Bai al dakik zer esateko gogoa dedan. Lengo ua:

Oiga! Señor regidor:
Justicia a mi fabor.
En la plaza de Tolosa,
Saskitxo bete aŕoltza,
Txeŕi mutuŕ goŕi
Ostikoz jo ta koŕi!

—Ik ori euskera dala usteko dek?

—Auxe esango diat. Euskera, EUSKERA dala. Eta bakaŕa dalarik EUSKERA asko dituk.

—Irekin nauk: alegia: Euskera ona; euskera edeŕa; euskera polita. Eta gero?

—Euskera txaŕa, zakaŕa, gaiztoa. Au guztia ez dek nik eta ik asmatua. Guztiek dakitena edo iakin beaŕ lutekena.

—Aizak! Nippon izkera euskeraren antzekoa omen dek.

—Nik ez zekiat! Alaxe ba'litz ere, aiek egiten dutena egiten ez degun bitartean irabazi kaxkaŕean izango gu.

—Beti ildo zaŕetan bakaŕik ibili beaŕ al diagu? Gôrago ez al diagu esan, gizonak asmatua ondorengoak bazteŕtu lezakela?

—Beti lanpetua dabilela dionak aña eta geiago ixilak egingo.

—Langile ixilen beaŕa dagola iduritzen zaidak. Uŕkoak egiten duan ona beti txalotu: ez gure artean gertatzen dan bezela. Zera: kiroletan onena bakaŕa izaten diagu, beti irabazten duana. Irabazle oŕek lagunik izan ez ba'zuan, bere gaitasunak agertzerik izango al ziken?

—Aizak! Nik iri auŕea artuko!

—Ez diat uste lan zaila izango danik. Zer diok?

—Ire gurtariña ariñegi ezpadaramak, gero osategira negaŕez eta miñez ioanenik ez dek izango.

—Olako aolkutxoa beaŕ nian!! Delako gurtarin oietkoa erosteko natxabileken. Etxekoek ere neri ortara bultzaka. Asistizabal'eko nagusiak aspaldi erosi zuala. Auzoko mutilzaŕak ere oraintxe astebete erosi digula. Besteak aña izan beaŕ degula. Ta... ik osatetxera ioan nintekenekoa aipatzen. Adiskidez al abilkit?

—Or, nonbaiteko zuloren batean oiean intzirika egotea gertatuko ba'litzaikek, egunero i ikustera ioango nintzakela uste al dek?

—An ere zerbait egin beaŕko nikek. Zaindari izango nituzken neskatxak beren buruetan euskeraren kezka izango lutekela uste al dek?

—Osategietako gure neskatxa lirañak!! Eŕudun i ta ni gertatu giñezkek. Deguna iarioz ezpadarmagu, iñor ez gaitzetsi. Aiek ere, batek baño geiagok euskeraz erantzungo ditek, eroŕek lenbizi ezti-ezti itz-egiten ba'diek.

—Gertakizunei auŕea artzen ez gaitezen asi.

—Ain antziñako ez diran ipuiak ere ba-dizkiat.

—Esaten asi akit!

—Eguneroko izpaŕingietan, urte asko ez dirala eŕusiaŕak Kanada'ra gari-eske ioan zirala irakuŕi nian.

—Bo!! Izpaŕingi-zalea aizela ongi ikasia diat.

—Eroŕi ez ala?

—Egunerokoak ateratzea gizonen lana izaten dek. Aietan ipintzen digutena ero-ero sinisteak ere lanak dizkik.

—Eŕusiaŕek nai aña gari eraman eta ordañez ezin-saldurik zuten edaribizia kanadataŕei saŕtu. Oŕen beŕi eman zidan kanadataŕak zer-esana baziken.

—Erne ibili besterik ez ziteken.

—Alegia: kanadataŕak txoro ibili zirala. Edari-bizia baño auŕerago-

koak ba-zituztela eŕira ekaŕi beaŕeko. Ondoren quebec-taŕak asaŕetzea ez dala aŕitzekoa.

—Bai! Barne garbikoa beti esne-gañetan.

—Eŕiaren maxiaketak entzun nai ez ditunak, bere barneari garbi eutsi dezaiola!

—Alderantziz gertatzen zaiguk. Gizarte-nagusigoa ez ditez apalak eta barne-garbikoak eratzen... bañan apalak eta barne garbikoek gizadiari eusten osin-osiñera amildu ez dedin.

—Esango nikek!! Gertatzekoak gertatzen zaizkiguk: biotz zekenekoak ez dizkiagu maite. Ondoren ludian zalapartarik aundiena atera izan dutena goraipatzen guk!

—Zertxo tximenak alderdi guztitan izaten dituk. Eta, iakitun eta asko ikasitako endalaria bein Ipaŕ-Ameriketa'ko luŕetean zebileken. Esipean bildurik dituzten bertako seme batzuen ezkutukoak iakin nai zizkian. Ortarako aien izketa ere gutxi-asko ikasi ziken; berak nai zuan aña ez.

—Izan ere aspaldiko izkuntzak ikastea, umekeri ez izan.

—Ori ik dakik. Euskeraren zuztaŕik izkutuenak garbitzen ibilia aiz-ta.

—Eskaŕikasko!

—Goiz edeŕ batez aŕo-aŕo antxe ioan uken eta aiei galdezka asi:

—"Pozik eta alai bizi al zerate?

—Txoriak kaiolan dizun alaitasuna degu.

—Utsa baño obea, noski!

—Gure alai-izatea utsaren ondorengoa ere ez izan.

—Ori min-izatekoa dezute.

—Iritziz bata besteagandik oso uŕun-asago izaten gera.

—Ain zuzen, lênagoko garai aietan zuek luŕ oni zer esaten zenioten?

—Luŕari ezer ezin esan. Luŕak ez du belaŕirik.

—Ezpañetako otsez zuek ezer ez esaten. Ulertzekoa! Eta deitu?

—Guk deitu gabe ere luŕa ementxe genduan. Emen jaio giñan. Gure auŕekoak mendi eta zelai auetakoak genituan.

—Astiro ibili beaŕa nik. Luŕ onek izenik ez al zuan?

—Luŕak beste izenik zertarako zigun?

—Eta AMERIKA gertatu zan auŕetik luŕari eta alderdi oni besteak zer egiten zioten?

—Zapaldu eta lardaskatu ez, beintzat.

—Aiei ba-ziñatela adirazteko itza bai al zenduten?

—Nai luke!

—Izen garbi egokia, ala?

—Guk aiei onela yardesten: LUR AU *GUREA* DEGU!!!".

—Ez aiz motela! Olakoak non ikasi dituk?

—Zer uste uken? An bizi ziran bertako uneak beren luŕari atzeŕi esango ziotela?

—Bein enda xumeak izketa-gai ditugunez, auxe ere iakitekoa genikek. Aiek, guk ta ainbat enda xumeek beren buruen iabetza galdu dutenekoa eta zutenekoa.

—Galdezka asi aizenez gero, erantzuna ere gertu dek ik, agian.

—Auzia bion artean egokiago garbituko genikek.

—Enda xumeek ez ditek uste izaten amaigabeko iraunik izango ez dutenik.

—Ori, ordea, gizonek elkaŕen beŕi ez zekitenekoa diagu.

—Erasotzen ez ba'diok iizeak ez dik iri amoŕuz ekingo. Sugeak etsaiari ies egiten. Estu danean bakaŕik asiko zaik sugea ozka.

—Ez al dek uste enda eta gizonek elkaŕekin zintzo bizitzea egoki eratzen ez ba'dute, eratzalea eta zuzen bizi izaten erakusten asiko zaiena aldamenetik izango dutena.

—Aldamenetik zuzenketak egin nai izatea, besteren zelaietara geiegi so egiñez dabilenaren arikizuna diagu.

—Len ala izango uken. Gaur, ordea, gôrago ikusi degunez, ludia tikiegia izaten asi bakaŕik ez, gertatu ere oso tiki gertatzen zaiguk. Euskaldunen auzoa aldeegi aztu beaŕa diagu. Besteekiko artu-emanetan txorakeri gutxi.

—Oŕek esan nai dik gose aundiko zenbait eŕi-agintari ba-dala ludian.

Gosea, aundia bakaŕik ez. Gose IZUGARIA. Ezergatik asetzen ez dana.

Otsoarena

Etxebeŕia'taŕ P. sj

Txina zabalean giñala, oso auzoan napaŕ iesulaguna nuan. Aren izena Txomin Villabona. Euskaldun utsa. Esan ere ari beti TXOMIN esaten genion. Izen ortakorik besterik an ez genduelako, noski.

Eta, bizi giñan luŕaldekoekin nippondaŕek gudua zutenean zan. Txomin ni ikustera etoŕtzen zan. Ni aren etxera ioaten nintzan. Neroni geienetan oñez ango lokatzak biltzen (neguan): udan, beŕiz, autsak aŕotzen eta aizeak ederki eramaten zizkidan. Bestelako aukerak oso gutxitu zitzazkigun... edo zizkiguten.

Lipizta soŕtu zan arte, ibilietarako geienbat mandoak edo beoŕak izaten genitun. Bein bien artean buŕukarako gogoa berotu zanetik, gure zamariak laisteŕ izkutatu ziran. Batean bertako mutilek beaŕ zituztela... Alditxorako bakaŕik, itzez beintzat... eta eskean etoŕtzen zitzaizkigunean esaten zigutena ez al genien sinistuko?... Bañan... bai zera!! Mandoak uŕutitxora eldu zirala... eta an okela uŕitxo zutela: beti uŕi bizian zebiltzala... eta, kaixo mutil!! Belgundarien mando ta beoŕak goserik gabe izanak zirala eta gizentxoak ere bai, eta guduan zebiltzan eŕukaŕi aiek zer besterik egingo? Il, egosi ta ian.

Txomin eta biok elkaŕekin biltzen goñanean, geron umetako gertakizunak esatea gure atseden-aŕtzerik garbiena, egokiena eta edeŕena. Olako batean Txomin'ek bere izenaren bikaña adirazi nai izan zidan.

Ua ume zanean, aren eŕira Domingo Deunaren egunerako izlari txito iztunak agertzen, eta Kalahoŕa'ko (Garagoŕi) semearen bizitza zeatz-zeatz

erakusten. Ontan, nere adiskide Txomin'ek uste izaten, domingoaŕ lekaidien soŕtzalea besomotza izan zala. Izan ere GUZMAN itza entzuten zuanean, nere Txomin euskaldun zintzoak maingua uleŕtzen. Guzman eta maingua orobat. Arentzat maingua eta besomotz, beŕiz adirazpen bat bi aldiz esatea aña.

Txomin'ek xalo-xalo aitoŕtzen zidan:

—Okeŕ Aenbilela eta ustekeritxo nuela, geroago iesulagun saŕtu ondoren oaŕtu ni.

Gure artean eusko atsotitz eta ipuiak esanaren-esanez zabalduak ditugu. Eta ia oraintxe arte iraun ere entzunaren-entzunez iaso izan ditugulako iraun digute. Irakuŕtzen ikasi gabeak oroimen-indaŕ zoŕotzagoa izaten.

Une ontan auxe gogoratzen zait:

Asis'ko Pantzeska deunak otsoarekin izandakoa esaten zigutela. Nere aita zana pantzeskataŕen irugaŕen anaidikoa genduan. Noskiago, izaten zituzten bileratan irugaŕendaŕak beren zindari deunaren egin aŕigaŕiak maiz beŕitzen. Ondoren ume giñala mitak guri adirazten.

Ordurako GORBEA mendia ba-zalakoa ba-nekian. Bañan ongi ez ulertzen, eta GOIBEA izan beaŕ zukeala neri iduritzen. Gure aitak GUBBIO esan ordez beti Goibea esaten zigun. Agian ber-berak asmaturik ez. Eta otsoarena onelatsu zan:

"Aita Prantsisko santua, bai gizon ona! Ua, bein, bere lagunak bakaŕik utzita, Goi-Goiko'aren irakatsiak zabaltzera abitu zitzaigun. Asis'ko Loreak españetan beti MAITASUNA zerabilkian. Batetik bestere ioanean ua, ta GOIBEA'koek ere non gelditu zan entzun zuten. Goibeataŕ batzu arengana abitu ziran, estuasuna zutela eta praile santuak zerbaitetan lagunduko ote-zituan galdezka. Asiskoak:

—Zer beŕi dezute an zeron eŕian?

—Belduŕak aidian bizi gera.

—Aŕitzekoa! Kistaŕ sinistunak izan eta ala ere belduŕez...

—Otso gaiztoak eŕian txikiketa aundiak egiten. Ardiak galtzen. Bildotsak iresten. Oŕ nonbait gizonen bati ere ekin omen dio.

—Eta, zer nai zenduteke?

—Iñola al ba'dezu, atoz gurera. Txoriekin izketan dakizun bezela, otsoarekin ere asmatu eziñik agian ez dezu izango.

Asis'ko seme otzana Goibea'taŕekin ioan zan. Aiek nai zuten tokira

etsoa urbildu zedin laŕean, bildots guria utzi zuten. Otsoa ez ikaratzeaŕen... (ikaratia ote-zan, gero!)... itzalean eseri ziran. Luzaro egon beaŕik ez zuten izan. Aiek:

—Ikusten? Antxe datoŕ. Bazteŕ guztietara so'ka. Oraingoan zerbaiten usaia aŕtu digula dirudi.

—Emen egon. Arengana bakaŕik ere ba-noake'ta.

Eta praile maitatia, tente-tente, astiro zioan. Bi besoak zabal-zabalik otsoari ongi-etoŕia egin nai ziola zidurian. Isilean ogi puska aundia zeraman eta otsoari auŕera bota zion. Arek bai azkaŕ irentsi ere. Ikaratzale arek, besterik gabe, ikaratia ez zala erakutsi. Praile gaŕtsua bildotsaren ondora abitu zan. Otsoa ere bai, eta asistaŕak bildotsa besoetan aŕtu zuan. Ontan, ua bere bildotsarekin gizonen aldera eta otsoa aren atzetik. Iñondik ere otsoak bildotsari ekin nai. Praileak gizonei:

—Ez ies abitu. Otsoari esan nai niokena zuentzat ere ongi izango... eta.

—I'otso!!! Biok auzia diagu. Ezer ez dakiten ire kideko lauoñekoak ik ortzez puskatzen. Oiek irekin orobat egin dezaten naiko al ukek? Esan!!

—Ni gaizto ba'naiz, oriek gaizto izanenik ez dute.

—Zuzen ariko itzabala ba-nekiken. Izaten deken gosea bestela berdintzerik ez al dek?

—Gure salekoek lanean ikasi gabeak gaituk. Baratza zoriontsuan Yainkoak lana gizonari agindu zioken.

—Zelaiune auetara etoŕtzea nondik asmatu uken?

—Oso zintzoak ez ote-ziran sumatu nutetik asi niñuken.

—Auengandik zer zintzotasun nai ukek?

—Elizara emaitzak eramaterakoan eskeintza kaxkaŕak oiek besapean. Puxka onenak berentzat dituzte. Arako alargun ua aña ez dira!!

—Alargunarena noiztik dakik?

—Itun Zaŕekoak eta Beŕikoak esaten, eŕikoek ber-berak ibiltzen. Guk belaŕirik eta bururik ez degula uste ote-dute? Gañera: ainbeste maite egin dizkiozun bildotsa, bere amaren len-umea dezu. Zuk ez dakizu: bañan, egia olaxe izan. Beraz, nagusi omen dituzun oriek bildotsa ez dute BERENA. Oraindik ere zoŕetan dituzu. Irentsi izan ba'nuan nori zoŕko nion? Iainko Aitarena, nerea ere ba-da.

—Bai! Bai! Motela eta mokoloa ez aizena ikusten diat. Ala ere, eroŕek arestian esandakoari eltzen ziot: *oiek gaizto izatetik, ik gaizto izaten ika-*

si? Okeŕ aundia! Engoitik olakorik ez dek egin beaŕ. Eŕikoek ere eskukako izatari utziko ziotek. Ia zartu aiz! Ala ere ibiltzeko aña ba-aiz eta basoko izeak aski izan beaŕ zazkik.

—Beraz, lanean ikasi beaŕ dedala?

—Aize epeletan oñez ibiltzea lana al dek?

—Bestela oituarentzat, orixe!!

—Txoriek nik esana betetzen ditek. Aiei ere izketan ekin izan ziotet. guztion EGILEA goraipa dezaten. Aiek aña izan aiten nai nikek.

Oŕela Goibea'koek praile ibiltariarenak berentzat aŕtu zituzten. Eta otsoak gaiztakeria egiteari utzi.

Euskal-iakintza aleak

Etxebeŕia'taŕ s. j.

Euskal egunkari eta aldizkarietan era ontako esakunak maiz ditugu: "Gauŕ, euskaldun beŕi asko gure mintzoa sakondu naiean ikusten. Ikasle gaŕtsu oriek laisteŕ euskal-iakintzaren alde lanean asiko dira. Ez gero nolanai! Bañan, zer euskal-iakintzaren alde?"

Olako galderentzat, beste onako erantzun onen antzekoak egoki lirake, noski: "Euskal-iakintza gerok orain bertan soŕtu beaŕ al degu?"

Gure auŕekoek zer buru-auste eta iritzi zituen ikastea eta iakitea ez otedegu obe izango? Noski, beti lênagokoari so ezin ibiliko gera. Ala ere, guztia oro orain bertan asmakizun tximenez eraikitzeak lantxoak lituzke.

Ikasi eta gogoan artu nai eta al lituzkenaretntzat, onako puxka auek aukeratu ditut. Esan eta uste orietatik iakintza beŕia zertara eratu ikasi genezakela iruditzen zait.

Ona:

1. A zer parea!, bare-kuŕkulu ta barea!!
2. Abendua burdinezkoa, urtaŕila altzairuzkoa.
3. Abenduaren erdia gaua, ta beste erdia jaia.
4. Ahoan bilorik gabe eŕanen dugu.
5. Alde guztietan dabiltzala txakuŕak ortosik, *esaten da.*
6. Amerika on eta edeŕa dela fama da.

Bainan han ere antzara bere mokuaz ala da;
Nahi duenak sinetsi, hori seguŕki hala da. (Mañex Etchamendy).

7. An dago esan zuena ta an ikusi duena.
8. Alende, denetan bada jende. (Heŕia asterokoan 1185-gaŕenean).
9. Andra Maixa Martiko, artean uda taktiko eta hemendik auŕera betiko. (Bergara).
10. Andre Dena Maria martxoko behia laŕean aseko. (Ustaritz).
11. Apil lore, are obe! (Laburdi, Itsasu).
12. Apiril, biribil: gauŕ erein, biaŕ bil!
13. Aprila biribila, urdandegian txeŕia otzez ila.
14. Apustua egiterakoan atera beaŕ da izerdia, ez jokatzerakoan.
15. Ardi izan nai al dezu? Otsoak iango zaitu!
16. Aŕaiak nahi dituanak, ipuŕdia busti beza. (Zeruko Argia, 426-gaŕen zenbakitik).
17. Aŕai txikiak aundiaren ianari. (AGUR: 29-gaŕen zenbakitik).
18. Aŕatiko txekoŕa, txikeŕa baiña gogoŕa. (AGUR: 80-g zenbakitik).
19. Aŕopa beŕi, ximiko beŕi. (Heŕia'tik 1185 zenbakian).
20. Askok egiten dio San Antonio'ri
Egun batian *juan* bestian etoŕi. (Ementxe Formosa'n 1973.6.9gaŕenean, gernikaŕ Zalo iesulahunari entzun nionez. Alegia: *juan* bi ereskines abestu zidan. Neroni bestela oitua izan!!).
21. Au gatzaren geza!!
22. Aundi gaiztuak diran tokiyan, pagatutzen du txiki onak. (Txiŕita'rena).
23. Astoa zulo berean bi aldiz ez erortzen. (Lesaka).
24. Atzo San Silbestre galtza zaŕ, Urte zaŕ, Gauŕ Urte-Beŕi, bizi modu beŕi. (ARTZAI-DEIA'tik, Saldis Ilbeltza 1973).
25. Auzoko intxauŕak ots aundi. (Aguŕ: 87-gaŕen zenbakitik).
26. Azken eguna, kontu eguna.
27. Baiña... baiñak ortuen. (Agur'en MARKIÑA'k, 34-gaŕen zenbakian).
28. Bakoitzari beria Jaungoikoaren legia.

29. Bařiketea ba'litz gorua, eta jarduna ardatza... (gure mutilak izango luke zertaz bete baratza).

30. BATASUNA: zer da batasuna? Bakotxak bere indařak denen sail berari emaitea.

31. Batek amař balio ta amařek bat ere ez. (Basaři: Zeruko Argia 1969.8.3).

32. Berez izan beař bilabonataŕa.

33. Bi etxeko xakuŕa goseak hil zuela. (Heŕia 1181-gna).

34. Bi gizon ez dira aseŕetzen batek nai ez ba'du. (Agur 72g.zenbaki).

35. Bide bat oinkatzea aski da bide oro oinkatzeko. (Agur: Jose Lasa, 82-gařen zenbakian).

36. Biotzak ba'diraki, mingaiñera laister iritxi.

37. Bilduŕa, etxe askotako ituzura.

38. Bizia degu ezer orotan edeŕen!

39. Bizkařen hatz egin-adazu.

40. Denborak aři biziak eŕe leuntzen ditu. (Lakuntza: Z. Argia 397.gn).

41. Diru-gose gutxi eta aberats bizi.

42. Dirus satsa lez euki. (Zeanuri.AGUR: 28-gařen zenbakian).

43. Don dirudon; altza intxauŕtzat saldu eta... dirua bon-bon. (Aŕatia: LANDAJUELA; Aguŕ, 80gařen zenbakian).

44. Eduŕ urta, ondasun urta. (Julen Urkidi: Agur, 78-gařen zenbakian).

45. Egi txikiak, gezuŕ handi bilakatzen (Barandiaran'daŕ JOXE MIEL'ek esana omen).

46. Egizkitzu adixkideak behařtzen zareneko, eta ez bakařik behaŕa etoŕtzen denean. (Heŕia'tik 1181 zenbakian).

47. Egon adi lo, eta jango dek mee. (Agur: 79 g.zenbakitik).

48. Elantxobe, mila pobre!

—Pobrie zeruko lorie. Gabon zâŕetan zuenian aiña txanpan sobre gurian.

49. Eroŕen burura datozkiken elbiak uxa itzak lenbizi!

50. Eŕero-peŕatzale Bilabona'koa, arpa jotzeko ez dek toki txaŕekoa. (Agur: Uxola, 80g-zenbakian).

51. Zabiltz gaztetan mendi-zioŕetatik eta maiteko dezu mendia andi zeranean. (Agur: 79g.zenbakia. Galdakano).

52. Esne-usai darizu. (Oso gaztea izan).

53. Etxean ezin, eta kalean agindu nai. (Agur: 30g.zenbakitik. Markina).

54. Etxetik uŕuti, zoriona txit uŕi.

55. Euskalduna izan; euskaltasunean iraun nai, eta erderaz bizi... Geure buruari aŕika aritzea añaxe!!

56. Euskalduna itzetan labuŕ eta egiñetan luze. (Agur: 87g.zenb.Oñate).

57. Ez dik beaŕ tenk egoteko zeruak aberik. (Orixe: Euskaldunak, Artajoŕa'n: 43-44 leŕoetan).

58. Arazoa ez dago amonaren atxapaŕetan.

59. Ez sal, bera hil gabe, hartzaren laŕua. (Mattin bertsolariarena).

60. Ez sekulan juja fametarik, bainan bai obretarik. (Heŕia: 1185g.zenbakia. Donoztiri).

61. Gauak goiz-goŕi dik ondoko: adi zak eta oroi adi!!

62. Gauaz eŕondan ta goizean logura, neska nagiak horixe gura. (Zeruko Argia: 419g.zenbakitik. Eibaŕ).

63. Gauza tikia, beti polita.

64. Gaztaña bota eta molkotzarekin gelditu. (Zeruko Argia: Satrustegi'rena: 1970.4.26).

65. Gazte zaildu gabea ezertarako ez!

66. Gaztetan alpeŕ, zaŕtzean landeŕ.

67. Geŕi mea du urak, eta... nora-nai saŕtzen da. (Zeruko Argia: 300g. zenbakian. Gaztañaga'k).

68. Gizonaren handitzeak ez du Jainkoa tipitzen.

69. Gogoa zintzilik izan.

70. Goiz negu bi negu. (Zeruko Argia 369g.zenbakia).

71. Gora Ondaŕu, kanpo ta baŕu!

72. Gurasoak nolakoak, semeak alakoak.

73. Haizez izoŕa eta putzez erdi. (Oihenart-gaŕena).

74. Hola baita bizia, dena malezia. (Heŕia 1193-gaŕenetik).

75. Ibaiz beste aldeko sua: edo orobat, mendiko sua. (Neri ez dagokidan arazoa).

76. Idi zaŕak uŕatsa motel.

77. Ikasiak ez du ogirik eskatzen (Zer. Argia, ilbeltzak, 19, 1969: Oikia'tik).

78. Ikazkin beltzak sakela zuri. (Napaŕtaŕ esaera).

79. Ikusi eta isilikoez da olako mutilik.

80. Ikusiz gero ixila, orixe bai mutila!

81. Ikusi, ikasi, ausnaŕtu: ondoren egia indaŕtu.

82. Itxasoko eŕegiña, legatza ta sardiña.

83. Izen ona agoko ogia bestean dau gizonak bizitzarako. (Agur: 69g-zenbakian).

84. Izena duan guztiak du izana ere.

85. Jateak on begik, edanak ez gaitzik.
(Agur: 87gaŕen zenbakian. Muniategi'taŕ Sabin'ena).

86. Jaunen jaunak ba-dira. (Heŕia 1185g.zenbakia: Kalifornia'tik).

87. Jaungoikoa gu guztiok baño gazteagoa da. (Hipona'ko Gotzai Augustin deunaren esana).

88. Jaungoikoaz geiago gogoratuko ba'giñake, mundua obeto litzake.

89. Joxe Moxe kitaŕa: auntzak añeko bixaŕa; Botako luke, botako luke Prantziraňoko puzkaŕa. (Gure umearoan esaten genduana Andoain'en: 1906-1912).

90. Kanpoko odolkiak etxekoak baño obeak. (Agur: 69gaŕen zenbakian).

91. Kandelero otz, negua joan da motz. (Saldis'ko esana).

92. Kanpantoŕe bakotxaren azpiaz ikastola bat. (Zirarda gotzai iauna Bilbo'n zala berak esana).

93. Tikia bañan neria!

94. Kuku-eluŕa. (Kukuak jo ta biaramonean dena zuri-zuri agertzea).

95. Lanik ez egitea eta alpeŕ-lan egitea biak orobat.

96. Zilaŕak itsuen begiak argitzen.

97. Lazkao, ikusi eta nazkau. (Agur, 87g.zenbakian Joxe Lasa'k).

98. Lezo'ko kultura, taberna zuloa. (Lezo'n maiz esaten duten esakun aaŕa).

99. Maite zaitunak negaŕ eragingo dizu.

100. Markina'n pelotia beti aidian.

101. Martxo, martxo!! Etxean buŕunba askotxo!

102. Martxoak zenbait izotz, Apirilak ainbat eluŕ.

103. Nai ba'dezu miñik gabe bizi, gose ez ba'zera ez ian.

104. Nori berea, zuzenbidea.

105. Osasuna, mundo ontako ondasuna. (ARTZAI-DEIA, 88g.zenbakia. Saldis).

106. Otsoari erortzean zaio kalpaŕa, baina ez laŕua.

107. Puxka ttipietan ageri da norat dabilan bandera. (Heŕia'tik, 1188-gaŕena).

108. San Blas, opila aberats. (Eibar'ko esakuna).

109. San Gregorio, eluŕa dario: San Jose'k lagunduko dio. (Zeruko Argia 1969, epailak 23: Amezketa).

110. ...San Joan Batiste, urtian bi aldiz ba'litze!! (Artzai-Deia, 98g. zenbakia. Saldis).

111. "San Joan eguna, argittu orduko iluna". Lo-zale (loti) gogoŕa zan Saldis'ko neskatxa batek au esan omen zuan. Gaxoak bere buruarekin naiko lan izan; nai aña lo egiten bere aitak ez uzten. Baiño San Joan egunean, aitak zer egin-ta!, batere ez zuan esnatu eta nai aña lo egiten utzi zion... Neskatxa, lo batean egon zan atsaldeko seizazpirek arte, batere esnatu gabe. Jeiki-ta prestaturik joan zen dantzara. Lau dantzaldi egin orduko, ilun-ezkila. Dantzarako aldia etoŕi orduko utzi egin beaŕa izan zualako, bota omen zuen ateraldi ori. (ARTZAI-DEIA'tik, zenbakia 98.Saldis).

111. San Joan, nola etoŕi ala joan.
Onek au esan nai du: Uste gabean etoŕtzen dirala San Joanek,

naiz amabi ilabete izan batzuetatik bestietara, eta batere uste gabe San Joan egunak joaten direla. (ARTZAI-DEIA'tik, zenbakia 98; Saldis).

112. San Jose'k, aurétik edo atzetik, lore txuriak botatzen,

113. Santa Lutzietan gaube da luze, San Bernabetan egune. (AGUR 29-gr. zenbakitik. Zeanuri).

114. Santanton arúsela montonton. (Agur, 82.gr zenbakitik. Bermeo).

115. Sarna fuera, biba San Joan bezpera. (ARTZAI-DEIA'tik: zenbakia 98).

116. Seme-alabak azi ta ere zârentzat nekeak bizi.

117. Tok zâra, ekatzak beria. (Oriako Alegi). (Ortza surtara botatzean esaten da.

118. Tranpatik bide motza ziok. (Alegia: irabazi uria =tikia).

119. Trikuak besteren kabian sarturik, bertakoak kanpora botatzen ditu.

120. Txanda, txanda, Jaungoikoa emanda. (Zeruko Argia 492-gr zenbakian).

121. Txokolo'k mingaña dulako itz-egiten dik. (Alegia: beste askok begiz ta eskuz ta orela beren itzei indar eta gatza ta piper ematen diela).

122. Zilardunek artega, beartsuak kezka gutxi. (Noski, aberatsek aberaskeri geiago metatu nai. Beartsuek, geienean, beren izateaz pozik).

123. Udako zomoro argizale. (Bere buruaren kaltez dabilen norbait).

124. Uliak eztitzearekin, ulitxak mentura ditazke. (Heria'tik 1181-gr. zenbakitik: Donamartiri).

125. Ura baño sua obe. (Alegia: sua itzali liteke. Uraren oldara zertaz garaitu? Soraluze).

126. Urte bari-bari, deukonak ez dokanari. Nik ez dot eta niri, ezpabe txari belari. (Agur: 69-gar. zenb. BASA-JAUN'ek Galdakano'tik).

127. Urte beri, asmo beri.

128. Urte beri, bizi beri. (ARTZAI-DEIA'tik: ilbeltza, 1973).

129. Urte zâŕ, joan da azkaŕ
Urte Beŕi, ongi etoŕi
Zorionak gauŕ deneri;
Aguŕ, Jaunak, aguŕ t'erdi.
(ARTZAI-DEIA'tik 1973, ilbeltza: Saldis).

130. Xeŕiak gataskan edo ahaŕan, eta aldiz *urdeak* akort. (Heŕia'tik 1181gŕ. zenbakitik).

131. Zâŕenak eta okeŕenak.

132. Xakuŕ txaŕa dena kukuso. (P. Aŕadoy: *San Frantses Jatsukoa*, 1966).

133. Zenbat ate, ainbeste maratila. (Aguŕ: IRIARTE'taŕ Jose Luis'ek, 81-gŕ. zenbakian).

134. Zertxo zâŕ asko ezertarako ez. Beŕi asko, beŕiz, zertarako diran yakin ez.

135. Zeŕi aulak ezkuŕa amets oi du beti.

136. Zidoŕ onak aña deusek ez du ematen.

137. Zilaŕa lagun ona, iabee txaŕa. (Bidaszo arunzko esakuna).

138. Zuhuŕaren egitea, guti edatea eta guti sinistea. (EGAN'en 1968).

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

Monografía de D. Xavier María de Munibe, Conde de Peñaflorida, por Gregorio de Altube.

La Epopeya del Mar, por M. Ciriaquiain-Gaiztarro. (Agotado).

Pasado y Futuro de la Real Sociedad Vascongada, por José M.ª de Areilza. (Agotado).

Historia del Monasterio de San Telmo, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

Elogio de D. Alfonso del Valle de Lersundi, por Joaquín de Yrízar.

Breves Recuerdos Históricos con ocasión de una visita a Munibe, por Ignacio de Urquijo.

La Real Sociedad Vascongada de Amigos del País y la metalurgia a fines del siglo XVIII, por Manuel Laborde.

El Real Seminario de Vergara en la Historia de las Escuelas de Ingenieros Industriales de España, por Manuel Laborde.

La vida y la obra del Conde de Peñaflorida, por el Prof. Dr. Leandro Silván.

Bibliografía de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País en el siglo XVIII, por Francisco Aguilar Piñal.

Filiación de los Seminaristas del Real Seminario Patriótico Bascongado y de Nobles de Vergara, por Julián Martínez Ruiz.

Las Ciencias Naturales y la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en el siglo XVIII, por Julián Martínez Ruiz.

REVISTAS

Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.

Ejemplar suelto	75 Ptas.
Suscripción anual España	250 »
Suscripción anual extranjero	400 »
Egan: Ejemplar suelto	50 »
Suscripción anual	90 »

Munibe. — Revista de Ciencias Naturales. Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo.

SAN SEBASTIAN